

Gipuzkoako herrien partaidetza hiribilduen unibertso korporatiboan: Tolosa, Segura eta Ordiziako kasuak Erdi Aro amaieran*

IAGO IRIXOA CORTÉS
Historian Doktorea-Ereiten K. Z.

Laburpena:

Erdi Aro amaierako eta Aro Berriko Gipuzkoan, jurisdikzio-botereak berebiziko garrantzia izan zuen lurraldearen antolaketan. Hainbat hiribilduk, beraien jurisdikziora erakarri zituzten populazio-guneez baliatuz, haien garrantzia politikoa areagotu egin zuten. Ordizia, Segura eta Tolosa horren lekukorik argienak dira. Prozesua ez zen, ordea, aldebakarrekoa izan, oinarrian bi alde sinatutako hitzarmena baitzegoen. Auzotzeak jasotzen dituzten dokumentuek, gehienetan antzeko klausulak adostu zituzten, baina hala ere, izan ziren beraien arteko ezberdintasunak. Xedapenek buru zen gunearen zentralitatea areagotzea bilatu zuten, beste komunitateen jarduna eta bitzta haren interesen mesedetan baldintzatuz edo azpian jarritz. Hau

(*) Ondorengo lerroek Ernesto García Fernández Doktore Jn.-aren zuzendaritzapean egindako eta 2016ko urtarrilaren 27an, EHU-UPVko Gasteizko Letren Fakultatean defendatutako “*Estudio de la vida urbana guipuzcoana: Los valles del Oria y Urumea en la Baja Edad Media*” doktorego-tesian oinarria dute, bertan adierazitakoei zenbait aldaketa eta hobekuntza egin zaizkielarik. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu Ernesto García Fernández berari eta lana “*Apto Cum Laude*” moduan baloratu zuen epaimahaiko kideei: presidente izan zen César González Mínguez doktoreari, epaimahaikide moduan jardun ziren María Álvarez Fernández, Ángel Galán Sánchez eta Luis Martínez García doktoreei eta idazkari karguan aritu zen José Ramón Díaz de Durana doktoreari.

delata eta, bi aldeen arteko harremanak ez ziren beti baketsuak izan. Tentsioen ondorioz gorpuztu ziren hitzarmenek neurri berriak jarri zituzten, auzotutako populazioei udalbatza-sistemaren hainbat esparrutan nolabaiteko parte-hartzea ekarri zielarik. Prozesu horien inguruko lerro nagusiak ezagutzen baditugu ere, oraindik badaude hutsune batzuk, eta horien inguruan arituko gara datozen lerroetan, aipatutako hiru hiribilduak ardatz hartuta.

Gako-hitzak: Gipuzkoa. XIV-XVI. mendeak. Auzotartzeak. Korporazio-jaurgoak. Segura. Ordizia. Tolosa.

Resumen:

En la organización política de Gipuzkoa durante fines de la Edad Media y la Edad Moderna, el poder jurisdiccional tuvo una trascendencia importante. Diversas villas, entre las que destacan Ordizia, Segura y Tolosa, consolidaron su peso político gracias al territorio y poblaciones que incorporaron a su jurisdicción. Este proceso no fue unilateral; su origen radicaba en un contrato firmado por dos partes. Aunque estos acuerdos de vecindamiento contaron con un esquema similar, hubo también disposiciones diferentes. Éstas tendieron a ratificar la centralidad de la población cabecera y a condicionar y supeditar en diversos aspectos a las comunidades dependientes. Debido a ello las relaciones no fueron siempre pacíficas. Las tensiones dieron lugar a la adopción de una serie de medidas que permitieron a las poblaciones participar, en cierta medida, en el diversos aspectos del sistema concejil. En este sentido, aunque conocemos las líneas generales de esos procesos, es una cuestión que todavía mantiene algunas lagunas y a ellas dedicaremos las líneas siguientes, tomando los ejemplos de las tres villas citadas.

Palabras clave: Gipuzkoa. Siglos XIV-XVI. Vecindamientos. Señoríos corporativos. Segura. Ordizia. Tolosa.

Summary:

In the political organisation of Gipuzkoa at the end of Middle Ages and during the Modern Ages, the jurisdictional power had an important transcendence. Many small towns, specially Ordizia, Segura and Tolosa, consolidated their political weight thanks to the territory and populations incorporated under their jurisdiction through contracts. This process was not unilateral. Its origins were rooted in an agreement signed by two parts and

even it was similar for many cases, we could see some differences between writings. Those contracts of residence tended to ratify the centrality of the main town, and conditioned and subjected the small communities in diverse spheres. This situation caused problems and relations did not go always peaceful. In fact, in spite of this marked central nature, tensions gave place to the adoption of disposals that allowed to the populations participate, to some degree, in the political system of the councils. Even if we know the general lines of these processes, the question still keeps some unknowns, and will try to analyse some of them in the following lines, taking the three small towns we have mentioned.

Keywords: Gipuzkoa. XIV-XVIth centuries. Contract of residence. Corporate dominance. Segura. Ordizia. Tolosa.

Laburdurak / Abreviaturas / Abbreviations

AEM: *Anuario de Estudios Medievales.*

AGS: *Archivo General de Simancas.*

aip. lan.: aipatutako lana.

AKM: Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala.

ald.: alderatu.

ARChV: *Archivo de la Real Chancillería de Valladolid.*

at.: atzealdea.

au.: aurrealdea.

BEHSS: *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián.*

DMVAMA: Donemiliaga eta Villalegreko Markesaren Artxiboa (Donostia).

EAE: Euskalerriko Adiskideen Elkartea.

IVAP: Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.

EHU-UPV: Euskal Herriko Unibertsitatea - *Universidad del País Vasco.*

fol. / folk.: folioa / folioak.

GAO-AGG: Gipuzkoako Artxibo Orokorra-*Archivo General de Gipuzkoa.*

GBBNN: Gipuzkoako Batzar Nagusiak.

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia.

GPAH-AHPG: Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa-*Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa*.

HH. EE.: Hainbat egile.

OUA: Ordiziako Udal Artxiboa.

RGS: *Registro General del Sello*.

SUA. Segurako Udal Artxiboa.

Gure Maddi txikiari, euskararen gotorleku eta etorkizun.

Sarrera*

Behe Erdi Arotik eta XVII. mende hasiera arte hainbat hiribildu gipuzkoarrek izan zuten ezaugarrien artean nagusienetako bat, beraien hedadura jurisdikzionalari lotuta egon zen. Pentsa daitekeenaren aurka, bereizgarri hori ez zen hiri-gutunaren itzalean edo hiribildu maila eskuratu zuten momentuan eman. Beraien barrutia osatzen zuen lurralde guztia, ez zitzaien erregeek estatus juridiko berria eman zieten momentuan egokitu; aitzitik, pixkanaka eta testuinguru jakin batean sortutako prozesu baten ondorio izan zen. XIV. mendeak, bereziki bere bigarren erdialdetik aurrera, prozesu adierazgarri bat ikusiko du Gipuzkoan. Hiribilduen inguruan zeuden eta ordura arte beraiangandik aparte ibilbide historikoa egiten ari ziren hainbat herri, populazio-gune pribilegiatu horien pean sartuko dira. Hasiera batean, auzotartze horiek XIV. mendean eman zen krisi garaiari estuki lotuta egon ziren. Testuinguru horretan sortu ziren gatazka ezberdinek Gipuzkoako lurraldean ezegonkortasuna areagotu zuten, bereziki landa eremuan; hiribilduek, aldiz, segurtasun eta ordena handiagoaren itxura ematen zuten, batez ere erregeek emandako mesede eta pribilegioen ildotik. Ikuspegi honek hiribilduen mugakide ziren hainbat herriren auzotartzea ekarri zuen, bertako eta Gipuzkoako (eta Gipuzkoaren) antolaketa politikoan eragin zuzena izan zuelarik. Honela, hainbat eta hainbat izan ziren hiribilduen jurisdikzio, justizia eta zuzenbidean barneratuta geratu ziren herrixkak.

(*) Artikulu hau euskaraz egiterako garaian, egun halakoak burutzeko ditugun hiztegi gabezia eta kontzeptu arazoak direla eta, artikuluaaren amaieran hitz-zerrenda txiki bat jarri dugu. Horrez gain, lerro hauetan zehar hiztegi horretan sartu ditugun hainbat kontzeptu eta hitz beltzez azpimarratzea erabaki dugu, berezi samarrak edo gure moldaketak direlako; horiek guztiak amaierako hiztegi-glosarioan ikusteko aukera izango da.

Historiografiak auzotze prozesu hau hainbatetan jorratu du. Batetik, hiribildu eta herrien arteko harremanak eta 1530etik aurrera areagotu ziren gatazkak aztertuz. Bestetik, XVII. mende hasieran herrixka horiek aurrera eramane zuten independentzia eta hiribildu titulua lortzeko prozesuetan begirada jarritz¹. Ikerketa hauetan, hiribilduek “**jaurgo korporatibo**” edo “**jurisdikzio-jaurgo kolektibo**” moduan izan zuten eraketa eta finkatze prozesua aztertzerakoan, irudi nahiko laua edo homogeneoa eman dela uste dugu. Egia da dokumentazioak hainbatetan itxura hori aditzera eman dezakeela, eta tesuinguru nagusi baten baitan ematen diren mugimenduak direla, baina horrez gain lekuan lekuko moldaketak izan ziren².

Lehenengo eta behin, “jaurgo” adieraren atzetik zer dagoen argitu behar dugu, izan ere, Gaztelako Koroan orokorrean eman zen fenomenoarekin alderatuta, Gipuzkoako kasuan hitzak esanahi berezia du. Koroan eman zen **udalbatza-jaurgo**aren eraketa, orokorrean erregeek populazio-guneei egindako dohaintza, truke edo salmenten bidez burutu zen eta ez, ordea, Gipuzkoan nagusi izan ziren auzotartze-hitzarmenen bitartez³. Gure

(1) Herri desberdinen inguruan egindako monografiak gain, edo Gorosabel bezalako egile klasikoak alde batera utzita, adibiderik adierazgarriena, zalantzarik gabe, honako ikerkuntza zehatza eta sakona dugu: TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación de las corporaciones locales guipuzcoanas en el entramado político provincial (siglos XVI-XVII)*, Donostia 1997, GFA. Ikus baita ere, TENA GARCÍA, M.^a S. “Ámbitos jurisdiccionales en el País Vasco durante la Baja Edad Media. Panorámica de un territorio diverso y fragmentado”, in HH. EE. *Pueblos, naciones y estados en la Historia*. Salamanca 1994, Universidad de Salamanca, 29-56 orr. Ald. DÍEZ DE SALAZAR, L. M. “Notas sobre el régimen municipal en Guipúzcoa (s. XIII-XVI)”, *Acta historica et archaeologica mediaevalia*, 11-12 (1991), 232-233 orr. (225-258); AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M. “Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615). Un caso modélico de preautonomía municipal en Gipuzkoa”, *Leyçaur*, 0 (1991) (zenbaki monografikoa). 2015ean, herri ugariaren banantzearen 400. urteurrena dela eta, lan ezberdinak argitaratu ziren, aipagarriena honakoa delarik: AYERBE IRIBAR, M.^a R. *Urnieta, de tierra a villazgo (1402-1615)*, Urnieta 2015, Urnieta Udala.

(2) Soledad Tenak, adibidez, auzotze-hitzarmenen inguruan honakoa zioen: “*nos recuerdan a una fórmula preestablecida que a una redacción realizada en el momento y para cada caso concreto de agregación*” (TENA GARCÍA, M.^a S. *La sociedad urbana en la Guipúzcoa costera medieval: San Sebastián, Rentería y Fuenterrabía (1200-1500)*, Donostia 1997, Dr. Camino, 168 orr.). Prozesuak duen esanahi jauntxotiarren inguruan, ikus TRUCHUELO GARCÍA, S., aip. lan., 29 eta 31 orr., zeinak, E. Lousse-n teoriak aintzat hartuz, “jaurgo korporatibo” edo “jurisdikzio-jaurgo kolektibo” kontzeptuak darabilzkien.

(3) Gaiaren paradigma, zalantzarik gabe, BONACHÍA HERNANDO, J. A. *El señorío de Burgos durante la Baja Edad Media (1255-1508)*, Valladolid 1988, Universidad de Valladolid, lana dugu. Ikus halaber, Burgosko kasurako, GUERRERO NAVARRETE, Y.

...

lurraldean, hiribilduen lurralde-hedapena kontratu baten bidez emango da, itxuraz borondatezkoa zena. Bertan bi alde edo partaide nagusi zeuden: hiri-bildu titulua zuen populazio-gunea, batetik; bestetik, bere inguruan kokatzen zen (edo ziren) komunitate edo herria, salbuespenak salbuespen hartzailea baino maila juridiko apalago batean zegoena. Hitzarmenak herrixka horiek hiribilduarekiko menpekotasun maila nabarmen batean utziko ditu, bereziki

...

Organización y gobierno en Burgos durante el reinado de Enrique IV de Castilla. 1453-1476, Madril 1986, Universidad Autónoma, 26-70. Jurisdikzio-jaurgoren inguruan, ESTEPA DíEZ, C. “El alfoz y las relaciones campo-ciudad en Castilla y León durante los siglos XII y XIII”, *Studia Historica. Historia Medieval*, 2 (1984), 7-26; ESTEPA DíEZ, C. “El realengo y el señorío jurisdiccional concejil en Castilla y León (siglos XII-XV)”. In: *Concejos y ciudades en la Edad Media hispánica. II Congreso de Estudios Medievales*. Madril 1990, Fundación Sánchez-Albornoz, 465-506; SANTAMARÍA LANCHO, M. “Del concejo y su término a la Comunidad de Ciudad y Tierra: surgimiento y transformación del señorío urbano de Segovia (siglos XIII-XVI)”, *Studia Historica. Historia Medieval*, 3 (1985), 83-116 eta, jakina, Salvador de MOXÓ zenak egindako ikerkuntzak, tartean “Los señoríos: en torno a una problemática para el estudio del régimen señorial”, *Hispania*, 94 (1964), 185-236 edota “Los señoríos: cuestiones metodológicas que plantea su estudio”, *AHDE*, 43 (1973), 271-310. Aragoiko kasu baterako, ald. CORRAL LAFUENTE, J. L. *La Comunidad de aldeas de Daroca en los siglos XIII y XIV: Origen y proceso de consolidación*. Zaragoza 1987, Institución Fernando el Católico.

Gaztelako egoeraren ikuspegi orokorrerako: BONACHÍA HERNANDO, J. A. “El concejo como señorío (Castilla, siglos XIII-XV)”, *Concejos y ciudades...*, aip. lan., 429-463. Bertan, eta adibide asturiarrak aintzat hartuz, prozesuaren sintesi oso interesgarria egiten bada ere, Gipuzkoako kasuari buruzko aipamen falta suma daiteke. Carlos Astaritak, aldiz, Tolosaren adibidea kontuan hartzen du, nahiz eta herrixkak zergadun edo petxari moduan bakarrik aurkeztu. Ikus, ASTARICA, C. “¿Tuvo conciencia de clase el campesinado medieval?”, *Los conflictos sociales en la Edad Media: balance y perspectivas. Edad Media*, 3 (2000), 95-96 (89-114). Ildo horretatik Juan Ignacio Ruiz de la Peña zenaren ikerkuntzek Gipuzkoako kasua hobeto aurkeztu dute, Segura, Tolosa eta Ordiziako berezitasuna azpimarratuz. Ikus RUIZ DE LA PEÑA SOLAR, J. I. “Los señoríos urbanos en el norte de la Península durante la Edad Media”, *Asturiensia medievalia*, 6 (1991), 205-229, bereziki 213-216. Berriki, eta Aro Berriko Gaztelako testuinguruaren baitan, TRUCHUELO GARCÍA, S. “Villas y aldeas en el Antiguo Régimen: conflicto y consenso en el marco local castellano”, *Mundo Agrario*, 27 (2013ko abendua). Prozesu hauetan guztietan Asturiasko kasuak antzeko adibideak aurkez ditzake. Orokorrean botere gorenaren (hau da, monarkiaren) baitan dauden gehitze, eransketa, anexo edo beretzeak dira, baina askotan, auzotartutako herri edo parrokiek beraien izaera juridikoa eta nolabaiteko autonomia maila bat mantendu zuten. Paragrafo hauetan lantzen ditugun auzotartzeen inguruan, Avilésarako dauden bi adibide aipa ditzakegu: Gozongo 91 biztanleek 1304an sinatutako jurisdikzio-barnertatzea eta bereziki, Illasko biztanle guztien auzotzea, 1386an. Badirudi bietan hiribilduen arteko hitzarmenen aurrean gaudela, eta merkataritza eta ekonomia interesek bultzatuta, Avilésara sartzeko erabakia hartu zutela. Hala ere, prozesu hauen atzetik populazio ezberdinen arteko gatazkak ere ezkatzen dira. 1309an Fernando IV.ak Gozón, Carreño, Corvera, Illas

...

jurisdikzio aldetik. Auzotartzeen bitartez, hiribilduko justiziaren eta honen ordezkari ziren alkateen esparrua, hiri-gutunak finkatzen zituen mugetatik haratago zabalduko da. Ez dugu ahaztu behar auzoratzera arte herrixka horiek hiribildutik eta honen jurisdikziotik at zeudela. Ondorioz, hitzarmenak alkatearen barrutia handituko du.

Justizia emateko gaitasun jurisdikzional hori izan zen herrixkek hiribilduarekiko zuten menpekotasun horren adibiderik argiena eta esanguratsuenena, hiribilduak ez baitzuen populazio-gune berrien esparru guztietan eragin bera izan. Esaterako, hiribilduek ez zuten auzotartuek alde aurretik zituzten gobernu-erakundeen gaineko kontrol jardunik izan; ez zieten biztanle berriei **mendeko** trataera eman; herrixkek, lehenagotik zituzten lur eta beselako ondasunen administrazioa eta kudeaketa mantendu zuten. Baina, hala ere, izan ziren hiribilduaren itzala areagotua ikusi zuten alorrak. Justiziarekin batera fiskalitate esparrua izan zen horietan nabarmenena, zalantzarik gabe. Hiribilduak auzo berriei dirua ateratzeko gaitasun fiskala lortu zuen, nahiz eta bi aldeek zituzten gastu amankomun batzuetara mugatu. Diru kontuak beti izan dira korapilatsuak eta aurreko mendeetan ere, antzera gertatu zen. Gaiari dagokionez, ustezko izaera “amankomun” hori izan zen buruhauste bat baino gehiago ekarri zituena⁴.

...

eta Castrillóngo lurak ematen zizkion Avilésko udalbatzari, honen **muga-barruti** bihurtuz. Halaber, Gozón inguruko biztanleak XIII. mende amaieratik gutxienez Avilésera auzotzen hasi ziren eta 1348an, adibidez, Illas eta Avilésen arteko hitzarmena sinatu zen, bizikidetzari buruzkoa. Azken horren arabera, lehenengo guneak berezko alkateak izendatzeko eskumena izango zuen. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu María Álvarez Fernández doktoareari, ildo horretan egindako oharrengatik, bai tesi-epaimahaiean zein honako lerroak burutzerakoan. Avilésko dokumentaziorako, ikus SANZ FUENTES, M.^a J.; ÁLVAREZ CASTRILLÓN, J. A.; eta CALLEJA PUERTA, M. *Colección diplomática del concejo de Avilés en la Edad Media (1155-1498)*, Avilés 2011, Ayuntamiento de Avilés, 71, 87, 90, 123 edota 144 dok. Bestalde, Azpeitain edo Bergarako kasuetan bezala, Asturiasen pertsonen auzotzeak ugariak dira, eta XIII. mendetik hori islatzen duten dokumentuak daude Tevergako kasuan ondo ikus daitekeenez. Azken honetarako, FERNÁNDEZ SUÁREZ, A. *Teverga, un concejo de la montaña asturiana en la Edad Media*, Oviedo 1992, Instituto de Estudios Asturianos.

(4) Ald. GUERRERO NAVARRETE, Y. aip. lan., 34 or. Beste kontu bat da “gastu amankomun” horien atzetik zer ezkutatu edo ulertzen zen. Jardun juridikzionalaren inguruan, Salvador de MOXÓ zenak zera adierazten zuen: “*el ejercicio de la autoridad sobre los hombres posee mayor importancia que la posesión del suelo*”, alor jurisdikzionala “*uno de los aspectos más complejos y significativos del régimen señorial*” bezala definituz (MOXÓ, S. de “Los señorios:

...

Hori da, lerro nagusienetan, hiribilduetara joatearen prozesuak ekarri zuena. Baina auzotartze mugimenduaren ikuspegi orokor honetaz haratago, errealitateak egoera ezberdinak islatu zituen. Eskritura guztien atzean “txantiloï” edo “eredu” moduan ikus daitezkeen lerro nagusiez gain, xedapen edo baldintza ezberdinak ageri zaizkigu, hitzarmen batetik bestera aldatzen zirenak edo behin bakarrik agertzen zirenak⁵.

Lekuan lekuko aniztasun hau izaera ekonomiko, finantzario eta fiskala zuten hainbat neurri eta arauetan islatu zen, eta guztiek berebiziko garrantzia izan zuten bi aldean arteko garapen eta antolakuntzan. Izan ere, denborak aurrera egin ahala bere garaian hitzarmena sinatu zuten bi aldean baitan aldatetarako jazo ziren. Lehenengo eta behin, auzotzeak bultzatu zituzten hasierako arazoak, segurtasun eta babes handiago bat bilatzen zuten horiek, hamar-kadak joan, hamarkadak etorri desagertu egin ziren. Erdi Aroko testuinguru ezegonkor hura konpontzen joan zen heinean, XIV eta XV. mendeetan zehar auzotartu ziren herrien eta beraien jurisdikzio-buru ziren hiribilduen arteko tentsio eta tira-birek gora egingo dute. Hori gertatzeko arazoi nagusia hiribilduek beraien pean zeuden lurralde eta auzotutako komunitateekiko zuten nagusitasunaren idearen baitan zetzan, beraien burua jaurgoko-kolektibo moduan ikusten baitzuten. Funtsean, eta hainbatetan ohartu den bezala, hiribilduek beraien barrutietan sartu ziren herriekiko zuten gailentasun ikuspegi hori, ez zegoen landa munduko hainbat leinuri eman zaien irudi jauntxotiarretik oso urruti.

...

cuestiones metodológicas...”, aip. lan., 286 or.). Miguel SANTAMARÍA LANCHO ikertzailearentzat, jurisdikzioa, zuzenean, honakoa izan zen: “*el principal de los medios de coerción extraeconómica de que dispusieron los grupos privilegiados de la sociedad medieval para mantener su situación de privilegio*” (“Del concejo y su término”, aip. lan., 83 or.). Carlos Estepak, aldiz, “jurisdikzio-jaurgo” hori funtzio horretatik haratago zihoala azpimarratzen zuen. Bere ustetan benetako jaurgo jurisdikzional batetik oso urrun geundeke; asko jota, udalbatza batek zuen nola-baiteko “jaurgo botere” batez hitz egin beharko genuke. Honen inguruan, ESTEPA DÍEZ, C. “El realengo y el señorío...”, aip. lan., 496-497 orr. Aragoian, adibidez, herriek justizia eskumena eskuratzen joan ziren, hiri edo hiribilduen kaltetan, eta han, gurean ez bezala, hamabiek izan zuten ardura hori. Ald. CORRAL FUENTE, J. L., aip. lan.

(5) Honen inguruan oso interesgarriak dira Ernesto García Fernández-ek berriki idatzitakoak. Ikus GARCÍA FERNÁNDEZ, E. “Teoría y praxis política en el País Vasco a fines de la Edad Media: los gobiernos urbanos y los vecinos de la Tierra”, in MONSALVO ANTÓN, J. M.^a (arg.) *Sociedades urbanas y culturas políticas en la Baja Edad Media castellana*, Salamanca 2013, Universidad de Salamanca, 71-121 orr.

1. Hinterland edo inguruko lurraldera hedatzeari buruzko ohar batzuk

XIV. mendeko egoera zailak populazio-gune ugariaren auzotartzea ekarri zuen, geroz eta nabarmenagoa zen tentsio eta indarkeriaren ildotik eta honi aurre egiteko asmoz. Arrazoi nagusia babes handiagoa bilatzea zen, hiri-bilduak eta bere alkateek ematen zuten ustezko sendotasun edo segurtasun horren itxuraz baliatuz. Honek guztiak herrientzako arrimu handiagoa ekarri zuen, baina honekin batera, hiribilduei ere etekinak lortzeko aukera eskaini zien. Beraien jurisdikzio ondoan zituzten lurretara hedatzeak, eraginpean izango zuten eremua handitzeko eta herrixka horiekin alderatuta zuten natura pribilegiatua areagotzeko aukera bikaina eman zien.

Hasiera batean, auzotartze-hitzarmenak egiteko ematen ziren arrazoiak defentsa izaera garbia zuten, idatzietan islatzen denari erreparatzen badiogu, bederen⁶. Hau guztia Europa osoan bizi zen egoera ezegonkor orokorraren ildotik ulertu behar dugu. Gipuzkoan bertan arpilatzeak eta populazio-guneei egindako eraso edota jazarpenak oso ohikoak izan ziren XIV. mendeko lehen erdialdean. Baina barne arazoez gain, auzotartze mugimenduen akuitu moduan beste faktore batek indarra hartu zuen, erresuma ezberdinen arteko ezegonkortasun politikoak, hain zuzen ere.

Tentsioa 1366 ingurutik areagotzen joan zen. Urte horretan Libourneko tratatua sinatu zen eta bertan ezarritakoaren arabera, Gaztelako errege Pedro I.ak Nafarroako erresumari Gipuzkoako lurraldea (eta Araba eta baita Errioxako zati bat ere) itzultzeko konpromisoa hartu zuen. Horrez gain, izan ziren nafar eta gaztelar monarkien arteko talkak, eta Gaztelako Koroan bizi zen gerra zibilak ere aintzat hartu behar dugu. Testuinguru honetan hainbat leinu gipuzkoar Nafarroako Karlos II.aren meneko bihurtu eta monarkia horren kanpainetan parte hartu zuten, gure lurraldean ezegonkortasuna areagotuz. Horren lekuko Nafarroak Gipuzkoa berreskuratzeko ahalegina dugu, bertako zati bat bere kontrolpean geratu zelarik. Pedro I.aren porrotaren ondotik, Endrike II.aren agintaldiak Libourne-ko hitzarmena bertan behera utzi zuen eta horrekin batera, hainbat leinu gipuzkoar, pixkanaka, Nafarroarekiko basailutza edo menekotasun harremana hausten joan ziren. Urkiola leinua izan zen horren lekuko. 1372ra arte Ataungo gazteluko alkaide postuan aritu ziren, baina Gaztela eta Nafarroaren arteko gerrak 1378an eztanda egin zuenean, Gipuzkoarako bidea egin zuten. Guztiek ordea, ez zuten berdin jokatu; hala, Oiartzungo Ugarte leinuak eta Amezetako eta Senpereko jaunek Nafarroako

(6) Batzuetan, halakoak aitzakia gisa ulertu behar direla uste dugu, Errenteriako hiribildutasuna horren lekuko garbia delarik.

monarkiarekin loturak mantendu zituzten⁷. Edonola ere, Trastamara dinastiak Gaztelan eskuratutako garaipenak, Nafarroarekin sortutako liskarrek zein sinatutako akordioek⁸, barne ezegonkortasunarekin batera, Gipuzkoako ekialdean, Nafarroarekin mugan edo bertatik gertu zeuden hainbat herrixka, hiribilduetara sartzeko bidea egitera bultzatu zituztela ematen du; auzotze-hitzarmenetan adierazitakoei so egiten badiegu, babes sendoago bat bermatzen zuen sistema juridiko-politiko batera, hain zuzen ere.

Arazo horiez gain, auzotze mugimendu hori posible egin zuen beste arrazoietako bat Gipuzkoako lurraldearen antolakuntza politikoaren baitan ulertu behar dugu. Pixkanaka hainbat korporaziok sortutako behin-behineko Ermandade, Anaidi edo Elkarteek, babes behar horren baitan erakunde berri bati leku egingo diote: Gipuzkoako Lurraldearen Anaidiari, hain zuzen ere. 1374 eta 1384 urte bitarteko dokumentazioa, herrixken auzotartze prozesuaren gorenaldia osatzen duena, prozesu horren lekuko bikaina da.

Hasiera batean, ekimen horiek lurraldean bakea ezartzeko asmoz egingo dira. Horregatik, protagonista ugariren partaidetza ikusiko dugu eta liskarrak ere, anitzak izango dira. Hor daude, adibidez, Ermandadea, hiribilduetako udalbatzak, Oñatz bandoa, Lazkaoko jauna, Lope Otsoa Ataungoa, Azpeitiko hiribildua, Beltran Gebarakoa eta Balda oinetxeko jaun zen Otsoa

(7) FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A. “La participación de la nobleza guipuzcoana en la renta feudal centralizada: Vasallos y mercenarios al servicio de los reyes de Navarra (1350-1433)”, in DÍAZ DE DURANA, J. R. (arg.) *La Lucha de Bandos en el País Vasco: De los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV a XVI)*, Bilbo 1998, EHU-UPV, 261-321; FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A. “Los señores de la guerra en la Guipúzcoa medieval”, in HH. EE. *Los señores de la guerra y de la tierra: nuevos textos para el estudio de los Parientes Mayores guipuzcoanos (1265-1548)*, Donostia 2000, GFA, 21-43. 1370ean, adibidez, Amezketako jaun zen Pero Lopez, naparren Mendietako Merio edo Ibar-jaun izaten jarraitzen zuen (HH. EE. *Los señores de la guerra...*, aip. lan., 184. dok.). Testuinguruaren eta gipuzkoar leinuen partaidetzaren inguruan, Ikus baita ere, ZABALO ZABALEGUI, F. J. “El reino de Navarra en la Baja Edad Media”, in *Historia del Pueblo Vasco, I*, Donostia 1978, Erein, 127-149. Libourne-ko tratatuaren inguruan, MUNITA LOINAZ, J. A. “Intereses político-estratégicos de Carlos II en Álava y Guipúzcoa: El Tratado de Libourne (1366)” in *La Formación de Álava. 650 Aniversario del Pacto de Arriaga (1332-1982). Comunicaciones, II*, Vitoria-Gasteiz 1985, Arabako Foru Aldundia, 763-775.

(8) Libourneko tratatuaren ondorioez gain, 1373 eta 1379ko Brionesko tratatuak ere aipatu behar ira, eta Karlos II.ak berak Frantziarekin zituen harremanak. Ikus VALDEÓN, J.; SALRACH, J. M.^a, eta ZABALO J. *Feudalismo y consolidación de los pueblos hispánicos (siglos XI-XV)*. *Historia de España dirigida por Manuel Tuñón de Lara, tomo IV*, Bartzelona 1981³, Labor, 396 or. eta hh.; SUÁREZ FERNÁNDEZ, L. *Navegación y comercio en el Golfo de Vizcaya. Un estudio sobre la política marinera de la casa de Trastámara*, Madril 1959, CSIC, 43-44 orr.

Lopez Baldakoa aurrez aurre jarri zituzten arazoak⁹. Bigarrenik, Gipuzkoako lurraldean sortutako ermandadeen berrespenak ditugu, eta horiekien batera, Gipuzkoak eta Nafarroak elkarrekin mugaldeko ezegonkortasuna saihesteko sortutakoarena, 1375ean berretsia izan zena. Azken urte horretan Endrike II.ak Ermandade-alkateekin lotutako hainbat ordenantza konfirmatuko ditu, justizia modu egokiagoan garatzeko asmoz. Agidanez, Gipuzkoako lurraldearen menditsuak eta isolamenduak lapurreta zein gaiztakeria anitz zekarten: “*la dicha tierra de Guipúzcoa es toda montanna e tierra apartada e se fazían los hurtos e los malefícios de noche e en los montes, que non podían ser luego guardada la dicha hermandat*”¹⁰.

Ezegonkortasunaren adibide are esanguratsuagoak dira 1378an Gipuzkoako Ermandadeak idatzitako xedapenak. Ordenantza horien helburua ezkutari, ibiltari eta gaizkileek (“*escuderos andariegos e malfechores*”) sortzen zituzten gehiegikeriekin amaitzea zen. Agidanez, halako ekintza gaiztoak bandoei estuki lotuta zeuden, baina ez hori bakarrik. Bando edo alderdi horien eragina Ermandadeko karguetara ere iritsi zen, merio moduan hautatzen ziren pertsonak bandokide baitziren¹¹. Halako adierazpenek interes jakin bat bilatu zezaketela pentsa dezakegu, egoera, zena baino larriagoa zenaren itxura emanetz. Baina arazoak benetakoak ei ziren, eta horren isla, xedapen horiek

(9) MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1370-1397)*, Donostia 1996, GFA-GBBNN, 345, 363 eta 365. dok.

(10) *Ibidem*, 367. dok. Eta tokian tokiko mailara joanda, bi adibide aipa ditzakegu. Batetik, 1382 urtea baino lehenago eta haustekundeetan erabiltzen zen sistema banderizoaren inguruan Arrasateko udalbatzaren eta Herriaren artean zeuden liskarrak, “*muy grandes discordias y peleas e contiendas e feridas e muertes en homes*” sortuz (*ibidem*, 446 dok.). Bestetik, Astigarragako biztanleen eta Murgiako jaun-andreen arteko hitzarmena, non Hernaniri ere eragiten zizkioen baldintzak ezarri ziren (*ibidem*, 447-448 dok.).

(11) “*Otrosy por rraçón qu’el merino o merinos que andare o andudieren e ovieren andar por uso en vuestra merindat que sea de vuestro pan e non escuderos de vandos*” (*ibidem*, 375. dok.). Modu honetan, ez da harritzekoa aurreko urteetan, Segura bezalako hiribilduek erregearengandik hainbat mesede lortzea, merio edo ibar-jaunek udalbatza-justizian zuten esku-hartzeari amaiera emateko, edota 1380an, Juan I.ak Pero Lopez Aialakoari eta beste merio bati emandako agindua, gaizkileak hartzen zituzten ahaltu eta ezkutarien aurka egiteko, epaileen aurrera eramaten ez zituztenaren aitzakiapean. Bandoek edota hainbat landa-leinuk hiribilduetako bizitzan zuten eragin edo esku-hartzearen erdua eta honen aurkako erreakzioa Seguran bertan dugu, 1374an sortu zen Errastiolazako Andres Donea kofradiaren ordenantzekin. Ikus *ibidem*, 435. dok.; DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática del concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500). Tomo I (1290-1400)*, Donostia 1985, Eusko Ikaskuntza, 50. dok.

...

ematerako garaian bertan lekuko zeudenen zerrenda ikusi besterik ez dugu; bertan, Oñatz eta Ganboa bandoetako hainbat ezkutari ageri dira.

Pentsa dezakegunez, egituraketa politiko hori ez zen barne-ekimenetan bakarrik oinarritu. Monarkiak berak prozesu hori areagotu zuen, bereziki Trastamararren Gaztelako tronurako borrokan lortutako garaipenaren ondotik. Erregeak udalbatzetan oinarrituko lurralde-gorputz bat eratzeke asmoa agertu zuen, landa munduko kapareek kontrolatutako eta ahaidetasun edo sasiahaidetasun loturetan antolatutako erakunde batzuen kaltetan¹².

Guri dagokigunez, herrixken auzotzeek Anaidian oinarritutako Gipuzkoako egituraketa politikoan eragina izango dute, elkarte, batasun edo ermandade horietan geroz eta populazio-gune gehiago egotea ekarri baitzuten. Ez hori bakarrik, denborarekin ondorio fiskalak ere izango dira.

Azpinarratu behar da auzotartzeak ez zituztela herrixka osoek edo biztanle komunitate handiek bakarrik protagonizatu. Batzuetan populazio bat hainbat jurisdikziotan banatu zen eta horrez gain, hitzarmenek pertsona bakar baten edo batzuen auzotzea ekarri zuten. Azken horien kasuak interesgarriagoak gerta daitezke, beste jurisdikzio batzuetan barneratzeko arrazoiak herrietan ematen direnak baino anitzagoak direlako: babes handiagoa bilatzen zuten horietatik landa munduko bando-leinuen ekimenak sustatzen zituzten ekimenetaraino, hiribilduetako auzoek lortutako pribilegioez gozatzeko asmoak ahaztu gabe. Prozesu hauek guztiak ere ez ziren denbora berean jazo. Gure esparru geografikoari dagokionez, XIV eta XV. mendeen artean emango dira, herrixkekin gertatu bezala, eta batzuetan, Seguran legez, auzotze prozesuari

...

Era berean, alkatetza nagusien bihotzean sortutako hiribilduak ditugu, 1383an Zestoa eta Urretxu adibide argiak direlarik. Hiri-gutuna hauei (eta bereziki, lehenengoari) luzatzea, babes behar agerikoak emateko egin zen, baita “gizon ahaltsu edo boteretsuen” gehiegikeriak ekiditeko ere. Lehenengoaren sorrera, Aizarnako Andre Mariako eliztarrek eskatuta egin zen, arrazoiak honakoak zirelarik: *“muchos males e dannos que auian rresçebido e rresçiben de cada dia de caulleros e escuderos poderosos de las comarcas de enderredor”*, eta Nafarroa eta Gaskoiniarekin muga egiteagatik. Ezin dugu ahaztu, ordea, aurretik Saiazko Alkatetza Nagusiaren barnean zeudela. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J., aip. lan., 450 et 451 dok. Gaskoinia eta Nafarroako erresumen argudioa ere 60 urte leheneago erabili zen, Oreretan Oiartzungo Uriberria sortzeko emandako hiri-gutunean.

(12) Ald. MARÍN PAREDES, J. A., *“Semejante Pariente Mayor”. Parentesco, solar, comunidad y linaje en la institución de un Pariente Mayor en Gipuzkoa: los señores del solar de Oñaz y Loyola (siglos XIV-XVI)*, Donostia 1998, GFA, 90 or. eta hh. eta 156. oin-oharra, José Luis Banús-en ideiak bilduz.

hasiera eman ziona ez zen inguruko herrixka bat izan, pertsona bat baiziki (bere kasuan, Gartzia Lopez Zumarragakoak). Edonola ere, pertsona partikularren auzotzea islatzen duten dokumentuek, herrixkek protagonista dituzteneekin alderatuta bestelako baldintza edo parametroak dituzte, eta pertsona gutxi horien kasuan hiribilduarekiko menpekotasuna herrixkena baino nabarmenagoa izango da, salbuespenak salbuespen¹³.

Ezgonkortasun egoerak, halaber, ez zuen jurisdikzio-menpekotasun hori bakarrik sustatu, kontrako prozesuak ere gertatu ziren, hiribildu berriak sortuz. Honela, Ordizia, Segura eta Tolosak eskualdearen handitzea ezagutu zuten bitartean, Donostialdeari bestelako egoera bat egokitu zitzaion. Ordura arte populazio donostiarraren lurraldean zeuden Usurbilek eta Oriok hiribildu titulua eta Donostiarekiko independentzia eskuratu zuten 1371 eta 1379 urteetan, hurrenez hurren¹⁴.

(13) Hauen inguruan, ikus DÍEZ DE SALAZAR, L. M. “La vecindad en Hernani (1379-1429)”, *AEM*, 18 (1988), 367-382 orr.; IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., I. liburukia, 69-77 eta 86-94 orr.; eta TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 35-40, 45 eta 52 orr.

(14) Funtsean, Gipuzkoa barnealdeko herrien adibideak eta Usurbil eta Oriokoen, XIV. mende erdialdetik aurrera agerian zegoen testuinguru zailari erantzun ezberdinak eman zitzaizkionaren adibideak lirakeke. Joera ezberdin hauek arrazoï ekonomikoetan oinarria izan zezaketela pentsa daiteke. Auzotzeek barnealdeko populazio-gune txikiei eragin zieten, beraien jarduera nagusiak lehenengo sektorearekin lotutakoak zirelarik, abeltzaintza bereziki. Hauen aurrean, kostaldetik gertu edo ibaien bokalean kokatutako komunitateek hiribildu maila eskuratzean, arrantza, burdin esportazio edo merkataritza dinamikak ekarritako garapena ikus genezake, egoera honek sortutako behar berriei hobeto erantzuteko (ald. DÍAZ DE DURANA, J. R. “La recuperación del siglo XV en el nordeste de la Corona de Castilla”, *Studia Historica. Historia Medieval*, 8 (1990), 79-115 orr.; IRIJOA CORTÉS, I.; eta MARTÍN SÁNCHEZ, D. *Errenteria a inicios de la Edad Moderna (1495-1544)*, Errenteria 2012, Errenteriako Udala). Edonola ere, eta garapen ekonomiko baten eraginez sortutako fenomenoak izan bazen ere, babes beharrek eta komunitate horiek beraien burua modu zuzenago batean gobernatzeko nahiek hiribildutasun hori eskuratzeko prozesuan berebiziko akuilu izan zirela uste dugu.

Diogunaren adibide argia Orio dugu. Bere hiri-gutunari erreparatuta, interes ekonomikoek pisu nabarmena izan zuten, bereziki merkataritza jardueraren gainean ezarritako hamarren zaharra bezalako errege-zergak kobratzeko. Gertakaria XIII. mende amaieratik zetorren itzal luzearen adibidea zen, 1293tik gutxienez Orio burdin-esportaziorako Gipuzkoako puntu nagusienetakoa baitzen, Oartzungo portuarekin batera. Halaber, dokumentuan ematen ziren arrazoiei, testuinguruari lotutako beste bat batu beharko genioke: Gipuzkoako lurraldearen antolaketa politikoan hiribildu izatearen garrantzia, hain zuzen ere. Nolabait, Orioren barne-garapenak eta hiribilduen ereduaren arrakastak bat egin zuten bertakoek maila juridiko berri eta garrantzitsuago bat lortzeko ekimena abian jartzeko. Ohartu behar dugu arrazoï ekonomikoek burdinean oinarria izango zutela, oriotarren itsas-jarduera nabarmen batean baino; izan ere, hiribildu berriak itsasoarekin

...

Edonola ere, gune batek beste baten jurisdikzioan sartzeko zituen arrazoiak babesa bilatzetik haratago joan zitezkeen. Ezegonkortasunaz gain, hala-ko mugimenduak sustatzen lagundu zuten beste hainbat faktore ere izan ziren.

Alde batetik, eta Susana Truchuelok ondo adierazi bezala, hiribilduetan bizi zen araudi-dinamika. Hauetan nabarmenenak, hiribilduei erregeak emandako mertxede, pribilegio eta sariak ditugu. 1374 eta 1399 artean, hiribildu gipuzkoarretako auzoak, eta bereziki auzotze-hitzaermenak protagonizatu zituztenetakoez, errege-zergetatik salbuetsita izateko prozesua ezagutu

...

zuen lotura ez zen uste bezain sakona. Erdi Aro amaierako dokumentazioaren arabera, badirudi Orio eta oriotarren ekonomiak itsasoarekin baino, beste esparru batzuekin harreman estuagoa zuela (ibaia, basoa, harrobiak...). XIII eta XIV. mendeetan, merkataritza kontuak Donostia eta Getariako pertsonen eskuetan egongo ziren. Honen inguruan ald. ALBERDI LONBIDE, X. *Conflictos de intereses en la economía marítima guipuzcoana. Siglos XVI-XVIII*. Bilbo 2012, EHU-UPV, 90-96, 108-123 eta 1102-1106 orrialdeetan egindako hausnarketak; IRIXOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., pássim, eta berriki, IRIXOA CORTÉS, I. “¿Una pequeña villa costera medieval con escasa proyección marítima? Reflexiones en torno a la economía de Orio (Gipuzkoa) a fines de la Edad Media”, in MILLÁN DA COSTA, A.; AGUIAR ANDRADE, A.; eta TENTE, C. (arg.) *O papel das pequenas cidades na construção da Europa medieval*, Castelo de Vide 2017, Instituto de Estudos Medievais, 317-339.

Usurbili dagokionez, arrazoiek babes kutsu nabarmenagoa zuten, eta hiribildu maila lortzeko ekimena Donostiarekin zeuden ika-miketean oinarrituta legoke. Harremanak gaiztotzearen zergatiari artean, Urumeako hiribilduak Oriako ibietan kokatzen zen herriarekiko zituen babes eta laguntza betebeharrak ez betetzea legoke, Oiartzunekin 1237 urte inguruan gertatu bezala. Honela, laguntza eskas honen aurrean, baliteke Atxegatarren aurka zeuden inguruetako hainbat leinu, familia edo biztanlek hiribildutasunaren ekimena abian jartzea. Beraien aburuz hiribildu titulua eskuratzea konponbiderik onena zatekeen, gune berria, non eta, Ganboa leinuko kideen eraginetik aldentuta zegoen leku batean eraikiz. Bertakoek zuten defentsa horren beharra Lope Gartzia Salazarkoak emandako datuekin lotura zuzena izan dezake, ez baitugu ahaztu behar hirigutuna eskuratu baina lehenago, 1370 urte inguruan, Usurbilgo ibietan bandoen arteko liskarrak eman zirela, horietako batean Oñatz bandoko buru zen Martin Lopez Muruakoa hil zelarik. Ikus GARCÍA DE SALAZAR, L. *Las Bienandanzas e Fortunas: código del siglo XV* (arg. Ángel RODRÍGUEZ HERRERO). Bilbo 1955, s. n., XXII. liburua, 3 eta 4 tituluak. Egileak ez zuen liskarren datarik ematen, nahiz eta 1413 eta 1420 urte bitarteko gertakarien artean kokatu. Lehenengo talkan Oñatz bandoko buru zen Martin Lopez Muruakoa (“*mayor del bando de Oñez*”) hil zela aipatzeak, gure ustetan, 1332an aipatzen den eta 1357an hil zen pertsonara garamatza, edo bestela, bere izen bereko semera, zeina 1366 eta 1393 artean Andoain burdino-lako jaun moduan aipatzen den. Ikus HH. EE. *Los señores de la guerra...*, aip. lan., 10. dok; FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A., “La participación...”, aip. lan., 284-285 orr.; MARTÍNEZ DíEZ, G.; GONZÁLEZ DíEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J., aip. lan., 596 eta 548 dok., hurrenez hurren). Bigarren liskarrean, berriz, Otxoa Lopez Baldakoa “zaharra” hil omen zuten, ziurrenik, 1375ean aipatzen den pertsona bera. Ondorioz, Usurbilgo lehenengo talka hiribildu titulua eskuratu baino lehenago jarri behar dugu eta ez, aldiz, XV. mende hasieran.

...

zuten¹⁵. Halaber, ordenantza moduan gauzatzen ari ziren toki-araudiak daude. Hauetan hiribilduetako jardueri lehentasuna ematen zitzaaien, landa eremuetako populazio-guneek (hiribildu tituluak ematen zuen natura pribilegiatu hori ez zutenek, alegia) garatu zitzaiketenen aldean; modu honetan, araudi horien onurak aprobetxatzeko, ezinbestekoa zen hiribildu jakin bateko auzotasuna eskuratzea. Hiribilduarekin auzotartze-hitzarmen bat sinatzeak abantaila ekonomikoak zekartzan: herrixkek ekoiztutako soberakina hiribilduko azokara bidali zezaketen eta bertan irteera eman. Izan ere, nahiz eta hiribildutik at bizi, bertako auzo ziren, eta hara sartu zitezkeen kanpoko produktuen aurrean, jurisdikzioko herrixketakoek lehentasuna zuten.

Bestetik, zentraltasun ekonomiko kontuak ditugu. Hiribilduko merkatal dinamikari esker, bertan hainbat objektu, tresna edo material lortu zitezkeen, gertuko zein urrutiko lurraldeetatik zetozenak, eta halaber, hiribilduak nola-baiteko akulturazio eragile moduan jardun zitezkeen. Hiribilduak ere bere eskumen jurisdikzionalen areagotze hori bilatzen zuen, bertako biztanleen eta atzerriko zein inguruetako bisitarien beharrei hobeto erantzuteko aukera

...

Bestalde, Donostiak bizitako lurralde galera prozesuak beste bat izan zuen garaikide, oso interesgarri zein adierazgarria dena. Izan ere, Usurbil eta Orioko kasuekin alderatuta, bigarren mugimendu horrek Urumeako hiribilduarentzat kontrako esanahia izan zuen. Oriako herri horiek hiribildu titulua eskuratu arteko tartean Pasaiaiko portuaren jurisdikzioari buruzko hainbat epai eman ziren, 1376 eta 1377 urteetan hain zuzen ere. Biek errega-babesa jaso zuten 1379an eta modu honetan, Donostiak badiarekiko zituen eskumenak indartu eta areagotu egin ziren, Errenteriaren alde 1374an emandako epaiaren kaltetan eta azken honetan ematen ziren xedepanak alboratuz. Ordurako, Donostia Pasaiaiko badiaren gaineko kontrola sustatzeko zurrumbilano sartuta zegoen eta ondorioz, Orio eta Usurbilen galera ez zen oso larria gertatu, zer esanik ez lurralde horiek ekonomikoki horrenbesteko garrantzia ez zutenean eta Oiartzungo Uriberriak ez bezala, Donostiaren lehiakide arriskutsu ez zirenean.

Horiek ez ziren inguruan jazotako ekimen bakarrak izan. 1370eko hamarkadak inguruetan gauzak argitze aldera sustatutako beste hainbat mugimendu ikusi zituen. Ez da doakoa 1379 urte horretan bertan, Endrike II.ak beste dokumentu bat berrestea, Donostiak Andoain, Igeldo, Ibaeta, Artigak eta Zubietarekin auzotasunaren eta loturen inguruan sinatutako hitzarmena, hain zuzen ere. Halaber, berrespen hori gertatu eta hilabete batzutara, Hernanik eta Donostiak Urumearen ustiapenerako akordio bat erdietsi zen, ordura arteko ika-mikak eta eztabidak saiheste aldera. Ondorioz, 1371 urtetik aurrera aurkezten zitzaion egoeraren aurrean, Donostiak lur, espazio eta jurisdikzioak zehaztu eta finkatzeari ekin zion, geratzen zitzaion barrutiarekiko presioa areagotuz. Lurralde galeraren aurrean, hiribilduak bere menpe zegoen jurisdikzioaren gaineko kontrola handiagotu egin zuen, bereziki Pasaiaiko badiari dagokionez, baina baita hego-hegoekialdeari zegokionean ere.

(15) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 30 or.

emango bailioke¹⁶. Herrixken auzotartzeak botere eraketari lotutako prozesu baten instituzionalizazioa zekarren, eta prozesu horrek hiribildua eta bere udalbatzaren nagusitasun eta eragin politiko-ekonomikoaren sendotzea ekarri zuen¹⁷.

Hirugarrenik, herrixka batek hiribildu batera sartzeko asmoa agertzen zuenean, haren gizartea osatzen zuten hainbat taldek edo kidek zituzten berezko interesak ez genituzke gutxietsi behar. Legazpiko kasua diogunaren adierazgarri bikaina da. Bertan, olagizonak Segurako auzotartzearen aurka agertu ziren eta ondorioz, mugimendu hori sustatu zuten pertsonak edo sendiek beraien bizitza nekazaritza edo abeltzaintzan oinarritutako jardueretan zutela pentsa daiteke.

Laugarrenik, hiribilduetako jurisdikzioan sartzeko joera, harresi barnean bizi ziren auzoek herrixka horietan zituzten ondasun eta lursailen eraginagatik etor zitekeen, orain arte gutxi ikertutako esparrua bada ere. Hainbatetan, gune baten jurisdikzioan sartzea auzotzeare zegoen komunitatean ondasunak zituzten hiribilduetako auzoek sustatu zezaketen. Horri esker, jabetzek hiribilduari emandako pribilegioak aprobetxatzeko aukera lukete; honela, beraien zergadun maila pribilegiatu edo salbuetsi hori hiribilduetatik kanpo zituzten jabetzetara hedatzeko asmoa agertu zezaketen. Auzo horiek propaganda-tresna moduan arituko lirateke, hiribildura sartzekak zekartzan abantailak eta onurak herrixketan aditzera emanek. Honen adibide bat 1430 urtean dugu, Seguraren eta bere jurisdikziopeko guneen arteko liskarren ildotik esandakoetan. Datuen arabera, hiribilduko hainbat gizon-onek zergen laurdenetik salbuetsita geratu ziren herrietan jabetzak zituzten, Astigarreta, Gudugarreta, Idiazabal, Mutiolo eta Ormaiztegin hain zuzen ere¹⁸. Funtsean, auzotzearen aurretik bi aldeek

(16) Ald. ORELLA UNZUÉ, J. L. (zuz.); ACHÓN INSAUSTI, J. A. (koord.) *Guipúzcoa y el reino de Navarra en los siglos XIII-XV: relaciones, intereses y delimitación de la frontera*, Donostia 1988, Deustuko Unibertsitatea, 30-31 orr. Oinetxeen elkartzeko-prozesuan eta hiribilduak eratuko zituzten komunitateen baitan merkataritza harremanen garapenaren inguruan, ikus MARÍN PAREDES, J. A., aip. lan., 58-64 eta 70-71 orr.

(17) Francisco Javier Goikoleak ondo azaltzen duen moduan, iparraldeko guneetan mugaberruti zabalak garatzeko faktoreak “*estarán ligados al crecimiento del poder económico de los núcleos urbanos, y a la necesidad regia de administrar más eficazmente su señorío, para lo cual los monarcas debían favorecer a los concejos*”. Ikus GOICOLEA JULIÁN, Fco. J. “La expansión territorial de los núcleos urbanos y la articulación de las relaciones con sus aldeas en la Rioja Alta medieval”, *AEM*, 32 (2002), 294-295 orr. (293-331).

(18) Egia da, ordea, jabetza horiek zergak edo zorrak osorik ordaindu zituztela, salbuetsita zeuden herrixketako auzoek eskuratutako zituzten arte: “*que al tiempo que la dicha vesindad* ...

artean sortutako harremanak, herrixkek hiribildu batean txertatzeari ongi iriz- teko bidean faktore eraginkor bat izan zitezkeen.

Azkenik beste bi kontu azpimarratu nahiko genituzke. Batetik, auzotarte- prozesuen dinamika ezberdinak. XIV. mende erdialdetik eta XV. gizaldiko azken laurdenera arte ikusiko ditugun mugimenduek ez zieten testuinguru eta behar berdinei erantzun. Lehenengoetan babes eta defentsa arrazoiek berebi- ziko pisua izan zuten heinean, XV. mendeko azken hamarkadetan burututa- koak barne-ezgonkortasun egoera gainditua zegoeneko garaian eman ziren, bere lerro nagusienetan bederen. Azken hauetan ematen diren arrazoiak ez zeuden leinu banderizoekin edo erresumen arteko talkekin lotuta, esparru eko- nomikoarekin baizik. Eta hauen artean, Tolosa-Donostia bidean garatu zen Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko merkatal jarduera garrantzitsuak leku bere- zia izan zuen¹⁹.

Bigarrenik beste ideia bat dugu. Hedapen jurisdikzionalaren esparru lehenetsia edo adibiderik esanguratsuenak Segura, Ordizia eta Tolosa aldeak izan baziren ere, ez zen beraietara mugatu. Halakoak Gipuzkoako beste lekuetan gertatu ziren eta bestalde, ez zuten beti komunitate oso bat prota- gonista moduan izan: auzotartzearen bultzatzailea gune horretako biztanleen zati handi bat izan zitekeen, baina baita bertako biztanle gutxi batzuk ere²⁰. Halaber, lotura jurisdikzionalak beste gertakari edo prozesu batzuen baitan garatu zirela azpimarratu behar dugu. Hiribildu baten eta inguruko komunita- teen arteko harremanek ez zuten beti hiribilduetan horren ohikoak eta jurisdik- zio aldatze mugimenduen eredu hartu diren auzotartze-hitzaermenaren itxura

...
tomaron las dichas vesindades, que algunos buenos omes de la dicha villa avían en las dichas collaçiones algunas caserías e bienes e que estos tales bienes non obieren la dicha libertad de la quarta parte, e estas caserías e bienes que non avían la dicha libertad, que fueron de los mora- dores de la dicha villa”. Ikus DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática del concejo de Segura (Guipúzcoa) (1290-1500). Tomo II (1401-1450)*, Donostia 1993, Eusko Ikaskuntza, 162. dok., 197-198 orr. Auzotartzerako garaian populazio-buru izango zen guneko auzoek herrixke- tan zituzten jabetzen garrantziaren inguruan, ikus BONACHÍA HERNANDO, J. A. “El concejo como señorío...”, aip. lan. 442-443 eta 461-462 orr.

(19) TRUCHUELO GARCÍA, S., *La representación...*, aip. lan., 52-53 orr.

(20) Ald. TENA GARCÍA, M.^a S. *La sociedad urbana...*, aip. lan., 160-176 orr. eta, bere- ziki, Azpeitia bezalako beste kasuekin. Azken hauetan, auzotzeak pertsona talde handiek bidera- tzen dituzte, baina ez dute egitura erlijiosoetan oinarritutako antolakuntzarik; hau da, ez daude monastegi, baseliza edo eliza bati atxikiak eta talde horiek ez dute izen berezirik. Honen ingu- ruan, MARÍN PAREDES, J. A., aip. lan., 72 or. eta hh. Susana Truchuelok, bestalde, ez zuen hauen inguruan begirada jarri.

hartu; bestelako moduetan ere gorpuztu ziren. Hauen artean originaltasun handia izan zuena, zalantzarik gabe, hiribilduari hiri-gutunaren bitartez egokitu zitzaien eskualdean bertan komunitateen sorrera izan zen; hau da, denboraren poderioz hiribilduak berezko zuen lurraldean populazio-gune berriak garatzen eta antolatzen ikusi zuen prozesua. Funtsean, eta ikuspegi orokor batetik harago, auzotartze prozesuaren atzetik hamaika egoera daudenaren ideia legoke: jurisdikzio berrira pertsona bakarra, talde bat, herrixka bat edo beste hiribildu bat sartetik, populazio-gune pribilegiatu horiei zegokien lurraldean komunitate berriak sortzera arteko egoerak, hain zuzen ere²¹.

2. Oria Bailarako auzotzeak

XIV. mende erdialdetik emandako auzotze prozesuaren baitan Oriako hiribilduen kasua bakarra izan ez bazen ere, azpimarragarrietakoa suertatu zela esan daiteke, bereziki hartutako populazio-gune kopuru nabarmena dela eta: Segurak eta Ordiziak beraien eragina zortzi herrixketara zabaltzea lortu bazuten, Tolosak inguruko ia komunitate guztiak erakarri zituen, erran nahi baita hogeita hiru populazio²². Kuantitatiboki hiru kasuek, eta bereziki azkenak, Gipuzkoan gertatu ziren beste mugimenduekiko ezohiko adibideak osatzen dituzte, hala nola Bergara eta Urretxuko kasuekiko. Pentsa daitekeenez, eta aurreko lerroetan agerian utzi nahi izan dugun moduan, mugimendu horiek guztiak (edo ia guztiak) testuinguru orokor batean sartuta zeuden, baina halaber, hiribildu bakoitzak berezkoak zituen dinamikak eta bideak jarraitu zituen, bai ardatz kronologikoa aintzat hartuta, baita kuantitatiboki zein kualitatiboki ere. Beste modu batera esateko, hiribildu inguruetako komunitate guztiek ez zituzten hitzarmenak garai berean egin, ez ziren denak batera auzotartu eta, garrantzitsuena dena, hiribilduratze agirietan ez ziren beti baldintza edo klausula berdinak ezarri, nahiz eta eredu orokor batean oinarrituta egin.

(21) Gipuzkoako herri txiki edo auzune hauetako kudeaketa eta antolamenduari buruz, azken boladan Estibaliz GONZÁLEZ DIOS-ek egin dituen ekarpenak oso interesgarriak dira. Ikus, besteak beste, ikertzaile honen “El acceso al aprovechamiento de los montes comunales en comunidades rurales de época Moderna”, *Iura Vasconiae*, 1 (2004), 551-570; “Los montes vecinales en las comunidades rurales guipuzcoanas”, *Sancho El Sabio*, 27 (2007), 11-38; edota “La costumbre no escrita en las comunidades guipuzcoanas durante la Edad Moderna”, *Historia Agraria*, 60 (2013ko abuztua), 39-60.

(22) Lehenengo bien kasuan herrixka batzuetako etxeak sartu beharko genituzke. Ordizian, Lazkaoko biztanle gutxi batzuk. Seguran, aldiz, Gabiria eta Ezkioko hainbat.

2.1. Tolosa

Ikerketa gai dugun geografia-esparruan, Tolosa da, zalantzarik gabe, adibiderik garrantzitsuena. Antzinako Erregimenean, 1615 urteko mugimenduak jazo arte, bere hedadura jurisdikzionala oso garrantzitsua izan zen. Bere baitan hogeï populazio-gune baino gehiago hartzeak hainbat esparrutan ondorioak ekarri zituen, baita Probintziaren eta Batzar Nagusien antolaketa politikoa ere. Modu honetan, XIV. mende erdialdean hasitako prozesuari esker, hiribildu papergilea Gipuzkoako garrantzitsuenetako bat bihurtu zen, Donostiarekin batera.

2.1.1. Hedakuntzaren aro nagusia (1348-1390)

Ezagutzen dugun lehenengo auzotze-hitzarmena XIV. mende erdialdekoa da, hain zuzen Asteasu eta Alkiza 1348ko martxoan Tolosan sartu zirenekoa²³. Bitxia gerta badaiteke ere, jurisdikzio aldaketa prozesu honi hasiera eman zioten bi komunitateak ez zeuden Tolosatik hurbil; aitzitik, Donostia eta Aiztondoko Alkatetza Nagusiaren eraginetik gertu zeuden bi herri ziren. Egoera hau dela eta, hitzarmena sinatzearen arrazoi nagusitzat Tolosa inguru horietan eskuratzen ari zen geroz eta indar handiagoa hartu izan da. Joera honen lekuko 1339 urte hasieran emandako agiri batean dakusagu. Bertan, Fernan Fernandez de Sepúlvedak emandako epaia berresten zen, Tolosak eta Donostiak elkarrekiko arpilatzeen inguruan (*“prendas y tomas que se facían los unos a los otros”*) zituzten liskarrei amaiera emateko asmoz emandakoa²⁴. Arrasta Donostiaren aldekoa izan bazen ere, garbi erakusten du ordurako bi hiribilduen garapenek inguru bertsuetan begirada jarrita zutela eta horrek interes borroka bat eman zutela. Halaber, toki urrunagoetara joan gabe, Tolosak bere inguruetan zeuden lurralde eta populazioekiko zuen garrantzia areagotzen ari zelaren datuak ageri zaizkigu. Horren lekuko ditugu Ihurreko tenplua Tolosako Andre Mariaren parrokia-elizan sartu zenekoa. Gertakaria 1333an

(23) Izan ere, urte horretan bertan Bergarak eta Oxirondoko Andre Maria kolazioak beste hitzarmen bat sinatu zuten. TRUCHUELO GARCÍA, S., *La representación...*, aip. lan., 31 or.

(24) Tolosako udalbatza 5.000 maraitako isunera zigortu zuen. Eztabaidak 1338 amaieratik zetozen gutxienez, izan ere, 1339ko otsailaren 18an luzatutako dokumentua, Alfontso XI.ak epaileak emandako epaiaren argitalpena zen. Hasiera batean, epaia Pero Ramon Lazongoa, Bartolome Caberia eta On Nicolao de Maisón arbitroek laudoan eman zuten, eta ondoren (argitaratu baino lehen), Gaztelako Alkate Nagusi zen Gonzalo Sebastianek apelazioan berretsi zuen. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección de Documentos Medievales de las Villas Guipuzcoanas (1200-1369)*, Donostia 1991, GFA-GBBNN, 200. dok.

eman zen eta agidanez, duela 15 urtetik ordura arte, auzune horretako biztanleak Tolosara joaten hasiak ziren, gune hura hustuz²⁵. Hiribildua, beraz, leku erakargarria zen, eta bere garapena inguruetatik haratago zihoan.

Asteasu eta Alkizaren auzotzea azalduko lukeen beste arrazoi bat, bertako hainbat leinuren interesetan oinarrituko litzateke, eta hiribilduko auzo izaiteak zekartzan abantailez gozatzeko asmoekin lotura luke. Momentu horretan Tolosa bere aitonseme edo kapareen errolda burutzen ari zen, maila juridiko hori zuten auzoek **osteratea** ordaintzetik salbuesteko asmoz. Prozesu horrek bere ingurutako, gertu zeuden komunitateetako edota harago kokatutako Asteasu edo Alkizako biztanleei hiribildurako bidea egiteko arrazoi nagusi bat eman ziela pentsatu behar dugu; bereziki beraien gizarte-ezaugarriak hiribilduetan zeuden aitonseme askoren berdinak edo oso antzekoak baziren.

Auzotartze eskrituran ezarritako baldintzen artean, halako idatzietan gerora ikusiko ditugunak bilduko dira. Bertan, hiribilduko alkatearekiko eta gune hartzailearen hiri-gutunarekiko lotura ezartzen da. Auzo berrien epailea hiribilduko auzapeza izango zen, bera bakarrik, eta hiribilduak jasotako forua (kasu honetan, Gasteizkoa) izango zen administrazio eta gobernu-eredua. Alabaina, komunitate bakoitzak aurretik zituen ondasun eta errenten administrazioa eta gozamena mantenduko zituen, ordura arte gertatu bezala. Errenta horiek, gainera, populazio-gune bakoitzak hainbat beharrei aurre egiteko erabiliko zituen; besteak beste, zerga ezberdinen ordainketa, galtzada, harresi eta zubien konponketa; eta eliza-karguetan arituko ziren pertsonen aurkezpena (“*presentaciones de sus iglesias*”).

Hitzarmenak, XV. mendean eta XVI. mende hasiera artean hiribildu eta herrien arteko etengabeko talka-gai izango den esparruari so egiten zion: udalbatzak gastuei aurre egiteko erabiltzen zituen **gastu-banaketa** sistemari eta honek herrixketan izango zuen aplikazioari, alegia. Dokumentuaren arabera, gastu amankomun horiei aurre egiteko **taldikida** bat egitekotan, Tolosako udalbatzak auzo berriei hori egiteko asmoa jakinaraztera behartuta egongo zen. Batetik, herriak taldikida horietan parte hartzera behartuak zeuden

(25) Egile batzuen ustetan, oraindik 1347an hiribilduak ez zuen demografia handirik. Alabaina, 1346 eta 1349 artean egin zen biztanle erroldak ematen dituen datuak ikusita, populazio garrantzitsua zuela deritzogu; zer esanik ez, dokumentu horretan ageri den 250 auzoz osatutako zerrendak aitonsemeak bakarrik biltzen dituela aintzat hartuta. Ald. INSAUSTI, S. *Tolosa en la formación de la hermandad guipuzcoana*, Tolosa 1969, Gráficas Laborde y Labayen, 41-42 orr. Ihurreren sarrerari buruz, ikus baita ere, JIMENO JURÍO, J. M.^a *Tolosa. Historia y folklore*, Iruñea 2012, Pamiela, 95-96 orr. Ald. baita ere, ETXEZARRAGA ORTUONDO, I. “Parroquia, hábitat y comunidad en Guipúzcoa. Una propuesta para el estudio de sus relaciones entre los siglos XIII y XV”, *Domitia*, 12 (2011), 89-111 orr.

ala ez erabakitzeke. Bestetik, hiribildua eta herrien arteko gastu-banaketa 100 maraitik goragokoak izatekotan; halako kasuetan, hiribilduz kanpoko auzoei (“*a los vecinos de ffuera de la dicha villa*”) jakinarazpena egitea derri-gorrezkoa zen²⁶. Banaketak egiteko moduak, Tolosan garai hartan indarrean zegoen eredia ardatz izango zuen. Ez dugu bere inguruan berri handirik baina bai jendearen aberastasuna aintzat hartzen zuela. Dakigula, gutxienez bi maila-fiskalez osatuta zegoen, aberatsena eta txiroena, hain zuzen ere (“*ssegunt conbiene a los rricos e a los pobres*”).

Hitzarmen hau aitzindaria izan bazen ere, auzotartze prozesuak ez zuen berehalako jarraipenik izan eta mugimendu berriak ikusteko ia 30 urte itxaron beharko dugu. Alabaina, auzotartze prozesuaren bigarren katebegi hau ez zen nolana hikoia izan. Aurrekaria tresna egokia izan zela ematen du, garai eta egoera jakin batzuetan bederen. 1374ko martxoaren 11n sinatu zen hitzarmenean parte hartu zutenak ikusi besterik ez dugu, auzotartzeak mugimendu interesgarriak zirela ikusteko. Izan ere, data horietan ospatutako batzarrean, kontratua sinatu zutenak hurrengo mendeetan Tolosako jurisdikziopean egongo ziren hogeita hiru guneetatik hamazazpi izan ziren. Bertan zeuden Abaltzisketa, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Eldua, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Leaburu, Lizartza, Oresa eta Orendain²⁷. Data aintzat hartuta, badirudi ekitaldiak, Tolosak 1373 eta 1374an lortu edo berretsi zituen hainbat pribilegio, sari

(26) “*E quando a alguno o a algunos del algo de todos en común sse ouiere a ffazer ayuuda e gracia, antes que la ffagan los del dicho conçeio de la dicha villa, que ge lo ffagan saber a los vezinos de ffuera de la dicha villa, si tenidos an a ser a ello. Otrósí, eso mismo toda otra costa e despensa que por qualquier razón o manera que se ouiere a fazer por todos que sea de çient maravedis arriba, que ge lo enbien dezir que ge lo fagan saber a los vezinos de fuera de la dicha villa como dicho es*”. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección...* (1200-1369), aip. lan., 241. dok. eta ROLDÁN GUAL, J. M.^a *Colección diplomática del Archivo Municipal de Tolosa. Tomo I (1256-1407)*, Donostia 1991, Eusko Ikaskuntza, 19. dok.

(27) Dokumentua ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3 auzian ikus daiteke; agidanez, prozesuan bi dokumentu aurkeztu zituzten, jatorrizkoa eta 1379 urteko berrespenean txertatua zegoena. Ikus, Eranskin Dokumentala, 1-3 eta 5. Gorosabelek aipatua bada ere, orain arte argitaratugabe zegoen eta hori dela eta, ikertzaileek egile tolosarrak esandakoei jarraitu diete. Ald. GOROSABEL, P. de *Bosquejo de las antigüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa*. Tolosa 1853, Imprenta de la Viuda de Mendizábal, 26 or. eta berriki, TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 34 or. Gorosabelek herrien zerrendan bi Altzoak aipatzen zituen (Altzomuño eta Altzoazpi), nahiz eta dokumentuan “Altzo” bakarrik agertu. Bestalde, auzotartze-hitzarmen hau Gorosabelek berak 1412ko martxoaren 11n eta Gartzia Martínez Etxazarretakoaren aurrean Tolosak Amezketeta,

...

eta mesedez gozatzea bilatzen zuela²⁸, baina horrez gain, eta ohikoa izango denez, hiribilduak irudikatzen zuen errege-justiziaz eta babesaz profitatzeko asmoak agerian utzi zituen. Horien artean abeltzaintza aprobetxamenduaren inguruan sortutako arazoren konponketa zegoen, bereziki Aralar inguruetan interesak zituztenen artean zeuden eztabaidak.

Lehenengo baldintza auzotu nahi zutenei zuzendua zegoen. Halako asmoa agertzen zutenek hiribilduarekin etsaitu gabekoak izan behar zuten, edota etsai horiekin ez zuten lotura esturik edo inolako hitzarmenik izan behar (“*que non son enemistados e de treguas con enemigos*”). Hau dela eta, pentsatzekoa da kontratuarekin maila berria eskuratuko zuten biztanleen artetik, nafarrekin edota leinu banderizoeekin ageriko harremana zutenak at geratuko zirela; halakoei Tolosako auzo izatea debekatuko zitzairen.

...

Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Altzorekin egindako hitzarmen moduan aipatzen duen bera dela ematen du. Gure ustetan, 1412ko “Aroa” irakurri behar da (alegia, 1374 urtea eta nahiz eta bost herri soilik aipatu, baliteke zerrendan azaltzen ziren bost lehenengoak izatea. Eskribauari dagokionez, idatzia hainbatek ematen dute baina zinpetzen duen lehenengoa Gartzia Martinez bera da.

Ildo honetatik ohar bat egin nahiko genuke. Gorosabelek, ematen dituen eta gaur egun kontserbatzen ez diren eskritura eta datuetan fidagarritasun handia islatzen badu, guregana iritsi den dokumentazioa eta berak eskainitako informazioa alderatuta, hainbat desberdintasun topatu ditugu. Hala, Gorosabelek 1385ean Aduna, Amasa, Irura eta beraiekin batera, egile tolosarraren ustetan 1374an auzotartu ziren Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Leaburu, Lizartza eta Orexa Tolosaratu ziren. Gaur egun Amasa eta Irurari dagokion agiria gordetzen dugu bakarrik, Gorosabelek 1387an datatzen zuena. Albizturri dagokionez, 1384ko uztailearen 2ko agiria dugu, 1389ko abenduaren 5eko errege-berrespenean txertatua; tolosarrak, berri, herri horren auzotzea 1389ko azaroaren ([sic] abenduagatik] 5ean eman zela dio eta horren berrespene 1390ean izan zela. Ald. GOROSABEL, P. de, aip. lan., 26-27 orr. eta ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 29, 30, 33 eta 37 dok. Gorosabelek egindako irakurketa-akatsik nabarmentzen Andoain eta Tolosaren artean ustez 1516an ospatu zen auzotze-hitzarmen berria dugu. Data horretan egiten zena ez zen kontratu berri bat, 1475ekoaren kopia eskuetsia baizik. Datuaren irakurketa egokiaren berri eman zuten lehenengoak AYERBE IRIBAR, M.^a R., eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., 84 or. izan ziren. Ald. baita ere, TENA GARCÍA, M.^a S. *La sociedad urbana...*, aip. lan., 170 or. eta 200 oin-oharra, zeinak, Tolosak eta bere herriek 1435-1450 artean izan zuten auziari buruz egiten duen irakurketa okerraren ondorioz, auzotze prozesuan 1435, 1444 eta 1475 urteak mugarri jartzen ditu. Aipatutako prozesurako, TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 49-51 orr. eta, bereziki, LEMA PUEYO, J. A. eta TAPIA RUBIO, I. *Colección diplomática del Archivo Municipal de Tolosa. Tomo II (1420-1499)*, Donostia 1998, Eusko Ikaskuntza, 10. dok.

(28) Hain zuzen, auzotartzeak gertatu baino lehen Tolosak hainbat pribilegioren berrespen-idatziak lortu zituen. Batetik, hiri-gutunarena (1373ko abuztuan); bestetik, eta salbuespeni dagokionez, errege-janariarena (1374ko ekaina) eta 7.000 maraietako errege-eskariarena eta beste errege-zerga batzuen (1374ko uztaila). Ikus ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 23-25. dok.

Dokumentuan zehar hiribilduaren jurisdikziora sartzen zirenen betebeharrak eta ordainetan jasoko zituzten pribilegio, mesede edo abantailak tartekatzeko dira. Auzo berriak Tolosako alkatearen epaiean gelditzeko konpromisoa hartu behar zuten, baina era berean, alde bakoitzari berezko zituen udal-ofizialak izendatzeko eskumena bermatzen zitzaion: Tolosak bere alkate eta **hamabiak**, eta herrixkek, aldiz, beraien **hamabia**. Era berean, populazio-gune bakoitzak berezko zituen ondasun eta errenten administrazioa eta gozamen mantenduko zituen. Herrixken betebeharren artean ere, honakoak zeuden: Tolosako alkateak egiten zizkien deialdi eta epatzeetara joatea eta halaber, hiribilduko **ibiltariaren** soldata hiribilduarekin batera ordaintzea; hau da, udalbatzaren edo lekuko justizien aginduak betetzeaz arduratzen zen pertsonarena²⁹. Ordainetan, hiribilduak, berak zituen salbuespen-privilegioez gozatzeko aukera ematen zien; tartean, prestameroari hainbat diru ordaintzearen obligaziotik kendu egin zituen auzo berriak: “*los quite de la moneda que dan al prestamero e que sean francos e libres, como los vezinos e moradores del cuerpo de la dicha villa*”. Esparru fiskalari lotutako beste neurri bat adostu zen, herrixkan fieleri lotutakoa. Horren arabera, ofizial horrek eta hiribilduak hainbat gaie-tarako maileguak eskatzeko aukera izango zuten. 1348an 100 maraira arteko muga ezarri bazen, orain txanpon zaharreko 500 maraira arte igo zen. Halako kopurura iritsi arte, Tolosak eskaera eta kudeaketa askatasuna izango zuen, ez zien herriei inolako azalpenik eman beharke; eskatu beharreko dirua handiagoa bazen, ordea, auzo berrien iritzia jakitea nahitaezkoa suertatuko zen.

Bestalde, elkarri egindako gehiegikeriak barkatu egiten zizkieten, “*salvo las cosas que encobiertamente por furto fueron fechas*”. Halako idatzietan ia etengabe jasotzen den kontua izanik ere, oraingo agiriak aipamen horiek jartzeko arrazoiak zeudela aditzera ematen du. Izan ere, bi aldeek Azpeitiko Joan Perez Otarorakoa eskribau-publikoaren aurrean emandako eskriturei uko egiten zieten. Halako idatziak burutzea ez omen zen ezohiko kontua; urte batzuk beranduago, 1390ean, 1374an auzotu zirenetako udalbatza batzuek liskarrak izan zituzten Aralar mendiko lursailen inguruan. Horiek konpontzeko Tolosa

(29) Karguaren inguruan, zeinak probestu-betetzailerik edo hamabi-betetzailerik zituzten eskumenen antzekoak zituen, ikus PINO ABAD, M. “Los andadores de concejo en los fueros municipales castellano-leoneses”, *Cuadernos de Historia del Derecho*, 6 (1999), 273-300. Egile honek ibiltariaren funtzioen artean beste hainbat hartzen ditu: epaileen mandatuen mezularia, auzien garapena mantentzeko arduraduna, berme edo bahi-biltzailea eta zigor-betetzailerik (tartean atxilotuen torturazailerik). Pontevedran, berriz, pregoilari lanak bere gain hartzen zituen. Ald. ARMAS CASTRO, J. *Pontevedra en los siglos XII a XV. Configuración y desarrollo de una villa marinera en la Galicia medieval*, Pontevedra 1992, Fundación Pedro Barrié de la Maza, 288 or. Gureari dagokionez, Seguran 1426an agertzen zaigu. Ikus DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 146. dok.

izendatu zuten arbitro moduan, ordura arte lurraldeko hainbat jauntxo edo leinu garrantzitsuk izan zuten lekua betez³⁰. Dena den, eta ordezkapen prozesu hau eman bazen ere, oraindik lehenengo pausoetan gaude eta leinu horiek garrantzia izaten jarraitu zuten. Horren lekuko 1374ko auzotartze eskritura honetan lekuko gisa aritu ziren Lazkaoko jaun Migel Lopez Lazkaokoa eta bere anaia Joan Ruiz ditugu.

Azkenik, dokumentua berresteko helburuaz eta erregea hiribilduan zegoela profitatuz, Tolosak zera adierazten zion monarkari: “*que los moradores (...) de las dichas aldeas de Boçue e de las Çinco Villas e de Hernialde e Ahanoeta (...) fizieron postura e abenimiento de ser vezinos*” eta horren arabera, horietako inork ez zezala hitzartutakoaren aurka egin³¹.

Idatzi garrantzitsu honek ez zuen jarraipenik izan hamarkada batean, Albizturko biztanleen gehiengoa 1384ko ekainaren 2an Tolosaratu zen arte. Hitzarmen berria 10 urte lehenago sinatutakoaren oso antzekoa izan zen, baina bazituen hainbat berezitasun. Besteak beste, oraingoan albizturarren aziendei hiribilduko larreetan bazkatzeko aukera ematen zitzaienten, beti ere sagar, haritz eta pago-abuztua edo uzta errespetatzen bazuten. Modu honetan fruituak, bereziki sagarrak eta ezkurak, abereak sartu aurretik bilduko ziren³².

Hurrengo urtean, 1385ean, Irura eta Amasa izan ziren Tolosako jurisdikzioan sartu zirenak, Albizturrekiko hitzarmenean jasotako baldintza bertsuekin. Hala ere, oraingoan klausula oso adierazgarri bat ezartzen zen, Joan Lopez Larreakoa eta bere Irurako oinetxean bizi zirenak auzotartzetik at gelditzen baitziren. Hasiera batean, neurri hau hartzeko arazoia leinu-buru horrek sortutako arazoetan zetzala pentsa daiteke, baina hala ere, Larreari berari hiribilduaren menpe gelditzea gutxi interesatzen zitzaiola uste dugu. Horren adierazle Larrea bera hitzarmenaren lekuko izatea dugu; nolabaiteko arazoak egongo balira, bere presentzia ez litzateke guttiz ulertuko, tentsioak edo mesfidantzak sortuko lituzke. Eskualdean bere eragina nabarmena izan bazen ere, bertaratutakoek ez zuten inolako protestarik egin eta, modu honetan, jauntxo hura, hitzarmenaren nondik norakoaren berri zuzenean jaso zuen.

(30) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 34 or., 52 oin-oharra.

(31) Modu berean, eta Tolosan zegoela, Endrike II.ak Gipuzkoako merio edo ibar-jaunei akordioaren aurka inor joan ez zedila agindu zien, 1374ko uztailaren 5ean. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3.

(32) ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 29. dok. Bitxia bada ere, Gorosabelek ez zuen idatzi hau aipatzen.

Larrearen kontua alde batera utziz, oraingo eskriturak auzo berriei Tolosako ur eta larreak aprobetxatzeko aukera ematen zien, beraien abelburuak horietara bazkatzera eramateko baimena emanez. Halako xedapenek, ziurrenik, jarduera horiek eskualdean zuten garrantziaren seinale lirateke eta hitzarmenaren bitartez, auzo berriei jarduera ekonomikoen inguruan erraztasunak emango zitzaizkien. Hiribilduak, gainera, horren aldeko hautua egin zuen jarduera hori baimenduz, nahiz eta aurretik bi herrixketako hainbat auzo eta biztanlek horren inguruan arazoak sortu³³.

Horrez gain, 1384 eta 1385ean sinatutako bi hitzarmenek beste klausula interesgarri bat zuten. Tolosak bere erroten errentaren zati bat auzo berriei emateko konpromisoa hartzen zuen, eman zitezkeen gastu eta kostuei aurre egiteko asmoz. Agidanez, xedapen hau beste herriekin adostutako kontratuetan ere jazo zen, auzo berriei egokituko zitzaien zatia “*segund a los otros vezinos de Voçue e de las Çinco Villas, segund que les copiere en su parte*” izango baitzen³⁴. Aipamenak Bozueri orokorrean egiten badio ere, horren atzean Bozue Nagusiko mendi eta larreen komunitatea zegoela uste dugu, Amezketeta, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrainek osatzen zuten. Gune hauek guztiak 1374tik Tolosako jurisdikziopean zeuden, eta haien inguruan abeltzaintza jarduerekin lotutako arazoak ematen hasiak ziren. Are gehiago, Albizurrek auzotartze-hitzarmena sinatu zuen urtean herri horien artean ika-mikak sortu ziren, Aralarko aprobetxamenduaren inguruan³⁵.

(33) Azken afera hau egi dagokienez, aipamen orokorrak besterik egiten ez badira ere, baliteke Larreari berari erreferentzia egitea, leinu-buru horrek abeltzaintza munduari lotuta sortutako arazoekin; bestea beste, abelburuen atxikitze edo harrapaketa: “...*que el dicho çonçeio de Tolosa aya en su poder sus términos e pastos e heredades e montes (...) para fazer d’ellas e en ellos toda su propia voluntad syn embargo alguno de los dichos vezinos e moradores de Amasa e de Yrura, saluo que el dicho çonçeio de Tolosa les da en graçia espeçial a los dichos vezinos de Amasa e Yrura*” (MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección...* (1370-1397), aip. lan., 485. dok. eta ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 30. dok.). Idatzia 1389ko abenduaren 3ko errege-berrespenean txertatzen da. Gorosabelek 1387ko azaroaren 13ko data ematen zuen, baina egun, hilabete eta urtearen arabera ezberdinatsunak badaude ere, antzekotasunek (“3” eta “13”, “noviembre” eta “diciembre”, eta “87” eta “89”), berriz ere irakurketa-akatsen ingurukoak planteatzera garamatza. Amasaren inguruan, ikus *Historia de Amasa y Villabona*, Amasa-Villabona 2003, Amasa-Villabonako Udala, bereziki Jose Luis Orellak, batetik, eta José Angel Lema eta José Antonio Munitak, bestetik, Erdi Aroari eskainitako lerroak.

(34) Hala aipatzen bada ere, 1374an ez da errotari buruzko inolako aipamenik egiten, bai ordea, Ordiziako 1382ko auzotze-hitzarmenean.

(35) 1384ko uztaillean, Baliarrain, Orendain eta Ikaztegietak ordezkariek izendatzen zituzten, Amezketeta eta Abaltzisketarekin Aralarko lursail, larre, ur eta bazken inguruko eztabaidak jorrazteko. Ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección...* (1370-1397), aip. lan., 479 dok.

Diogun bezala, argi dago “Bozue eta Bost Hiribilduen” atzetik erakunde bakarra osatzen zuten Amezketa, Abaltzisketa, Orendain, Ikaztegieta eta Baliarrain zeudela; izan ere, bost herri izateaz gain, bostek Bozue Nagusiko partzuergoa osatzen zuten, Enirio-Aralar inguruen erabilera eta aprobetxamendurako sortutakoa³⁶. Erakunde hori 1409an eratu bazen ere, alde zuretik herrixka horiek inguru horietan larre, bazka, belar eta urak amankomunean gozatzen zituzten, auzotarte-hitzarmenetan adierazten zen moduan³⁷. Dena den, 1384 eta 1385ean auzotartutako herri berriak aurrekoen maila berean jartzeko arrazoiak ezezagunak zaizkigu. Kokapen geografikoaren aldetik ez du logika handirik: Tolosartutako herrixka berriak geografikoki urruti zeuden eta Nafarroako mugatik nahiko urrun. Haiekin lotutako arazorik ere ez dugu dokumentatu baina argi dago, ezezagunak zaizkigun arrazoiengatik, herrixken aldeko xedapenek Tolosak horiek bere jurisdikziora erakartzeko interesak islatuko lituzketela. Hori dela eta, ez da harrizkoa auzotartzeek ondorengo urteetan arrakasta izatea.

Hurrengo hitzarmena 1391ko urtarrilean sinatu zen. Agirian, Alegia hiri-bilduak eta Zizurkil kolazio edo parrokiak Tolosan sartzeko zituzten asmoak gorpuztu ziren³⁸. Bertako hainbat puntu aurreko dokumentuetan ezarririkotakoak ziren: bi aldeek berezko zituzten ondasunak mantentzea, ibiltariaren eskupekoaren ordainketa, prestameroari ematen zitzaion dirutik salbuestea, gastubanaketatik parte hartzea, alkatearen deialdi eta epatzeak betetzea eta bi aldeen arteko elkarrekiko barkamena. Azken horrekin lotuta, hitzarmenaren lehenengo artikulua auzotzen ziren populazioei Tolosako etsaien tregoatan

(36) Oroitu dezagun Bozue edo “Ozkue” Gipuzkoako antzinako bailaretako bat izan zela eta Areria eta Hernanikoaren artean zegoela (INSAUSTI, S. “División de Guipúzcoa en valles”, *BEHSS*, 8 (1974), 219-229 eta ARÍZAGA BOLUMBURU, B., *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*, Donostia 1990, Kriseilu, 1990, 13-19 orr.). Honek, hein batean, “Bozue eta Bost Hiribilduak” izenaren atzetik 1374an auzotutako herriak egotea pentsatzera garamatzake, izan ere, Berastegi eta Elduain Andoain, Urnieta eta Hernaniren mugakideak dira eta ondoan, hegoaldean, Berrobi, Ibarra, Belauntza, Gaztelu, Lizartza, Oresa eta Altzo daude, eta esan bezala, guztiak 1374an auzotu ziren. Ald. GOROSABEL, P. de *Diccionario histórico-geográfico-descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldías y uniones de Guipúzcoa, con un apéndice de las cartas-pueblas y otros documentos importantes*, Tolosa 1862, Imprenta de Pedro Gurruchaga, 113-114 orr. Bestalde, eta frogia idatzirik ez badugu ere, baliteke 1384 eta 1385 bitartean 1374ko hitzarmenaren moldaketak edo egokitze prozesu bat ematea, aurretik adostutako xedapenei abeltzaintzari eta gastuen ordainketari buruzko neurriak gehituz.

(37) Ald. TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 34 or.

(38) ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 33 dok. Oraingoan Zizurkili dagozkion kontuak aipatuko ditugu. Alegiaren kasua, hiribildu bat izaki, bereziagoa da eta beheago egingo diogu lekua.

ez sartzea agintzen zitzaien³⁹. Egituraketa politikoari dagokionez, Zizurkilek bere hamabia izendatzeko eskumena mantendu zuen, justizia-buru Tolosako alkatea izango zelarik. Azkenik, 1374an hainbat herrirekin egindako hitzarmenean sartu zen xedapen fiskala ere gehitu zen, 500 maraitako maileguari buruzkoa.

Urte gutxiren buruan, 1396an Alkizak auzotartze-hitzarmen berri bat sinatu zuten Tolosarekin. Oraingoan, eta 1348an ez bezala, bakarrik, Asteasu gabe. Ordurako azken hori Tolosatik banandu eta Aiztondoko alkatetzan sartuta egongo zen, bertako buru politikoa izatera iritsi zelarik. Idatzian ezarritako baldintzak ez ziren beste hitzarmenetan jasotako ezberdinak izan, eta oraingoan ere hiribilduak erroten errentaren zati baten lagapena adostu zuen⁴⁰.

Modu honetan, auzotzeak hasi eta ia berrogeita hamar urteren buruan, Tolosa eskualdeko buru bihurtuta zegoen. Jurisdikzioratze prozesu hau sustatzeko eta eskualdeko buru moduan bere lekua indartzeko interesak beste auzo-hitzarmen batean ere ikus daitezke, Alkizarena gertatu baino 6 urte lehenago idatzitakoa; Amezketeta eta Orendainekin 1390eko ekainaren 19an sinatutakoa, hain zuzen ere⁴¹.

(39) “Tregoatan sartzea”, laguntza militarrei lotutako kontzeptua da. José Ramón Díaz de Durana eta Jon Andoni Fernández de Larreaen hitzei jarraituz, laguntza hori emateko konpromisoa zekarren, ordainetan hainbat diru jasoz (“*implicaba la prestación de un servicio militar a cambio de una contraprestación económica*”) Ikus, DÍAZ DE DURANA, J. R.; eta FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A. “Las villas cántabras bajo el yugo de la nobleza: consecuencias sobre los gobiernos urbanos durante la época Trastámara”, in MONSALVO ANTÓN, J. M.^a (arg.), aip. lan., 58 or. (49-70).

(40) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 38 or. Ald. IRIJOA CORTÉS, I. “Asteasuko 1529ko errepartimendu bat”, *BRSBAP*, LXIII (2007), 305-307 eta IRIJOA CORTES, I. “El control de la gestión concejil: en torno a una rendición de cuentas de Asteasu (1502)”, *BRSBAP*, LXIV (2008), 647-658 (ikus baita *BRSBAP*, LXV (2009), 841-851. Gorosabelek zionenez, Alkiza, Asteasu eta Aduna 1386ko martxoaren 30ean auzotartu ziren, Gartzia Martinez Etxazarretakoaren aurrean egindako idatziari esker. Oraingoan, ordea, beste akats baten aurrean gaudela uste dugu. Egile tolosarrak ematen dituen dataren hilabetea eta eguna bat datoz 1348ko eskriturarekin, eta halaber, jatorrizko idatziaren kronologiak Aro Hispanikoa hartzen duela aintzat hartuta, moldaketak ere 1348 urtea ematen digu (1386-38=1348). Alegia, gure ustetan Gorosabelek Aroa eta K.o. datazioak nahastu zituen. Bestalde, 1348ko eskribaua Martin Martinez Etxazarretakoa zen, ez Gartzia, baina bien arteko abizen berdintasuna ikusita, hemen ere Gorosabelen irakurketa oker bat delakoan gaude.

(41) Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Quevedo, Fenecidos, 1860-2.

Ordurako, Gipuzkoako Ermandade edo Anaidiak bere lehenengo mugariak ezarriak zituen 1375⁴², 1378 eta 1387ko batzarren bidez, eta hilabete gutxiren buruan beste bat ezarriko zen, 1390eko abuztuko bileran. Hainbatetan aztertu den Ermandadearen eraketa prozesu honek, hiribilduak biltzen zituen erakunde horren pixkanakako sendotzea erakusten du. Irmotze hau, Anaidiak arazo jakin batzuei irtenbidea emateko zuen geroz eta garrantzia handiagoan dakusagu, bereziki gaizkileen aurka, baina baita leinu jakin batzuek bideratzen zuten indarkeria eta bestelako aferen aurka ere⁴³. Prozesu honen bidez, hiribilduak errege-justizia emateko leku lehenetsi bihurtzen hasiak ziren, banderizo edo hainbat landa-leinuekiko gailentasun politiko bat lortuz. Hierarkia berezi honen ildotik, hiribilduak ohikoak zirenak baino arazo korapilatsuagoei irtenbidea bilatzeko tresna egokiagozat hartuko ziren. Horrek, inguruetan kokatuta zeuden biztanle eta herrixkei haietan auzotzeko arrazoi bat gehiago emango lieke; haien jurisdikzioan sartuz, banderizo edo lurraldeko leinuen jardun judizial alderdikoitik atera eta zuzenagoak ziren beste batzuk erabiltzeko aukera izango zuten⁴⁴.

Hiribilduek irudikatutako justizia sendotasunaren ildo honetatik, Amezketara eta Orendainek sinatutako auzotze-hitzarmena bera baino, egun berean (1390eko ekainaren 16an) bi herrixkek emandako eskritura bat da

(42) Eta ziurrenik, aurreko saiakeraren bat ere bai, 1362ko maiatzaren 6an Pedro I erregea Gipuzkoako Lurraldearen ermandade-alkateei zuzentzen baitzitzaien. Ikus DÍEZ DE SALAZAR, L. M. “La Hermandad de la tierra de Guipúzcoa de 1387 (precedentes y contenido)”, *BRSBAP*, XXXVIII (1982), 106 or. (101-115).

(43) Izan ere Urretxuko batzarra, 1390 urtekoa, udalbatza-hauteskundeetan bandoetan oinarritutako sistemak sortutako arazoak konpontze aldera egin zen. Testuingururako, ikus, bereziki, LEMA PUEYO, J. A. “‘Por los procuradores de los escuderos hijosdalgo’: De la Hermandad General a la formación de la Juntas de la Provincia de Guipúzcoa (siglos XIV-XVI)”, in HH. EE. *El triunfo de las élites urbanas guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539)*, Donostia 2002, GFA, 63-66 orr. (59-113).

(44) Hipotesi honek indar handiagoa hartu dezake, horretan Nafarroarekiko muga finkatzeko asmoak eta abeltzaintzan oinarritutako lurralde-antolaketa hausteko nahia ikusten baditugu. Hain zuzen ere, lurraldea antolatzeko sistema hori landa munduko jaunek (Lazkaokoa tartean) sustatuko lukete eta beraz, prozesuak haien ahultzea bilatuko luke; hori dela eta, ez da harriztekoa haietako bat baino gehiago auzotarte-hitzarmenetan lekuko gisa ikustea, prozesuaren ikuskatzaile moduan. Honen inguruan, TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 34. orr., 51 oin-oharra, eta egile honek jarraitzen dion ACHÓN INSAUSTI, J. A. “‘Valer más’ o ‘valer igual’. Estrategias banderizas en la constitución de la provincia de Guipúzcoa”, in ORELLA UNZUÉ, J. L. (arg.) *El Pueblo Vasco en el Renacimiento (1491-1521). Actas del Simposio celebrado en la Universidad de Deusto (San Sebastián) con motivo del V.º centenario del nacimiento de Ignacio de Loyola (1-5 Octubre 1990)*, Bilbo 1991, Ediciones Mensajero, 55-75.

benetan azpimarratzekoa dena. Bertan, Tolosako auzo Gartzia Martinez Elduaraiengoa prokuradore moduan izendatzen zuten, Aralarko **barru-tien** inguruan zuten auzian aritzeko. Agidanez, bi herrien asmoa Baliarrain, Ikaztegieta, Orendain eta aipatzen ez diren beste populazio-gune batzuekin zituzten ika-mikak konpontzea zen, non eta Tolosako alkatearen aurrean, hiribildu baten justizia jarduna bideratzen zuen ofizialaren aurrean, alegia. Gatazka Tolosaren aurrean konpontzeko asmoek hiribildu horren indartze edo sendotzea islatzen badute, herri horiek guztiek urte hartako irailaren 21ean sinatutako hitzarmenak prozesu horren isla argiagoa eskaintzen digu. Idatzia Aralar mendilerroaren eta bertako bazka-larren aprobeitxamenduaren gaineko eztabaidak konpontzeko arbitro-epailea izendatzeko asmoz egin zen, eta bertan adierazten zutenez, epaile gisa Tolosako udalbatza bera hartu zuten⁴⁵.

Argi dago ordurako Oria ibai ondoko hiribildua lehen mailako auzialdia bihurtu zela eta horrek eskualdeko herrixkak bere jurisdikziopean sartzeko asmoak areagotu zituela. Modu honetan, landa-eremuari lotutako hainbat leinuren eragin politikoa apaltzen joango zen, herriak hiribilduaren justizian barneratuz eta, hitzarmen horietan adostutako hainbat neurriren bidez, komunitate txiki horiek hainbat abantaila lortuz. Ez dago zalantzarik; XIV. mendeko azken laurdenak Tolosarentzat eragin eta botere jurisdikzionalaren handitzea ekarri zuen eta honek ez ditu ondorio politikoak bakarrik ekarriko, fiskalitate eta ekonomia alorretan ere emanen dira⁴⁶.

2.1.2. Aldaketak XV. mendean zehar

XIV. gizaldiaren bigarren erdialdean garatutako mugimenduei esker, Tolosak bere inguruan zituen ia herrixka guztiak bere jurisdikzioera erakarri zituen. Bi ziren, ordea, eskualdeko salbuespenak. Batenaz, Villabonako hiribildua dugu. Nahiz eta 1390eko Batzar Nagusietan Tolosarekin ordezkaria partekatu, beherago ikusiko dugun moduan, garai honetan guztian beherago izatera independentea mantendu zuen, XV. mende amaiera arte.

(45) MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección... (1370-1397)*, aip. lan., 510. eta 513. dok.

(46) Hala ere, bide hori ez zen guztiz laua izan. Maldak eta malkarrak izan ziren, udalbatzak eta oñaztarrek 1378 eta 1392 urte bitartean sinatu zituzten itunak lekuko. Ikus ORELLA UNZUÉ, J. L. “Los orígenes de la Hermandad de Guipúzcoa (la relaciones Guipúzcoa-Navarra en el siglo XIII-XIV)”, *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía*, 3 (1984), 88 or. (25-100).

Bertzenaz, Andoain herri, parrokia edo kolazioa dugu. Populazio hau Donostiara auzotu zen 1379 urtea baino lehen eta ez da Tolosara lekualdatuko ia ehun urte berandu arte, zehazki 1475eko ilbeltzera arte⁴⁷. Donostiarekin XIV. mendean sinatutako kontratuak biltzen zituen baldintza edo nondik norakoan berri ez dugu, baina egoera horretan zegoela badakigu, 1379ko otsailaren 28ko agiri bati esker. Bertan, Endrike erregeak Andoain, Ibaeta, Igeldo eta Zubietak hiribildu donostiarrarekin sinatutako hitzarmenak berretsi egin zituen⁴⁸.

(47) 1379 urteko hitzarmenerako, TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 35 or.; eta AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., 71-76 orr. Ald. SILVÁN, L. *El término municipal de San Sebastián. Su evolución histórica*. Donostia: Dr. Camino, 1971, 46-48 orr., zeinak, 1476ko adostasun-hitzarmenaren bidez Donostiara bueltatu zela zioen. 1475eko kontraturako, ikus LEMA PUEYO, J. A.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 20. dok.; AYERBE IRIBAR, M.^a R. *Documentación medieval del Archivo Municipal de Azkoitia (m. s. XIII-1500)*, Donostia 1993, Eusko Ikaskuntza, 40 eta 41. dok.; eta AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., 8. dok.

(48) Eskritura honetarako, ikus Eranskin Dokumentala, 4. Edukiaren inguruan, ald. AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., 72 eta 75 orr. eta 37-38 eta 40 oin-oharrak; eta ZUBIMENDI, J. R. *Zubieta, mila urteko herria*, Usurbil 2000, Noaua!, 81-87 orr. Baliteke auzotzea berresteko beharra bi prozesurekin zerikusia izatea. Batetik, inguruan ematen ari zen lurralde eraldaketarekin; gogoratu behar da garai hartan Usurbilek independentzia lortua zuela eta Oriok ez zuela denbora asko iraungo maila politiko-juridiko hori gabe. Bestetik, Tolosa inguruetan jazotzen ari zen auzotzeekin. Dena den, ohartu behar dugu 1379ko dokumentuan aipatzen diren komunitate guztiak ez zirela, Tolosan, Seguran eta Ordizian ez bezala, Donostian auzotze-hitzarmen bidez sartu. Ibaeta eta Igeldori egiten zaizkien aipameneak, Altzari buruzko oharrarekin batera, beste prozesu bat islatzen dute: Donostiari forua eman zitzaionetik eratutako eta ziurren XIV. mendeko krisiaren baitan sustatutako prozesua, hain zuzen ere. Hau da, hiribildu donostiarrak berezko zuen lurraldean pixkanaka sortutako komunitateen aurrean gaude, oraindik administratiboki osatugabeko erakundeak (berezko elizarik ez izatea horren adierazgarri litzateke), baina bai beraien burua harresi barruko gunetik aldentuta, berezko talde izaera garatua zutenak. Ez ziren Donostiaren hiri-gutunaren aurretik sortutako eta gerora hiribilduak auzotze-hitzarmen bidez bereganatu zituen guneak. Egia da Altza eta Igeldori (“Hieldo”) buruzko aipamenak XII. mende erdialdeko dokumentuetan topa ditzakegula, Gartzia Berrezartzaileak eta Antxo Jakintsuak hurrenez hurren 1141 eta 1178an emandako dokumentuetan, hain zuzen ere. Gure ustetan, ordea, toponimo edo leku-izen horiek egoteak inguru horietan abeltzaintza jarduera garrantzitsu bat ematen zela islatuko luke, ez bildutako biztanle-komunitate sendo bat. Prozesu honek XIV. mendetik aurrera izango du berebiziko bultzada, inguruetan emango den eliza ezberdinen sorrerak ongi islatzen duen bezala: Altzako Martzial Deuna 1390ean eta Igeldo eta Pasai San Pedroko elizak XV. mende erdialdean, biek Done Petri edo San Pedro zaindari zutela. Ald. ARAGÓN RUANO, A. *La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen*, Bilbo 2009, EHU-UPV, 103-105 orr.; BARRENA OSORO, E. *La formación histórica de Guipúzcoa. Transformaciones en la organización social de un territorio cantábrico durante época altomedieval*, Donostia 1989, Deustuko Unibertsitatea, 101 eta 430-431 orr.; IZAGUIRRE, R. “Historia y toponimia donostiarras: El primer grupo de documentos referentes a San Sebastián de Hernani”, in *Homenaje a don Julio de Urquijo*.
...

Tolosarekin 1475 urtean sinatutako eskriturak aurrekoek zituzten hainbat eta hainbat puntu biltzen zituen, besteak beste hiribilduko alkatearen justizia-eskumenak edo gune bakoitzak zituen udal-ondasunen banaketa⁴⁹. Dena den, Andoain eta Tolosaren arteko auzotartze idatziak hainbat xedapen berri zekartzan, aurreko mendean gertatutako prozesuekin alderatuta testuinguru berri baten aurrean gaudela iradokitzen dutenak.

Nabarmenena, urtero Andoainek Tolosari ordaindu beharreko 2.000 maraiak ziren, “*por los trabajos que por la dicha universydad, así en Juntas commo en otras partes, han de aver*”; alegia, ordezkari-tza lanengatik. Hau Gipuzkoako Probintziaren antolakuntzaren baitan ulertu beharreko puntua du. Ordurako Ermandadeak eta bere batzarrek probintziako erakunde politikoan parte hartzeko hainbat mekanismo arautu eta sendotuak zituzten; horien artean hiribilduen edo bestelako populazioen jurisdikzioan sartutako herrixken interesen ordezkapena nola egin. Badirudi halako xedapenak nahiko berandu adostu zirela, ziurrenik auzotze mugimendua gorenaldia pasa ondoren. Izan ere, alor jakin bat arautzeko arrazoietako bat sortzen dituen arazoetan datza eta ordezkari-tzaren ingurukoak, beraz, herriek hiribilduetara egin

...

Donostia 1951, EAE, III. liburukia, 335-406; IZAGUIRRE, R. “Notas a la Donación de Leire. Contribución al estudio de los orígenes de San Sebastián”, *Euskalerraren alde*, 328-329 (1931), 129-169; LANDA, I.; eta ETXEBESTE, J. C. “Altzako Erdi Aroa izenez izen”, *Alta, hautsa kenduz*, II (1994), 69-84; LANDA, I.; eta ETXEBESTE, J. C. “Alta XIV eta XV. mendetan”, *Alta, hautsa kenduz*, III (1996), 51-72; LANDA, I. “Soroeta eta Sarroeta”, *Alta, hautsa kenduz*, VII (2003), 147-156; MURUGARREN, L. *San Sebastián-Donostia*, Donostia 1978, AKM, 68-71 orr.; SILVAN, L., aip. lan., 13-25 orr.; ZAPIRAIN KARRIKA, D.; eta MORA AFÁN, J. C. “Alta: De los cubilares al concejo. ‘Formación y características del régimen jurídico-político altzatarra’” *BEHSS*, 32 (1998), 535-578. Igeldoko San Pedro edo Done Petri elizaren sorrerari buruz, GOÑI GAZTAMBIDE, J. “Notas históricas sobre la parroquia de Igueldo (desde el siglo XV al XIX)”, *BEHSS*, 2 (1968), 65-76. Diogunaren inguruan, ikus supra, 14 oin-oharra eta supra, 289 oin-oharra.

(49) Hainbat egilek, 1379ko martxoan emandako errege-probisio bat aintzat hartuta, Andoainek herri-alkateak izendatzeko eskuduntza zuela diote, 60 marai arteko auzi zibilak epaitzeko eskumenarekin. 1475eko auzotzeak zein hori bideratzeko Andoainek emandako ahalorde eta prokurazio gutunak baina, ez dute egitura instituzional hori islatzen; aipatzen den kargu bakarra Andoaingo hamabia da. Ikus CAMINO Y ORELLA, J. A. *Historia civil-diplomático-ecclesiástica, anciana y moderna de la ciudad de San Sebastián con varias noticias particulares pertenecientes a la Provincia de Guipúzcoa*, 1892ko argitalpenaren 78-79 orr. (Donostia, Imprenta de los Hijos de I. R. Baroja) eta 1963koaren 68 or. (Donostia, Donostiako Udala). Ald. AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., 72-73 orr. Azken egile hauek Caminoren lanaren 1923ko argitalpeneko 132-133 orrialdeetan oinarrituz, alkateak epai zitzakeen prozesuak 4 marai artekoak zirela diote eta horrez gain, herri-alkateak Donostiako alkatearen aurrean zin egin behar zuela. Herri-alkateen inguruko gaiari geroago helduko diogu.

zuten prozesuaren ondotik eman ziren gorabeherekin ulertu behar dira. Hauek XV. mende erdialderako agerikoak ziruditen eta Ermandadearen 1457ko ordenantzek arazoari irtenbidea topatu zioten, ordezkari-tza sistema pribilegiatu bat ezarriz. Honen arabera, populazio-gune batzuetan auzotu ziren komunitateei Batzarretara berezko ordezkariak bidaltzea debekatu zitzaien⁵⁰. Zalantzarik ez dago Andoain eta Tolosaren arteko idatzian islatzen zen ordezkari-tzaren kontuak berebiziko garrantzia izan zuela, eta Probintzia antolatzen ari zen sistema baztertzailarekin zerikusia zuela. Munta horren lekuko XIV. mendeko hitzarmenetan esparru horren inguruan zegoen aipamen eza dugu, garai horretan oraindik Ermandadea finkatze bidean baitzegoen. 1475ean, berriz, Anaidia Gipuzkoako lurraldearen gehiena hartzen zuen egitura politiko bilakatu zegoen, behin Ahaide Nagusien erronka edo desafioa gaindituta.

Xedapen adierazgarri horrez gain, eskriturak udal-ofizialen lansarien inguruan neurriak sartu zituen. Batetik, pregoilari⁵¹ eta eskribauak landa eremuan bahiturak betetzean kobratuko zutena adostuz; bestetik, Andoaingo auzoren baten aurka ohiko justiziak egindako mandatuak betetzeagatik, Tolosako alkateari eman beharreko diruari buruzkoa.

Andoainekin otsailean sinatutako eskritura honek⁵² beste errealitate adierazgarriago bat islatzen zuen. Aurreko oin-ohar batean, Donostiarekin hitzartutako auzotzearen 1379ko errege-berrespena aipatzerakoan, Urumeako hiribilduaren jurisdikzio-mugak ezagutzen ari ziren aldaketek jardun gara. XV. mendeko azken laurdeneko Andoainen auzotze-eskriturarekin ere, beste horrenbeste egin dezakegu; izan ere, horren bidez Tolosak Donostiari Gipuzkoako ibilbide eta komunikabide garrantzitsuenetako baten kontrola lehiatzeko asmoa ziola ikus daiteke, argi eta garbi.

Modu honetan, XV. mendearen bigarren erdialdeko auzotzeak bultzatzeko arrazoietan ekonomia, fiskalitatea eta merkataritza lotutako argudioak leudeke, aurretik ezegonkortasunak zuen lekua bigarren maila batean geratuz, baita banderizoez eragindakoa ere. Dena den, horrek ez du esan nahi horrelakorik ez zegoenik; aitzitik, Andoaingo auzoak babesteko konpromisoa hartzen zuen Tolosak. Oraingoan ordea, etsaiak ez ziren landa munduko leinuak,

(50) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 67-69 orr.

(51) Agian XIV. mendean ikusten genuen ibiltariaren ondorengo moduan.

(52) Tolosako bilduma dokumentalean auzotartze eskrituraren erregistak data urtarrilaren 30a jartzen badu ere, egiaz otsailaren 7an gertatu zen, dokumentuak berak adierazitakoaren arabera. Andoainek hori bideratzeko emandako ahalordea, aldiz, urtarrilaren 30ekoa da. Ald. LEMA PUEYO, J. A.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 19 eta 20. dok.

baizik eta “*las fuerzas e violençias que les querrán azer qualesquier conçejos e personas singulares*”⁵³. Beste batzuetan halako hitzak zentzu zabalean hartu behar ditugu, baina Andoaingo kasuan beste udalbatzekin sortu zitezkeen arazoak aipatzea ez zen doako kontua. Oraingoan, esaldia Donostiak akordioari eman ziezaiokeen erantzunaren zeharkako aipamena zen; eta ez ziren oinarri-rik gabeko beldurrak.

Tolosak eta Andoainek hitzarmena sinatu eta hilabetera, 1475eko martxoan, Urumeako hiribilduak Tolosara auzotu berri zen herrixkaren gainean zuen jurisdikzioa errespetatu zedila eskatzen zien Gaztelako errege-erregina berriei, beraien aurreko izan zen Endrike IV.ak lotura hori berretsi zuela argudiatuz⁵⁴. Kontratuaren errege-baieztapen honen bidez, Andoainek urtero 1.000 marai ordainduko zizkion Donostiari eta gainera, herriko biztanleak hiribilduaren jurisdikziopean egotera behartuko zituen. Honek guztiak argi adierazten du Andoainen mugimenduak ez zirela 1475 horretan bakarrik eman, aitzitik, aurrekariak zeuden. Ondorioz, gaiaren larria ikusita, urte hartako martxoan Donostiak Andoaingo jarrera salatzeari ekin zion:

“*agora, la dicha tierra e vniuersidad de Ahinduan, que atienta nuevamente de se subtraer e apartar de la dicha vesindad e jurisdición de la dicha villa de Sant Seuastián e que de vn mes acá poco más o menos se somete a la vesindad e jurisdición de la dicha villa de Tolosa, obligándose de no salir de la dicha vesindad de Tolosa*”.

Auzo aldaketak aurreko egoera irauli zezakeen eta honen aurrean Donostiak ohartarazpen esanguratsua egiten zuen. Bere ustetan, mugimendu berriaren ondorioz “*se esperaua reqresçer grandes ynconuenientes e escándalos e muertes de omes entre las dichas villas de Sant Seuastián e Tolosa e será cabsa de diuisión en toda la Prouinçia de Guipúscoa*”. Monarken hasierako erabakia Donostiaren aldekoa izan zen; jabetza hiribildu horri berretsi zioten, Andoain haren jurisdikzioaren barruan zegoela frogatzen zuen heinean bederen. Alabaina, hori lortze aldera Donostiak erabili zituen argudioak ez omen ziren oso sendoak izan, azkeneko ebazpena Tolosaren aldekoa izan baitzen.

Diogunez, natura horretako mugimendu edo arazoak ez ziren berriak. Andoainen asmoek zehazki zenbat denboraz zeramaten ez dakigu, baina Donostia eta Tolosaren arteko ezinikusiek hamarkada pare bat baino gehiago

(53) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, 52-53 orr.

(54) AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., 75 eta 81-82 orr. eta 9. eranskin dokumentala.

zirautela pentsa daiteke. 1475ean Donostiak bere jurisdikzioan zegoen populazio-gune bat galtzeko arriskua bazuen, hogeita bost urte lehenago, 1450ean, guztiz kontrakoa erdietsi zuen: Tolosaren eta honen herrixken arteko liskarren ondorioz, Zizurkil, Aduna eta Alkiza Donostiaratu ziren, Oriako hiribilduaren kaltetan. Jurisdikzio aldaketa hori ez zen berehalakoan aldatuko. Azkeneko biek Urumeako hiribilduaren barruti izaten mendeak emango dituzte eta Zizurkil, berriz, hainbat hamarkadaren ondoren berriz ere Tolosara sartuko da, oso testuinguru esanguratsu batean: Andoainek egin eta hainbat hilabetera, eta batez ere, Zizurkilgo ahaide nagusi zen Donemiliagako jaunak Tolosan auzotu eta urte gutxi batzuetara⁵⁵.

Zizurkil Tolosara sartu zenekoa 1475eko urriaren 22an izan zen⁵⁶. Idatziak berak aitortzen zuen moduan, jurisdikzio aldaketa Donostiaren barruan 25 urtez eman ondoren egiten zen. Zehazten ez ziren arrazoiengatik, denbora horretan Zizurkil eta Donostiaren arteko harremanek okerrerantz egin zuten nabarmen, auziak, zalapartak, kalapitak eta hilketak jazoz⁵⁷. Kontratu berriko bi puntuk Tolosari babes-ardurak ezartzea, beraz, ez zen oinarririk gabeko kontua. Zehazki, Donostiaratu baino lehen Zizurkilek eta bere auzoek zituzten foru eta askatasunen alde egin beharko zuen, “*non enbargante qualesquier contratos e sometimientos que la dicha uilla de Sant Sebastián e juezes d’ella les aya(n) fecho fazer e otorgar*”, Urumeako hiribilduaren eta bere epaileen aurkako defentsa obligazio horiek diruz nahiz armaz eginez. Era berean, errege-alkateak eta merioak Zizurkilgo jurisdikzioan aritzeko saia-kerak ekiditea adostu zen, beraien jarduna bertatik aldentuz eta, bide batez, Tolosako alkate eta ofizialen eskumenak sendotuz eta beraien eskusibotasuna berretsiz. Lorratz hauek guztiek Donostiak eman zezakeen erantzunaren bel-durrak islatzen dituzte, zer esanik ez Andoainek haren jurisdikziotik alde egin ez zezan abian jarritako ekimenak aintzat hartzen baditugu.

Donostiaren eraginaz gain, baliteke auzotartzearen arrazoiek Zizurkilgo gizartean ematen ari ziren barne-arazoekin zerikusia izatea. Hauetan, Donemiliagako jaunak ageriko lekua izango zuen. Aitortu behar da oinetxe horrek ez ziola Ahaide Nagusien paradigmatari modu zuzenean erantzun: ez

(55) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 50-52 orr.

(56) LEMA PUEYO, J. A.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 21. dok. Ikus baita ere, IRIJOA CORTÉS, I. “Ordenanzas de la alcabala de Zizurkil (1509)”, *Sancho el Sabio*, 34 (2011), 181-205.

(57) “*se sometieron a la villa de Sant Sabastián, e entraron por sus vezinos e sobre que entre ellos e ellos acaesçieron los dichos pleitos e debates e allende d’ello muertes e ruydos e escándalos, e que agora ellos auían visto e byan e conosçían que auían estado çiegos e errados*” (LEMA PUEYO, J. A.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 21. dok.).

zen 1456ko erronkan aipatzen eta Endrike IV.ak ere ez zuen erbesteratu, nahiz eta beraien dorretxea **modorratua** izan eta XV. mende erdialdeko hainbat erasotan parte hartu. Modu berean, Donemiliagarrek ez zuten bandoen hierarkian leku lehenetsi bat osatzen; are gehiago, ez ziren bando finko batean mantendu, batetik bestera arituz. Dena den, horrek guztiak ez du esan nahi XV. mendearen azken laurdenean Zizurkilgo gizartean erreferente ez zirenik edo bertan garrantziarik ez zutenik. Horregatik, 1475eko eskrituraren atzetik beraien eragina zegoenik ezingo genuke baztertu⁵⁸. Gure ustetan ez da doakoa Zizurkilgo kontratua oinetxeko jaunaren auzotartzea eman eta urte gutxira ospatzea; zer esanik ez, Errodrigo Donemiliagakoa Tolosako auzotzat onartu zenean, baldintza oso onetan (fiskalak, tartean) egin zela aintzat hartzen badugu. Eta halaber, esanguratsua da oinetxeko jauna eta bere iloba Joan Ruiz Zizurkilen auzotze-eskrituran lekuko moduan ikustea.

Zizurkilen Tolosaratzea eragin zuten arrazoiak arrazoi, kontratuaren lehenengo baldintza elkarrekiko barkamena izan zen, aurretik sortutako kalte, eskandalu eta irainak alboratuz. Beste baldintzei dagokienez, halako hitzarmentetan ikus daitezkeen natura juridikzional, instituzional eta fiskalari lotutako puntuak agertzen dira, horietako batzuetan herrixkak bere eskumenak mantentzen zituelarik. Hala ere, agiriak gauza bereziak zituen.

Besteak beste, Tolosako udalbatza-ofizialen jarduera arautu zen, baina aurreko idatzietan adostutakoak aldatuz. Ildo honetatik, XVI. mendean zehar hiribilduetako justiziaren inguruan hainbat herrixkek agertuko dituzten kexu eta eztabaidetan Zizurkil aitzindari moduan har daiteke, neurri batean bada ere. Batetik, hiribilduko udal-karguek herriko auzoen aurka izan zezaketen jarduna arautzen zen, gai kriminaletan aritzeko, alde zaurerik salaketa edo kereila egin behar zuela adostuz. Halaber, hiribilduko udalbatza-ofizialek zizurkildarren aurkako epai eta bahiturak egiteagatik jaso beharreko **lansariak** adostu ziren; zehatzago esateko, kasu horietan Tolosako auzoek ordaintzen zutena baino gehiago ez izatea arautu zen⁵⁹.

(58) Donemiliagarrek testuinguru banderizoan izandako parte-hartzearen inguruan, ikus MORA AFÁN, J. C. *Zizurkilgo historia: bailaratik hiribildura (1186-1615)*, Tolosa 2005, Lizardi Kultur Elkarte, 68-76 eta 87 orrialdeetan egiten diren ohar interesgarriak.

(59) Andoaingo kasuan antzeko xedapenak ikus daitezke, baina Zizurkilen, ofizial ezberdinek kobratuko zuten diru-kopuruak zehazten dira, ziurrenik horren inguruan arazo bat baino gehiago izan zelako. Bestalde, Zizurkilek sari horien eta bere ohitura eta usadioak errespetatu zitezenaren kontua hainbat aldiz azpimarratzeko joerak, Donostiarekin horri buruzko hamaika kalapita izanaren seinale litzateke. Are gehiago, errege-alkateari egindako aipua, Urumeako hiribilduko Elduindarrei egindako zeharkako aipua litzatekeela uste dugu, ordurako kargu hori baitzuten: “*Item, el dicho conçejo [Tolosakoa] los defienda e anpare (...) e en espeçial que el alcalde del rey e el merino non tengán juridición sobre ellos, saluo el alcalde de Tolosa e sus ofiçiales*”.

Esparru instituzionalean Zizurkilek bere hamabia izendatzeko eskumena izango zuen. Azken horrek, zorren inguruko kontuetan edozein kanpotarren ondasunen bahitura egiteko aukera zuen, beti ere Tolosako alkatearen lantsariak errespetatuz eta ekintza azken honi jakinaraziz.

Ildo beretik, beste puntu interesgarri bezain korapilatsua herri-alkatea izateko ustezko eskumenaren kontua da. Hainbat egilek kontratu berrian Zizurkili herri-alkatea izateko eskumena aitortzen zitzaizola uste dute, hainbat diru-kopurura bitarteko auzietan jardungo zelarik. Eskriturak honakoa dio: “*el conçejo* [Tolosakoa] *les dé su alcalde fasta dos [***] corrientes*”, txanpona zehaztu gabe. Honen arabera, Zizurkilek Tolosako udalbatzak izendatutako herri-alkatea izango zuela ematen du. Hau hala izanik ere, hurrengo lerroetan ikusiko dugun moduan, ez dirudi xedapen hori berehalakoan bete zenik; hitzarmena sinatu eta hurrengo urtera, Tolosako udalbatzaren aurrean herrixkaren ordezkarien artean hamabia azaltzen da, alkatearen arrastorik egon gabe⁶⁰.

Modu berean Tolosak Zizurkilek zituen ohitura, usadio eta ordenantzak bete eta errespetatu behar zituen. Alde batetik, herriarenak nahiz partikularrenak ziren lursail **hesigabe**etan sartzen zen azienda atxikitzearen ingurukoak; bestetik, ordura arte unibertsitateak egindako gastu-banaketak burutu eta taldikida edo zergak biltzeko moduei zegozkienak.

Zizurkilgo auzoek, beraien aldetik, probintzia-zergak ordaintzeko ardura hartzen zuten. Berrikuntzarik nabarmenetakoa hiribilduko auzo moduan hartzen ziren Zizurkilgo biztanleek diru-kopuru jakin bat ordaindu behar zutela zen: 60 **zuriko** buruko, eta 30 zuriko buru-erdiko. Andoainekin hitzartutakoaren aldean xedapen ezberdina zen hori. Azken horretan herriak urtero diru-kopuru jakin bat (2.000 marai) ordainduko zuela adostu zen, besterik gabe; txanponak lortzeko modua zein zen ez zen aipatzen. Zizurkilgen kasuan, berriz, urtero ordaindu beharrekoa ez

(60) Susana Truchuelo, adibidez, herri-alkatearen hipotesiaren aldekoa da. Ikus egile horren *La representación...*, aip. lan., 53 or. eta 111 oin-oharra. Egia da 1527ko urtarrilean Artsulondo edo Atxulondo burdinolaren errentariaren alde emandako ordainketa-gutunean, Zizurkilgo udalbatza alkate bat, hamabi bat eta lau diputatuz osatua dagoela (MORA AFÁN, J. C., aip. lan., 111 or.). Baina 1509an udalbatzak berak alkabalaren inguruan egindako ordenantzetan aldiz, aipamen orokor bat agertzen da “*conçejo e vniversidad, jurado e omes fijosdalgo de la tierra de Çiçurquill*”, eta ordurako alkatea egongo balitz, zerrendan kargu hori islatuko zela uste dugu Ald. IRIJOA CORTES, I. “Ordenanzas de la alcabala...”, aip. lan., eranskin dokumentala. Dena den, azkeneko bi data hauek bat datoz herri-alkateen inguruko kontuekin, beharago, 3.3. puntuan ikusiko dugun bezala.

zen finkoa; hau da, oinarria bi zergadun-taldetan banatutako sistema fiskalean zetzan, bakoitzari zenbat zegokion ezarritz. Baina pentsa dezakegun moduan, demografia aldaketak ematekotan, bildutako kopurua ere aldatuko zen.

Hori ikusita, ez da harrizkoa denbora gutxiren buruan azken puntu horren inguruan aldaketa sakonak izan zirela jakitea. Andoainekin sinatutako hitzarmenaren klausulak Zizurkilekin adostutakoak baino askoz eraginkorragoak izan ziren, bereziki esparru fiskalari dagokionean. Agidanez, bigarren herriarekin sinatutakoek ez zuen errealitatea ondo bereizi eta 1476ko irailean, Tolosak eta Zizurkilek beste hitzarmen bat sinatu zuten, zerga-sistemaren inguruan ondorio nabarmenak ekarritz. Orduz geroztik, unibertsitateak burutan oinarritutako gastu-banaketa sistema alboratuko zuen eta horren ordeztan, urtean 1.000 marai ordainduko zituen. Aurreko kontratuan ezarritako klausulak aldatzeko arrazoi nagusia urtero erroldak egitean sortzen ziren zailtasunetan zetzan⁶¹. Prozedura berriarekin herrixkak ordaindu beharrekoak gutxitu egin zirela pentsa dezakegu. Urtero diru-kopuru jakin bat ordainduko zuen eta kopurua finkoa izango zen, egonkortua edo behin betikoa, nahiz eta herriak oparoaldi edo hazkunde demografiko bat ezagutu⁶². Baldintza onuragarri hauek ikusita, pentsatzekoa da 1475eko hitzarmenean adostutako neurrien aldaketa hainbat eztabaida larriren ondorioztorri izana, eta horietan Tolosak 1450eko gertakariak eta Donostiak izan zezakeen eragina oso konstante hartzea.

(61) “*dixieron que andar cada anno enpadronando las cabeças o medias cabeças, porque vnos suele subir e otros abaxar e abría en ello trabajo para amas las partes; e por ende que era mejor que la dicha tierra de Çiçurquill pagase cada anno al dicho conçejo de pecho çierta costa atajada*” (LEMA PUEYO, J. A.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 21. dok.). Ordizian ere, hala egiten ziren. Eibarren, aldiz, XV. mende amaieran, 5 urtean behin. Ikus, ELORZA MAIZTEGI, J. *Eibar: orígenes y evolución (siglos XIV al XVI)*. Eibar 2000, Ego Ibarra, 342 or. eta hh.

(62) Baina jakina, baita kontrako joera ematean ere; hau da, demografia-beherakada egotekotan: “*en caso que la dicha vezindad de Çiçurquill se multiplique e en mucho más grado de lo que agora es (...) que non sean tenudos nin obligados a pagar mas de los dichos mill marauedis de cada anno, pero si caso fuere (...) que la dicha tierra e vezindad de Çiçurquill se aya de abaxar (...), que todavia sean tenidos e obligados los otros vezinos de la dicha tierra que quedaren e dar e pagar en cada anno los dichos mill marauedis*” (ibidem, 21. dok.). Ikus baita ere, IRIJOA CORTES, I. “Ordenanzas de la alcabala...”, aip. lan., 187-189 or.

2.1.3. Populazio nafarren eransketa

Populazio ezberdinei dagozkien lurralde, barruti eta **muga-barrutien** eraketan, hainbat arrazoik izan zuten eragina, baita Gaztelako Koroak inguruko erresumekin izandako gatazkek ere. Gerrate eta gudek hiribilduen lurraldearen osaketan ondorioak izan zituzten, ezagunena Hondarribiaren 1521-24 urte bitarteko okupazioa izan daitekeelarik. Behe Erdi Aroan Gipuzkoa inguruetan jabetzak zituzten erresumak ugariagoak izanik, hiribilduen jurisdikzioan zegoen lurraldean hainbat gertakari bizitzeko aukerak handiagoak ematen zuten. Oraingoan, jakina, protagonistak ez ziren auzotartze-hitzar-menak izan, baina lurraldean aldaketak izan ziren, bai murrizketagatik, baina baita hedatzeagatik ere.

Gertakari horietan adierazgarrienetako bat, 1368 urte amaieratik eta hainbat hilabetetan eman zen egoera dugu. Denbora tarte horretan Ordizia eta Erreterria (eta Agurain eta Kontrasta bezalako hiribildu arabarrak) Nafarroako erregearen orbitan egon ziren; Ordizia, adibidez, tropen babesleku moduan aritu zen. Ondorioak Libourne-ko Tratatuaren ondotik etorri ziren. Bertan adostutakoaren arabera, Gaztelako Pedro I.ak Nafarroako Karlos II.ari hainbat lur eman edo itzuliko zizkion, Gaztelako guda zibilean emandako laguntzaren ordainetan, tartean Gipuzkoa eta, tratatuan adierazten zen bezala, Tolosa, Segura, Arrasate, Oiartzun eta kostaldeko Donostia, Getaria eta Mutriku.

Mugimendu horien ondorioak denbora laburrean eman ziren, baina denboran gehiago luzatu ziren adibideak ere, gertatu ziren gure esparru geografiko eta kronologikoan. Lurralde aldaketaren adibiderik nabarmenena, zalantzarik gabe, Tolosari lotutakoa dugu. Areso eta Leitza herri nafarrak eskuratu zituen eta 1430-37 urte bitartean, biak Gipuzkoako hiribilduari atxikita geratu zitzaizkion.

Orokorrean erresumen arteko gerrek edota mugaldeko gaizkileen aurkako kanpainak, inguruetan zeuden populazio-gune ezberdinengan ondorio belikoak izan zituen: erasoak, erreketak, sunsiketak eta abar. Besteak beste oñaztarrek Leitza, Lekunberri, Gorriti, Huarte-Arakil, Etxarri-Aranatz eta Ataunen aurka zuzendutako erasoak aipa daitezke, baina ez ziren bakarrak izan. XV. mendeko lehenengo hamarkadetan zehar halako hamaika izan ziren: 1428an Leitzako dorrea konpondu beharra izan zen, erasoengatik kalte nabarmenak izan baitzituen; urtebete beranduago, 1429an, Los Arcosko gazteluan zaindaria jarri egin ziren, gipuzkoarren oldarraldiak saihesteko; 1431n, aldiz, gaztelarrek Etxarri-Aranatz suntsitu zuten; 1444an Berastegiko auzoek Berueteko hainbat etxe deuseztatu zituzten; eta azkenik, 1460an tolosarrek

Lekunberriko elizari su eman zioten⁶³. Leitza eta Aresoren kasuan, ordea, ondorioak nabarmenagoak izan ziren, bai juridikoki, politikoki zein jurisdikzio mailan. Gainera, Tolosaren barnean gelditzeak beste helburu nabarmen bat zuen, maila politiko gorenetan jorratzen zenetik at zegoena: hiribilduaren lurraldea handitu eta inguruko jarduera eta baliabideen gaineko ustiaketa eta kontrola areagotzea, bereziki burdinari lotutakoena⁶⁴.

Bi lekuen konkista 1429 urtean hasitako gerra gaztelar-aragoiarren ondorio izan zen. Hasiera batean, hiribildu gipuzkoarraren auzoek bideratu zuten konkista erregearen esku gelditu zen, baina emandako laguntzaren ondorioz, monarkak Tolosari saria eman zion, Leitza eta Aresoren gainean bere jurisdikzioa hedatzeko ahalmena emanez⁶⁵. Pentsa daitkeenez, egoera berri honen aurrean bi herri nafarren buruan bi koroen arteko bake tratatua egongo zen, bakeak urak bere arrastora sartu eta beraien nafartasun jurisdikzionala berreskuratuko zutelakoan. Usteak, ordea, erdia ustel. 1430eko uztailean sinatu ziren Majanoko Tregeok ez zuten halakorik ekarri. Egoera lehengoratzan ez zela ikusita, bi herriek Nafarroako erresumara itzultzeko bideari ekin zioten baina negoziazioek ez zuten arrakasta handirik lortu. Urte hartako irailean Gaztelako Juan II.ak Tolosaren alde egin zuen, Leitza eta Aresoren gaineko jurisdikzio zibila nahiz kriminala hiribildu gipuzkoarraren eskuetan utziz⁶⁶.

(63) LEMA PUEYO, J. A.; eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 12 eta 13. dok.

(64) ORELLA UNZUÉ, J. L. (zuz.); eta ACHÓN INSAUSTI, J. A. (arg.), aip. lan., 81 or.

(65) Gertakarirako, ikus MARTÍNEZ DE ZALDIBIA, J. *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas. Introducción y notas por Fausto Arocena*. Donostia 1944, s. n., XVII. kapitulu, 1430eko iraileko dokumentua transkribatuz. Ikus baita ere, GOROSABEL, P. *Bosquejo...*, aip. lan., 15 eta 271-272 orr. eta bereziki, 7. eranskin dokumentala, eta URROZ, E. *Compendio historial de la villa de Tolosa*, Tolosa 1913, Imprenta, Librería y Encuadernación de F. Muguerza e Hijos, 62-63 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L. “Régimen municipal en Guipúzcoa en el siglo XV”. Separata de: *Conferencias sobre Derecho Foral*. Donostia 1982, AKM 13-207, bereziki 2. eranskin dokumentala; ORELLA UNZUÉ, J. L. (zuz.); eta ACHÓN INSAUSTI, J. A. (arg.), aip. lan., 80-81 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L. “La Hermandad de frontera entre el Reino de Navarra y la provincia de Guipúzcoa. Siglos XIV-XV”, *Príncipe de Viana*, 46 (1985), 475-478 orr. (463-492). Nafarroaren garaiko testuingururako, BERTHE, M. *Famines et épidémies dans les campagnes navarraises à la fin du Moyen Age*, Paris 1984, SFIED, 418-424 orr. eta LACARRA, J. M.^a *Historia política del reino de Navarra desde sus orígenes hasta su incorporación a Castilla*, Iruñea 1972, Nafarroako Aurrezki Kutxa, III. liburukia, 229-237 orr.

(66) “vos el dicho concejo toviste é avedes tenido e defendido los dichos lugares de Leiza e Areso por vuestros e como vuestros: e agora diz que después que otorgué é firmé la tregua a los dichos reyes y reinos de Aragón e de Navarra, los vecinos e moradores de los dichos lugares que agora viven en ellos han traído e traen algunas maneras so algunas colores” (GOROSABEL, P. de, *Bosquejo...*, aip. lan., 7. eranskin dokumentala).

Egoera honek bi herrien antolaketa politikoan aldaketa sakona zekarren, baina ziurrenik gizarte zein ekonomia mailan berrikuntzak ez ziren horren nabarmenak izan; azken finean, eskualdeko herri gipuzkoar zein nafarretako artisauek, merkatariek, garraiolariak, arotz, argin edo igeltseroen joan-etorria eguneroko kontua zen, Tolosan XIV. mende erdialdean egin zen aitonsemeen erroldak ondo adierazten duen moduan⁶⁷. Baliteke, gainera, prozesuak hiribilduaren eta nafarren arteko harremanak sendotu eta areagotzea, eta ondorioz, honen ondotik Tolosako agintariak auzotzeen gorakada bat aurreikustea. Beste kontu bat da esparru politiko-jurisdikzionalan izango ziren ondorioak, erran nahi baita hiribildu eta herrixken artean ezarri ziren baldintzak eta estatus edo mailak. Ziurrenik Tolosa eta bi herri nafarren arteko jaun-meneko lotura horiek, aurreko mendean auzotartu ziren herriekin hitzartutako ondoan, askoz sakonagoak izango ziren; Leitza eta Aresoren Tolosaratzea arras ezberdina izan zen, ez baitzen borondatezko hitzarmen baten ondorioz etorri.

Edonola ere, eta hainbat urtez elkarrekin bidea egin ondoren, bi herriek helburua lortu eta beraien jatorrizko erregearenera itzuli ziren. Zehazki hori noiz gertatu zen ez dakigu, baina argi dago Gaztela eta Aragoi-Nafarroaren arteko bakeak egin ondotik eman zela, 1436ko irailetik aurrera. Orduan sinatutako Toledoko Bakeak Nafarroari kendutako hiribildu eta gazteluak itzultzea adosten zuen. Ez dirudi Leitza eta Areso tartean daudenik baina hala izan zelakoan gaude⁶⁸. Adibiderik adierazgarriena bi erreinuen arteko bake ituna onartu, berretsi eta zin egiteko asmoz 1437ko abenduan izendatu ziren Gaztelako Koroaren ordezkariak ditugu. Handiki, jaun, apezpiku eta hainbat hirirekin batera, Donostia eta, adierazgarriagoa dena, Tolosa izendatu ziren⁶⁹; azken horrek Leitza eta Areso Nafarroara itzultzearekin adostasuna erakutsi behar zuenaren seinale.

2.2. *Segura*

Segura izan zen, zalantzarik gabe, XIV. mende amaieran inguruko herrixkak bere jurisdikziora sartu zireneko bigarren adibiderik aipagarriena.

(67) DÍAZ DE DURANA, J. R. eta FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A. “La frontera de los malhechores: bandidos, linajes y villas entre Álava, Guipúzcoa y Navarra durante la Baja Edad Media”, *Studia Historica. Historia Medieval*, 23 (2005), 196 or., eta 98-104 eta 202 oin-oharrak. (171-205). Erroldarako, ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 17, 18 eta 20. dok.

(68) Ald. LACARRA, J. M.^a, aip. lan., 237 or. eta URROZ, E., aip. lan., 63 or.

(69) Ald. COLMEIRO, M. *Cortes de los antiguos reinos de León y de Castilla. Introducción. Parte Primera*, Madrid 1883, RAH, 22 or.

Gainera, eta Tolosaren antzera, hiribilduaren hedatze asmoak goiztiarrak izan ziren eta lehenengo pausoak ez ziren, bestean legez, gertuen zeuden guneekin eman; bai, aldiz, interes berezia zuten lekuekin.

Horren adibide argia dira Legazpiko olagizon edo gabi-arotzekin 1340 eta 1341 urteetan sinatutako bi konkordia edo adiskidetasun idatziak⁷⁰. Biek ala biek hiribilduak aberastasun iturri zen eskualde batean begirada jarri zuela adierazten dute, burdin industriarekin lotutakoa hain zuzen ere. Interes hau Seguraren ia hiri-gutun garaitik bertatik dator, 1290ean Legazpiko masukariolak edo uraren indarrez elikatzen ez ziren burdinolak Segurara lekualdatzea agintzen baitzen⁷¹. Adiskidetasun-hitzarmen horiek baino urte batzuk lehenago, 1335ean, hiribilduak azpiegitura horien inguruko ordenantza bat egin zuen, Legazpi eta Zeraingo burdinolen hornidura eta fiskalitatearekin lotuta. Xedapenaren arabera, bertako masukariolek eta **uholek** hiribilduan eskuratu beharko zituzten hornigaiak eta, era berean, Seguran bertan burdinaren gaineko alkabalak ordaindu⁷². Beranduago, 1340ko irailean, arazo horiek indarrean zirauten. Alabaina, Bailarak ez omen zuen oraindik herrixka baten antolakuntzarik edota eliza baten inguruan antolatutako komunitate baten itxurarik. Hau dela eta, hiribilduari lotutako eta hiri-gutunean emandako lurretan ematen ziren jardueren arautze bat bezala ikusi beharko genuke. Garai hartako auzotze-hitzarmenik gorde ezean, aipatu dugun dokumentazio hori guztia halako jurisdikzioratze baten ondorio baino, itxura gehiago du hiri-gutunean egokitu zitzaion eskualde batean egindako esku hartzearena.

Segurako auzotze mugimendua ez da 1384 urtera arte emango. Pixka bat lehenago, inguruetan jurisdikzioari eta hiri munduari lotutako hainbat eraldaketa ematen hasiak ziren. 1383an Urretxuk hiri-gutuna erdietsi zuen eta

(70) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo I...*, aip. lan., 14bis eta 14tris dok.

(71) Ez gara honen inguruko eztabaidan sartuko baina gure uste apalean, eta XIII. menderako, altzairua lantzen zuten burdinolak baino, uraren indarra erabiltzen ez zuten burdinolak zirela uste dugu. Ald. Seguran XVI. mende hasieran aipatzen den “ferrerías masuqueras” toponimoaren ildotik, IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., I, 356-357 orr.

(72) Erregeak 1335 urte hartako urrian berretsi zuen arau hori. Ikus DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo I...*, aip. lan., 12, eta 13. dok. Legazpin burdinolek eta olagizonek bertako lurraldearen mugaketan eta “kolonizazioan” izan zuten garrantzirako, ikus URZAINKI MIKELEIZ, A. *De montes, parzonerías y parques naturales. Comunidades de montes en Gipuzkoa: las Parzonerías*, Donostia 2007², Deustuko Unibertsitatea, 139-142 orr. Legazpiko Erdi Aroko burdin-industriari buruz, ikus berriki atera den honako lan interesgarria UGARTE, J. L.; eta URTEAGA, M. “Erdi Aroko burdin arkeologia. Legazpi (Gipuzkoa) barrutiko zepadiak”, *Arkeloan*, 17 (2014) (zenbaki monografikoa).

gertakari hau eman eta hilabete gutxi batzuetara, bere ondoko Zumarragak Villarrealen sartzeko hautua egin zuen, Ezkio eta Gabiriako biztanleek egin bezala⁷³. Seguraren iparraldean kokatutako herrixkak baziren ere, ez ziren hiribilduarekin mugakideak, tartean Legazpi, Mutiloa eta Ormaiztegi baitzeuden.

Urretxuren baitan gertatutako mugimenduak maila juridiko berri bat jasotzen zuten guneek inguruan zuten erakargarritasunaren adibide dira, baita leinu jakin batzuek abian jarritako justizia pribatu edo sasijauntxotiarren aurrean ematen ari zen erantzunarena ere. Dena den, gogoratu behar dugu Urretxuk landa munduko leinuen eta hiribilduen artean aurkeztu nahi izan den errealitate kontrajarri hori ezbaian jartzen duela. Hiribildua sortu eta urte gutxi batzuetara, 1390ean, hainbat oinetxek hiribildura lekualdatzeko egindako hautua eta esparru politikoan beraien alderdi edo bandoak errepikatzeiko asmoak, diogunaren adibide bikaina dira; edo behintzat, leinu batek baino gehiagok hiribilduetan bere interesak jarri zituela. Bestalde, XIV. mendearen azken laurdenean Lazkaoko jaunak Seguraren inguruan abian jarritako saiakerak ditugu eta horien ildotik Oñatiko jaunak izan zuen eragin, paper eta partaidetza⁷⁴. Ezegonkortasun honek izan zituen beste zantzu batzuk. 1380an, adibidez, Juan I.a erregeak justiziei albala bat zuzentzen zien, gaizkileak hartzen zituzten ezkutari zein ahaltsuen gainean haien eskumenak aplikatzeko. Bi urte beranduago, berriz, Errastiolazako San Andres kofradiak 1374an egindako ordenantzak berretsi egin ziren eta gogoratu behar dugu araudi horren mamia, hiribilduko esparru politikoan hainbat leinu izaten ari ziren esku hartzeari amaiera ematea zela⁷⁵.

Bandoen eragin horrek edo eskualdeko ezegonkortasunak, Segura inguruetan kokatzen ziren herrixkek bertan sartzeko ekimenak abian jarri zituzten,

(73) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 35-36 orr. Prozesu hone-rarako, ikus baita ere, BARRENA OSORO, E. “Segura: hiribilduaren sorreratik eskualdeko hegemoniara”, in INTXAUSTI REKONDO, J. (zuz.) *Segura historian zehar*, Segura 2003, Segurako Udala, 115-138 orr. Hemengo lekuri proposena ez bada ere, Segurako monografia honek leku berezia duela aitortu behar dugu. Batetik, hutsune historiografiko nabarmen bat betetzera egiten duelako; baina bestetik, eta gure lerro hauekin bereziki lotuta, euskarazko itzulpen oso egokia darabilelako, garaiko kontzeptuak erabiliz eta gaur egunean ikus daitezkeen sasi-samakuntza xelebreetatik aldenuz.

(74) Joan Diaz Amallokoaren ondasunen inguruan 1370ean hasi zen auzia horren adibide bikaina dugu. Ikus DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo I...*, aip. lan., 23, 24, 30-34. dok.

(75) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo I...*, aip. lan., 50 eta 51 orr.

baina Tolosarekin bezala, babes kontuez gain ekonomikoek ere eragina izan zuten. Segura gune ekonomiko garrantzitsua zen XIV. mendeko lehen herenerako, alor honetan bere zentraltasuna sendotu zuelarik. Legazpiko burdinolen produktuek eta barnealderako bideak (San Adrian edo bestelakoren bat izanik ere) ustez egoera aiposean uzten zuten Goierriko hiribildua⁷⁶. Gainera, Ermandadeak 1375 urtean adostutako ordenantzek jardun kriminalen etetea bilatu bazuten ere, helburu hori ez zen lurraldea baketzeko egiten soilik, baita merkataritzaren garapena bermatzeko ere. Agidanez, ezkutari eta gizon ahaltsuek merkataritza zein garraiolariak bortxatzen eta hertsitzen zituzten, zeramatzaten salgaiengatik diru kopuru jakin bat eskatuz⁷⁷.

Bitxia bada ere, Segurarekin auzotartze-hitzarmena sinatu zuen lehenengo ez zen herrixka bat izan, Lazkaoko jaunari lotutako pertsona bat baizik. Gartzia Lopez Zumarragakoak 1384ko otsailaren 4an sinatu zuen hiribilduko auzo izateko idatzia. Herrixkek ez zioten luzaroko itxaron beraien ekime-nak abian jartzeari, interesa zutenaren lekuko. Zumarragaren auzotartzearen ondotik, mugimenduak etenik gabe eman ziren, eta errenkadan, bata bestearen atzetik Seguraratzaren hasi ziren. Horretarako, otsailaren 15ean Segurak prokuradore eta ordezkariak izendatu zituen, prozesu hori guztia bideratzeko eta auzotartu nahi zuten guztiak hartzeko.

Denbora laburrean Segurak bere jurisdikzio-barrutiaren hedapen nabarmena ezagutu zuen, erregeengandik lortutako mesede eta pribilegioek sus-tatutako bere nagusitasuna areagotuz. 1384ko otsaila eta uztaila bitartean sinatutako auzotartze kontratuak zortzi izan ziren: Legazpik otsailaren 28an egin zuen; Zerain, Ormaiztegi eta Astigarreta-Gudugarretak, berriz, martxoa amaieran; Mutiloak, apirilean; Zegamak, ekainean, eta azkenik Idiazabal izango dugu, uztailaren 6an. Eskritura horiek guztiak erregeak urte gutxiren

(76) Aitortu behar dugu, baina, San Adriango bidearen inguruan esan direnak nahiko zalantzarriak direla, XV. mendearen azken hamarkadetara arte, gutxienez. Eztabaida honetan ere ez gara sartuko oraingoan, baina gaiak berrikuspen historiografiko sakona behar duelakoan gaude. Azken finean, Historian zehar, mende edo hamarkaden poderioz dinamika aldatetarik ematen direla aintzat hartu behar dugu; beste era batera esanda, gaur egun guretzat logikoa dena beste garai batzuetan ez zela. San Adrianen inguruan, ald. datuen interpretazio berri zein interresgarrian aitzindari izan ziren BARRENA OSORO, E. (zuz.); eta MARÍN PAREDES, J. A. *Historia de las vías de comunicación en Gipuzkoa. I. Antigüedad y Medioevo*, Donostia 1991, GFA, 123-141 orr. eta hauei jarraituz, IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., I. liburukia, 17, 192, eta 409-412 orr.

(77) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo I...*, aip. lan., 55 dok. eta modu zabalago batean, ACHÓN INSAUSTI, J. A. "A voz de concejo". *Linaje y corporación urbana en la constitución política de la Provincia de Gipuzkoa: los Bãñez y Mondragón, siglos XIII-XVI*, Donostia 1995, DFG, 102-111 orr.

buruan berretsi zituen, 1387ko otsailaren 2an hain zuzen ere. Hori egiteko arrazoiak ezegonkortasun eta tentsio sozialez gainezka egindako giroa zen, bai Nafarroako mugan zeudelako, baina baita eskualdean zehar hamaika gaizkile eta lapurrek sortzen zituzten indarkeria, lapurreta eta heriotzengatik ere⁷⁸.

Segurako auzotze-hitzarmenek txantiloï antzeko bati jarraitzen zioten, adostutako baldintza gehienak guztietan errepikatu baitziren. Tolosan bezala, herrixkak hiribilduko justiziapen gelditzen ziren eta alkateak egindako deialdi eta epatzetara joatera behartuak zeuden. Era berean, herrixkek Segurako udalbatzaren ordenantzak eta udal-gobernuak aldez aurretik jakinarazten zizkien mandatuak betetzeko betebeharra hartzen zuten beraien gain⁷⁹. Dena den, argi uzten zen udalbatzak ez zituela behartuko eta ezta presa sartuko ere, “*en las conpras e ventas que oviéremos de faser, e que las fagamos segunt fasta aqui*”. Ziurrenik esaldi horrek hainbat aurrekari hartuko zituen kontuan. Tartean hiribilduak Legazpiko olagizonen horniduraren inguruan 1335 eta 1340an onartutako ordenantzak leudeke; horiek hiribilduan hornitzera beharzen zituztenak, Bizkaia, Nafarroa eta Oñatira joatera debekatuz⁸⁰.

Bestalde, herrixkek beraien hamabia izendatzeko eskumena ordura arte bezala mantenduko zuten; hiribilduari, berriz, urtero bere udal-ofizialak hautatzeko eskumena bermatu zitzaion, herrixkek prozesu horretan inolako esku-hartzerik izango ez zutelarik. Herrietako hamabiek ordezkari funtzioa izango zuten, eta hiribilduak herrixkak deituz gero, beraiak ziren Seguraren deialdira joan beharko zutenak. Bestalde, alde bakoitzak ordura arte zituen ondasunen (mendi, lur, sarobe, ur, zelai, larre eta belardien) gozamina mantentzen zuen, nahiz eta horiekin zerikusia zuten kontu eta eztabaidak epaitzeko ahalmena hiribilduko alkatearen esku utzi.

Klausuletan esparru fiskalari zegozkion baldintzak ere adostu ziren. Auzo berrien eta beraien oinordeek udalbatzak eskatzen zien dirua ordaintzera lotuta egongo ziren. Era berean, biztanle berriek edo modu iraunkorrean bizitzeko asmoz herrixketan ondasunak eskuratzen zituztenek, beste biztanleen

(78) *Ibidem*, 55-64. dok. Joan I.aren baieztapen eta berrespenerako, *ibidem*, 66. dok.

(79) Auzotutako herriek udalbatza-araudiari buruz zuten ezagutza eta hori betetzearen inguruan, ald. GONZÁLEZ DIOS, E. “Los montes vecinales...”, aip. lan., 19-20 orr., eta egile beraren “La costumbre no escrita...”, aip. lan., 46-48 orr.

(80) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo I...*, aip. lan., 13, 14bis eta 14tris dok.

erregimen fiskal bera izango zuten⁸¹. Zerga horien ordainketa sistema zuzen baten bidez burutuko zen. Hori bai, hiribilduak gastu-banaketa bat egiteko asmoa aurkeztuz gero, herrixketako hamabiak deitzera behartuta zegoen, baina ez hori bakarrik. Auzotutako populazioei beraien ordezkariak bidaltzea aitortu zitzaizen eta bertan azalduz, taldikida egiteko arrazoiak eta beharrak jakinaraziko zitzaizkien. Deialdira joango ez balira, berriz, hiribilduak herrietako hamabirik gabe gastu-banaketa egiteko eskubide osoa zuen eta herriek zegokiena ordaintzera behartuak zeuden. Azkenik, bi aldeek barkamena ematen zioten elkarri eta herrixkek bestelako hiribildu, herri eta jaunekin inolako batzar eta bilerarik ez egiteko konpromisoa hartzen zuten.

Xedapenak berdintsuak baziren ere, eskritura guztiak ez zituzten kontu berberak jaso eta batetik bestera ezberdintasunak antzeman daitezke. Hauen artean, auzotzeko arrazoiak daude: bitxia bada ere, argudio zehatzak Legazpiri dagokion idatzian bakarrik islatzen dira, nahiz eta herri guztietarako baliagarriak izan⁸². Bertan, Segurartzeko motiboak gaizkile eta gizon ahaltsuek egindako kalte eta presioetan oinarritzen ziren.

Ildo beretik, hitzarmena ez betetzeagatik ezarritako isunak ere, ez ziren berdinak izan. Orokorrean, herri bakoitzari, akordioa lehenengo aldiz ez errespetatzeagatik, 10.000 maraitako zigorra ezarri zitzaion; Legazpi izan zen salbuespena, 5.000 maraiko isuna jartzea adostu baitzen. Ezberdintasun honen zergatia jakiteko ez dugu lorratz askorik, baliteke, ordea, kontratuetan agerian geratzen den beste diferentzia garrantzitsu batean oinarria izatea. Izan ere, Zegamak, Zerainek eta Legazpik berak sinatu zuten estatus fiskala bestekin alderatuta desberdina zen, herri horiek ez beste guztiak gastu-banaketen laurdenetik salbuetsiak geratu baitziren. Modu honetan, abantaila fiskal hori bestelako neurriak ezarritik berdinduko zen; kasu honetan, kontratua ez bete-
tzeagatik isun txikiagoak jarritz. Legazpiren kasua ere, beste era batera uler daiteke. Isunaren jaitsiera horrek XIV. mendearen lehenengo erdialdean bailarako burdinolen inguruan hartutako neurriekin eta izan ziren arazoekin zerikusia izango luke. Isun txikiago hori, hiribilduratzeko akuilu moduan jardungo

(81) “*Et sy alguno o algunos venieren de aquí adelante a poblar al término e vezindat d’este dicho lugar nuevamente o ovier de comprar algunos de los nuestros bienes o los oviere en alguna otra manera, que en caso que non sean entrados ser vezinos de la dicha villa, que sean tenudos de ser vezinos de la dicha villa sy sobre los dichos bienes ovieren de estar de más en qualquier manera que sea, que todos los bienes para syenpre jamás quien quier que los ayan de aver, que sean pecheros de la dicha villa como dicho es*” (ibidem, 55. dok.).

(82) Testuinguru ezegonkor horren lekuko 1387an auzotze-hitzarmenen inguruan Juan I.ak emandako berrespenean edo 1390ean Ermandade edo Anaidiak, Urretxun bandoek zuten eraginaren ildotik plazaratutako epaian. Ikus ibidem, 66 eta 69. dok.

litzateke, bereziki gizarte legazpiarreko hainbat sektoreren artean berebiziko tentsio eta eztabaidak zeudenean. Alabaina, Zegama eta Zerainen adibidea argitzeke genuke. Izan ere, 10.000 maraitako isuna ezartzeaz gain, ez zitzaien gastu-banaketaren laurdenetik salbuetsi; agian ahaide nagusi garrantzitsuen sorleku eta bizileku zirelako.

Tolosarekin gertatu bezala, XV. mendean zehar Segurak jurisdikzio-barrutian aldaketak izango ditu, behin-behinekoak izango badira ere. 1405ean Urretxu, Zumarraga eta Ezkio gehitu zitzaizkion. Batasun hau Urretxun bandoek sortzen zituzten arazoez bultzatu zuten, baina baita Seguran sartzeak eskaintzen zituen onura fiskalek ere⁸³. Dena den, bi hiribilduen arteko arazoak handik gutxira sortzen hasi ziren eta 1411ko adiskidetzearen bitartez, Urretxu eta Zumarraga aske izan ziren Seguratik aldenuta eta nahi zuten lekuan auzotartzeko; Ezkiok, ordea, irteera korapilatsuagoa izan zuen. Adiskidetzearen arabera, Oria ondoko hiribilduaren barrutian mantenduko zen baina hainbat urte beranduago, berriz, bertako etxe gehienek Areriako Alkatetza Nagusira jo zuten eta, ondorioz, Seguraren pean Anduaga auzoa osatzen zutenak bakarrik geratuko dira⁸⁴.

2.3. *Ordizia: 1382 eta 1399 urteetako hitzarmenak*

Historiografikoki, Ordiziako auzotartze mugimenduaren mugarrria 1399 urtea izan da, lehenengo, nagusi eta data bakar moduan hartu delarik⁸⁵. Tolosa eta Segurako kasuak aintzat hartuta, urte horrek nolabaiteko harri-dura sor dezake. Villafranca zenaren inguruetan ezegonkortasuna nabarmena zen 1360ko hamarkadatik eta horregatik, beste bi hiribilduekin alderatua, ezohikoa gerta daiteke bertako herrixkek Ordizian auzotartzeko *Tolosa eta Segurakoak baino* hamarkada luze bat itxaron izatea. Gainera, Ordizia bi

(83) “*et seyendo vezinos de la dicha Villa de Segura, por la dicha Villa seer una de las más entradas Villas que ha en Guipúzcoa, que serían relevados de muchos pechos e tributos de que agora son muy encargados*” (TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 45 or., 83 oin-oharra eta bereziki, 44-46 orr.).

(84) Ald. ibidem, 47-48 orr. Gorosabelek (*Diccionario...*, aip. lan., 164-166 orr.) hipotesi hau ematen zuen eta gure ustetan zuzen dabil. Gaur egun Anduaga Ezkio eta Gabiriaren artean banatzen da eta honek gure ideia berresten duelakoan gaude. Ikus infra, 2.4. puntua. Modu honetan, Segurak bere jurisdikzioan jarraitasunik gabeko guneak litzuzke, “uharte” antzeko batzuk. Horiek izango liriateke Ezkioko etxeak eta baita Astigarreta eta Gudugarretako kasuak ere.

(85) GOROSABEL, P. de *Diccionario...*, aip. lan., 612-613 orr., TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 41 or.; TRUCHUELO GARCÍA, S. “‘En aquel lugar que dicen Ordicia...’: Aproximación político-social a la villa natal de Andrés de Urdaneta (siglos XIII-XVI)”, in TRUCHUELO GARCÍA, S. (arg.) *Andrés de Urdaneta: un hombre moderno*, Ordizia 2009, Ordiziako Udala, 93-117.

korporazio-jaurgoen arteko hiribildua izaki, berehala izango zuen bi eskualde horietan bizi zenaren berri eta ondorioz, 1374 eta 1385 artean bere inguruko herrixkek auzotartze asmorik ez agertzea bitxi egiten da. Oinarrizko arrazoi moduan Lazkao eta Igartzako jaunen eragina jarri daiteke, inguruko biztanleekiko itzal nabarmena zutela argudiatuz. Hipotesi honek, ordea, nolabaiteko ahulezia du, leinu horiek mundu hiritarrean parte hartzeko asmoa agertu baitzuten. Oñatz bandoko buruaren anaia Joan Ruiz⁸⁶ Lazkaokoa, adibidez, Ordiziako auzo moduan dugu 1382an⁸⁷. Bestalde, 1387ko abuztuan Anaidia Ordizian batzartzea zorizkoa ez dela uste dugu eta hori egiteak hiribilduaren garrantzia islatuko luke. Alde batetik, garrantzia politikoa, lurralde-erakundeak propio aukeratutako lekua baitzen. Bestetik, ekonomikoa, Segura-Tolosa-Donostia zeharkatzen zuen bidean Ordizia geraleku izan zitekeelako, harremanen jardueraz nolabaiteko onura hartuz, hein batean, behintzat⁸⁸.

Testuinguru honetan zentzuzkoena 1399ko eskritura baino lehen nolabaiteko pauso edo aitzindariak eman zirela pentsatzea da, bere ondoko beste bi hiribilduetan jazo zen moduan. Horren inguruan datu bat badugu, hainbaten ustez sendotasun handirik gabekoa gerta badaiteke ere. Auzotze-eskritura hori eman baino bi urte lehenago, Getarian bildutako Anaidiak koaderno famatua egin zuen. Bertan adostu ziren ordenantzetan hogeita zazpigarrenak, Ermandade-alkateen jarduna hainbat barrutitan banatu zuen. Segurari zegokion horretan “*Villafranca con sus vesindades*” sartzen zen, hau da, Ordizia eta bere barnean zeuden auzune edo herrixkak⁸⁹. Egia da halako aipamenak hainbatetan zalantzarriak direla, baina gure ustez, auzotartze prozesuaren

(86) Beste idatzi batzuek ematen duten informazioa alderatuz, badirudi “Ruiz” formaren euskal aldaera (bakarra? bat?) “Erroitx” dela. Hala ere, hau susmo edo hipotesi hutsa denez, momentuz artikulu honetan ez erabiltzea erabaki dugu. Ald. Boletin honetan bertan ageri den IRIXOA CORTÉS, I.; eta PRIETO GIL DE SAN VICENTE, M., “Agarriatik Zuzijakira: Iragan mendeetako euskal hitzen bilaketarako hainbat ardatz eta adibide” artikulua.

(87) Urte hartako abenduan Legorretako hainbat auzo Ordiziaratzen direnean, bera lekuko gisa azalduko da.

(88) Ohartu behar dugu, Ordiziaren paper ekonomikoak azterketa sakona merezi duela. Beti jarri izan da etekin handiak hartu zituen hiribildu moduan (zer esanik ez XVI. mende hasieran azoka famatua egiteko mesedea lortu zuenean), baina gure ustetan, hori ez zen horrenbeste-erainokoa izan, ezta gutxiago ere.

(89) Ikus BARRENA OSORO, E. *Ordenanzas de la Hermandad de Guipúzcoa. Documentos (1375-1463)*. Donostia 1982, Eusko Ikaskuntza, 36 or. eta MARTÍNEZ DIEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección... (1370-1397)*, aip. lan., 588. dok., 429 or.: “*Iten, en esta hermandat serán siete alcaldes porque se libren los maleficios (...) conviene a saber: Segura con sus vesindades e Villareal de Urrechuan con sus vesindades e el alcaldía de Hariria et Villafranca con sus vesindades*”. Tolosaren kasuan, barrutia “*Tolosa con sus vesindades con Ayscondo et Hernani*” zen.

nondik norakoarekin zerikusia luke. Eta orain ditugun datuek susmo hori berrestera garamatzate: Ordizia ez zen Segura eta Tolosan 1374-1384 urte bitartean eman ziren mugimendu horietatik guztietarik at gelditu eta tradizionalki uste izan dena baino hamarkada luze bat lehenago, bere lurraldetasunarekin lotutako aldaketak bizi izan zituen.

1382ko urriaren 29an, “*los vesinos e moradores de las collaçiones e logares de Çaldiuia e de Gaynça e de Alçaga e de Arama e de Ysasondo e de Veasayn*” eta Lazkaoako biztanle Joan Martin Albitsukoak Ordiziarekin auzotze-hitzarmena sinatu zuten, handik hilabete gutxira Legorretan bizi ziren zazpi pertsona batu zitzaizkielarik⁹⁰. Idatziak berak historiografikoki ekarpen garrantzitsua osatzen badu ere, eskrituraren protagonisten nondik norakoa ikusita, harritu gaitzakeena Ataunen aipamen eza eta Lazkaoit auzo bakar batek parte hartzea da. Hauen atzetik leinuen itzala zegoela uste dugu. Dakigunez, bi herrietan Lazkao zein Amezketako jaunek indar eta eragin handia zuten, eta hori izan daiteke beraien agerpen eskasa edo ezaren zergatia⁹¹.

Beste hitzarmenetan bezala, auzo berriek Ordiziako alkatearen justizia-eskumenen pean uzten zuten beraien burua, eta honen deialdi eta epatzeetara joateko betebeharrak hartzen zuten. Era berean, alde bakoitzak aurretik berezko zituen ondasun, lursail, sarobe eta erroten administrazioa beren horretan mantenduko zuten. Bazeuden, ordea, Tolosa eta Segurarekin alderatuta, hainbat berezitasun.

Fiskaliteri dagokionez, hiribilduak errege-eskari moduan ordaindu behar zituen 1.000 maraieetatik salbuesten zituen bere herri berriak⁹². Horrez

(90) Albitsuren auzotartzea ez zen zuzenean egiten, bere ordezkari eta Zaldibiako biztanle Joan Martinez “Sotogoiengo”-ren bidez baizik. Eranskinetan doan hitzarmen ezezagun hau bi errege-berrespenetan sartuta dago, Joan I.ak 1383ko martxoaren 18an egindakoan eta Endrike III.ak 1390eko [sic] apirilaren 20an luzatutakoan) eta 1508 inguruan Ordiziako zenbaki-eskribau zen Joan Perez Irigoengoak egindako kopia soil batean gordetzen dugu. Dokumentuaren egiazkotasunaz zalantza egin dezakegu, Endrike III.ak 1390ean Madrilen ustez ospatu ziren Gortean baieztatzen baitzuen, irakurketa akats bat da. Endrikek 1390 urte amaieran hasi zuen bere agintaldia eta Madrilgo Gorteak 1391. urteko apirilean elkartu ziren; gainera, azken hauetan hainbat hiribildu gipuzkoarrei dokumentu ugari berretsi zitzaizkien. Ald. MARTÍNEZ DíEZ, G.; GONZÁLEZ DíEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección... (1370-1397)*, aip. lan., 508-509 eta 523-534 dok. Ikus lerro hauen amaierako Eranskin Dokumentala, 6-8.

(91) Azken hauen eta herriaren arteko harremanen inguruan, bereziki XV. mende hasieratik aurrera, ikus AYERBE IRIBAR, M^a. R.; eta SAN MIGUEL OSABA, A. *Archivo municipal de Ataun (1268-1519)*, Donostia 2013, Eusko Ikaskuntza.

(92) “*otorgamos nos, el dicho conçejo de la dicha villa de Villafranca, de pagar por nos mismos syn parte de vos, los de las dichas seys collaçiones ni de algunos de vos, los mill maravedis que devemos e avemos de dar al rey nuestro señor por el pedido de cada año*” (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1294-3, 54 au. fol.).

gain, exentzio fiskala beste esparru batzuetara hedatu zen: auzotartzen ziren herriek ez zuten **zaintzaileen** soldataren ordainketan parte hartuko eta, halaber, hiribilduko harresi, dorre eta ubideen konponketetan aritzetik libre izango ziren⁹³. Dena den, hainbat alorretan zergadun maila ezarri zitzairen, tartean, bestelako errege-zerbitzuetan eta zehaztugabeko “beste hainbat gastutan”.

Diruaren ordainketa bideratzeko sistema fiskal zuzena erabiliko zen, banaketa, alegia, hiribilduak ordura arte erabilitako irizpideak jarraituz eta bakoitzaren egoerara egokituz: “*a cada vno segund su estado e segund que los del cuerpo de la dicha villa han vsado e acostunbrado, e que los paguemos todos en vno, segund fuere repartydo*”. Banaketa horiek bideratzeko, herriei 200 maraitik gorako taldikidak jakinarazi behar zitzaizkien, horiek burutzerakoan kolazioetako hamabien partaidetza bermatuz. Gastu-banaketa hauetan, ordea, ez ziren auzo guztiak arituko. Horietako hainbat ordainketatik salbuetsi ziren. Bi auzo izan ziren egoera berezi horretan gelditu zirenak, eta ez nolanhikoak gainera. Batetik, Lazkaoko jaunaren anaia Juan Ruiz Lazkaokoa; bestetik, Igartzako jaun zen Gartzia Lopez Igartzakoa. Modu honetan, ahaide nagusien hainbat leinuk inguruetan zuten garrantzia agerian geratzen zen⁹⁴. Lazkao salbuesteko arrazoia Zaldibiko Mugertza etxe, basetxe eta ondasunak izan ziren; Igartza, aldiz, Igartzan zituen ondasunengatik geratu zen maila fiskal horretan. Edonola ere, egia da hainbat zerga-betebehar ezarri zitzaizkiela eta herrietako beste auzoek ez bezala, hiribilduko dorre, harresi eta ubideen eraikuntza eta konponketa-lanetan lagundu beharko zuten, zegokiena ordaindiz. Ikusi dugunez, herriek ez zuten halako azpiegituren konponketa edo eraikuntza-lanetan parte hartzeko obligaziorik. Dena den, aitortu behar da esparru fiskal honen inguruan xedatutakoak nahiko zalantzarriak zirela, Igartza eta Lazkaoren parte-hartzea borondatezkoa baitzen, herrixkekin gertatzen zen moduan:

(93) “*Otrosí, los salarios e alqueles de los beladores de la dicha villa e de faser e repartir los muros e las torres e açequias de la dicha villa sin parte e costa de vos, los de las dichas seys collaçiones ni de alguno de vos, agora e todo tpo del mundo que por venir sea*” (ibidem, 54 au. fol.).

(94) Gogoratu dezagun Igartzakoek Urretxuko bizitza politikoan zuten indarra (DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo I...*, aip. lan., 69. dok.). 1549an, Igartza oinetsiari zegozkion jabetzak 15.000 dukatetan balioztatuak zeuden eta haien barnean Igartza eta Igartzaolea burdinolak eta bestelako lur, soro, benta, basetxe, dolare eta errotak zeuden, guztiak Beasainen. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1401-1.

“segund vno de las dichas collaçiones, si por su voluntad los de las dichas seys collaçiones les quisieren aser en ello”⁹⁵.

Zalantzarik ez dago Ordiziako auzo kategoria eskuratzen zuten herriek onura handiko hitzarmena lortu zutela. Hainbat ordainketaz libratzeaz gain, beste mozkin batzuk erdiesteko aukera izan zuten. Batetik, herrixka bakoitzeko auzoei, beraien upategietako sagardoa eta haragia, ogia eta beharrezko zituzten beste hainbat produktu beraien herrian bertan saltzeko aukera zuten, ordura arte egiten zen moduan. Hiribilduak ez zuen horretan inolako eskumenik izango.

Bestetik, eta deigarriagoa dena, auzo berriek beraien eragina udal-hauteskundeetara zabaltzea lortu zuten; puntu hau, gainera, hitzarmeneko lehenengoa zen. Egia da hiribilduak bere alkate, hamabi eta berezko zituen ofizialak urtero aukeratzeko eskumena gordetzen zuela, baina Seguran eta Tolosan gertatu ez bezala, oraingoan herrixkek hauteskunde prozesu horretan esku-hartzea erdietsi zuten: komunitate berriei, bakoitzak bidaliko zituen bi gizon-onen bitartez, udalbatza berriaren izendapenean egoteko eskumena aitortzen zitzairen, baina ez hori bakarrik; ordezkari horiek ez ziren ikusle soilak, hauteskunde prozesuan parte-hartze zuzena izango zuten⁹⁶.

Baldintza horiek ikusita, zalantzarik ez dugu horrek guztiak hiribilduak bere herriekiko ahulezia bat islatzen duela. Horregatik, inguruko populazio-guneetako laurogeita bi biztanleek lortutako onurek beraien bizilagunengan berebiziko eragina izan zutelakoan gaude, zer esanik ez 1382ko hitzarmenak ondorengo urteetan bi errege-berrespen jaso zituenean, 1383ko martxoaren 18an eta 1391eko apirilaren 20an, hain zuzen ere. Ondorioak urte gutxiren buruan ikusi ziren: historiografikoki mugarri izan den kontratuak, 1399ko apirilaren 8an sinatutakoak, aurrekoak baino ia pertsona kopuru bikoitza hartu zituen (**1. Taula**)⁹⁷. Oraingoan, horietako asko leku berrietatik zetozen.

(95) Halako baldintzak ez ziren ezohikoak izan Gipuzkoako beste kasu batzutan 1420 urtean, adibidez, Arrasateko herrixkek keXuak adierazten zituzten honen inguruan. Ziotenez, hiribilduari zerga edo petxuak ordaintzera behartuta egotekotan, eta ez beraien borondatearen arabera, hobe zen “*non ser nin querer ser vesinos de la dicha villa*”. Ald. ACHÓN, J. A. “*A voz de conçejo*”..., aip. lan., 185 or. eta hh.

(96) “*pero que quando acaesçiere qu’el tiempo que los alcaldes e alcalde o otros oficiales qualesquier que se ouieran a poner, que los de las dichas seys collaçiones de cada vna d’ellos sean llamados a la dicha villa e venga a ella cada dos omes buenos al dicho conçejo e los de la dicha villa, juntados a conçejo segund que lo han de vso e de costunbre de se ayuntar, e los dichos dos omes buenos de cada collaçión con ellos, en vno, conpongán sus oficiales con conçejo de todos e (...) con la mayor partido [sic]*” (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1294-3, 53 at. fol.). Ikus baita, Erankin Dokumentala, 6.

(97) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 41 or.

1382an auzotartu ziren sei komunitateekin batera, hitzarmen berrian Ataun, Legorreta eta Lazkao hainbat auzo ere ageri ziren; hauetatik, Legorretaren aipua, ziurrenik, hamazazpi urte lehenago sinatutako en lorratza jarraituta eman zen. Eskritura berriak hegoaldean zeuden bi leku hartu zituen (Lazkao eta Ataun); Legorretarekin aldiz, Tolosa eta honen jurisdikziopean zeuden beste hainbat lekuekiko mugara hedatu zen Ordiziako jurisdikzioa. Hein berean, ezin dugu ahaztu Ataunek Nafarroako mugarekiko eta Enirio-Aralar espazioaren ustiapenean zuen kokapen estrategikoa; bi ezaugarriek, gainera, hainbat tirabira sortzen ari ziren ordurako. Halaber, kontratu berria ezingo genuke gatazka eta tentsio gorakadatik aldendu, bai Gaztelako Koroaren baitan bizi zenarekin, bai Ehun Urteko Gerraren inguruan bizi zenarekin.

1. Taula Ordizian auzotutako herriak eta pertsona kopurua (1382-1399)*

Herria \ Urtea	1382	1399	Bietan agertzen ziren pertsonak
Altzaga (1)	11	12	1
Arama (1)	4	4	-
Ataun	-	42	-
Beasain	14	26	1
Gaintza	16	21	7
Itsasondo	11	18	2
Lazkao	1	6	1
Legorreta	7	20	2
Zaldibia	18	19	4
Guztira	67	168	17

(*) Iturriak: ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1294-3 eta AYERBE IRIBAR, M.^o R.; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., 8. dok. Ald. GOROSABEL, P. de *Diccionario...*, aip. lan., 727-731 orr.; ECHEGARAY, C. de; eta MÚGICA, S. *Villafranca de Guipúzcoa. Monografía histórica*. Irun 1908, Tipografía de la Viuda de B. Valderde, 384-390 orr. Azken bi lan horietako transkribaketak ez datoz Rosa Ayerbe eta Ana San Miguelek egindakoarekin guztiz bat, bereziki Ataun, Gaintza, Itsasondo eta Zaldibiako auzoen izen-abizenei dagokienean. Oharrak: (1) Altzagari dagokionez, 1382 eta 1399an bertako hamabi moduan Martin Ibañez Mendiolkorari aipamena egiten zaio. Araman, eta 1382an, izen bereko pertsona bat da hor ere hamabi dena eta agian pertsona bera dira.

Argi dago 1382ko mugimenduak arrakasta izan zuela. Edonola ere, harritu egin gaitzake bigarren eskrituran ageri diren 82 auzoetatik, 18ren izenak bakarririk izatea lehenengo hitzarmenean ageri zirenak. Agian faktore biologikoez eragindako kontua da (ordurako zenduak zirelako), edo alde aurretik auzotar-tuak izaki, oraingoan parte-hartzea beharrezko ez zutelako ikusten. Edonola ere, lehenengo hitzarmenean ageri ziren pertsonen aipamenak, horiek beraien bizilagunen gain zuten eraginaz hitz egin diezaguke, tartean landa eremuko aitonsemeak, gizon nahiz emakumeak⁹⁸. Laburbilduz, eskritura berriak hiribildu baten jurisdikziopean gelditzearen onurak agerian uzten zituen eta Gipuzkoako hainbat lekutan arrakastaz hedatzen ari zen eredu batez hitz egiten digu.

Idatziaren helburua auzo berrien onura bilatzen zuen, gizon zitaletatik babestuak izan zitezten, bereziki Nafarroako muga zeudelako. Auzotzeak indarkeria eta zentzugabekerietatik babestuko zituen, erregearen alde hobeto egiteko aukera izango lukete eta horrez gain, biztanleak lasai eta bakean biziko lirateke⁹⁹. Guztien aburuz, Ordiziako auzo izatearen argudio nagusia honakoa

(98) Martin Behetiakoak, adibidez, bere izenean eta Eizagirre eta Auzibia oinetxeen izenean ziharduen. Gaintzan, aldiz, Joan Migel Urretabizkarrakoak, beraz gain, Gorostizu eta Elormendi oinetxeak ordezkatzzen zituen. Azpimarragarria den beste datu bat emakumeekin zerikusia du, hainbat baitira bertan aipatutakoak. Guztiek “andre” (edo, hobe esanda, gaztelaniazko “doña”) tratamendua dute, beraien gizarte-maila altua islatuz. Izan ere, emakumeen aipamena oso gutxitan ematen da eta lotura gehiago auzotzea norbanako batzuek edo herririk baten zati batek egiten dutenean, herri oso batek egiten duenean baino. Seguran, adibidez, ez zaie aipamenik egiten eta Tolosan ere, ia beste horrenbeste. Salbuespena 1384ko Albiztur eta Tolosaren arteko hitzarmena dugu, non andre Elbira Zalakaingoa agertzen den. Bergarak 1348, 1358 eta 1391 urteetan sinatutako auzotze-hitzarmenetan, aldiz, egoera bestelakoa da. Azken urte horretan Antzuola eta Usarragaren (edo bere auzo gehienen) auzotartzea ekarriko du, eta bertan emakumeek duten papera azpimarratua izan da; beste bietan ordea, ez. Ald. TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 31-32 eta 40 orr. Emakumeen partaidetzaren inguruan, ikus duela gutxi argitaratutako CASTRILLO CASADO, J. “Las mujeres del común y la sociedad política en el País Vasco bajomedieval”, in SOLÓRZANO TELECHEA, J. A.; ARIZAGA BOLUMBURU, B.; eta HAEMERS, J. (koord.) *Los grupos populares en la ciudad medieval europea*, Logroño 2014, Gobierno de La Rioja-Instituto de Estudios Riojanos, 499-522 orr. Aipatu ditugun agirietarako, ikus MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección...* (1200-1369), aip. lan., 290. dok.; MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; y MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección...* (1370-1397), aip. lan., 594. dok. eta HH. EE. *Colección documental del Archivo Municipal de Bergara. Tomo I (1181-1497)*, Donostia 1995, Eusko Ikaskuntza, 14. dok. Bergarako kasuetan emakumeak ageri badira, ez da halakorik ikusten 1348an Azpeitiaritzen diren ia 90 biztanleetan. Ald. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección...* (1200-1369), doc. 239. dok.

(99) “*mejoramiento de nos los sobredichos, e amparo e guarda de los mallechores, por quanto estamos en frontera de Navarra, para que seamos mejor defendidos de las fuerzas e sinrazones, para servicio del dicho señor rey, e nos podamos bivar en más sosiego e paz*”.

zen: “*entendemos que por la dicha vecindad seremos mejor defendidos, así en cuerpo como en nuestros vienes, de los cavalleros [e] escuderos que son en la comarca, poderosos*”. Hitzarmenean babes arrazoiek funtsezko lekua izateak ez gaitu harritu behar. Hainbat urte lehenago, Gaztelan bizitako gerra zibilak eta Libourne-ko Itunak, Nafarroari, mende t’erdi lehenago galdutako lurraldeak berreskuratzeko aukera eman zizkion. Testuinguru horretan, Nafarroako Karlos II.ak Gipuzkoan berrezartzeko asmoei ekin zien. Mugimenduek berebiziko garrantzia izan zuten Ordizia inguruetan: Amezketako jaun Pedro Lopez Muruakoaren partaidetzak eskualdeko kontrola ekarri zien nafarrei. Are gehiago, Muruak hiribilduan eta Amezketako gotorlekuan gizonak utzi zituen, eta baliteke berak Ordiziako alkatea ere izendatzea¹⁰⁰.

Auzotartze eskrituran bildutako baldintzek beste hitzarmenetan adostutako batzuk zekartzaten, tartean alkatearen deialdi eta epatzeetara joateko betebeharra, hiribilduko udalbatzak egingo zituen ordenantza eta akordioak betetzea eta alde bakoitzak aurretik zituen ondasun eta barrutiak errespetatzea. Ordea, askoz azpimarragarriagoak dira ematen ziren aldaketak.

Oraingoan ez gaude herrixkentang horrenbeste onura ekarriko zuen kontratu baten aurrean; aitzitik, idatzi berrian obligazioak gehiago ziren. Aurreko hitzarmenean islatzen zen borondatezko zerbitzuen aldean, 1399an populazio-gune auzotuei hainbat gastutan parte hartzera behartu zitzairen: hiribilduko harresi eta hormen ingurukoak, zaintzaileen soldatak, udalbatzak zeritzen “*todas las otras facenderas e cargas*” eta bestelako kontuak; hau da, hasiera batean lan edo zerbitzu pertsonalen bidez gauzatzen ziren betebeharrak, **auzolan**¹⁰¹, zerga edo kontribuzioak. Gastu hauek banatzerako garaian, auzo guztiak hiribilduko harresi barruan biziko balira bezala hartuko ziren (“*como si propiamente ficiemos nuestra morada de dentro de los muros*”); Ordiziako eta bere herrixketako biztanleak maila berean uzten zituen, eta ordura arte

(100) HH. EE. *Los señores de la guerra...*, aip. lan., 25-27 orr. eta 155 eta 159 dok. “Amezketako” gotorlekua baino, “Ataungoa” irakurri behar dugulakoan gaude. Gipuzkoako behe-nobleziak testuinguru horretan izandako partaidetzaren inguruan, ikus FERNÁNDEZ DE LARREA, J. A. “La participación...”, aip. lan.

(101) RAE-ren arabera, “*hacendera*” hitzaren esanahia hori da, auzolana; guztien onurarako izanik, auzo guztiak egitera behartuta zeuden lanak. Hala ere, Erdi Aroran, mendekoek erregearen edo jaunaren mesedetan burutu beharreko lan edo zerbitzuak ziren. Auzotze-hitzarmenek “*jaun-meneko*” itxura handia zuten, ildo horretatik ulertu behar ditugu: jurisdikzioan sartzearen ordainetan, herriek hiribilduarekiko zuten betebeharretakoa bat; jorrazten ari garen gaiaren haritik, “*gastu amankomun*” horietako bat. Ikus PUYOL, J., *Orígenes del reino de León y sus instituciones políticas*. Madril 1926, Imprenta Viuda e Hijos de Jaime Ratés Martín (arg. faks. Valladolid, Maxtor, 2006), 195-197 orr. Ikus baita ere, Leóngo Llonbera herrirako, <http://www.llonbera.es/facendera.htm> (2018-02-02 konsultatua).

hiribilduan zerabilten zerga-sistema berdina erabiliko zen. Ordainketen arrazoiak honakoak ziren: errege-zorrak, meatze kontuak¹⁰² eta bakoitzari zegozkion betebeharrak.

Horrez gain, errotak ematen zuen errenta, guztien onurarako erabiliko zela adostu zen. “Guztien onura” kontzeptu horrekin baina, hiribilduaren intereserako ziren gastuak islatzen ziren: udalbatzaren auzolanak kudeatzeko, harresi eta dorreen eraikuntza edo konponketa-lanei aurre egiteko eta udalbatzak ongi zeritzon edozertan erabiltzeko¹⁰³. Bi kontratuen ezberdintasunekin amaitzeko, berrian ez zen udal-hauteskunde sistemari buruzko inolako aipamenik egiten. Hau benetan azpimarragarria da, lehenago herriek lortutako eskumen garrantzitsua baita. Honen inguruan beherago jardungo gara, baina bigarren hitzarmen horretan ezer aipatzen ez bazen ere, badirudi herrixketako ordezkariak hiribilduko udalbatzaren izendapenaren inguruan nolabaiteko eskumenak mantendu zituztela, edo galtzekotan, aurrerago berreskuratzeko aukera izan zutela.

Baina betebegar horiez gain, eta hauteskundeen kontua alde batera utzita, auzotze berriarekin ere herrixkek zenbait eskubide erdietsi zituzten. Lehenengo eta behin, nahiz eta zainzaileen soldata ordaindu behar, izaera militarreko xedapen bat sartu zen: herrixketako biztanleak hiribildura joateko betebeharra izango zuten, baina Gipuzkoa barnean gerra piztekotan soilik. Era berean, udalbatzak hainbat lan egiteko abere eta idien indarra erabili

(102) Honen inguruan zalantzak ditugu. Rosa Ayerbe eta Ana San Miguelek “*seamos tenidos a todos los muros e beladores e a todos las otras facenderas e cargas e cosas necesarias que el concejo hoviere menester fazer (...) quier sean mineros e cargas personales quier sean reales*” irakurtzen dute; Gorosabelek (*Diccionario... aip. lan.*, “Villafranca”-ri dagokion eranskin dokumentala), aldiz, “*quier sean números y cargas personales, quier sean reales*”. Biek dute esanahi ezohiko eta berezia, baina ikusitakoa ikusita, lehenengoei jarraituko genieke. Gainera, XIV. menderako daturik ez badugu ere, XV. mende amaieran Zaldibian meak topatu zirenen berriak daude. AGS. RGS. 1495-VIII, 26. folioa. Mea, meatoki edo meategien inguruan, DÍEZ DE SALAZAR, L. M., *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI). Tomo I: Historia*, Donostia 1983, Luis Haramburu, 154-161 eta 224-225 orr. eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socioeconómicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). (Edición preparada por M.^a Rosa AYERBE IRIBAR)*, Donostia 1997, Dr. Camino, 182 or. Edonola ere, hitzaren inguruan zalantzak izaten jarraitzen dugu.

(103) AYERBE IRIBAR, M.^a R; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., 8. dok. “*pero que la renta del molino del dicho concejo que vos dicho concejo seades tenuto de poner en las facenderas del dicho concejo por siempre jamás, así como en la cerca, torres e en otra cosa que e cuerpo del concejo tovieren por bien, que sea provecho común de todos*” (ald. GOROSÁBEL, P. de *Diccionario...*, aip. lan., 729 or.). 1506ko auzian behin eta berriz defendatzen den xedapena, nahiz eta 1399ko hitzarmenaren kopia eskuetsirik sartu ez. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1294-3 eta 1295-1 espedienteak.

behar bazuen, herrixketako auzo eta biztanleak ez zeuden beraien animaliekin parte hartzera behartuak; betebeharra baino, lan bolondresa zen hori eta auzo berrien esku utzi zen Ordiziara joateko hautua. Hasiera batean Ordizia eta bertakoak ziren hori ematera behartuak zeuden bakarrak, herrixkek ez zuten zergatik egin behar, “*salvo si por nuestra [herriena] agradable plazer quisiéremos ayudar*”. Oraingoan beraz, aurreko kontratuen harresi eta hormen inguruan adostutakoaren antzeko neurria hartu zen.

Hiribilduak ere herriekiko betebeharra zuen. Zehazki, erregeak edo Ermandadeak herrixkei eskatzen zizkieten zerbitzuetan parte hartu beharko zuen Ordiziak, eskatzen zenaren banaketa Ordiziak aldez aurretik erabiltzen zuen sistemaren arabera izango zelarik. Zerbitzu edo lan horiek dirutan edo gizonetan eman zitezkeen, eskatzailearen arabera, eta hiribilduari eta herri bakoitzari zegokiona banatzeko, Villafrancako gobernuak indarrean zuen formula erabiliko zen¹⁰⁴. Gainera, testuan herriek beraiek ezarritako baldintza gisa adierazten da; nolabait, beraiek bestelako lan batzuk egin edo ordaintzera behartuta bazeuden, monarkak edo Ermandadeak herrixkei zerbait eskatzekotan, hiribilduak ere horretan parte hartzeko obligazioa izango zuen¹⁰⁵.

Azkenik, hiribilduak beste baldintza bat ezarri zien auzo berriei: Ordiziaren baimenik gabe ezingo zuten beste udalbatza, zaldun edo buruzagirekin inolako tratu, zinpetze edota hitzarmenik egin. Amaieran jarritako baldintza hau ez da ezohikoa, baina hala ere, hitzarmena sinatzeko ematen diren argudioekin eta herrixkek harresia eta hormen konponketa-lanen ordainketan parte hartu behar zutenarekin batera, XIV. mende amaieran eskualdeko egoera guztiz baketsua ez zela adierazten digu. Dena den, eta testuingurua ezegonkorra izanik ere, oraingoan ez da 17 urte lehenagoko Ordiziaren ahultasuna islatzen. Hori baino, kontratu berri honek hiribildu batek irudikatzen zuen babes eta justizia legoke. Zer esanik ez Ermandadeak Ordizia bilera lekutzat zuenean.

(104) Baliteke atzetik errege-eskariaren kontua egotea: 1382an herriak bere ordainketatik salbuetsita gelditu baziren ere, 1463 urtea baino lehenagoko gastu-banaketetan hortan ere aritu ziren. Hala, azken urte horretako martxoko banaketan, eskariagatik ordaintzen ziren 2.000 maraiak aipatzen dira. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, 189 at.-190 au. fólk.

(105) “*Otrosí, si por aventura alguna cosa de pagar de parte del dicho señor rey a nos, las dichas colaciones, fuere cargado para en servicio, así en homes o en maravedís o en otra cosa cualquiera, o por la hermandad de Guipúzcoa de las costas e de los repartimientos que suelen facer, así seades tenudos vos el dicho concejo de pagar de esto como nos somos tenudos de pagar todas las otras cosas que suso son dichas, repartido todo ello según que vos el dicho concejo habedes usado y acostumbrado*” (AYERBE IRIBAR, M. ^a. R.; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., 8. dok.).

2.4. Komunitate zatituak

Orain arte bildu ditugun adibide gehienek populazio-gune edo herrixkek beraien osotasunean abian jarritako mugimenduak osatzen dituzte. Hau, ordea, ez zen jurisdikzioratze eredu bakarra izan. Bestelako prozesuak eman ziren, herriak beraien osotasunean hartu ez zituztenak. Egoera hau ez zen ezohikoa suertatu Gipuzkoako beste hainbat lekutan, adibiderik aipagarrienetakoak Zubieta eta Urnieta izan daitezkeelarik, eta lerro hauetan ikerketa-gai dugun geografia esparruan ere, halakoak gertatu ziren. Hiru adibide izango ditugu: Ezkio, Gabiria eta, hein txikiago batean, Lazkao¹⁰⁶.

Lehenengo biak Segurari lotu zitzaizkion XIV. mende amaieran. Hamarkada gutxiren buruan, aldiz, biak, Zumarragarekin batera, Arieriako alkatetzara lekualdatu ziren. 1448an emandako mugimendu horretan, baina, ez zuten Ezkio eta Gabiriako biztanle guztiek parte hartu; batzuk Seguran mantendu ziren eta egoerak bere horretan iraun zuten, gorabeherarik gabe, XVI. mende hasiera arte. 1520 urte inguruan, aldiz, Ezkiok Seguratik aldenzeko lehen saiakera abian jarri zuen, Arierian sartzeko asmoz¹⁰⁷.

(106) Lazkaoren ingurukoak ez ditugu oraingoan jorratuko, populazioaren zati handi bat baino, pertsona bakan batzuk izan zirelako Azeria utzi eta Ordiziarako bidea egin zutenak. Zubietarako, ald. GOROSÁBEL, P. de *Diccionario...*, aip. lan., 644-645 orr.; MURUGARREN, L. *Usurbil. Aguinaga, Urdayaga y Zubieta*, Donostia 1974, AKM; ZUBIMENDI, J. R., aip. lan., 81-87 orr.; TELLABIDE AZKOLAIN, J. *Usurbilgo baserriak eta baserriarrak*, Usurbil 2004, Noaua! Kultur Elkartea; SANCRISTÓVAL, P. *Usurbil, un municipio del extrarradio de San Sebastián*, Zaragoza 1958, Departamento de Geografía Aplicada del Instituto Elcano, bereziki 64-65 eta 69 orr. Urnietarako, ald. berriki Rosa Ayerbek ateratako lan bikaina (*Urnieta, de tierra...*, aip. lan.) eta baita ere, GOROSABEL, P. de *Diccionario...*, aip. lan., 561-562 eta 604 orr.; DÍEZ DE SALAZAR, L. M. “La vecindad en Hernani...”, aip. lan., 375 orr.; DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas...*, aip. lan., 270-271 orr. Hauen ingurukoak gure tesiaren jatorizko lanean bildu genituen. Ikus IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., I. liburukia, 69-77 orr.

(107) Honetarako, SUA, C-5-I-1-37. Dokumentuaren erregesta edo laburpenak muturreko data moduan 1520 eta 1528 urteak aipatzen baditu ere, idatzi gehienak 1524-1528 epean sortuak ditugu. Sortaren lehenengo agiria Segurak idatzitakoa da, eta bertan, duela lau urte Ezkiokoak “*tentaron con dádiuas y fauores de aver prouisión de Su Magestad para se eximir*”. Idatziaren urtea ezin dugu zehaztasunez irakurri (bai ordea hila eta eguna, urriak 27), baina Ezkioren nahien inguruan Basarteko Batzar Bereziek emandako agindua 1524ko uztailekoa dela aintzat hartuta, Seguraren idatzia urte horretakoa dela uste dugu. Ald. baita ere, IRIJOA CORTÉS, I. *Gipuzkoa, “so color de Comunidad”...*, aip. lan, 186-187 orr. eta 839 oin-oharra, eta TRUCHUELO GARCÍA, S. “Seguraren botere politikoa Aro Modernoan”, INTXAUSTI REKONDO, J. (zuz.), aip. lan., 161-162 orr. (155-173).

Izatez, XV. mende erdialdetik herri horretako biztanleen gehiengoa Alkatetza Nagusiarekin elkartu zen; Goierriko hiribilduaren jurisdikziopean gelditu zirenak gutxi batzuk besterik ez ziren izan. Zatiketa honek, dena den, ez zuen bere “unibertsitate” izaera alboratu, eta hiribildua beti zuzenduko zaio honela; arrazoia bere populamendu barreiatuan zetzan, hitzaren esanahiak dioen moduan.

Gorosabelek Segurako barrutian zein etxe edo auzo geratu ziren jakiteko ageriko zailtasunak zituela aitortu bazuen ere, berak emandako hipotesia bide onetik doala deritzogu. Egile tolosarraren ustetan Anduagako auzunea izan zen hiribilduaren jurisdikziopean mantendu zena. 1524-28 bitartean eman zen Seguratik banantzeko saiakera prozesuari erreparatzen badiogu, protagonistak hango biztanleak izango dira, ahalordea non ematen zuten aintzat hartzen badugu bederen. Hau oso leku esanguratsuan idatzi zen: Anduagako Luzia Donea baselizan, hain zuzen ere. Bereiztea saiheste aldera, Segurak bereak eta bi egin zituen, helburua erdietsiz¹⁰⁸. Edonola ere, azpimarratu behar dugu ezkiotar horien helburua ez zela erakunde berri bat sortzea, hiribildu titulu-lua lortzea. Aitzitik, xedea xumeagoa zen: Arieriako alkatetzan auzotartzea, beraien auzokideek bere garaian egin zuten antzera.

2.5. Hiribilduen auzotzea

Gune batek beste baten jurisdikziopean sartzeko ekimenak ez zituzten beti maila juridiko ezberdina zuten populazioek protagonizatu. Hainbat kasutan kategoria bereko guneak ditugu, edo beste era batera esanda, bi hiribilduk sinatutako akordio baten aurrean aurkitzen gara. Hiru kasu ditugu horren lekuko: Urretxu, Alegia eta Villabona. Lehenengoa, Seguran sartu zen; beste biak, aldiz, Tolosako jurisdikzio zati izatera iritsi ziren.

2.5.1. Urretxu Segurako jurisdikziopean

Aitortu behar dugu garai hori oso laburra izan zela. Urretxu 1383 urtean sortu zen, hiri-gutuna orduan lortuz. Beste batzuekin ez bezala, oraingoan “sortu” aditzaren erabilera oinarri sendoa du, ez baikaude alde aurretik eratutako herri baten aurrean, urte hartan eman ziren xedapen eta aginduen ondorioz eratuko baita. Hasiera batean, Urretxuren Seguraratzearen aitzakia Ezkioren

(108) GOROSÁBEL, P. de *Diccionario...*, aip. lan., 165 or. Ald. SUA, A-1-1-2, 1 au. fol. 1547ko irailaren amaieran ospatutako udalbatzarrean, Ezkioko ordezkari bat beste herrixketako ordezkariekin batera dakusagu, harresi eta hormen azterketari buruzko bileran. Iku baita ere, TRUCHUELO GARCÍA, S. “Seguraren botere politikoa...”, aip. lan., 161-162 orr.

gaineko jurisdikzioagatik abiatu zen, eta eztabaidak bi hiribilduak aurrez aurre jarri zituen¹⁰⁹. Alabaina, atzetik zeuden arrazoirik nagusienak Urretxun bando edo alderdiek sortzen zuten ezegonkortasun, tentsio eta borroketan oinarritzen zirela ematen du. Gorago esan dugunez, arazoek Gipuzkoako Ermandadearen esku-hartzea ekarri zuten, epaia 1390ean emanetz. Bertan, udal ofizialen izendapen sistema ezarri zen, bando eta alderdietan oinarritutako banaketa ezarritz. Ez du ematen arazoek hoherantz egin zutenik eta horren ondorioz, barne tentsioek gora egingo zuten, harik eta auzo kopuru handi batek Segurara sartzeko beharra ikusi zuelarik, auzotzeak justizia jardun hobe bat ekarriko zuelakoan.

Ezegonkortasun arrazoiak ez ziren Seguraratzea eskatzeko jarri ziren bakarrak izan. Urretxuk oinarri ekonomiko eta demografikoak zituzten zergatiak ere eman zituen pauso hura emateko. Batetik, Segurak zituen pribilegio fiskalak gozatzeko aldera; gogoratu behar dugu ordurako segurarrak **errege-sari** guztien ordainketatik salbuetsiak zeudela, alkabala izan ezik. Bestetik, auzotzearekin Errege-Urik edo Villarreak bere populazio galera eta gabeziari aurre egiteko aukera ikusten zuen. Agidanez, fundazio garaitik ordura arte, hiruzpalau biztanle joanak ziren Urretxura, besterik ez, barne-garapena sakonki eragotziz. Ez hori bakarrik, hori gertatzeko arrazoiaren artean Segurak eskuratutako sari eta pribilegioak zeuden. Hauek jendearengan erakargarritasun handia sortzen zuten eta ondorioz, eskualdeko biztanleen artean joera handiagoa zegoen Segurara joateko, Urretxuko auzo bihurtzearena baino¹¹⁰.

Prozesu guztiari 1405eko uztailean behin-behineko amaiera jarri zitzaion, aurretik emandako arbitro-epaiak erregearen berrespena jaso ondoren. Xedatutakoaren ondorioz, Urretxu hiribildua eta bere barnean auzotutako Zumarraga eta Ezkioko herrixkek Segurarako bidea egin zuten¹¹¹. Aurreko paragrafoetan aztertutako auzotze-hitzarmenetan, bi aldeen aldeko xedapenak ikusi ditugu. Horietan, arrazoiak arrazoi eta egoerak egoera, hiribilduek zein beraien auzo berriek nolabaiteko lorpen positiboak erdiesten zituzten. Baina 1405ean gauzak oso bestelakoak izan ziren. Osoa Martinez Zibizkitzakoak,

(109) “*así sobre razón de la vezindat que los de la dicha Villarreal demandavan a los de Ezquioga (...) como sobre razón que los de la dicha Villarreal, entendiendo bevir más segura e sosegadamente por ser vezinos de la dicha villa de Segura que la tierra se poblaría mejor por ello, como sobre todos los otros pleitos e contiendas e demandas e devates que la una parte avía contra la otra*” (DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 106. dok.).

(110) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 45 or. eta bertako 83 oin-oharra.

(111) *Ibidem*, 35-36, 38-40 eta 44-49 orr.

Iñigo Santxez Agirrekoak eta Pedro Areiztik 1390 eta 1405 urte bitartean emandako epaia ez zen Urretxurako hagitz onuragarria izan, jurisdikzionalki, behintzat¹¹².

Lehenengo eta behin, auzotartzen zen hiribilduak bere alkateak izendatzeko eskumena galdu zuen; hamabia hautatzekoa mantendu zuen, soilik. Modu honetan, Seguraren maila juridiko bereko populazio-gune batek hiribildutasunaren ikur nabarmen zen berezko justizia jarduna etenda ikusten zuen, eta horrez gain, hiribildu titulurik gabeko eta herrixka soil ziren beste hainbat guneen maila berean geratzen zen. Beste era batera esanda, praktikan, eta errealitate gordinak aditzera emango zuenaren arabera, Urretxu maila juridiko apalago baterako bidea egin zuen.

Neurri hau hartzeko arrazoiek agerikoak ematen zuten: Oriako hiribilduak Urretxuko gobernuan alderdi edo bandoak izaten ari ziren eragin negatiboa mozteko egiten zuen. Halaber, garai hartan Segurako herrixkek hiribilduaren interesei kontra egiten ari zitzaizkion, horretarako hainbat leinuren laguntza jasoz. Hori gutxi balitz, Seguraren eta Lazkaoko jaunaren eta honen ahaide eta tregoaikideen arteko liskarrak areagotzen ari ziren¹¹³. Ondorioz, arbitroek Urretxuren auzotartzeak ekar zezakeen bandoen eragina mozteko oinarriak jarri nahi zituzten. Horretarako, gainera, oso baldintza adierazgarriak jarri ziren.

1405ean erregeak berretsitako epaiak Urretxuko bandoetako bateko kide zen Juan Lopez Igartzakoaren inguruan hainbat baldintza ezarri zituen. Hasiera batean, bera eta bere ondasunak Seguraren eta bere auzoen artean banatuko ziren zerga edo zorren ordainketatik libre zeuden; egoera hau Mendiaratz burdinolaren erdira ere hedatuko zen, beti ere Igartzak edota bere oinordekoek erosiz gero¹¹⁴. Bestalde, bere tregoatan 10 gizon izateko aukera ematen zitzaion. Arbitro-epaiak zehatz-mehatz aipatzen zituen hamar pertsona horien inguruan ere neurri esanguratsuak hartu ziren. Hasiera batean ezin ziren hiribilduko auzotasunean sartu, baina aukera txiki bat zuten, beti ere

(112) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 106. dok.

(113) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 42-43 orr.

(114) XV. mende erdialdean, 1465ean, Segurak, Urretxuk eta Igartzatarrek higiezina zedarritu zuten. Ald. DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas...*, aip. lan., 340-342 orr. Egile honen ustetan dokumentu hori zen burdinolaren lehenengo aipamena biltzen zuena.

Igartzaren antolakuntza sasijauntxotiarrari uko eginez gero¹¹⁵. Hauez gain, Zumarraga edo Ezkioko biztanle ziren gazte askeak (“*mançevos sueltos*”) ere, Igartzaren **araldean** sartzeko aukera zuten. Azkenik, Segurako udalbatzari edo, zehatzago esateko, bertako kide batzuei Igartza bera eta bere tregoatan sartuta zeudenen aurka ez egitea agintzen zitzaien, “*salvo si el dicho Iohan Lopes o los de su tregua fizieren caso por què*”.

Baldintzak, garai hartan bizi zen egoeraren adierazgarri bikaina dira; lurraldea eta gizonak zuzentzeko erabiltzen ziren bi sistemen izatearena, hain zuzen ere. Epai-idatziak, hiribilduek eta ahaide nagusiek, bakoitzak bere aldetik zerabilten gizarte-antolakuntza formak ordurako arras ezberdinak zirela agerian uzten du. Dokumentuak aditzera ematen duenaren arabera, XV. mende hasierarako ia ezinezkoa zirudien bi ereduaren baitan egotea; halaberrez bietako bat aukeratu behar zen. Deigarriena gerta daitekeena zera da, leinuen antolakuntza-sisteman oinarritzen ziren tresnak zalantzan ez zirela jartzen. Hiribilduetatik zabaltzen zen bizikidetzatik urrun zegoen mundua izanik ere, sententziak leinu banderizoen izatea bermatzen zuen, pertsona askorentzako zeharo baliaigarria zirenen seinale. Beste era batera esanda, bandoek inguru haietan sortutako tentsioak horren nabarmenak izan ziren, ezen XV. mendeko hastapenetan hartu zen erabakiaren arabera, irtenbiderik onena bi errealitateen biziraupena bermatzea zen, nahiz eta aukera elkarrengandik bananduta egotean oinarritu.

Hainbat leinuren eragina mugatzeko asmoez gain, hiru populazio-guneak Segurartzeko ekimenean hiribilduaren beraren interesak ditugu, hau da, bere eragina eskualde horretara zabaltzeko asmoak. Urte batzuk beranduagoko idatziak, diogunaren adibide aparta dira. 1411ko agiri baten arabera, Ezkio eta Zumarraga Urretxun sartu zireneko mugimendua Oriako hiribilduaren kexuak ekarri zituen, bi herrixkak bere jurisdikziopekotzat jotzen baitzituen¹¹⁶.

(115) Honako hauek ziren: Joan Migelez Olazabarrengoa izeneko hiru pertsona, Pero Agirreko, Joan Olaegiko, Joan Migelez Altunako, Pero Zamorako, Joan Ondarrako, Joan Ibañez “Estacho” eta Lope Sagastiberriako. Beraiekin batera, “jauna eta honen ondasunak” (“*el amo con sus bienes*”) ageri ziren, horren atzetik ziurrenik Igartza bera zegoelarik. Pertsonaia eta bere leinuaren inguruan, TRUCHUELO, S. *La representación...*, aip. lan., 45 or., 85 oin-oharra eta bereziki, AGIRRE-MAULEON, J. (zuz.) “Igartza. Historia eta Kultura Ondarea / Historia y Patrimonio Kultural”, *Beasaingo Paperak*, 8 (2000) (zenbaki monografikoa), eta bertan dauden David Zapirain, Juan Carlos Mora eta Alfredo Morazaren eta Borja Aguinagaldereen artikulak.

(116) “*que quando esta dicha Villarreal se pobló, que entraron en vesindat d’ella las dichas collaciones de Santa Maria de Çumarraga e de Sant Miguell d’Esquioga, sobre lo qual es dicha vlla de Segura, entendiendo que las dichas collaciones le pertenescían, contendió con la dicha Villarreal fasta que amas las partes ovieron de poner el pleito en manos de juesses amigos árbritos*” (DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 131. dok. Ikus baita ere, ibidem, 132. dok., 102 or.).

Epaia beste baldintzei dagokienez, auzotze-hitzarmenen lerro nagusiei jarraitzen zieten. Ezkio eta Zumarragako hamabiei Segurara joatea behartzen zitzaizen, herri bakoitzeko gizon-on batekin batera, errege- nahiz udalbatza-zor-
rrak ordaintzeko burutuko ziren gastu-banaketetara. Halaber, alkatearen deial-
di eta epatzeetara joan beharko ziren, horiek epaile bakartzat izango zituzten
eta, azkenik, Segura ordaintzera behartuta zegoen taldikida, zerga eta zorretan
parte hartzeko betebeharra ezarri zitzaizen¹¹⁷.

Edonola ere, 1390-1405 urte bitarteko epaia ez zen oso inpartziala izan,
argi eta garbi Seguraren alde eginez. Ondorioz, eztabaidak sortzea denbora
kontua besterik ez zen. Erregeak epaia 1405eko uztailean berretsi zuen eta urte
luze baten ondoren, 1406ko abenduan, gauza bera egin zuen Valladolideko
auzitegiak Seguraren alde emandako epai batekin. Azken dokumentu honek,
Urretxuk jarritako salaketaren ondorioz sortutako auzi berriarekin zerikusia
zuen. Bertan, Segurako udalbatzaren kexu zen, Urretxuko auzo guztien eta
herrixken baimenik gabe Villarrealen hiri-gutuna eta bestelako mesede eta
salbuespen-pribilegioak atxikitzeagatik¹¹⁸.

Ondorengo urteetan ez dirudi tentsioek isla dokumentala izan zutenik,
baina argi dago harremanek okerrerantz egin zutela. Horren lekuko 1411n
alde guztiek erregeari luzatutako eskaera dugu, denak adiskidetzeko asmoz
egindakoa. Helburua Urretxu eta Zumarragaren banantzea sinatzea zen, biak
beraien etorkizuna eta estatusa aukeratzeko gai izango zirelarik, bai beste
korporazio batera elkartzeko zein independente izateko. Ordainetan, aldeek,
Ezkiok Seguraren jurisdizkiopean jarraituko zuela adostu zuten¹¹⁹. Modu
honetan, ezkiotarrek erregeari zein udalbatzari zuzendutako zor eta zergak
Segurarekin batera ordainduko zituzten.

Azken gertakari horren ildotik sortutako dokumentazioak, banderizoen
eraginaren inguruan beste hausnarketa bat egitera garamatza, Urretxuren inde-
pendentzian beraien eragina agerikoa izan omen zelako. Esan dezagun 1411ko
urrian egindako adostasun edo adiskidetzeak ordurako Urretxu hiribildu inde-
pendiente bat zela agerian uzten zuela, martxoan emandako errege-baimena-
ren ondorioz lortutakoa. Ordurako alkate, pisuzain eta hamabi batek osatutako

(117) Hamabiek eta gizon-onek bertara joateko baldintza Ezkio eta Zumarragari baka-
rrik ezartzen zaiela ematen du; baina ikusten dugun bezala, aipatutako azken klausula horren
oso antzekoa da eta hiru herriei aplikatzen zaie. Baldintzen inguruan, ald. TRUCHUELO
GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 45 or.

(118) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan.,
114. dok.

(119) *Ibidem*, 131-133. dok.

udalbatza abian zuen. Baina errealitate instituzional horrez gain, dokumentuak dikotomia juridikzional antzematen du; eta hemen datza bandoen eragina. Dokumentuan Igartzako jaun Joan Lopez Igartzakoa eta Martin Lopez Etxaletekoa, Joan Ondarrakoa eta Joan Ibañez Zaltaraingoarekin batera agertzen dira. Azken bi hauen intitulazioan bando edo alderdien eragina ikus dezakegu, beraien burua Urretxuko alkateztat baitute, baina aipatutako Joan Lopez eta Martin Lopezek jarritako alkate moduan: “*alcaldes que se nonbraron de la dicha villa [Urretxu], puestos por los dichos Juan Lopes [Igartzakoa] e Martín Lopes [Etxaletekoa]*”¹²⁰. Hori nahikoa ez balitz, beste adibide bat, aldean arteko adiskidetaren ondoren Urretxuk eta Ezkiok sinatutako adiskidetze dokumentuan dugu. Agiriaren bidez, Ezkio Seguraren juridikzioan mantenduko zela berresten zuten, eta guztia ikuskatzen, lekukoaren artean, Igartzako jauna egongo da¹²¹.

2.5.2. Alegia eta Villabona Tolosan sartu zirenekoa

Hiribildu batzuk beste hainbaten juridikzioan sartzerako garaian, Tolosaren kasua eredugarritzat jarri da, haren maila juridiko bera zuten bi komunitate bildu baitzituen, Alegia eta Villabona.

Prozesu horren adibide gisa Gipuzkoako Ermandadeak 1390eko abuztuaren 12an ospatutako batzarra jarri izan da, bertan aritu zen Tolosako ordezkaria Alegia eta Villabonakoa ere izan zelako. Argudio hau zalantzagarriztat jo dezakegu, bilera horretan beste populazio batzuk haien egoera bertsean baitzeuden: Donostiako prokuradorea Usurbil eta Hernaniren izenean ere jardun zen, Antso Santxex Zuatzolakoak Azkoitia eta Elgoibar ordezkatu zituen eta azkenik, Joan Perez Beristaingoa Azpeitia, Eibar eta Soraluzeren izenean jardun zen¹²². Ondorioz, eta pertsona bera ordezkari gisa izateak zenbait hiribilduren eragin handiagoa islatu balezake ere, horrek ez du esan nahi batzuk beste baten juridikziopean zeudenik.

Dena den, badirudi Tolosak Alegiarekiko eraginen bat izan zuela, hein batean behintzat. Izan ere, bilera hura izan eta hilabete gutxi batzuetara, 1391ko urtarrilean, Tolosak Zizurkilekin eta Alegia berarekin ituna sinatu zuen, azken biak bere juridikzioan hartzeko. Gorago aipatu dugun moduan, idatzian jarri

(120) *Ibidem*, 132. dok., 102 or.

(121) *Ibidem*, 133. dok.

(122) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática...*, Tomo I..., aip. lan., 69 dok.; IDEM “La Hermandad de Guipúzcoa de 1390”, *BRSEAP*, XL (1984), 5-34; MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección...* (1370-1397), aip. lan., 511 eta 512. dok.

ziren puntu gehienak aurreko urteetan sinatutako hitzarmenek biltzen zituztenak ziren. Alabaina, Alegiak ordurako zuen maila juridikoa zela eta, idatziak hainbat zehaztapen ekarri zituen. Hitzarmenean jasotzen zen moduan, hiru guneek, bakoitzak bere aldetik berezko zituen udal-karguak izendatzeko eskumena mantendu zuten. Alegiako kasuan, hamabiez gain, adostutako xedapena bere alkatearen hauteskundeetara hedatu zen. Tolosako auzapezaren eskumena Alegiako epailearen aurrean jorratzen ziren auzien gorako-helegitera mugatuko zen¹²³. Orduz geroztik, bi populazio-guneek bidea elkarrekin egingo zuten.

Villabonaren adibidea, aldiz, ezohikoagoa da. Tolosatik banantze-ko abian jarri zituen saiakera goiztiarrak hainbatetan aipatu dira, baita Probintziako Batzarretan ordezkari zuzena izateko helburuak ere. Prozesu honetan, mugarri gisa bere alde 1536an eman zen errege-betearazlea jarri da, jurisdikzio zibil eta kriminala, zigorrak ezarri, kausa zibiletan jardun eta epaiak betetzeko aingotea aitortzen zitzaion hori¹²⁴.

Alta, Villabonaren berezitasuna ez da bere asmo goiztiarretan islatzen, horiek lortzeko izan zituen arrazoietan baizik. Hiribilduaren nahiak ez ziren XIV. mendean sinatutako hitzarmen baten ondotik sortu, edo beste era batera esanda, ez zen Tolosaren pean mende luze bat egin ondoren gertatutako kontua¹²⁵. Egia da ez dugula bere hiri-gutun edo auzotartze-hitzarmenaren arrasto fisikorik; orain arte, behintzat, ez da horrelako idatzirik aurkitu¹²⁶. Zorionez, honen aurrean baditugu gaia argitzera datozen hainbat datu, 1529an hasitako

(123) ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 33. dok. Alegiaren inguruan, ald. GARMENDIA ARRUEBARRENA, J. “Alegria de Oria en una monografía de fines del siglo XVIII”, *BRSBAP*, XXX (1974), 441-442 orr. (431-463), zeinak Endrike IV.ak 1454 inguruan armarría eman ziola adierazten duen. Ildo beretik, DíEZ DE SALAZAR, L. “Régimen municipal en Guipúzcoa (s. XV-XVI)”, *Cuadernos de Sección. Derecho*, 1 (1984), 82 or. (75-129).

(124) HH. AA. *Historia de Amasa y Villabona...*, aip. lan. Beste hainbat datuetarako, ikus baita ere, TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 86 or., 196 oin-oharra eta DíEZ DE SALAZAR, L. M. “Régimen municipal en Guipúzcoa (s. XV-XVI)”, aip. lan., 82 or.

(125) Nahiz eta Tolosak erakargarritasun nabarmena izan zuela dirudien. 1390eko prokurazioaz gain, toponimoa 1346 eta 1348 urte bitartean egin zen Tolosako aitonsemeen erroldan agertzen da. Han daude Santxo Villabonakoaren seme Pero Santxez eta Martin Santxez. Horrek ere, Villabonaren hiribildutasuna urte hori baino lehenago eman zela adieraziko luke. Ikus ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 17, 18 eta bereziki, 20. dokumentuak. HH. AA. *Historia de Amasa y Villabona...*, aip. lan., 104-105 orr.

(126) Lehenengo kontuari dagokionez, Hernaniko kasua ereduagarria da, eta honen ildotik berriki Mertxe Urteagak ekarpen interesgarriak egin ditu, guztiz ados ez bagaude ere. Ikus URTEAGA, M. “El origen del villazgo medieval de Hernani (Gipuzkoa)”, *BRSBAP* LXXI (2015), 103-128 orr. Villabonako auzotze-hitzarmenaren inguruan, baliteke Tolosak XVI. mende hasieran izandako sutean erre izana.

independentzia saiakeraren ildotik sortutako auzian bilduta daudenak. Bertan aritu ziren lekukoek informazio bikaina ematen digute, Villabonaren kasuaren berezitasuna agerian utziz¹²⁷.

Auzi horretan egindako aitorpenei esker, badirudi hiribildu txiki horren aldaketa jurisdikzionala 1498an eman zela, bertako hainbat auzok Tolosako alkate Otsoa Martinez Zaldibiakoarekin eta beste hainbat pertsonekin bertan auzotartzeko ituna sinatu zutenean¹²⁸. Halaber, Tolosak auzian aurkeztutako lekukoek bide horri jarraitzen zioten. Hauen esanetan, hogeita hiru herrixkak (Alegia hiribildua tartean) 50 urte luzez Tolosako jurisdikzioan zeramatela zioten bitartean, Villabonaren egoera hiru bat hamarkada atzeratzen zuten, ez besterik:

“que las veynte e tres aldeas e vniversitydades nonbradas e contenidas en la posición ha tenido la dicha villa de Tolosa en todo su tiempo d’este que depone la dicha villa de Tolosa devaxo de sy e de su juzgado, pero dixo que a la dicha villa de Villabona no ha tenido segund e de la manera que en las dichas vniversitydades, saluo que de treynta años poco más o menos a esta parte ha vsado de juridición en ella (*con*) contradición de la mayor parte de los veçinos de la dicha villa. E asy bien confesó en quanto a las dichas veynte e tres vniversitydades, eçepto la dicha Villabona, ser caveça de juridición la dicha villa de Tolosa y tener ella e sus alcaldes la juridición çevill e criminal en todas las dichas vniversitydades”¹²⁹.

(127) Ald. TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 38, 73, 86 eta 87 orr. Egile ezberdinek arazoak 1520an hasi zirela diote, baina errege-betearazleek zein auziek 1529 urtea jartzten dute abiapuntu bezala. Ald. ARChV. Reales Ejecutorias, 471-38 eta 510-21 espedienteak; ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1 eta MÚGICA ZUFIRIA, S. *Geografía de Guipúzcoa*. Bartzelona s. d., Alberto Martín, 987-988 orr. 1528an oraindik Villabona Tolosako barrutian zeuden komunitateen artean aipatzen zen, bigarrenak horiei Batzar Nagusiek alardeak ospatzeko emandako aginduaren jakinarazpena egin zutenean. Tolosan alardea egitera ez omen ziren Andoain eta Villabona bera azaldu. Tolosak agertu ez izana salatu zuen eta Andoainen aurkako auzi zaratatsu bati hasiera eman zitzaion. Ald. AYERBE IRIBAR, M.^o R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., eranskin dokumentala, 17-31 dok. (Villabonari buruzko aipamenak 17 eta 19. dokumentuetan).

(128) Horren inguruko daturik argiena Pedro Arbidekoa tolosarrak ematen du, hitzarmenaren lekuko izan baitzen. Eskuetan ditugun datuen arabera, Zaldibiak garai hartan alkate postua bete zuela dakigu. Horrez gain, Arbidek berak zera zioen: “*vio en el mismo día que pasó el dicho conçierto e asyento, el dicho Ochoa Martines de Çalduiua, alcalde, en señal de posesión, dio avdiencia dentro, en la dicha villa de Villabona, estando e sentado en vn tablero que estaua en la calle pública d’ella*” (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 239 au. fol.).

(129) Ald. ibidem, 192 au., 224 au.-at. eta 251 at. folk.

Ondorioz, Villabona ez zen Tolosako jurisdikziora momentu hartara arte sartu eta, hala, hiribildu independente izaera Behe Erdi Aro guztian zehar mantendu zuen¹³⁰.

Egoera hori XV. mendeko bigarren erdialdeko datuetan ikus dezakegu. 1457ko Ermandadeko 89. ordenantzak, 1463an berriz ere jaso zena, Probintziako udalbatzek egin beharreko deialdiak arautu zituen, erran nahi baita Batzar Nagusietan ordezkariak zuzena zuten populazio batek besteei hots egin behar zienean. Adostutakoaren arabera, deitzaileek beste alkatetza eta udalbatzei deialdia jakinarazteko betebeharra zuten; salbuespena Alegiako hiribildua zen, “*por quanto es de la jurisdicción de la villa de Tolosa*”. Alegia aipatzea eta ez, ordea, Villabona, azken honek independente jarraitzen zuela adieraziko luke; kontrakoa gertatuz gero, bere izena agertuko litzatekeelakoan gaude¹³¹. Halaber, Villabonak berezko prokuradore batzarkidea izan zuen hamarkada horietako Batzar Nagusietan. Hori argi eta garbi ikus dezakegu 1449 erdialdean Seguran ospatu zen biltzarrean, edota 1475eko maiatzaren 5ean burutu zen Bidaniko Batzar Berezian¹³². Hauez gain, 1529ko auzian zehar jasotako lekukotzek ere jarduera batzarkide horren beste hainbat adibide

(130) Ald. GOROSÁBEL, P. de *Diccionario...*, aip. lan., 607-608 orr., zeinak iritzi zuharrago bat mantentzen zuen eta independente izan zela irizten dion, Amasarekin zenbait harreman jurisdikzional matenduz. Villabona da, Alegia eta Hernanirekin batera, Erdi Aroan sortutako hiribilduean artean hiri-gutunik gorde ez duenetako bat. Dokumenturik ez izateko arrazoioren artean, ald. URTEAGA, M., aip. lan.

(131) BARRENA OSORO, E. *Ordenanzas...*, aip. lan., 183 or., eta 1463koen CXXXI. kapitulua.

(132) Loiolako jaunak 1449an Ermandade edo Anaidiari luzatu zion gutuna, honakoei zuzenduta zegoen: “*alcaldes, prevostes, jurados, regidores e omes buenos de las villas e logares de Fuenterrabía e Villanueva de Oyarçun e la tierra de Oyarçun e Sant Sebastián e Hernani e Villabona e alcaldía de Aystondo e Tolosa e Alegría e Villafranca e Segura e alcaldía de Arería e Villarreal de Hurrechua e alcaldía de Seyas*”. Gure ustetan zerrendaren ordenak argi adierazten du Villabonaren izaera independentea. Oiartzun eta Alegiaren aipamenak hor daudela argudiatu daiteke, ordurako biak ala biak beraien jurisdikzio-buruen pean baitzeuden. Alabaina, zerrendaren nondik norakoak ondo aztertzen baditugu, bi populazio-gune horiek beraien buruen ondoren aipatzen dira; hau da, gure ustetan Errenteriak eta Oiartzunek, eta Tolosak eta Alegiak, prokuradore berdina izango zuten. Dokumenturako, ikus DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática...*, Tomo II..., aip. lan., 195 dok. Orain arte guztiz ezezaguna zen 1475eko Batzarrari dagokionez, ikus GAO-AGG CO ECI 581 eta ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Walls, Fenecidos, 949-4, 35 au. folioa eta hh. (Villabonako prokuradore moduan diharduen Juan Alkizakoa, 35 at. folioan). Ald. CRESPO RICO, M. A.; CRUZ MUNDET, J. R.; eta GÓMEZ LAGO, J. M. *Colección documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo II (1470-1500)*, Donostia 1997, Eusko Ikaskuntza, 64. dok.

ematen dizkigute, besteak beste, 1493 urteko Azkoitiko Batzar Nagusiena¹³³. Horrez gain, esparru militarrean ere bere eskumenak mantendu zituela ematen du. 1512an, frantziarrak Probintziara sartu zirenekoan, Villabonako jendea ez zen Tolosako konpainian sartu eta hiribildu honetan egindako alardean ere ez zuen parte hartu¹³⁴. Azkenik, hiribilduari estuki lotutako eskumenak izaten jarraitu zuen: urtero ospatzen ziren hauteskundeetan alkateak izendatzen zituzten; berezko kartzela, kate, zepo, girgilu eta maila juridiko bereko guneek zituzten ikurren jabe zen, baita zenbaki-eskribautzarena ere¹³⁵.

(133) Edota jatorriz andoaindarra zen Pedro Leizaurkoak aipatzen zuen Bidaniako Batzar Berezia. Leizaur bera bilera horretan izan zen eta bertan, Villabonako ordezkariak hiru izan ziren: Joan Santxez Urrutiakoa eta Maria Musturiakoraren aita eta senarra. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, fol. 88 au., 96 au.-at., 131 at. eta 164 at. folioak. Bere aldetik, Joan Perez Apaetzetxeakoa zioenez, Villabonak eta Tolosak auzotze-hitzarmena sinatu baino lehen, lehenengoaren prokuradore moduan jardun zen (ibidem, 152 au.-at. folk.). Ald. GOROSABEL, P. de *Diccionario...*, aip. lan., 607 or., zeinak Urretxun, 1484ko otsailean ospatu zen batzarrean izan zela ere zioen. Azkoitiko Batzarren dataren inguruan, ORELLA UNZUÉ, J. L. “Estudio iushistórico de las Juntas de Gipuzkoa hasta 1550”, in ORELLA UNZUÉ, J. L. eta GÓMEZ PIÑEIRO, J. (zuz.) *Las Juntas en la conformación de Gipuzkoa hasta 1550*, Donostia 1995, GFA-GBBNN 174 or. (143-258).

(134) Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 227 au. eta 118 au.-at. folk. 1515ean egin zuenik ere ez dirudi (ald. AGS. Contaduría Mayor de Hacienda. Contaduría del Sueldo. Primera Serie, 45). Herriek hiribilduetako alardeetan parte-hartzearen inguruan izandako tirabirei dagokienez, ikus TRUCHUELO GARCÍA, S. “Resistencia de las corporaciones locales guipuzcoanas al modelo de estructuración política (siglos XVI-XVII)”, in PORRES MARIJUÁN, R. (arg.) *Poder, Resistencia y Conflicto en las Provincias Vasca (siglos XV-XVIII)*, Bilbo 2001, EHU-UPV, 225 or. (219-244).

(135) Martin Perez Apaetzetxeak horrela aitortzen du bere burua 1517an, Pasai Donibanek eta Donostiak elkarren aurka izan zuten auzian eskribau hartzaile izendatu zutenean. Ikus IRIXOA CORTÉS, I. *Documentación medieval de los archivos municipales de Lezo y Pasaia (1361-1520)*, Donostia 2013, Eusko Ikaskuntza, 87, 88 eta 96 dok. Beranduago bere anaia Joan Perez Apaetzetxea dugu (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 121 au. fol. eta bereziki, 145 au. eta hh.). Tolosarekin egindako eskrituraren ondoren, biak Hernaniko Batzar Nagusian (1498?) aurkeztu ziren, errege-eskribau eta Villabonako auzo moduan. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 160 au. fol. Beste anaia bat zuten, Martin Perez izenekoa eta errege-eskribaua, 1507 inguruan Tolosara bizitzera joan zena (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 170 at. fol.). 1519an berriz, Martin Perez izeneko Villabonako auzo bat errege-eskribau moduan aurkezten du bere burua (ez, ordea, zenbaki-eskribau moduan); litekeena da orain aipatu ditugunetako bat izatea. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Lapuerta, Fenecidos, 2805-21, 86 at.-87 at. folk. Beranduago, Villabonako zenbaki-eskribautza Martin Joan Etxezarretakoak izan zuen eta bere heriotzaren ondoren Tolosako Mígel Lopez Tapiakora pasa zen. Azken honek, berriz, kargua bere alaba eta bere suhi Frantzisko Ezkamendi eskribauaren alde uko egin zuen, 1525 urtean ospatu zen bikotearen ezkontza-hitzarmenean. Azken eskritura honetarako, ikus DMVAMA, 44-1.

Egunerokotasunean Villabona independente mantendu bazen, horrek ez du esan nahi denbora horretan guztian zehar Tolosak hiribildu txikia begiz jota izan ez zuenik. Are gehiago, 1498ko hitzarmena hainbat denbora lehenago hasitako ekimen baten helmuga zenaren susmoak ditugu; gutxienez bi hamarkada inguru abian jarritakoa. 1480an errege-erreginak Villabonaren alde atera ziren, bere eskumen juridikzionalak berretsiz, tartean justizia esparruari eta udal hauteskunderi zegokiena. Dokumentuak hiribildu txikiaren beldurak agerian uzten zituen:

*“que alguna o algunas personas, ynjusta e non devidamente e por fuerça e contra su boluntad, les despojarían y pribaran e desapoderaran de la dicha su posesión e los perturbaran e ynquietaran e molestaran en ella syn primeramente ser sobre ello llamados a juzyio”*¹³⁶.

Egia da ez dela kontra egin nahi zieten pertsonen izenik ematen, baina gure ustean Tolosaren asmoak izan ziren agiri hori plazaratzera bultzatu zuten arrazoiak. Era berean, Tolosa eta Villabonaren arteko tentsioek gorantz egiten ari zirenen zantzuak ditugu: auzotze-hitzarmena sinatu baino urte bat lehenago, 1497an, Tolosako alkate zen Joan Perez Iturrizakoa batxilerrak Villabonako auzapez zen Lope Ierategikoa atxilotu eta kartzelaratu zuen¹³⁷.

Bestalde, prozesua bi aldeen arteko borondatezko auzotze-agiri bat bezala baino, arbitro-epai baten inguruan kokatu behar dugu. Arrasta hori

(136) AGS. RGS. 1480-V, 180 fol. Villabonak horrela argudiatzen zuen: *“por parte del conçejo, alcalde, regidores, ofiçiales e omes buenos de la dicha villa de Villavona (...) nos fue fecha relación por su petición, deziendo que la dicha villa a estado e está en posesión paçífica vel casy de dies e veynte e treynta e çinquenta e sesenta annos e de tanto tiempo acá que en memoria de onbres non es contrario, de tener justia e juridiçión sobre sy, çebill e creminall, e de elegir e nonbrar e criar en cada vn anno alcaldes e jurados que juzguen e libren e determinen los plitos e cabsas çeuiles e criminales de entre los veçinos e moradores de la dicha villa e de su tierra e juridiçión e los otros ofiçiales que se suelen e acostunbran poner como en las otras villas de la dicha Prouinçia que tienen juridiçión apartada sobre sy, paçíficamente, syn contradición de ninguna persona, e de aver e llebar los derechos e salarios a los dichos ofiçios anexos e pertenesçientes, e que en tal posesyón e costumbre vsada e goardada an estado y están desd’ el dico tiempo ymemorial [sic] esta parte...”*. Idatziaren esanahiaren inguruan, ikus Auñamendi, *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*, “Villabona” sarrera (honako estekan kontsultagarri <http://www.euskomedia.org/aunamendi/128451>).

(137) ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 239 au. fol.: *“que antes qu’el dicho contracto e asyento pasase entre las dichas villas, por tiempo e espaçio de vn año, poco más o menos, vio cómo a Lope de Yerategui, nonbrado en la pregunta, el bachiller de Yturriça, que a la sazón era alcalde, hizo echar en vna càrçel e torre çiega áspera de la dicha villa de Tolosa”*.

hainbat lursailen jabetzaren inguruan sortutako eztabaidak konpontze-ko eman zen; hori da, behintzat, Villabonako zenbaki-eskribau Joan Perez Apaezetxeakoaren lekukotzan islatzen den ideia. Apaezetxea kontratua sinatu zutenen artean izan zen eta eskritura horretan ezarritako baldintzen artean, hainbat lur, higiezin eta ondasunen inguruko xedapenak sartu ziren. Besteak beste, ordurako utzita zegoen Amasaola edo Narbarrain burdinolaren laurden bat eman zitzaion Villabonari; Tolosak, aldiz, Amasak eta Villabonak elkarrekin zituzten herri-lurretan zegoen Ibiai sarobearen zati bat eskuratu zuen¹³⁸.

Hitzarmenaren aurkako ahotsak hura sinatu eta berehala sortu ziren. Hiribildu txikiko biztanle guztiak ez ziren egindakoarekin ados egon, ezta gutxiago ere; aitzitik, akordioa 14-16 bat auzok bakarrik sinatu zutela zioten, artean 60 bat zirelarik¹³⁹. Ondorioz, sinatzaileek ez zituzten biztanle guztiak ordezkatzeko. Baina ez hori bakarrik, Tolosak, bere interesek aurre egin zezaten, bertaratutakoak azpijokoen bidez erosi egin zituen¹⁴⁰. Jurisdikzio aldaketa lortzeagatik hitz emandako opari eta dohainetan, Narbarrain burdinolaren zati baten lagapena zegoen, ziurrenik Villabonako sasiordezkari horiek bertan interes argiak zituztelako¹⁴¹.

(138) *Ibidem*, 149 au. fol. Horrez gain, badakigu bi herriak Arroa errotaren jabeak zirela. Ikus *ibidem*, 230 at. fol.

(139) Galdeketa hainbatetan 100 inguru zirela aipatzen bada ere, lekuko gehienek 60-62 auzoz osatutako komunitatea zela adierazten zuten. Ald. *ibidem*, 92 au., 96 au., 107 at., 119 au. eta 127 au. folioak.

(140) Joan Perez Apaezetxeakoaren hitzetan: “*al dicho tiempo en que se pronunçió la sentençia, fue muy público e notorio en la dicha villa de Villabona e sus comarcas que los juezes árbítrros que pronunçiaron la dicha sentençia fueron corronpidos e dadibados por el conçejo de la villa de Tolosa*” (*ibidem*, 149 au.-at. folioak).

(141) Villabonak aurkeztutako gadeketan, ezin argiagoak diren hitzak ageri dira: “*podía aver treynta años poco más o menos tiempo por treze o catorze vezinos de Villabona que diz que yntervenieron en ello, porque los de Tolosa les dieron vna quarta parte de herrería yerma en el término de Narbarrayn y por otras dádivas e yntereses por donde fueron corronpidos e dadibados por el conçejo de la dicha villa de Tolosa para que viniesen como vinieron a Villabona con Tolosa e les diese la juridición d’ella*” (*ibidem*, 79 au. fol., XI. galdera). Bestalde, nortasunaren ikuspegitik, Villabonako biztanle batzuek auzotze-hitzarmenak ondorio juridiko, politiko edo jurisdikzional negatiboak ekarriko zutela ikusiko zuten; hau da, beraien komunitateak zuen hiribildu mailaren galera. Tolosako jurisdikziopean zegoen Abaltzisketako auzo batzuek, adibidez, Villabona “herri” edo “leku” bezala ikusten zuten eta ez, ordea, hiribildu moduan. Hori da Joan Arangurenbururen 1507ko hitzek islatzen dutena, sute batek “*la meytad del lugar de Villabona*” suntsitu zuela adierazten baitzuen (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, 433 at. folioa). Burdinolari buruz, ikus DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Ferrerías guipuzcoanas...*, aip. lan., 193-198 orr.

Jurisdikzio aldaketaren prozedura horren lotsagabea izaki, eta hasieran protestak izan baziren ere, Villabonako auzoek zergatik ez zioten jarraipen gehiagorik eman galde diezaiokegu geure buruari. XVI. mendeko auzian galdera horri erantzuten diote. Hitzarmena bertan behera gelditu zedin gutxi egitearen edo esparru judizialean jardun handiago bat erakutsi ez izanaren arrazoiak, bi populazio-guneen artean ahalmen eta baliabideetan zegoen aldean oinarritzen ziren. Villabonako auzoak gutxi ziren, eta txiroak gainera; Tolosakoak, aldiz:

“muchos más y más poderosos que los de Villabona e las personas que reclamavan y contradexían la dicha vnión e conçierto los han tratado y tratan muy mal; veniendo de noche, con alborotos y gente armada los han tomado, sacado de sus camas y los han llebado a la dicha villa hechándolos a la torre çiega y ensultanos [sic] con muchas presyones y con otros muy malos tratamientos”¹⁴².

Egia da, ordea, XVI. mendearen lehenengo urteetan tentsioak agerikoak izan zirela, eta Tolosak, agidanez, presio zorrotza egin zuela. 1529ko saia-keren ildotik sortutako auziak bi aldeen artean aurreko urteetan gertatutako auzapezen arteko talkak aipatzen ditu. Behin baino gehiagotan, eta edozein arrazoigatik, Tolosako alkateek Villabonakoak atxilotu zituzten. Batzuetan, Otsoa Urti Ihurramendikoa 1511n bezala, jurisdikzio-usurpazio salaketak medio; beste batzuetan, Tolosako alkatearen mandatuak ez betetzeagatik, Otsoa berari 1504an gertatu bezala. Azken gertakari horrek, gainera, ekitaldi ospetsu batekin zerikusia izan zuen, Isabel erreginaren heriotzaren ondotik antolatu beharreko hiletekin, hain zuzen ere. Batzar Nagusiek elizkizunak jurisdikzio-buruetan ospatuko zirela adostu zuten. Villabona Tolosara deitua izan zenean, hara joateko mandatuari ezezkoa eman zion, jurisdikzio-buru

(142) ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 79 at. folioa. Antzeko hitzak irakurri daitezke ibidem, 91 au. eta 95 au.-at. folioetan. Villabonak 1529ko azaroan emandako ahalordean, zera adierazten zen: “*agora puede aver treynta vn años (...) que la dicha villa de Villabona teniendo juridición por sy, çebil e criminal, asy dentro en el cuerpo de la dicha villa como en todos los términos comunes que con la vniversitydad de Amasa la dicha villa a medias tiene en el territorio de Sant Martín de Amasa, e teniendo la dicha villa juridición çebill e criminal en todo ello e no seyendo somisa la dicha villa a otra juridición saluo al corregidor de la Provincia, çiertos árbitros, no teniendo para ello poder, tentaron de enagenar la dicha juridición e por çierta sentençia arbitraria que para ello dieron, adjudicaron la dicha juridición a la villa de Tolosa; e como quier que la dicha sentençia se contradixo, todavía ynssy-tiendo en su mal propósyto, dieron la posesyón de la dicha (...) juridición a la dicha villa de Tolosa. E por ser la dicha villa de Tolosa muy poderosa e de miedo que mal nos traten, avemos disymulado, como quier que de contino avemos continuado nuestra posesyón e avemos contra-dicho a la dicha sentençia*” (ibidem, 66 at. - 67 au. folk.).

zen heinean berari zegozkion hileta-elizkizunak ordurako burutu zituela argudiatuz¹⁴³.

Ika-mika hauek guztiak ikusita, ez gaitu harritu behar errege-erreginek Villabonako udalbatzaren edo bertako auzoen aldeko babes-gutunak eman izana. Horietako hainbat Otsoa Urti Ihurramendikoari edota Frantzisko Apaezetxeakoari zuzendu zitzaizkien, Tolosako gizarte politikoaren goi-mailan zeuden hainbat pertsonen beldur baitziren; zehazki, Iturritza batxilerraren, Otsoa Martinez Zaldibiakoaren, Anton Gonzalez Andiakoaren, Juan Lopez Sarakoaren eta Martin Lopez Ieribarkoaren beldur¹⁴⁴.

Ez dugu auzotartzea bideratu zuen dokumentua ezagutzen, ez hori arrazoitzeko jarri ziren zergati edo baldintzak, ezta partaideen izenik ere. Dena den, zeharkako aipameneren ondotik, badakigu xedapenen artean Probintziako Batzarretako ordezkariarekin zerikusia zuen bat ezarri zela: orduz geroztik Tolosa Villabonaren izenean ere jardungo zen, bilera horietan adostutakoa ondoren jakinaraziz. Ez zen ezohiko kontua, Andoainekin gauza bera adostu baitzen 1475ean; are gehiago, lehen esan bezala, 1457tik Ermandadeko ordenantzek populazio-gune batean auzotuak zeuden komunitateek Batzarretan zuzeneko ordezkariarik ezin zutela izan adostu zuten. Besteekin alderatuta, baina, Villabonako kasuak berritasun bat zekarren. Oraingoan, Tolosak beteko zuen ordezkari-tz funtzio hau guztiz doakoa izango zen, Villabonak ez zuen ezer ordaindu beharko¹⁴⁵. Horrez gain, badakigu itunean jaso ziren beste kontuen artean Villabonaren jurisdikzio-jardunari buruzkoak zeudela. Hitzartutakoaren arabera, hiribildu horrek izango zuen jurisdikzio-barrutia hiriguneak osatzen zuen kalera mugatuko zen¹⁴⁶.

(143) *Ibidem*, 149 at.-150 au. edo 225 at. folk.

(144) AGS. RGS. 1502-IX, f. g. (irailaren 6 eta 9an igorritako seguru-gutunak), 1504-II (otsailak 3) eta azkenik, korrejidoreari luzatutako errege-mandatu dugu, bien aldean arteko eztabaidak ikertu ditzan aginduz. Bestalde, eta dakigunez, auzotze-hitzarmena sinatu baino urte bat lehenago, Villabonako alkate Lope Ierategikoa atxilotu zuten, hau ere jurisdikzio-usurpazioaz salatuta (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 239 au.-at. folk.).

(145) Tolosak aurkeztutako lekukoek hori zioten. Villabonakoek ere ez zuten halakorik ukatzen, baina ziurrenik hori bere helburu lehenetsiekin zerikusia izango luke; hau da, ordezkari-tza zuzena berreskuratzeko asmoei lehenetasuna emango liekete, beste kontu batzuk maila txikiago batean utziz. Adibide baterako, ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, fol. 233 au.

(146) "...y de presente vsan e exerçen de la dicha jurisdición çebill e criminal en el cuerpo de la dicha villa" (*ibidem*, fol. 136 au.).

Villabonaren auzotartzea arrazoitzeko, berriz, hainbat bide hartu zitezkeen. Batetik, gatazkarako joera zituzten bi aldeetako kontuak era errazago batean konpontzeko. Tolosara sartuta, Villabonak eta dagoeneko Tolosaren jurisdikziopean zegoen Amasak, elkarrekin zituzten barruti, ondasun edo lursail amankomunen inguruan sortutako eztabaidak modu errazagoan konpondu zitezkeen, justizia beraren (Tolosako alkatearen) aurrean jorratuko baitziren. Ildo beretik, Tolosako jurisdikzio-barrutian Villabonako hainbat auzok izan zitzaizketen ondasunen inguruan sortutako interesak egongo lirateke. Egoera berriak hainbat gatazka jurisdikzional saihestuko lituzke, guztiak Tolosako alkateak epaituko lituzkeelako¹⁴⁷.

Halaber, Villabonako kasuak XV. mende amaierako auzotartze-hitzarremen baitan ekonomia eta merkataritzari lotutako arrazoiak isla ditzake. Villabonaren auzotartzearekin, Tolosak Berastegitik Andoinera zihoan eta hiribildu txikitik igarotzen zen bidea modu zuzenago eta zorrotzago batean kontrolatzeko aukera ikusiko luke. Hau bereziki garrantzitsua zen burdinari lotutako jarduera eta merkataritza kontuetan, XV. mende amaieran Tolosak etengabeko eztabaida gogorak izan zituen esparruetan, hain zuzen ere¹⁴⁸. Agidanez, Villabonatik hamaika atzerritar, mandazain, zamarizain, Gasteizko merkatarien morroi edo otseinak eta bestelakoak igarotzen ziren¹⁴⁹. 1485 urte inguruan, adibidez, Tolosako auzo Joan Perez Villafrancakoa eta bere hainbat lagun Villabonako alkatearen aurrean Urnietako auzo Antso Sorolakoa mandazaina aurkeztu zuten. Haien esanetan, Tolosak zuen pribilegio baten ondotik atxilotu zuten, “*para prender los que pasavan dexando el camino real que pasa por la dicha villa de Tolosa por el camino de Velavriate*”. Agidanez,

(147) 1497 urtean, adibidez, Villabonako auzo zen Joan Berastegikoak kexuak agertzen zituen, bere lurrekin muga egin baina Tolosako jurisdikzioan zeuden lursailietako jabeek erretanak garbitzen ez zituztelako, adostutakoa bete gabe utziz. Ald. AGS. RGS 1497-VIII, 361 eta 362 folk. Hiribilduko auzoek herrietan zituzten jabetzek auzotzeetan izandako eraginari buruz, ald. BONACHÍA HERNANDO, J. A. “El concejo como señorío...”, aip. lan., 442-443 orr.

(148) 1469 aldera, adibidez, Urnietako auzo San Joan Berrasoetakoa merkatariak, Villabonako alkatearen aurrean hainbat gizonen aurkako salaketa ipini zuen, zor ziotena ordaindu nahi ez ziotelako eta Berastegira alde egiteko asmoz zebiltzalako (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 372-1, 104 au.-at. folk.). Maria Musturiakoak, berriz, honakoa oroitzen zuen: “*cómo en la dicha villa de Villabona, en el cuerpo d’ella, muchos vezinos de la villa de Tolosa solian agoardar a otros vezinos d’ella e por créditos que dezian que tenían vnos con otros se solian hazer prender en la dicha villa. E así vien, algunos estrangeros solian estar ençerrados en la dicha villa de Billabona e cuerpo d’ella diziendo que estaban en ella por miedo de ser presos por la justia de Tolosa*” (ibidem, 164 au.-at. folk.).

(149) *Ibidem*, 105 au. eta 117 at. folk.

Sorolak bide hori erabili zuen, Amasa eta Villabonakoa zen Landerko sarobetik igaroz eta, ondorioz, legearen kontra eginez¹⁵⁰.

Edozein modutan, Villabonaren legez kontrako edo araugabeko auzotartzea guttiz ageriko baino agerikoagoa izan omen zen. Valladolideko Kantzilertzak berak hiribildu txikiari arrazoia eman zion, jurisdikzio zibila eta kriminala erabiltzeko zuen eskumena berretsiz. Horrez gain, Amasarekin zituen ondasun amakomunetan Villabonak eta Tolosak metatutako jurisdikzioa zutela ebatzi zen. Dena den, bigarren horrek Villabonako jurisdikzio-barrutia eskatzen zuen moduan mugarritu zedila lortu zuen. Ondorioz, populazio “hiritarraren” antolakuntza-ardatz zen kale nagusiaz gain, Villabonari ezer gutxi egokitu zitzaion¹⁵¹.

3. Herrixken partaidetza hiribilduen udalbatza-sisteman

Denborak aurrera egin ahala, hasierako kontratueta ezarritako baldintzak zaharkituak geratzen hasi ziren. Gipuzkoako gizartearen egoera ez zen estatikoa, ezta bertako herrixken egunerokotasuna ere. Hau dela eta, berritasunei erantzun behar zitzairen; hiribilduak zein auzotutako herriak errealitate berrietara moldatu beharra zegoen.

Testuinguru honetan, bi aldeen arteko harremanak ez ziren tentsioetatik salbu egon. Arazoak esparru ezberdinetan jazo ziren, eta 1520-30 inguruan herrixketako batzuk hiribilduetatik alde egiteko lehenengo saiakerak ematen hasi ziren, bai independentzia lortzeko zein beste gune batzuetara joateko. Tirabira hauek negoziatorako bidea ere ireki zuten, eta ez dira gutxi izango harremanak bideratze aldera sinatutako hitzarmen, adostasun edo ordenantzak. Legedi, araudi eta xedapenek udalbatza-munduari lotutako esparru ezberdinei

(150) *Ibidem*, 135 au.-at. folk.

(151) Mugak honakoak izan diren: Hegoaldera, Tolosara bidean, Altzorbe dorretik pasata, Martin Hernandezen etxeraino; Iparraldera, Donostiara bidean, Domingo Ugarteakoaren burdinola ondoan zegoen zubitxo bateraino; Ekialdera, Amasara bidean, Villabonako baratzeetaraino; azkenik, Mendebaldera (Zizurkilera bidean), Oria ibaiaren ibilguren erdira arte.

Ikertzaile desberdinek Kantzilertza-epaia 1536an eman zela diote, baina behin betiko sententzia 1534ko azaroaren 10ean izan zen; berrikuste-arrasta, aldiz, 1535eko azaroaren 16an; eta epai-betearazlea 1535eko abenduaren 15ean. Ikus ARChV. Reales Ejecutorias, 471-38. Ald. GOROSÁBEL, P. de: *Diccionario...*, aip. lan., 607-608 orr.; TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 86 or., 196 oin-oharra. 1537ko azaroaren 24ko betearazleak, nahiz eta Villabonari arrazoia eman, aldaketa jurisdikzional txiki bat ekarri zuen, Tolosako alkateari Altzorbe dorrearen eta Martin Hernandezen etxearen arteko lursailetan zigor edo makil jasoaz sartzea baimenduz. Ikus ARChV. Reales Ejecutorias, 510-21.

eragingo diete, dela ogasuna, fiskalitatea edo finantza munduari. Modu hone-
tan, Erdi Aroko azkeneko mendean eta Berpizkunde garaian hartutako erabakiei
esker, ondorengo hamarkada luzeetako gidalerroak ezarriko dira.

3.1. *Hamabien papera*

Auzotartze prozesuak eta hauen baitan sortu ziren hitzarmenetan ageri
ziren baldintzak aztertzerakoan, esparru instituzionalari buruzkoak aditzera
eman ditugu. Bertan ezarritako nondik norakoan bidez, hiribilduetara sartu
ziren herrixkek haien gobernazio sistemetan izan zezaketen lekua eta parte
hartzeko modua baldintzatuko dira¹⁵².

Lerro nagusietan, hiribilduek, beraien udalbatzarretan herri edo kolazio
horien partaidetza zuzena saihestu zuten. Hau dela eta, jurisdikzio-buru zen
gunearen gobernuak, auzotutako komunitateetako biztanleei eragiten zizkien
hainbat kontuen inguruko ardurak eta erabakiak bere gain hartu zituen, herrien
ordezkarien inolako partaidetzarik gabe. Lerro nagusi hauek, ordea, salbuespe-
nak izan zituzten. Batzuetan, herrixka horiek ordezkariak izendatu eta hainbat
udalbatzarretara bidaltzeko aukera izan zuten, hiribilduko gobernuaren jardun-
aren inguruan kexuak azalduz edo komunitate txiki horietan zeuzkaten ara-
zoen berri emanez¹⁵³. Hainbat egoera, une edo momentutan herrixkak eta hauen
ordezkariak aintzat hartuak izan ziren. Hori dela eta, herrixken ordezkari horiek
batzar batzuetan ikusteko aukera izango dugu, hala nola, barruti guztiari zego-
kion akordio bat hartzerako garaian, udalbatzak auzo guztiei zegozkien gerta-
kari edo gai jakin batzuei buruzko jakinarazpenak egiterakoan, edota, besterik
gabe, hiribilduko udalbatzari ahalik eta jende gehien berarekin batera egotea
interesatzen zitzaionean; izan ere, jurisdikzioko pertsona andana egonez gero

(152) Egoera hau, ordea, ez da ikertzen ditugun herrietan bakarrik emango, erran nahi
baita auzotze-hitzarmen bitartez beste guneen jurisdikzioan sartu zirenetan. Hiribildutik alden-
duta baina bere lurraldean sortutako eta antolatutako komunitateek ere ageriko protagonismoa
izango dute, Donostiako kasuak ongi islatzen duen moduan.

(153) Prokuradore sindikoei dagokionez, gai jakin bat (edo batzuk) kudeatzeko herrixkek
propio izendatutako pertsonak ziren; hala nola, eskrituren kopia eskuetsiak eskatzeko edo ordain-
ketak egiteko konpromisoak ezartzeko. Hala ikusi dezakegu Ataun edo Aginagako kasuetan.
Lehenengoan, prokuradore sindikoak eskrituren kopia eskuetsiak eskatzen ikus dezakegu, 1488
eta 1491 urteetan (AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., 38 eta
41 dok.). Aginagari dagokionez, 1520ko ekainean bere hamabi Joan Mutiozabalgoa eta bertako
auzo Migel Urrezmendikoa, biak “sindiko prokuradore eta diputatu” moduan izendatuak, beste
hainbat auzorekin batera Aiako auzo Joan Migelez Olaskoagakoarekin obligazioa hitzartu zuten,
azken honi 200 kintal burdin entregatzeko. Agidanez, Olaskoagak halako produktuaren balioa
dirutan eman zien, Aginaga egiten ari zen burdinolaren eraikuntza lanetan laguntzeko (ikus
GPAH-AHPG, 2/1217, 232 at. folioa).

eta biztanle kopuru handi baten oniritzia jasoz, udalbatzak, aldez aurretik eta bere kabuz hartutako erabakiari berrespen sinboliko bat ematea lortzen zuen¹⁵⁴.

Zalantzarik ez dago populazioek hainbat esparru kudeatzeko garaian barne-antolakuntzarako bidea egin zutela, nahiz eta halako mugimenduek hiribilduetako errejimenduen kontrola izan, bereziki bi aldeen arteko interesak jokoan zeudenean. Orokorrean gune txiki horien antolaketa politikoa, Regina Polok “antzinako hamabi” bezala izendatu dituenen baitan egongo da. Hauek justizia eta kudeaketa eskumenak izango dituzte, ohikoagoa zen ordezkari-tza jardunaz gain¹⁵⁵. Errealitate hau nahiko homogeneoa bazen ere, ohartu behar dugu ez direla gauza bera XIV eta XV. mendeetan auzotartu ziren populazio-guneak edo hiri-gutunak hiribilduei eman zien lurraldean pixkanaka eta dinamismo handiago edo txikiagoarekin sortzen joan ziren komunitateak¹⁵⁶. Izaera horrek, gainera, herrien antolakuntzan ere ondorioak ekarri zituen. Populazio-guneek hamabietz gain bestelako molde instituzionalak hartu zituzten, baina askotan auzotartze-hitzarmen baten bitartez sartutako edo hiribilduak berezko zuten lurraldean sortutako komunitate izateak, esparru horren garapena baldintzatu zuen¹⁵⁷.

Hiribilduaren jurisdikziora sartzerako garaian sinatu ziren kontratuek, auzotutako komunitateei beraian hamabiak izendatzeko eta berezko zizutzen ondasun eta ondarea kudeatzeko aukera eman zieten, baina modu berean, hiribilduko udalbatzarretan zuzeneko (eta aktiboagoa izango zen) partaide-tza izateko aukerak itxi zitzaizkien. Egoera hertsia hau, gainera, denborarekin

(154) Gogoratu behar dugu herrietako hamabiek, hiribilduek haiei edo ordezkatzten zuten komunitateari zuzendutako deialdi eta epatzeetara joateko betebeharra zutela.

(155) POLO MARTÍN, R. *El régimen municipal de la Corona de Castilla durante el reinado de los Reyes Católicos (Organización, funcionamiento y ámbito de actuación)*, Madrid 1999, COLEX, 235 or.; MONSALVO ANTÓN, J. M.^a “La participación política de los pecheros en los municipios castellanos de la baja Edad Media. Aspectos organizativos”, *Studia historica. Historia Medieval*, 7 (1989), 60 or. eta hh. (37-93). Aragoiko kasurako, CORRAL LAFUENTE, J. L., aip. lan., 116-118 or. Alabaina, gure ustetan Gipuzkoako hamabiek ez zuten justizia eskumenik izan. Orellak ongi dioen moduan. Ikus ORELLA UNZUÉ, J. L. “Régimen municipal en Guipúzcoa en los siglos XIII y XIV”, *Lurralde*, 2 (1979), 103-267. Ald. MORA AFÁN, J. C., aip. lan., 60 or.

(156) Ald. TENA GARCÍA, M.^a S. *La sociedad urbana...*, aip. lan., 311-312 eta 473-477 orr.

(157) Landa munduaren partaidetzaren eta bere interesen ordezkari-tzaren inguruan, ald. DIAGO HERNANDO, M. “Una institución de representación política del campesinado en la Castilla bajomedieval: las ‘universidades de Tierra’”, *Historia. Instituciones. Documentos*, 23 (1996), 283-306.

areagotuko da, udal-ordenantzek kargu politikoetan aritzeko geroz eta baldintza zorrotzagoak ezartzearekin batera; besteak beste, hiribildu barruan ondasunak izan edo hauteskunde garaia iritsi baino hainbat denbora lehenago, harresi barneko esparruan bizi behar izatea¹⁵⁸.

Horrek ez du esan nahi aurrera pausorik eman ez zenik. Denborarekin hainbat herrixkek eskumen handiagoak lortu zituzten eta, besteak beste, esparru fiskalari lotutako udal-ofizialen izendapenean parte hartzeko aukera izan zuten. Egoera hau bereziki adierazgarria izango da Ordizian eta Seguran. Bertan, aurrerago ikusiko dugunez, prozesuak irudikapen instituzionala izanen du herrixketako fielaren sorrerarekin. Baina horrez gain, esparru fiskalaren antolakuntza instituzionalaren garapenak, herrixken betiko ordezkariengan eragina izango du, hau da, hamabiengan. Oraindik baina, historiografiak ez ditu alor hauek sakontasunez ikertu. Lan ezberdinetan islatutakoa aintzat hartzen badugu, badirudi Bergara eta Azpeitiko kasuez haratago, hiribilduek halako kontuetan esparru zeharo itxia izan zutela¹⁵⁹.

Herri-hamabiek gure esparru geografikoan izan zuten garapenari dago-kionez, desberdintasunak agerikoak dira. Alde batetik Segura eta Ordizia ditugu; bertan, beraien hamabiek zenbait eskumen lortu zituzten. Bestetik, Tolosa dago; herrietako karguek oso protagonismo eskasa izan zuten hiribildua¹⁶⁰.

(158) Hala ere, salbuespenak izan ziren. Hainbat kasutan, herriek hauteskunde sisteman lekua egitea lortu eta bizitza politikoan aritzeko aukera izan zuten, maila ezberdinetan bada ere. Adibiderik aipagarrienetako bat Usurbilgo Aginaga dugu, hiribilduko alkatea hiru urtean behin aukeratzeko eskumena lortu baitzuen. Modu honetan, hiribilduaren beraren zentraltasuna hein batean mugatzen zen, Lurrak edo Landak hiribilduarekiko parekotasun moduko bat lortu baitzuen. Usurbilgo jurisdikziopean zeuden beste bi komunitateek aldiz, hau da, Zubietak eta Urdaiaagak, ez zuten halako eskumenik lortu, nahiz eta lehenengoak bere hamabia eta berezko ondasunen kudeaketa izan. Halaber, Lurrak beste leku batzuetan hauteskundeetan protagonismoa eskuratu zuen, Bergara eta Eibar kasu. Azken honetarako, ELORZA MAIZTEGI, J., aip. lan., 69 eta hh.

Partaidetzaren beste alor bat, hiribilduz kanpoko oinetxeek udalbatza-hauteskundeetan izandakoa dugu, adierazgarrienetako bat (baina ez bakarra) Tolosako Ihurramendi oinetxearena delarik. Dena den, adibide hau uste baino korapilatsuagoa da, eta XVI. mende hasieran bere eskumenak zalantzan jarri ziren.

(159) Salbuespenen baterako, ikus TENA GARCÍA, M.^o S. *La sociedad urbana...*, aip. lan., 331-334 orr.

(160) Ald. TRUCHUELO GARCÍA, S. *Tolosa en la Edad Moderna Organización y gobierno de una villa guipuzcoana (siglos XVI-XVII)*, Tolosa 2006, Lizardi Kultur Zientzi Elkarte.

2 eta 3. Taulak
Segurako herrien ordezkariak Hiri-Landa batzarretan (1516-1526)*

	1516-11-13	1517-10-20	1518-2-4	1519-3-19	1521-11-9	1522-7-26	1523-3-17
A-G	1	-	?	1	-	1	1
E	-	1	1	1	1	-	-
Gab.	1	-	?	-	1	1	-
I	1	1	1	1	8	-	2
L	-	-	-	1	1	-	-
M	1	1	1	-	3	2	1
O.	-	?	1	1	3	2	1
Zeg.	-	-	1	1	1	-	3
Zer.	1	-	2	1	3	-	2

	1523-10-10	1524-4-12	1524-11-11	1525-5-23	1525-11-7	1526-3-19	1526-11-8
A-G	2	2	1	3	1	-	-
E	1	2	1	1	2	-	1
Gab.	2	1	1+	-	-	-	-
I	1	2	1	3	3	1	1
L	3	-	1	2	2	1	-
M	-	2	1+	1+	3	1	2
O	3	2	1	2	3	2	2
Zeg.	2	2	1	2	1	2	1
Zer.	1	1	2	2	2	2	1

Seguran goiz samar lortu zuten udalbatzarretan parte hartzeko eskumena. Jakina, hori ez zen bilera guztietan eman, haietako batzuetan baizik; zehazki, hiribilduak eta herrixkek gastu amankomunei aurre egiteko ezartzen ziren banaketen inguruko kontuak jorratu eta eztabaidatzeko antolatzen ziren

(*) Iturria: ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 216 au.-233 au. folk.
Legenda: A-G: Astigarreta-Gudugarreta / E: Ezkio / Gab.: Gabiria / I: Idiazabal / L: Legazpi / M: Mutiloa / O: Ormaiztegi / Zeg.: Zegama / Zer.: Zerain / +: herri-fielak ordezkaturako herria.

udalbatzarretan¹⁶¹. Batzar horiek **Hiri-Landa** (“*Villa y Tierra*”) izenarekin ezagunak ziren. Bertan jorratzen zen gairik kuttunetakoa gastu-banaketekin zerikusia zuen, baina ez zen esparru bakarra, bestelako gastu amankomunei buruzko gaiak ere aditzera ematen baitziren: besteak beste, harresien konponketa edo hiribilduko ateen berritzea, eta hori bideratzeko beharrezkoak ziren ikuskatzaile edo aztertzaileen izendapena¹⁶².

Orokorrean halako bilerak herrixketako hamabiekin edo bestelako ordezkariekin jorratu zitezkeen, baina oso ohikoa zen gune txiki horietako ordezkariak ere batzar-lagunak (“*acompañados*”) izatea, hau da, beraiekin batera jarduten ziren herrixketako auzoak. Ditugun datuen arabera, ordezkariak hauek bat eta hiru arteko pertsonak osatu zituzten, nahiz eta batzuetan kopuruak nabarmen gora igo, 1521eko azaroko batzarrean aritu ziren Idiazabalgo zazpi ordezkariak kasu. Halaber, eta ohikoa ez bada ere, beste bilera batzuetan “hiribilduko beste hainbat auzok” (“*otros vezinos de la dicha villa*”) parte hartu zuten, 1525eko azaroaren 7an dakusagun moduan¹⁶³.

Ordizian, aldiz, datuak eskasagoak dira. Batzarretara joaten zirenen aipamenak orokorrak dira, auzoen kopurua zehaztu gabe. Lerro nagusienean, udal-ofizialen, hiribilduko “zintzoen” (“*honrados*”) eta herri-hamabien izen-abizenak aipatzen dira; ondoren, “beraiekin batera herrietako hainbat gizon zintzo eta gizon-on” daudela adierazten da, besterik gabe (“*en vno con ellos, otros honrados e omes buenos de las dichas vezindades*”). Hala ikus daiteke 1501eko martxoan edo 1502 urtean¹⁶⁴.

Ez dakigu Seguran populazioak batzarretara nahi eta nahi ez bertaratu behar ziren ala ez. Hasiera batean, eskumen hori lortzeak herrixketako ordezkarien presentzia ekarriko zukeela pentsa daiteke; auzotze-hitzarmenetan adostutakoak gogoratu besterik ez dugu egin behar. Datuak eskutan, baina, ez dirudi derrigorrez halakorik egin behar zutenik. Are gehiago, 1516tik eta 1532ko ekainera bitartera dokumentatuak ditugun 27 batzar edo bileretan,

(161) Modu honetan, eta hein batean, Gaztelako “sexmero” delakoan pare jarri daitezke. Hauen inguruan, MONSALVO ANTÓN, J. M.^a, aip. lan.

(162) Hala nola, 1525eko uztailearen 11n, 1526ko azaroaren 8an, 1527ko uztailearen 11n eta 1529ko azaroaren 9an ospatutako udalbatzarretan. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 228 au.-229 au., 232 at.-234 at. eta 238 at. folioak.

(163) *Ibidem*, 230 au. fol.

(164) Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, CLXX au. eta CLXXX at. folk. Ald. baita, 1505eko martxoko gastu-banaketa, *ibidem*, CLXXXIX au. folioan.

herrixka guztien ordezkariak ikusteko parada behin bakarrik izango dugu (ald. **2. eta 3. Taulak**). Hori 1524ko azaroaren 1In gertatu zen, baina orduan ere partaidetza hori hala moduzkoa izan zen, Gabiriak eta Mutiloak beraien ordezkaritza herri-fielaren esku utzi baitzuten.

Dena den, Segurako herrixken bertaratzea erdipurdikoa izan zela eman badezake ere, horrek ez du esan nahi batzar horietan hartzen ziren erabakiek edota gastu-banaketek gutxieneko quorum bat izan behar ez zutenik. Orokorrean, gaiek aurrera egin zezaten, bederatzi herrixketatik gutxienez bostek egon behar zutela ematen du¹⁶⁵. Horrelako gehiengo soil bat (zeudenen $\frac{1}{2} + 1$ osatutakoa) oso ohikoa zen udalbatzarretan erabakiak hartzeko eta boz-keta-sistemak ezartzerako garaian; hori dela eta, esaten dugun horrek logika badu. Hasieran, beraz, jorratutako gaien inguruko erabakiak gehiengo soil ez onartuko ziren. Egia da, ordea, batzuetan hori ere ez zela bete. 1531 urteko urriaren 17ko batzarrean, adibidez, lau herrixketako ordezkariak bakarrik parte hartu zuten, Ezkio, Gabiria, Zegama eta Zeraingoena alegia, baina kontuak ikuskatu ondoren, “*e visto que auia neçessidad de hazer repartimiento, mandaron repartir*”¹⁶⁶; hau da, erabakia hartu egin zen, nahiz eta herrixka gehienak bertan ez egon. Hurrengo bileran, 1532ko ekainekoan, bost herrixketako ordezkari zeuden eta eskribauak ez zuen inolako oharrik egin. 1517ko urriaren aldiz, horren inguruan hitz batzuk idatzi ziren. Bertan Legazpi, Zegama eta Astigarretako hamabiak falta ziren, eta nahiz eta beste herrixketako ordezkariak ez egon, taldikida egitea adostu zen; edo eskribauak ohartu zuen moduan: “*sin embargo de su ausençia [beste herrixkena], los sobredichos alcalde e ofiçiales, porque no auia dinero, hizieron repartimiento para los gastos comunes de villa e tierra*”¹⁶⁷. Honela, behin baino gehiagotan, hartzen zen erabakia larritasun edo beharraren araberkoa izango zen; ondorioz, xedapenak adosteko beharrezkoa zen gutxieneko hori ez zen beti bete. Halako dinamika barneratua zegoela ematen du, izan ere, bileran bertan agertutako kexu, protesta edo kontra egiteari buruzko aipamen zehatz batzuk salbu, ordezkariak batzarretan ez goteak ez zuen adostutakoa baliogabekoa zela esan nahi¹⁶⁸.

(165) Gogoratu behar dugu gehienetan Astigarreta eta Gudugarreta gunek bakartzat hartuak izaten zirela.

(166) ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 242 au. fol.

(167) *Ibidem*, 216 at. fol.

(168) 1526ko martxoan, adibidez, Idiazabalek eta Ormaiztegik ez zuten San Adrianen elurra kentzeko lanengatik egindako diru-banaketa onartu. *Ibidem*, 231 au.-at. folk. Bestalde, 1518ko otsaileko batzarri, Legazpiko ordezkariak gabe hasiera eman zitzaion, baina hori handik gutxira iritsi zen. Ikus Eranskin Dokumentala, 11.

Banaketen inguruko batzar horietara joateko eskubideaz gain, Seguraren jurisdikziopean geratu ziren herrixketako hamabiek bestelako abantaila edo sariak lortu zituzten: hiribilduko alkate eta merioekin batera, Hiri eta Landa zerga ordaintzetik salbuetsita geratu ziren. Ordizian aldiz, egoera fiskal berezi hau hiribilduko alkateak eta hamabiek bakarrik izan zuten¹⁶⁹.

Errejimenduaren jardueren eta direlako gastu amankomunen mundu korapilatsuaren inguruko fiskalizazioarekin batera, Ordiziako herrixkek Segura eta Tolosakoek ez zituzten ahalmenak erdietsi zituzten; ez ziren, gainera, edonolako lorpenak, udalbatzaren hauteskunde prozesuarekin zerikusia baitzuten. Prozesu horretan egoteko eskubideaz gain, zuzenean parte hartzeko aukera aitortu zitzairen. Dakigunez, halako xedapenak lehenengo auzotze-hitzarmenean ageri zaizkigu, 1382ko horretan. Orduan auzotu ziren herrixketako bi gizon-oni, hauteskunde prozesuan egoteko eta parte-hartze zuzena izateko aukera eta ahalmena eman zitzairen¹⁷⁰. Egia da garaiko testuinguruak hiribilduaren ahulezia islatzen zuela eta xedapen hori ez zela 1399ko hitzarmenean aipatu; horrek urte gutxien buruan halako lorpena bertan behera gelditu zela aditzera eman dezake. Baina XVI. mende erdialde inguruan hiribilduko udalbatza izendatzeko gordetzen diren erregistroei so egiten badiegu, auzuneen eraginak nabarmena izaten jarraitzen zuen edo, behintzat, ordurako 1382an ageri zen prozesua indarrean zegoen. Ez dakigu eskumen horiek mendeetan zehar iraun zuten ala une jakinen batean lortutako garaipenaren ondorioz berrezarri ziren. XV. mende osorako hauteskunderen inguruko daturik ez dugu topatu, baina udalbatzaren izendapenaren inguruan lortu dugun lehenengo erregistroa, 1543ko irailekoa, ezin adierazgarriagoa da. Hauteskundera ospatu behar zen batzarrean honako hauek zeuden bilduta: “*hiribilduko alkate, udalbatza, pisuzain, errejidore eta hamabiak, eta hiribilduko herrixken hamabi eta diputatuak, orokorrean hiribilduko eta bere jurisdikzio osoko ohiko alkatea, pisutzaileak, errejidoreak eta hamabiak izendatzeko*”¹⁷¹.

Hala ere, agerikoa dirudien Ordiziako herrixken protagonismo honek, sinbolikotik gehiago zuen praktikotik baino. Beraien eragina mugatua izan

(169) Dena den, nahiz eta banaketa horietan parte hartu, Ordiziako jurisdikzioko herriek beste eskumen interesgarri bat lortu zuten, banaketak egiterakoan beraietako auzo ugari bertan egoteko eskubidearena, hain zuzen ere. Honen inguruan beherago jardungo gara.

(170) Ikus supra, 96 oin-oharra.

(171) Hitzez hitz: “*ayuntados el alcalde, conçejo, fieles e regidores e jurados de la dicha villa e los jurados e diputados de las vecindades de la dicha villa, generalmente para crear e nombrar el alcalde hordinario de la dicha villa e de todo su jurediçion y fieles e regidores y jurados*”.

zen, izendapen prozesua hiribilduko auzoek kontrolatu eta beraietara mugatzen baitzen. Udal-karguak aukeratuko zituen hautesle-taldea osatzen zuten hamasei pertsonak honakoak ziren: aurreko urteko udalbatza (alkatea, hamabiak, pisutzaileak eta eskribau fede-emailea) eta “hiribildu barruko” (“*del cuerpo del conçejo*”) hamar gizon¹⁷².

3.2. Fiskalitate esparrua antolatuz: Ordizia eta Segurako kasuak

Hiribilduetako gobernuan modu zuzen batean parte hartzeko eragozpena agerikoa bazen ere, horrek ez du esan nahi herri eta komunitate ezberdinek, bereziki auzotartze-hitzarmena sinatu zutenek, hiribilduarekiko harremanetan zenbait eskumen eta eskubide lortu ez zituztenik. Esparru fiskala jorrazteko batzarretan herrietako hamabiek parte hartzeko zuten gaitasunaz gain, Segura eta Ordiziako herriek beste ordezkariak tresna batzuk erdietsi zituzten, beraien interesen alde egiten zuten pertsonak izateko aukera garatuz. Tresna horietako bat herri-fielak izan zen, fiskalitatearen mundu korapilatsuari lotutako kargua¹⁷³. Bi hiribilduetan esparru berarekin zerikusia zuen ofizial agertzea, biek ala biek beraien herrixkekin antzeko arazoak izan zituztenaren ideia aditzera ematen du, abian jarritako irtenbideak ere nahiko berdintsuak izan zirelarik. Herri-fielaren nondik norakoak azaltzeko, ordea, lehenengo, Segura eta Ordizian ezarritako antolaketa fiskalaz jardun behar gara; izan ere, Gaztelako Koroan zehar ikus ditzakegun egituraren antzeko bat garatu zuten, **Hiri-Landa erregimena**, hain zuzen ere¹⁷⁴.

(172) OUA. Elecciones, 1. liburua, 2 au.-3 au. folk. Ald. ECHEGARAY, C. de; eta MÚGICA, S., aip. lan., 80-81 orr. eta bigarrenaren 1 oin-oharra, non 1566an 10 hautesleak herri-hamabiak zirela aipatzen den. Ondorioz, urteen poderioz herriek partaidetza maila handiago bat lortu zutela ematen du, nahiz eta karguetan arituko zirenak hiribilduko auzoak izan eta hauen artean, baldintza jakin batzuk betetzen zituztenak.

(173) Ald. SORIA SESÉ, L. *Derecho municipal guipuzcoano (categorías normativas y comportamientos sociales)*. Oñati 1992, IVAP, 71 or. eta ARAGÓN RUANO, A. “Administración financiera local en Guipúzcoa entre 1450 y 1520”, *BEHSS*, 44 (2011), 99 or. (77-155). Azken egile horrek “unibertsitateen fiel-diruzain” (“*fiel bolsero de las universidades*”) moduan deskribatzen du. Euskarazko izenari dagokionez, eta “udalbatza-fielek” orokorrean zuten egitekoa pisu edo neurrizain funtzio horrekiko ezberdina zenez, “fiel” terminoa indarrean utziko dugu.

(174) Esparru horri oso ikertzaile gutxi erreparatu diote, salbuespena José Ramón Díaz de Durana eta Santiago Piquero direlarik. Ikus egile hauen “De la fiscalidad municipal a la sociedad: notas sobre las desigualdades económicas y contributivas en Guipúzcoa (siglos XV-XVI)”, in DÍAZ DE DURANA, J. R. (arg.) *La Lucha de Bandos...*, aip. lan., 523-555, eta baita, IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan. II. liburukia.

3.2.1. Hiri-Landa erregimenaren egituraketa fiskala

Jakina da, askotan, zeharkako zerga edo fiskalitatea erabiltzea ez zela gastuei aurre egiteko nahikoa izan. Horren aurretan, hainbatetan erabilitako irtenbidea taldikidak edo gastu-banaketak bezalako zuzeneko sistemak izan ziren. Prozesu horren guztiaren inguruan aipatu direnak ez ditugu hitzez hitz errepikatuko, baina Segura eta Ordiziako sistema fiskalak azaltzeko, gogora ekarri nahi ditugu.

Hiribilduek, beraien gastuei aurre egiteko bi modu zituzten: zerga zuzenak eta zeharkakoak. Azken hauek, normalean, jardun ekonomikoetan zuten oinarria, erran nahi baita produktuen salerosketetan oinarritutakoak, sisak edo alkabalak kasu. Sistema horiek askotan ez ziren nahikoa diru-iturri eguneroko beharrak asetzeko, eta kasu hauetan, udalbatzek zerga zuzenetara jo zuten, taldikida edo banaketetara, hain zuzen ere.

Hiribilduaren jurisdikziopean zeuden biztanle eta auzoei zuzenean aplikatutako sistemak ziren; hau da, moduak modu eta salbuespenak salbuespen, pertsona edo familia bakoitzari kopuru jakin bat ordaintzea zegokion¹⁷⁵. Ondorioz, lurralde zabalagoa (eta teorian, behintzat, demografia handiagoa) zuten hiribilduek diru gehiago biltzeko aukera zuten. Modu honetan, barrutia auzotartzeen bidez osatu zuten hiribilduek, sistema zuzen hauek aplikatzeko joera handiagoa erakutsi zutela esan ohi da, eta hala ematen du Segura eta Ordiziako kasuetan¹⁷⁶.

Auzotze-hitzarmenen ildotik, gastuen inguruan zatiketa edo banaketa bat eman zen. Alde batetik populazio-gune bakoitzak berezko zituenak zeuden eta bestetik, hiribilduaren jurisdikzio-barrutia osatzen zutenen artean amankomuntzat hartzen zirenak. Azken hauei aurre egiteko, taldikida orokor bat burutzen zen. Halakoak burutzeko sistemak anitzak ziren baina, orokorrean, bi ardatz nagusi jarraitzen zituzten: pertsona guztiek diru bera ordaintzea ala bakoitzaren ondarea eta ondasunak aintzat hartuta, baliokidetasun bat bilatzea. Teorian, azken sistema horren bidez, gehien zutenek gehiago ordainduko zuten, baina beti egon zen hori saihesteko zirrikituren bat. Egiari zor, auzo

(175) Hori hala izateko arrazoiak anitzak izan daitezke: landa-nekazar izaera gogor batek zekarren autokontsumorako joera handia edota bakoitzari zegokiona ordaintzeko erroldak egiterako garaian, auzoek zituzten ondasunak zeintzuk ziren jakiteko erraztasuna. Ald. LADERO QUESADA, M. A. “La Corona de Castilla y la fiscalidad municipal en la Baja Edad Media”, aip. lan., 98-99 orr. Ald. MIRA JÓDAR, A. J. *Las finanzas del municipio. Gestión económica y poder local. Sueca (s. XV-XVI)*, València 1997, Diputació de València, 167-171 orr.

(176) Tolosari geroago helduko diogu.

edo gune bakoitzari zegokiona kalkulatzeko erabilitako sistemek eztabaida suitsuak ekarri zituzten, indarrean zeuden ereduak bidegabeak zirela adieraziz, auzo bakoitzaren ondasunak aintzat hartzen ez zituztela argudiatuz eta erabilzen ziren irizpideak ezbaian jarritz.

Beste gai korapilatsua “gastu amakomun” horien definizioan zetzan. Askotan jurisdikzio-buru zen hiribilduaren hesi edo harresiaren konponketa-gastuekin zerikusia zuten¹⁷⁷. Beste batzuetan, hiribilduan bertan zeuden bes-telako zerbitzu edo azpiegitura batzuetara bideratutako kontzeptuak sartzen ziren, elementu horiek guztiak ondo mantentzea jurisdikzio guztiko biztan-le eta auzoen onerako zela argudiatuz. Halakoak hirigunean kokatuak izaki, herrixkek arrotz moduan ikusiko zituzten, zer esanik ez beraien kokapen fisi-koa bertan egoteak aditzera ematen zuen sinbolismoarekin. Hori dela eta, ez da harritzekoa “gastu amankomun” horien baitan eztabaidak, ika-mikak eta tentsioak behin baino gehiagotan gertatzea. Segura eta Ordizia horren lekuko dira; ez bakarrak, jakina, baina bai adierazgarriak.

Ildo honetatik, banaketek Goierriko bi hiribilduetan horrenbeste arazo sortu bazituzten, pisu handia izan zutelako da. Beste era batera esateko, bi hiribilduek dirua biltzeko garatutako sisteman, herrixken garrantzia berebizi-koa suertatu zen. Guztien onerako gastuak zirenaren aitzakiapean, benetako helburua, bildu beharreko dirua populazio-gune guztien artean banatzea zen. Herrixkak funtsezko fiskalitate-ardatz bihurtu ziren, beraz. Argi dago Seguran eta Ordizian ordainketa-sistema zuzenak oso garrantzitsuak izan zirela, bai behintzat, beraien gastuen zati handi bat finantzatzeko. Fiskalitatearen ildo-tik, halako erabaki eta xedapenek gai garrantzitsu bat jartzen dute mahai gai-nean; udalbatzek esparru horretan hartutako norabide desberdinak, hain zuzen ere. Orokorrean, denboraren poderioz hiri eta hiribilduetan sisa eta bestelako zeharkako sistemen gailentzea ikusi izan da, baina bi kasuek, bestelako bide batzuk hartu zituztela agerian uzten dute¹⁷⁸.

(177) Ildo honetatik, hainbat hiri edo hiribildutan beste joera bat eman zen: harresirako propio sortutako fiskalitate edo ekonomia bat. Benaventen, adibidez, kontu-liburuen artean harresiari propio bideratutako bat zeramaten. Dijon-en, adibidez, XIV. mende amaieratik hiriak zerga berezi bat kobratzen zuen harresia mantentze aldera. Azken honetarako, ikus LE GOFF, J. *La Edad Media y el dinero. Ensayo de antropología histórica*, Madril 2012, Akal, 144 or. Benaventeko adibidea María Álvarez Fernández doktoreak adeitasunez egindako jakinarazpenari zor diogu.

(178) Egia da, ordea, Segurak bere kontularitza propioan sisak eta alkabalak profitatu zituela. Ikus IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., II. liburukia, 603-610 orr.

a) *Segura: Milareak eta “laurden bat gutxiagokoak”*

Segurak eta bere herrixkek XV eta XVI. mendeetan izan zuten harremanaren ardatzetako bat, bien arteko gastu amankomun horiei aurre egiteko ordainketaren inguruan mugitu zen. Lerro nagusienetan, esparru hori banaketan bidez egiten zen, baina ez zen horien erabilera ikusi zuen alor bakarra. Behar amankomunez gain, gastuei aurre egiteko sistema zuzen hori bestelako finantza-esparruetan aplikatu ziren, bai partzuergoari zegokion horretan, bai hiribilduari bakarrik zegokion kontularitzan. Halako sistemek, gainera, Bostehun erdialderako erabilera nabarmena izango dute eta beraien garrantzia agerian geratuko da.

XVI. mende hasierarako fiskalitate zuzenari lotutako Seguraren finantzak modu original eta adierazgarri batean antolatu ziren. Hiru esparru nagusi zeuden, bakoitza berezko antolaketa eta irizpideekin. Alde batetik hiribilduaren beharretara soilik bideratutako gastu-banaketak eta taldikidak ditugu; bestetik, hiribildu eta herrien gastu amankomunei lotutakoak; hirugarrenik, partzuergoei dagozkiena. Esan bezala, finantza-sistema horretan irizpide ezberdinak erabiltzen ziren. Hiribilduak berak soilik eta bere gastuetarako bideratu zituen taldikidetan, zerga-ordaintzaileak hiru mailatan sailkatzen zen: etxeak (edo etxe jabeak), hauei lotutako ondasunak eta halakorik ez zutenak. Hiru maila hauek beraien izena zuten: su edo suteak, milareak eta destajari edo “alogeratzaileak”. Hiri-Landa esparruari zegozkion gastuak milaretan oinarritzen ziren, populazio-gune bakoitzari kopuru finko bat zegokiolarik; milare hauek, ordea, ez zuten hiribilduari bakarrik lotutako banaketetan agertzen zirenekin zerikusirik¹⁷⁹. Partzuergorako, berriz, Probintziaren boto-sutenaren sistema

(179) Gaiak artikulu oso bat mereziko luke eta, hori dela eta, ez gara esparru honetan sakonki sartuko. Alabaina, aproposa deritzogu honen inguruan zenbait hitz esatea, bereziki Hiri-Landa banaketetan “milare” kontzeptua ere ageri delako, baina esanahi desberdinarekin. Esan bezala, ordainketa-sistema zuzena hiru maila edo taldetan oinarritzen zen eta ditugun datuen arabera, etxe eta higiezinaren jabetzarekin zerikusia dute.

1) **Suek** edo suteek oinarritzko kontzeptu bati aipamena egiten diote; etxearen jabe den eta bertan bizi den sendiari, alegia. Suteek ere hierarkia edo mailaketa bat zuten eta gutxienez bi taldetan banatzen ziren: sute erdia, alde batetik, sute osoak bestetik. 1539 urte amaieran, adibidez, Domingo Herbeetakoak sute osoa ez ordainarazteko eskaera egiten zuen, etxe bat eta baratze bat besterik ez zuelako. Gainera, baratzea “*que primero tenía, le tomó la posesión doña María López de Ydocarate y ella le avía bendido a Domingo de Arañeta, astero*” (ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1739-1, 10. pieza, CLIII at. folioa).

2) **Milarek**, berriz, su edo familia-jabe horiek zuten ondareari aipamena egingo liokete, etxeari lotuta edo atxikiak zeuden ondasunei, Oiartzunen XV. mende amaieran dakusagun moduan. Paredes de Nava bezalako herri gatzelarretan ere antzeko mailaketa bat jarraitzen zen, baina hor

...

erabiltzen zen. Azken honen inguruan beherago jardungo gara; orain gure helburua bigarrena aztertzea da.

Hiri-Landa esparrua eta berari lotutako taldikidak urtean bitan egiten ziren, baina ez zuten data, egutegi edo garai finkorik. Antolaketa honen jatorria 1448ko arbitro-epaian antzeman daiteke, orduan zerga-ordainketa bi

...

ondasun higigarri (azienda, bereziki) eta higiezinaren artean desberdintzen zen. Horrez gain, maila bakoitzean azpimaila batzuk ere aintzat hartzen ziren: azienda mota, higiezinaren kokapena eta abar. Honen inguruan, ald. ROMERO MARTÍNEZ, A. *Fisco y recaudación: impuestos directos y sistemas de cobro en la Castilla medieval*, Granada 1999, Universidad de Granada, 266-275 orr. eta Gipuzkoako kasu baterako, ELORZA MAIZTEGI, J., aip. lan, 347-366 orr.). Hainbat adibide ditugu, 1548ko irailleko bat, kasu. Une horretan Hernando Segurakoaren emazte Magdalena Igoarangoa errejimenduaren aurrean agertu zen. Helburua, diru-banaketan ordaindu beharreko kopuruari eta bere su eta milareen tasazioari buruzko berrikuspena egitea zen. Emakumearen hitzen arabera, bikoteak ez zuen beraien etxeak osatzen zuena baino ondare gehiagorik; taldikida-biltzailak, berriz, Lastala izenekoari zegozkion su-osoia eta milareak ordaintzera behartu nahi zituen (“*e dixo que ella y su marido Hernando de Segura non poseían syno las casas y el cojedor de la derrama Domingo Garçia de Alçibar le pidía fogura entera y los millares de Lastala le pidía pagase en esta foguera*” (SUA, A-1-1-2, 39 au. fol.). Magdalenaren hitzetan, bi urte ziren higiezin horren jabe ez zirela, Pedro Martínez Aldaolakoaren eskuetan baitzegoen. Ondasun gehiagorik ez zutenek, Magdalenak orduan zuten etxeari zegokion su-erdia besterik ez ordaintzea eskatzen zion udalbatzari. Udal-gobernuak arrazoia eman zion eskatzaileari eta bere agindua honakoa izan zen: su-erdi hori ordainduko zuela, baina horrez gain, baita “*los millares de su casa*” ere. Ildo beretik doa Estensoro batxilerrak Toda Ugartekoaren alde egin zuen hipotekazko mailegua, 1527ko apirilekoa (ikus Zavala Etxeko Artxiboa. Zurbano Etxea, 503-31.). Estensorok Todari 12 urrezko dukat zahar ematearen truke, emakumeak, Segurako Kale Nagusian zuen etxea eta orubea hipotekatu eta errentan ematen zizkion Estensorori. Etxearen errentamendu-baldintzen artean, Estensorok honakoa ordainduko zuela adostu zen: “*todas e qualesquier pechas y derramas de fogueras y millares que en la dicha villa se repartieren y a la dicha casa e solar se cargaren*”. Hau da, etxea eta honi atxikiak dauden ondasunak bereziki egiten dira. Argi goako dira 1548an adierazitakoak, hiribildua eta herrien arteko auzi batean. Herrien arabera, hiribilduak banaketak milareetan oinarrituta egiten zizkien, hiribilduko auzoak izango balira bezala. Horren aurrean Segurak honako erantzuna eman zuen: “*se ha repartido en todos ellos por millares por mis partes, conforme a la hacienda que cada vno d’ellos ha tenido y tiene*” (ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1737-9, IX au. fol.). Honek sute eta milare hitzen atzetik paragrafo hasieran aipatu ditugunak berresten dituztela uste dugu; hau da, etxeari kopuru bat ordaintzea zegokiola eta etxeari atxikitako ondasunei, aldiz, beste bat.

3) **Destajari** edo “alogeratzaileak” ziren hirugarren oinarri fiskala. Izatez, hitz horrekin adostutako diru-kopuru batengatik beste batentzako lan egiten duenari esaten zaio. Gurean aldiz, etxe eta ondasunik gabeko pertsonak zirelakoan gaude, maila ekonomiko apalekoak. Gizatalde hori ez zen, beraz, homogeneoa izango, eta bertan, hainbat esparruri lotutako langileak izango genituzke: jernalariak, morroiak, neskameak edota hiribildu barneko etxeetako maizterrak (ildo honetatik oso adierazgarria da Larramendik, bere Hiztegi Hirueledunean, kontzeptuaren euskarazko baliokidea jartzera, “alogeratzaile” moduan jartzea). Hitz Probitzian ezaguna da,

...

epetan egingo zela adostu baitzen, martxoan eta irailean¹⁸⁰. Sistema honek ia ehun urte iraungo du, baina 1544tik aurrera ordainketa garaia aldaketak etorri ziren: hortik aurreragoko datuek urtero egiten zirela aditzera ematen dute, abenduan edo ilbeltz hasieran ordainduz¹⁸¹. Hasieran bi data jartzearen arrazoia Ermandadeko banaketa-sutenekin nolabaiteko lotura zuela pentsa daiteke, erakunde probintzialaren egutegiarekin bat etortzeko egiten zela. Horren isla Ordizian antzeman dezakegu, bertako Hiri-Landa esparruko gastu-banaketetan prokuradore batzarkideari zegokiona ere sartzen baitzen. Seguran ordea, probintzia-suaren inguruko diru-bilketa eta ordainketari lotutako daturik ez dugu eta gainera, hiribildu horren eta bere herrixken taldikidetan azaltzen diren gastu amankomun horien artean ez da prokuradore-batzarkideari buruzko informaziorik ageri¹⁸². Are gehiago, Segura eta bere populazio-guneei dagokienez, bakoitzak Probintziako suengatik zegokion dirua biltzeko

...

baita maila fiskalean ere. Are gehiago, erabilera hori Segura ondoko Urretxun ematen da. Bigarren hiribildu horretan egitura fiskala ezberdina bazen ere, destajariak, “emakume” izeneko maila fiskalarekin batera, zergadunik apalenak ziren eta haien ezaugarriek Seguran zeudenekin bat egiten zuten. Urretxun, izen hori ondasunik ez zuten pertsonen ematen zitzaien (AYLLÓN IRANZO, M. “Estructura social de los habitantes de Urretxu”, in HH. EE. *Estudio de historia...*, aip. lan., 308-311 orr. (289-333); PIQUERO ZARAUZ, S.; eta DÍAZ DE DURANA, J. R. “De la fiscalidad municipal...”, aip. lan., 530-531 orr.). Gureari dagokionez, Seguran Martin Arruekoarekin bizi zen emakume lesakarraren kasua dugu. 1548ko ekainean oso txiroa zela aipatzen zen eta egoera hori zela eta, destajaritza bat atera zitzaion (“*sacó una destajería*”); hau da, zergadun moduan maila fiskal horretan jardungo zen (SUA, A-1-1-2, 31 au. fol. (ekainak 7). Testua nahizko zalantzarria da eta ez da argi gelditzen “destajaritza” horregatik sute bateko balio bat ematen zitzaion ala ez: “*Mandaron sacar vna destajería a vna muger de Lesaca por ser pobre y vivir con Martín de Arrue en un fuego*”).

Ondorioz, Seguran ematen ziren gastu-banaketak, bertako biztanle eta auzoek zituzten ondasunetan oinarritzen ziren, nahiz eta askoz gehiago ezin dugun esan. Hau guztirako ikus, baita ere, IRUJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., II. liburukia, 631-642 orr.

(180) DÍEZ DE SALAZAR, L. M., *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 273 or.

(181) 1551ra arte abenduan egiten ziren. Guregana iritsi den hurrengo banaketa 1553eko abenduaren 28koa da eta ondorengo, berriz, 1554ko urtarrilaren 28koa. Bi data hauen gertutasunak eta XVI. mende erdialdeko dinamika kronologikoa ikusita, non Natibitate edo Jaunaren Jaiotzaren araberrako datazioa nahiko hedatua dagoen, 1553 urte horrek zalantzak sortzen dizkigu eta ziurrenik horren ordez, 1552 irakurri behar dugu. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 253 at. fol. eta hh.

(182) Ald. 1539-40ko kontuak (ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1739-1, 10. pieza, XII at.-XV au. folk.), non prokuradoreei egindako ordainketetan Domingo Zuloagakoari egindakoa aipatzen den, arrazoia honakoa delarik: “*por quanto fue con ciertos despachos del concejo a la villa de Azcoytia a los junteros que en ella resydian con cartas y otros despachos*” (ibidem, XIII au. fol.).

berezko gaitasuna izan zuen. Norbera zen bere zatiaren kudeaketaren ardura-dun eta ez du ematen hiribilduak bere jurisdikzioari zegokion diru-suten hori bere gain hartu zuenik; horretarako probintzia-biltzaileak zeuden, herriz herri ordainketa eskatzen eta biltzen joaten zirenak¹⁸³.

Prozedurari dagokionez, gastu-banaketak herrien fielari jakinarazten zitzaizkion eta ondoren, horrek gauza bera egiten zuen leku ezberdinetako hamabiekin. Azken hauek gaia jorratu behar zen udalbatzarretara joaten ziren, bakarrik ala auzo batek lagunduta¹⁸⁴. Batzuetan, taldikidan banatzea adosten zen diru-kopurua oso altua izan zenean edo bestelako arrazoiren bat medio, banaketak atzeratu egin ziren, baita baliogabetu ere¹⁸⁵.

Funtsean, Segura eta bere herrien arteko arazoak gastu edo interes horien ezaugarri “amankomun” horrek sortua izan zen; alegia, horren atzetik zer zegoen eta zer ez. Segurako banaketen erregistro ugari ditugu, nahiz eta horiek egiteko arrazoiak askotan ez zehaztu. Haien berri dugunean, gehiengotan hiribilduko harresiaren edo udalbatza-erakinen konponketarekin zerikusia dute, udaletxea edo dorreak, kasu. 1516ko azaroan, adibidez, udaletxeko eraikuntza-lanetan ziharduen Martin Maiorakoa harginari zegokiona ordaintzeko (“*para pagar al maestro cantero Martín de Mayora, que haze la casa del conçejo de tosca*”); 1518ko otsailean, berriz, harresiaren 45 gizabete konpondu edo eraikitzea zen helburua; 1529ko azaroan bildutako dirua, bestalde, udaletxeko lau ateak biohol edo bioro sendoz egiteko eta beheko dorreko eskailerak egiteko izango zen¹⁸⁶.

(183) Haien abizenei so egiten badiegu behintzat, Seguratik kanpokoak baitira. Ald. 1539-40ko banaketa, non Joan Otsoa Zabalakoari, “*cojedor del repartimiento que se hizo en la hùltima junta de Villafranca*” delakoari, txanpon gaztelarreko 6.552 marai ordaintzen zitzaizkion, “*por sesenta fuegos qu'es esta dicha villa, a razón de çient y nueve maravedís por fuego...*” (ibidem, VIII au. fol.). Modu berean, 1547-48ko banaketa dugu, non Migel Lopez Ozaetakoa izeneko “*cogedor del repartimiento y foguera de la Junta General de Azcoitia*” delakoari, 120 erreale eman zitzaizkion, “*por sesenta fuegos qu'es la villa, a razón de dos reales por cada fuego*” (SUA, C-2-1-1, f. g.).

(184) “*que se hiziese repartimiento de villa e tierra e para ello mandaron al dicho Martín de Jauregui, syndico, que aga saber al fiel de las tierras para que abise a los jurados de las bezindades bengan a esta villa para azer el dicho repartimiento el día martes primero que verná*” (SUA, A-1-1-2, 8 at., fol; 1547ko azaroaren 24a). Ikus baita ere, SUA, C-2-2-1.

(185) Ald. SUA, A-1-1-2, 1 au. fol.

(186) “*las quatro puertas de las dichas cassas del conçejo con vioros rezios hasta arriba, que lleguen a la pared de cal e canto*” eta “*assí bien las escaleras de la torre de vaxo de madera e tabla*”. Antzeko adibideak 1518ko maiatzean, 1523ko martxoan, 1526ko azaroan, 1527 uztaila eta urrian eta 1532ko abenduan ditugu. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 216 au. fol. eta hh. 1529ko aipamenetarako, ibidem, 238 at.-239 au. folk.

Gastu amankomun hauetan herri-fielaren soldata (1526ko martxo eta 1528 maiatza) edota udal-eskribauak ezohiko moduan egin zitzakeen eskriturak sartzen ziren. Hauetz gain, kontratatutako abokatuen ordainsariak ere zeuden, Berasiartu batxilerraren edo Estensoro batxilerrarenak, kasu, hurrenez hurren 1518ko maiatzean eta 1523ko martxoan aipatzen den bezala; edota Aguraingoek zerga berri bat ezartzeko asmoen inguruko kudeaketak (1528ko maiatza). Hor ere San Adriango mendateko garbiketa-lanak sartzen ziren, elurra kentzeko eta zatitzeko egindakoak. Halakoak 1527ko urriko banaketan ikus ditzakegu, lan horiek egiteko herri bakoitzak bidalitako beharginei egindako ordainketak jasotzen direlarik, edo 1538-39ko Hiri-Landari buruzko kontu-liburuan¹⁸⁷.

Atentzioa ematen duen gauza bat, Hiri-Landa zorro horren barruan hainbat udalbatza-ofizialen ordainsariak sartzen zirela jakitea da. Guregana iritsi diren kontuetan, kargu ezberdinen artean banaketa argi bat dago. Hiribilduko kontu-liburuetan errejidore, merio eta hiribilduan beraien jarduna garatzen zuten bestelako profesionalei (kanpai-jole, organo-jole, ehortzaile edo eskola-maisuari) egindako ordainketak ageri dira. Beste udalbatza-kargu batzuk, ordea, Hiri-Landa poltsatik lortzen zuten beraien soldata. Hala, alkateak, hiribildu eta herrixketako prokuradore-sindikoa (“*de la dicha villa e sus vezindades*”) eta herri-fielak, beraien ordainsariak Hiri eta Landaren taldikidetatik jasotzen dituzte; hiruek, gainera, soldata bera dute, 1.500 maraikoa. Beraiekin batera, beste hainbat ofizial ageri zaizkigu “gastu amankomunen” kontularitza horretan: **zaindaria**k (1.500 marai ere), ate nagusietako zaindaria edo **ate-nagusizain**ak (300), ate txikietakoak (“*puertas chicas*”) (150), pregoilaria eta udal-eraikin, ate-, harresi- eta dorre-konpontzaileak.

Beste batzuetan, aldiz, udalbatza-kargu baten zereginen araberako banaketa ematen da, hau da, bere jarduna hiribilduan ala herrixketan bideratzea-gatik. Hau genuke eskribau fede-emailearen kasua. Orokorrean, Hiri eta Landaren kontu-liburuetan eskribau horren soldataren ordainketa jasotzen da, baina Segurari bakarrik dagozkion kontuetan ere topatu daitezke berari buruzko aipamenak. Joan Aurgaztekoak kargu hori bete zuenean, adibidez, 312 marai ordaindu zitzaizkion hiribilduari zegozkion hogeita sei ahalorde eta

(187) Diruzainak Joan Guridikoa zapataritari ordainketa egin zion, “*por quanto por mandado de los señores se ocupó con onze companeros y él mesmo el dozeno, a cortar la nieve en el puerto de Sant Adrián*” (ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1739-1, 10. pieza, XIII au. fol.).

obligazio eskriturengatik (“*poderes y obligaciones que hizo tocantes al cuerpo de la villa*”), ziurrenik errenten errentamenduekin zerikusia zutenak¹⁸⁸.

Pertsona guztiak ez zeuden taldikidak ordaintzera behartuak. Garai hartan, orokorrean txiroenek, elbarrituek edota elizgizonek salbuetsitako taldeak osatzen zituzten edo beherapenak izan zitzaizketen. Seguran, ordea, deigarriena udalbatza-ofizialekin lotua dago, izan ere, hainbat kargutan aritzeak ere zerga ematetik salbuetsita egotea zekarren. Guri dagokigunez, herrietako hamabiek eta hiribilduko alkate eta merioek ez zuten Hiri-Landa banaketetan parte hartzen¹⁸⁹. Hala adierazten da, 1549-50 gastu-banaketan:

“al tiempo que pagaron el dicho repartimiento de millares, los jurados de las dichas universidades me descontaron sus millares porqu’el año que son jurados no deben millares ni tanpoco deben millares el alcalde ordinario e los dos merinos”.

Pentsa daitekeenez, kargu horiek betetzen zituen pertsona bakoitzak ondare kopuru jakin bat zuen eta, ondorioz, titularrek zituzten jabetzaren arabera, urtetik urtera beherapen horiek aldatzen joaten ziren, handiagoak edo txikiagoak izan zitezkeelarik. Ildo horretatik, Hiri-Landa banaketetan, hiribilduko auzoek herrietan zituzten jabetzak ere aintzat hartzen ziren. Modu honekin, nahiz eta pertsona horiek beraien milareen bidez hiribilduan zerga eman, beste lekuetan zituzten ondasun edo higiezinak ordainketa horretan ez ziren aintzat hartzen¹⁹⁰.

XVI. mende erdialdean dakusagun Hiri-Landa sistema, aldez aurretik finkatzen joan zen egoera bat irudikatzen du. Mugarriz mugarri osatzen joan zen esparru baten amaiera da, mende luze bat lehenago garatzen hasi zena. Hiri-Landa sistemaren hastapenak XV. gizaldiaren hasieran jarri ditzakegu eta

(188) Eta baita alderantziz ere. Ald. Ordiziako kasua, non 1541ean, Abuztuko Andre Mariaren eta San Pedro egunaren arteko kontuetan “*se pagó a Domingo Martines de Arramendia, escriuano fiel pasado, por ciertas escripturas que fizo por el dicho conçejo e veçinos*” (OUA, Libros de Repartimientos, 2. liburua, XXI au. fol.).

(189) Lourdes SORIA SESÉren arabera, alkatea salbuestea (eta baita ikertzaile horrek aipatzen ez dituen beste udalbatza-kargu batzuk), garai batean, soldata gabezia dela eta, karguan aritzeagatik ematen zitzaion inmunitatearen aztarna litzateke (“*vestigio de una época en la que, a falta de salario, esta inmunidad constituía su retribución por el desempeño del cargo*”). Ikus SORIA SESÉ, L., aip. lan., 337 or. eta bertako 928 oin-oharra.

(190) 1547-48ko Hiri-Landa banaketan, Segura 314.000 milaretan balioztatua izan zen eta horietatik honako hauek kendu zitzaizkion: Zeraingo Iñurrategi eta Txoritegiri zegozkienak; Zegaman zegoen eta Mígel Zuloagakoaren jaraunslen eskuetan zegoen Urbistondorenak; eta azkenik, Untzurrunzagari zegozkionak. Ikus SUA, C-2-1-1.

horren nondik norakoak aztertzeko, 1402an hasi ziren kexuek oso informazio baliotsuak ematen dizkigute. Beraien arabera, “Hiri-Landa” sistema fiskala auzotartze-hitzarmenen ondorik eratu zen egitura izan zen, gerora hainbat aldaketa izan bazituen ere.

Horren lekuko dugu banaketetan egiten diren beherapenak. Karguez gaindi, sistema bi ardatz nagusitan antolatzen da: batetik, Zergadun edo Petxari Osoak daude; bestetik, “Laurden Gutxikoak”, “Laurden Gutxiagokoak” edo “Laurdenetik Salbuetsitakoak”, gaztelaniazko “Menos Cuarta” hitzekin definitua dena. Azken talde honetan agertzen diren herriak 1384an egindako auzotze-hitzarmenekin bat datoz. Gogoratu behar dugu prozesu horretan, hainbat herriri hasiera batean ordaindu behar zutenen laurden bat ordaintzeko betebeharra kendu zitzaizela, eta hauek izango dira finantzetan “Menos Cuarta” delakoa osatzen dutenak: Astigarreta-Gudugarreta, Gabiria, Idiazabal, Mutiloa eta Ormaiztegi¹⁹¹. Ondorioz, XVI. mende erdialdean ageri zaigun banaketak 160 urte baino gehiago zeramatzan indarrean.

Hala eta guztiz ere, denbora horretan zehar antolakuntza horrek bere gorabeherak izan zituen. XV. mende hasieratik eta 1528ra arteko epean hainbat eztabaida, protesta eta epai eman ziren, ordainketa sistemaren eta laurden gutxikoen salbuespen egoeraren inguruan izandako hainbat zalantza argitzeko asmoz. Egiari zor, ika-mikek ez zuten salbuesia egoteko eskumena ezbaian jartzen, auzotartze-hitzarmenetan adostutako baldintza baitzen. Baina hori zein esparrutan aplikatu behar zen bai, horrek zalantzak ekarri zituen; bereziki gastu militarrei eta erregeak eskatutako **oinezko soldadu**, lantzari eta baleztarrei ordainketak egiterako garaian¹⁹².

(191) “*Et nosotros que seamos tenudos de pagar lo que así fuere repartido lo que en la nuestra parte cupiere, segunt que los pecheros en la dicha vezindat fuéremos, segunt que a qualquier otro morador de la dicha villa en la su parte fuere repartido, salvo que d’estos maravedís que así nos cupieren a pagar por el dicho repartimiento, que nos sean descontados la quarta parte de todo lo que oviéremos de pagar*” (DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo I...*, aip. lan., 58 dok.).

(192) Gorabeherak ARChV. Reales Ejecutorias, 407-38 erreferentzian jarraitu daitezke. Bertan, gaiari buruzko dokumentazio ugari txertatzen da (ahalordeak, arbitro-epaiak, adostasun-hitzarmenak eta abar), 1445 urtetik aurrera. Bitxia bada ere, ez dirudi idatzi horiek Segurako udal artxiboan gorde direnik. Ald. DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan.; eta AYERBE IRIBAR, M.^a R. *Documentación medieval del archivo municipal de Segura. Tomo III (1450-1521)*, Donostia 2006, Eusko Ikaskuntza. Eztabaidetarako..., IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...* aip. lan., II. liburukia, 637-640 orr.

Fiskalitatearen inguruan XV. mende hasieran jazotako arazo larrien ondoren, badirudi 1470etik aurrera eztabaien beharrezko joera nabarmena izan zela. Arrazoiak gastu-banaketaren sistema anitzaren eraginkortasunean oinarritu daiteke, garaiko testuinguru ekonomiko positiboa ahaztu gabe. Ez dirudi liskar edo istilurik sortu zenik, ez larriak behintzat, ia zazpi hamar-kada igaro arte. Modu berean, ordutik aurrera herriek planteatutako borroka beste maila batean emango da. Egia da laurdenaren salbuespena noiz erabiltzearen inguruan eztabaidak izan zirela, baina era berean, horiek ez zuten sistema zalantzan jartzen, ezta horretan berrikuntzak sartzea eskatzen ere. Herrien eskaera, “gastu amankomun” horiek argitzean zetzan, hala hartzen ziren hainbat kontzeptu hiribilduari bakarrik eragiten ziotela uste baitzuten.

4. Taula
Hiri-Landa gastu-banaketak Seguran:
milareen banaketa (1516-1548)

Herria	Milare kopurua
Segura	314
Zegama	123,5
Idiazabal	111
Legazpi	118,6
Ormaiztegi	87,3
Ezkio	87,2
Mutiloa	55,4
Zerain	45
Astigarreta-Gudugarreta	40,6
Gabiria	27,4
Guztira	1010

Beharpenak beharpen eta liskarrak liskar, Hiri-Landa banaketetan populazio-gune bakoitzari milare kopuru jakin bat zegokion. Hau da, kalkuluak beti milare berdinen baitan zeuden. Aldatzen joaten zena milare bakoitzari dagokion

balioa zen, taldikidatik salbuetsita dauden karguek ez baitzuten inoiz balio bera, bakoitzak zituen ondasunek desberdin balio baitzuten¹⁹³.

Milareen irizpidea noiz ezarri zen jakitea zaila da, baina lehenengo kontularitza-erregistroetan guztiz finkatua dago. 1516tik Hiri-Landa banaketak 1.000 milareen artean banatzen direla adierazten da, bertan salbuetsita dauden Astigarreta, Gudugarreta, Gabiria, Idiazabal, Ormaiztegi eta Mutiloa ere barneratuz. Baina **4. taulan** ikus daitekeen moduan, milare kopurua, guztira, 1.010ekoa da. Alde honen arrazoiak ez dakizkigu baina argi dago Legazpirekin zerikusia duela. Herri honi banaketa gehienetan 118,6 milare dagozkio baina 1539-40koan, aldiz, 108,6rekin agertzen da. Agian akats baten aurrean gaude baina edonola ere, desfase hori balioztatze osoan dagoenarekin bat dator (1.000 edo 1.010 milare)¹⁹⁴.

Milare kopuru hori adosteko zein irizpide jarraitu diren jakitea, berriz, zailagoa zaigu. Mila milareak eta Probintzian Segurako barrutiak dituen 176 suak lotuz, harremana 5,68 milare su bakoitzeko da. Jakina, herri bakoitzari milare kopuru desberdin bat zegokion. Era berean, populazio-gune bakoitzak zuen su-ehunekoaren eta milare-portzentaiaren artean ez dago baliokidetasunik, nahiz eta batzuk antzekoak diren: Mutiloak milareen %5,54 zuen eta suen %5,11; Idiazabalek, berriz, milareen %11,1 eta suen %11,93. Legazpiren kasuan bitxiagoa da: 108,6 milare jartzen badizkiogu ehuneko berdina du milare eta suteetan: %10,8. Zerain, Ormaiztegi eta bereziki Gabiria eta

(193) Hiri-Landa banaketei buruz lortu ditugun datuek milare osoen eta laurden gutxiagokoen erregimen horren erabilera berretsi dute. Orokorrean, informazioak 1516-1540 epea osorik betetzen du, 1536-1539 salbu, non 1538ko azaroko gastu-banaketa besterik ez dugun. Datuak eskuan, milare osorako baliokidetasuna edo banatutako diru-kopurua XVI. mendeko lehen hamarkadetan mantentzen dira. Funtsean, milareak 2-2,5 tarja balioa du, 18-22 marai inguru. Honek, gastu-kopurua nahiko uniformeak izan zela aditzera ematen du, lerro nagusienetan bederen. Izan ziren, ordea, balio horiek erraz gainditu ziren uneak: 1519ko martxoan, 1521eko azaroan, 1526ko martxoan eta 1532ko abenduan milarea 36 maraitan balioztatu zen. Bereziki adierazgarriak dira 1538ko azaroaren ondorengo taldikidetakoko balioak, orduetik oso altuak izango baitira; 1549 urtera arte ez dira balio horretatik jaitsiko eta hainbatetan altuagoak ere izan ziren. Aipatu dugun 1538ko azaroko gastu-banaketak berak 45 maraitako balioa eman zion Petxu Osoari eta 1540ko apirilekoak, aldiz, 50. Kontularitzarekin zerikusia duen dokumentazioak ez du gorakada horren inguruan arrazoi argirik ematen, baina oso adierazgarria da herrixkek 1548tik aurrera abian jarritako salaketa berrien oinarrian 1538-1547ko gastu-banaketak egotea. Ikus ARChV. Reales Ejecutorias, 2001-82.

(194) Zentzuzkoagoa litzateke buruezartzea 1.000 milaretakoa izatea, 1516ko banaketatik aurrera ikus dezakegun moduan: “*fizieron el dicho repartimiento para las dichas andadas por de presente por millares e mill millares, que es villa e tierra*” (ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 216 au. fol.).

Ezkioko etxeek, aldiz, balio oso ezberdinak aurkezten dituzte. Azken horiek 17 sute dituzte eta horiek, barruti guztiaren %7,95 osatzen dute; milaretan aldiz, balio altuagoa dute: %11,16 (8,72 Ezkiok eta 2,74 Gabiriak.).

Hortik haratago ezin dugu gauza handirik jakin. Ez dugu errolarik eta beraz, auzo bakoitzaren ondasunen ingurukoak edota bakoitza zein mailatan zegoen ez dakigu. Informazio isolatuak ditugu, banaketetan salbuetsiak dau- den pertsonak eta udal-karguak aipatzen direnean, baina besterik ez. Hau da, datu gordinek oinarritzko informazioa dakarte, baina azterketa sakonagoak egitea zailagoa zaigu, nahiz eta saiakera demografikoren bat egin daitekeen¹⁹⁵.

b) Ordiziako gastu-banaketak

1270ean Antso IV.a Gaztelako erregeak Ordiziari zerga-erregimen berria eman zion, XIV eta XV. mendeetan berretsiko zena¹⁹⁶. Dokumentuaren bidez, hiribildura bizitzera joango ziren aitonseme edo kapareak zein beraien oine- txek osteratetik eta bestelako zor edo zergetatik salbuetsiak geratuko ziren. Nekazariantzat, aldiz, egoera arras ezberdina zen: Ordiziara joateko asmoa zutenek ez zuten zerga-salbuespenik ezagutuko eta horrez gain, beraien sor- lekuak populatuta uzteko betebeharra zuten. Azken nekazari hauen artean jabetza eta ondasun maila ezberdinak izango zirela pentsa daiteke, eta, beraz, monarkiak zein udalbatzak zituzten gastuei aurre egiteko, ondare horren ara- berako gastu-banaketak egingo ziren. Ondorioz, hasieran sistema fiskal zuzene- nek lehentasuna izango zuten.

(195) Suteak etxe moduan hartuz gero. 1547-48 eta 1548-49ko gastu-banaketek, adibide- z, 180-190 su inguru ematen dituzte eta horiei ordainketatik salbuetsia zeuden pertsonak batuz gero, informazio demografikoez emandako antzeko irudia bat lortu dezakegu; izan ere, Segurak 200 etxe inguru izango zituen eta bertan bizi zirenak, 1.200 bat lagun lirateke. Datu horiek beste ikerkuntza batzuk eman dituztenen bidetik doaz, 1500 urterako 1.121 biztanle eman baitira eta 1587rako, berriz, 1.425. Ikus PIQUERO ZARAUZ, S. *Demografía guipuzcoana en el Antiguo Régimen*, Bilbo 1991, EHU-UPV, 104 or.; URRUTIKOETXEA LIZARRAGA, J. “Seguran bizi: Bizilagunak, familia eta etxea Historian zehar. Aldaketak eta Iraupenak”, in INTXAUSTI REKONDO, J. (zuz.), aip. lan., 180-182 orr. (177-204). Azken egile horren esanetan, “*Segurako biztanlegoa indartsu azaltzen zaigu bere horretan XVI mendeko erdira arteko gorakada izugarrian*”.

(196) 1270eko dokumentua, orain arte oso gutxi aipatua, honako lanetan argitaratu da: LÓPEZ GONZALEZ, M. A. “Sobre la exención de tributos a Villafranca (año 1270)”, *BRSBAP*, XLIV (1988), 567-569 (Simancasen gordetako XVI. mende erdialdeko kopia oinarri hartuta), eta berriki, AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., 2-7, 10 eta 14 dok.

Informazio horrez gain, Ordiziari buruz XIII. mendetik XV. mendeko erdialdera arte ditugun datu fiskalak ia hutsaren hurrengoa dira¹⁹⁷. Bere ogasun, ondare eta udalbatza mailako fiskalitatearen eraketari buruzko berririk ez dugu. Salbuespena, Tolosa eta Seguran legez, auzotze-hitzarmenek osatzen dute.

1382ko agiriak hiribilduak aurre egin behar ziren zerga eta gastuen inguruko berriak eskaintzen dizkigu. Udalbatzaren finantza eta kontuek, honako kontzeptuak izan behar zituzten kontuan: errege-eskaria, zaintzaileak eta harresi, dorre eta erretenen konponketa. Ordurako, gastu-ordainketa horiek burutzeko sistema nagusia (bakarra ez bazen), zuzenekoa zen. Modu hone-tan, auzotutako herriek hiribilduarekiko beraien betebeharrak taldikiden bidez beteko zituzten. Taldikida hauek “bakoitzaren egoeraren arabera eta hiribildu barnekoek ordura arte egin duten bezala” burutuko ziren (“*segund su estado e segund que los del cuerpo de la dicha villa ha vsado e acostunbrado*”); aldez aurretik indarrean zebilen eredu bat jarraituz, alegia.

1399ko idatziak sistema hori berretsi zuen, hainbat zehaztapen eginez. Oraingoan banaketa hori “zatika” (“*en porciones*”) egingo zela adierazten zen; zoritxarrez, horrek zer esan nahi duen ez dakigu¹⁹⁸. Hipotesi moduan Ermandade edo Anaidiko gastuei aurre egiteko erabiltzen hasia zen sistema sutenean oinarritu zitekeela planteatu dezakegu. Horren arabera, herri bakoi-tzari “pusketa” edo “zati” bat egokituko zitzaion¹⁹⁹.

(197) Bere garaian eta azkeneko boladan egin diren ikerkuntzak kontsultatzea beste-rik ez dago, hiribilduaren ogasun, finantza eta fiskalitatearen ingurukoek oraindik sakontzeko asko dutela ikusteko. Ald. ARAGÓN RUANO, A. “Administración financiera local...”, aip. lan.; IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., bereziki I eta II liburukiak; ECHEGARAY, C. de; eta MÚGICA, S. *Villafranca de Guipúzcoa. Monografía histórica*. Irun 1908, Tipografía de la Viuda de B. Valderde; GALDÓS MONFORT, A. *Villafrancatik Ordiziara, historiaz betetako bidea / De Villafranca a Ordizia, un camino pleno de historia*, Ordizia 2008, Ordiziako Udala. Pentsatzen dugu III. Victor Mendizabal bekarekin azoka eta hiri-bilduaren ingurukoak aztertu dituen lanak (Nerea Iraola, David Cano eta Ion Ander Arcelusek burututakoa), gai horren iluntasunari argi emango diola.

(198) “*Item ponemos con vos, el dicho concejo, que seamos tenudos de pagar todas las talas e pechos e derechos en porciones que hubiéredes a dar al dicho señor rey, según viniere por el repartimiento que habedes usado fasta aquí*” (AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., 8. dok.).

(199) Gogoratu behar dugu hainbat egilek suteen sistema hau dagoeneko 1387an ezarria izan zela diotela. Ald. LARRAÑAGA ZULUETA, M. “Aproximación al estudio económico de Gipuzkoa a través de las fogueraciones de Juntas”, in ORELLA UNZUÉ, J. L.; eta GÓMEZ PIÑEIRO, J. L. (zuz.), aip. lan., 259-285; TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 69 or.; IRIJOA CORTÉS, I. *Gipuzkoa, “so color de Comunidad”...*, aip. lan., 178 or. eta 795 oin-oharra.

Edonola ere, zerga-sistema zuzenen aplikazioa oso hedatua egon zen. Horren lekuko gerora agertuko zaizkigun datuak ditugu. Hauek diotenaren arabera, banaketak ez ziren bakarrik gastuei aurre egiteko erabiltzen; bestelako beharretara ere bideratzen ziren, oso ohiko formula bihurtu zirenen seinale. Adibide bat 1507 urtean dugu, lekukotza batzuk errotaren uharka edo presaren konponketan herrixkek eman zuten otea, egurra eta lurrari buruz ari direnean. Agidanez, ibaiak hainbat alditan azpiegitura hura kaltetu zuen, baita suntsitu ere, 1467an gertatu bezala. Errotaren errentak udalbatzaren diru-zorroari egiten zion ekarpena ez zen konponketei erantzuteko nahikoa izan eta hori dela eta, taldikida bat egitea erabaki zen, egurra eta biohol hornidura egin eta materialak garraiatzeko²⁰⁰. Banaketa hura “buruak” eta “buru erdiak” aintzat hartuta egin zen, eta maila fiskal horietan oinarrituz, bakoitzari egur oso bateko edo egur erdiko ekarpena egokitu zitzaion²⁰¹. Nahiz eta bi maila ezarri, dirudienez gehienak 4 burutan balioztatu ziren, zordun edo petxari bakoitzak lau besoko egur zatia jarri behar izan baitzuen. Ekarpene, dena den, ez zen pertsonalizatua edo norberak bakarrik egitera behartutakoa izan. Hainbat auzoren artean egur zati bakarra eraman zezaketen, material horrek bakoitzari zegokionaren batuketa ematen zuen bitartean; Fernando Iturgoiengoak eta Gaintzako beste auzo batek, adibidez, bien artean 8 besoko egurra jarri zuten²⁰².

Fiskalitatearen esparruan, eta bereziki hiribilduari eta herriei zegokie-nean, Ordiziako kasua ezohikoa bezain aberatsa da²⁰³. Informazio ia guztia dirua biltzeko sistema zuzenekin zerikusia du eta horrek esanahi argia duela deritzogu: antzinako Villafrancaren egituraketa fiskala zuzeneko sistematan oinarritzen zen, ondo oinarrituta ere. Egoera hau Tolosari kontrajartzen zaio,

(200) ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, 526 au. folioa.

(201) *Ibidem*, 412 at. eta 416 au. folk.

(202) Fernando beraren hitzetan. *Ibidem*, 517 au. folioa.

(203) Datozen lerroetan oin-ohar gehiegi ez jartzeko asmoz, ez gara etengabeko erreferentziak ematen arituko. Bestelako aipamenik egin ezean, erabilitako iturriak honakoak dira: ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1 (1463 eta 1507 arteko ia banaketa guztiak izateaz gain, 1506ko errolda ere gordetzen du), ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1401-1 (1522, 1523, 1525, 1526, 1543 eta 1549ko erroldak eta 1451, 1526 eta 1527 banaketak); OUA. Libros de Repartimientos, 1. liburua (1511 eta 1526ko banaketak). 1506ko errolda honako lanean argitaratu genuen: GARCÍA FERNÁNDEZ, E.; eta GOICOLEA JULIÁN, Fco. J. (arg.) *Las Haciendas medievales en el País Vasco y La Rioja. Textos para su estudio*, Madril 2012, Instituto de Estudios Fiscales, 51. dok. Ikus baita ere, ARAGÓN RUANO, A. “Administración financiera local...”, aip. lan.

biztanleen erroldak burutzeari utzi baitzioten, urtetik urtera egiteak zekartzan zailtasun, lan eta gastuetan oinarrituz²⁰⁴.

Argi dago Ordiziak sistema fiskal zuzenak erabiltzeari ekin bazion eta, ez hori bakarrik, horiei lehenetasun nabarmena eman bazien, bestelako moduak erabiltzearen beharra ikusi ez zuelako izan zela. Behar hau ez izatea hiribilduko eta eskualdeko garapen ekonomikoarekin lotu behar dugula uste dugu. Beste era batera esanda, gerora horren famatu egingo den azoka aintzat hartuta ere, merkataritzak ez zuen pisu handirik lortu. Bertatik lortu zitezkeen etekin edo mozkinak txikiak izanik, askoz hobea zen prozedura zuzenak erabiltzea, bere barrutian auzotutako hainbat komunitate zeudela aprobetxatuz. Are gehiago, orain arte ez dugu udal-ondasunek udalbatzari zein ekarpen egiten ziotenaren inguruko berririk eta halaber, ez dugu alkabalen edo sisei lotutako inolako informaziorik. Kontsultatu dugun dokumentazioan diru-sarreraren gehiengoa fiskalitate zuzen batek ekarri zuen.

Seguran ez bezala, Ordizian ezin dugu kontularitza bikoitzera hurbiltzeko saiakera sakon bat egin, baina zeharkako datuek errealitate hori aditzera ematen dute. Horren guztiaren arabera, gastu-banaketa sisteman bi esparru ezberdintzen ziren: hiribilduarena berarena, batetik, eta hiribilduak eta herriek partekatzen zutena, bestetik. Eta logikoa ematen du, azken finean, auzotze-hitzarmenetan adostutakoaren arabera, alde bakoitzak bere ondasunen kudeaketa ordura arte bezala egingo zuen, beste aldearen inolako esku-hartzerik gabe²⁰⁵.

Hiribilduarena soilik zen kontabilitate horren inguruko lehenengo zantzuak 1507ko martxoan egindako banaketan ditugu. Bertan honakoa adierazten da:

“Otrosy, mandaron que por quanto el dicho fiel Garçia de Ysasaga avía asentado en el padrón del gasto de todos çient maravedís de la yda de Martín de Ysasaga e Miguel de Moxica a Segura e sesenta maravedís de las ydas de Lascano del dicho Garçia de Ysasaga e Juan de Arteaga, los

(204) Horrez gain, ez genuke baztertu behar Tolosako herri batzuek, merkataritza jarduerak garatuak zituzten Hernani edo Donostia bezalako hiribilduekiko zuten gertutasuna. Azken hauen erakarpina handiagoa zatekeen, Ordiziarena baino.

(205) Ordiziak berak honela zihoen XVI. mende hasieran: “*las vniversidades tienen sus propios más cresçidos e de más renta que la dicha villa e los gozan por sí solos sin parte de la dicha villa e teniendo ellos propios tales quales he dicho, los vecinos de la villa pechan e contribuyen tambien en todas las cargas e repartimientos que se fazen e reparten para las neçesidades de la dicha tierra e vniversydades*” (ARChV. Pleitos Civiles. Zaradona y Balboa, Fenecidos, 1294-3, 67 au.-at. folk.).

quales puso el dicho fiel por yerro pensando que los ponía en el padrón del cuerpo del conçejo, los quales mandaron sacar e acudir con ellos al dicho Juan Martínez para el gasto venidero de todos, en vno con los sobredichos maravedís”²⁰⁶.

1524ko urriko gastu-banaketa, ordea, argiagoa da. Bertan Gartzia Alvarez Isatsagakoa fiel-errejidoreak²⁰⁷ zerrenda bat egiten zuen, urte hartako martxoaren 30etik irailaren 29ra arteko “*de lo gastado del cuerpo del conçejo*”; hau da, hiribilduak soilik gastatutakoaren inguruan²⁰⁸. Hitzok nahiko argiak dirudite, gastu-banaketa hori hiribilduari bakarrik zegokiola adierazteko. Eta honen inguruan zalantza gehiagorik balego, idatzi ziren atalen artean, bat marratu edo ezabatu behar izan zen. Erabakia bi zepo eta eskuburdinetarako giltza baten fabrikazioari zegokion. Agidanez ez zen hiribilduari bakarrik zegokion gastua eta horregatik, sarrera horren inguruan zera erabaki zen: “*ha se de poner en la quenta del pueblo e veçinos*”; Hiri-Landaren kontu-liburuan jarri behar zela, alegia. Banaketa hau da, orain arte eta gure epe kronologikoari gagozkiola, hiribilduari bakarrik dagokienez artean topatu ahal izan dugun bakarra. Esan bezala, 1524ko urrian egin zen, martxoko Andre Mariaren egunetik urte politikoaren amaiera (hau da, irailaren 29ra) arteko gastuei aurre egiteko asmoz. Bakarra izanik ere, oso baliagarria da Ordiziak berak bakarrik zer gasturi aurre egin behar ziren jakiteko, baita bere finantzen inguruko datuak eskuratzeko ere.

Orokorrean, hiribilduak interes berezia zituen gaietan egindako eginbideengatik sortutako gastuak dira zerrendan ageri direnak. Zoritarrez, zehaztasun falta nabarmena da eta ezin dugu gauza handirik jakin. Batzuetan, ordea, bildutako datuek finantza, gastu eta eguneroko bizitzara garamatzate. Hamaika motako kontuak dira: euria eskatzeko erreguteak,

(206) ARChV. Pleitos Civiles. Zaradona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, 224 au. fol.

(207) Karguaren euskarazko baliokide bat bilatzerakoan zalantza ugari sortu (eta sortzen) zaizkigu. Larramendik darabilzkien “pisuzain” edo “neurtzain” adierak egoki baino egokiagoak dira, beraien funtzioa, XVI. mendetik aurrera, hori izan baitzen. Alabaina, XIV. eta XV. mendeetan, hiribilduetako filek jarduera ezberdinak hartuko dituzte, eta hiribildu batetik bestera ezberdintasunak ere ikusiko dira. Ald. ARAGÓN RUANO, A. “Administración financiera local...”, aip. lan., 86 or. (77-155); DÍEZ DE SALAZAR, L. M. “Régimen municipal en Guipúzcoa (s. XV-XVI)”, aip. lan.; DÍEZ DE SALAZAR, L. M. “Notas sobre el régimen municipal...”, aip. lan.; ECHEGARAY, C. de; eta MÚGICA, S., aip., lan., 77-83 orr.; IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., III. liburukia, 802-807 orr.; ORELLA UNZUÉ, J. L. “Régimen municipal en Guipúzcoa en los siglos XIII y XIV”, *Lurralde*, 2 (1979), 103-267 orr.

(208) OUA, Libros de Repartimientos, 1. liburua. Ikus Eranskin Dokumentala, 12.

izurriaren aurkako neurriak edota Sebastian izeneko lapur bat torturatzearen ingurukoak. Erlojuzainari emandako ordainsaria azpimarratzekoa da, izan ere Hiri-Landa banaketetan sekula azaltzen ez den kontua da, nahiz eta urte gutxiren buruan hiribilduak hori nahi izan²⁰⁹. Done Joane jaiei lotutako kontuak ere ageri dira, edota iturburu eta ubideen garbiketa kontuak. Azken hauen izaera adibidez, 1506 urtean ezbaian jarri zen, baina 1524rako hiribilduak bakarrik egin beharreko lantzat ditugu; ordurako ez dira lan amankomuntzat hartzen. Horrez gain, hiribilduak berak (“*al cuerpo del conçejo*”) Hondarribira bidalitako soldatu baten ordainketaren erregistroa gordetzen da, eta zerbitzu militarren ildo beretik ulertu behar ditugu azaltzen zaizkigun “lekaiokeriak” (“*lacayerías*”). Berri interesgarriak dira, baina udal-ondasunen inguruko daturik ez digute ematen eta antzeko dokumentu gehiago izan ezean, zaila zaigu Ordiziako barne finantza eta fiskalitateari buruzko nondik norakoak zehaztasunez aztertzea.

Hiribilduaren ogasun eta kontuekin lotutako dokumentazioa urria bada, ezin dugu halakorik esan Ordizia eta bere herrien inguruko datuei dagokienez. Gipuzkoa mailan benetako pagotxa dugu, dokumentazioa goiztiar bezain ugaria delako. Arrazoa esparru fiskalean, eta bereziki gastu-banaketan inguruan, jurisdikziopeko herriekin izandako hamaika talka, istilu eta eztabaidetan datza²¹⁰, bai banaketa gehiegi egiteagatik zein erabilitako sistemagatik²¹¹. Harrigarria da, ordea, Tolosan eta Seguran ez bezala, Ordiziaren pean zeuden herrietako inor independentzia lortzeko asmoz edo beste leku batzuetara auzotzeko ekimenik abian ez jartzea. Arazorik adierazgarrienak 1506tik aurrera ditugu eta denboran luzatuko dira²¹²; hau da, lurralde gipuzkoarra baretuta zegoenean, Probintziaren egituraketa pribilegiatua sendotzen ari zen heinean eta ziurrenik, hiribilduek beraien jurisdikzio-jaurgo izaera areagotzen zihoa-zen unean. Baina arrazoi hauez gain, tentsioen igoera jarduera ekonomikoekin zerikusia ere izan zezakeen; zehazki, Ordizia eta inguruetan merkataritzak zekartzan onura edo etekin txikiekin.

(209) 1525-26 aldera. Ald. OUA. Unión de Villafranca. Documentos sueltos.

(210) Eta bertako udal artxiboan gordetzen den dokumentazioa urria bada ere, gehiena arazo horiekin lotuta dago. Benetan adierazgarria.

(211) TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 89 or.

(212) PIQUERO ZARAUZ, S.; eta DÍAZ DE DURANA, J. R., aip. lan., 45 oin-oharra eta 535-537 orr.

Ikertzen dugun garaian erabiliko den sistema milareetan oinarritutakoa izango da, pertsonen jabetzen arabera²¹³. 1511n dagoeneko, udalbatzak zera zioen: “*la dicha villa e vniversidades la contribución de las fogueras e pecha hordinaria dentre sí se acostunbraron haser de tiempo inemorial acá por pechos e cánamas enteras e medias e terçias e quartas*”²¹⁴. 1506ko errolda maila ezberdinetan antolatutako sistema honen adibide bikaina da, baina transkribatutako zatian azaltzen diren lau taldeen ordeztasun, zazpi uzten dituen agerian: esaldian aipatutakoez gain, $\frac{3}{4}$, bi heren eta emakumea edo seirenaren taldeak.

Petxu Osoari ematen zaion balioa izango da ondare gehien duten zergadunek gehiago ordaintzeko ardatza, eta eztabaida anitz, hartzen duen balio horren inguruan emango dira²¹⁵. Baina horrez gain, sisteman bazeuden Ordizia eta herrien arteko talkak areagotu zituzketen beste esparru batzuk: Ordiziako jurisdikzioa barruti bakar moduan hartzea eta auzotasuna irizpide moduan hartzea, hain zuzen ere. Barruti bakarraren bidez, zortzen sistematik hiribilduko auzoei, herrietan zituzten ondasunengatik ezer ez ordaintzea zekarkien; hau da, Ordiziako auzo zena, zergak hiribilduan ordainduko zituen. Barruti fiskal bakarrean ondasunak balioztatzeko formulak, jabetzak gordinean hartzen zituen, hau da, horiek non zeuden ez zen aintzat hartzen. Modu honetan herrixken diru-sarrerak nabarmen egin zezaketen behera, baita beraien ogasunaren berezko kudeaketan ere²¹⁶. Dakigunez, sistematik bere horretan iraun zuen 1526 eta 1527ra arte; orduan berregituratze garrantzitsu bat egin zen, hiribilduko auzoek jurisdikzioko herrietan zituzten ondasunen zerga-ordainketa arautuz. Egoera horrek gauzak baretu zituela ematen du, 1544ra arte ez baitzen eztabaida berririk emango; eta orduan ere, arazoa petxu osoari ematen zitzaion balioaren inguruan izan zen; hau da, indarrean zegoen sistema onartuz²¹⁷.

(213) Ez gara gastu-banaketen azterketa fiskal sakon batean sartuko, baina Seguraren inguruan hainbat datu eman ditugun bezala, hemen ere beste horrenbeste egin nahiko genuke. Datozen lerroetarako, ARAGÓN RUANO, A. “Administración financiera local...”, aip. lan.; IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., II. liburukia, 651-689 orr.; PIQUERO ZARAUZ, S.; eta DÍAZ DE DURANA, J. R., aip. lan. Horietan, eta bereziki gure tesian bildutakoei jarraituko diegu oraingoan. Ikus baita ere, Eranskin Dokumentala, 9 eta 10.

(214) ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1294-3, 119 au. fol.

(215) Era berean, eta herriek salatzen zuten, sistematik zirrikituak ere agertu zituen. Zehazki, gehien zutenek zegokien gutzia ez ordaintzeko tresnak erabili zituzten.

(216) PIQUERO ZARAUZ, S.; eta DÍAZ DE DURANA, J. R., aip. lan., 531-532 eta 535-536 orr. eta 45 oin-oharra.

(217) Ald. ibidem eta ARChV. Reales Ejecutorias, 626-32.

Ordizian bi gastu-banaketa ere egiten ziren, bata otsailean eta bestea, uztaila amaiera-abuztu hasieran. Bakoitza udalbatza-fielaren esku zegoen; beraiek ziren diruzain moduan aritzen zirenak eta kontuak haiek aurkezten zituzten. Gastuetan bi esparru bereiz ditzakegu; ohikoak zirenak eta izaera bereziagoa edo ezohikoagoa zutenak. Lehenengoen artean, eta Seguraren antzera, Probintziako suez gain, hainbat udal-ofizialen soldatak daude, baita ate-zaindariak ere. Hiribilduko kargu politiko gehienek soldatak bertatik ateratzen ziren: alkate, zaindari, udalbatza-eskribau, fiel, hiribilduko hamabiak, abokatuak eta abar. Era berean, banaketak ordaintzetik salbuetsiak zeuden sektoreak ere baziren. Batzuk zorigaitzak eragindako kalteak medio, suak hartutako etxeak, adibidez; beste batzuk ordea, Seguran dakusagun moduan, beraien jardunagatik zeuden ordainketatik at; hor leudeke alkatea eta hiribilduko bi hamabiak²¹⁸.

Tolosan ez bezala, Ordiziak urtero erroldak egitearen hautuari jarraitu zion. Zeregin handia zen hura, baina agidanez, bigarrenari lehengoari baino buruhauste gutxiago eman zizkion. Hori dela eta, antzinako Villafrancarako XVI. mende hasierarako gorde diren dokumentuek bere demografiara hurbilteza ere posible egiten dute²¹⁹.

3.2.2. Partaideak eta partzuergoak

Fiskalitatearen esparruari lotuta, bada Seguran eta Ordizian interesgarria den beste kontu bat, partzuergoena, alegia. Bi hiribilduek mendi-ustiapenaren inguruan antolaketa berezi bat izan zuten. Lehenaren kasuan, Enirio-Aralarko partzuergoa izango dugu; bigarrenak, berriz, egitura ugariagotan parte hartuko du: Aiztondo eta Goiburuetako partzuergoan, Gipuzkoakoan eta azkenik, Gipuzkoa eta Arabak osatutakoan²²⁰.

(218) Bada azken talde bat, dokumentazioan hainbat izenekin agertzen dena: “kapareak”, “salbuetsiak”, “askeak”, “zaintzaileei ordaintzen ez dietenak” edo “errege-eskaria ordaintzen ez dutenak”. Gaintza eta Zaldibian kokatutako 9-10 etxe ziren, eta arrazoiak garbi ez badaude ere, banaketak ez ordaintzearen gakoa udalbatzari emandako laguntzaren trukean lortutako saria litzatekeela. IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., II. liburukia, 664-666 orr.

(219) Hala, 1506 urtean 111 auzo zerrendatzen dira; 1521ean, 134; 152 urtean, 137; 125 eta 126 1525 eta 1526 urteetan, hurrenez hurren, eta 1543an, 118. *Ibidem*, II. liburukia, 675 or., 58. taula.

(220) Ohartu nahi genuke “partaideetan” oinarritutako kontu-egituraketa hau ez zela bakarrik bi hiribildu horietan eman; Azpeitiak ere antzeko kasua aurkezten du, partaidetzaren formula Soreasuko errotetan eman zelarik (1582-1585 urteetarako, ikus GPAH-AHPG 2/3007 sortan dauden kontuak). Badirudi beraz, eta logikoa denez, hainbat eragileren artean partekatutako ondasunek hiribilduarekiko kontabilitate banandua osatu zutela.

Beste hiribildu (eta herri) batzuekin alderatuta, Ordiziaren baso-aberastasuna oso mugatua suertatu zen²²¹, baina horrek ez du esan nahi halako baliabiderik izan ez zuenik. Oihanari lotutako lursail batzuen aprobetxamendu ekonomiko eta fiskala bideratzeko aukera izan zuen eta, horri esker, zenbait diru-sarrera lortu. Esan dugunez, bere kasuan Enirio-Aralarko partzuergoa izan zen hori. Diogunaren ideia bat izateko, 1542an Joan Martinez Zaldibiakoaren hitzak aditzera emango ditugu. Bere esanetan, Ordiziak eta herriek:

“tienen proyndibissos los montes e mortuorios de Henirio e quando ay pasto, suelen vender la parte que les cabe porque tienen proyndibiso con las vniuersidades de Boçue; e lo que arrienda el tal pasto suelen poner e gastar en prouecho común de la villa e vniuersidades”.

Larreak, beraz, enkantean ematen ziren. Ez dugu honen guztiaren datu handirik, ziurrenik, eta Seguran ez bezala, partzuergoari lotutako kontu-liburuak guregana iritsi ez direlako. Hala ere, ez dirudi hiribilduari diru handirik zekarkiotenik²²². Zaldibiak aurreko hitzak esaten zituen urte berean, Gartzia Albarez Isatsagakoak hiribilduaren errenta nagusiak errotak eta Enirio-Aralarko mendiek osatzen zituztela aditzera ematen zuen. Baina hala ere, finantza-balantza ez zen oso oparoa, aitzitik:

“pero que tan poco es el prouecho, que para segund sus gastos e nesçesidades hordinarios e extraordinarios e foguera provincial hazen poco fruto e que sin envargo d’ellos, que se ofresçen de tiempo en tiempo, hazen

(221) Oria eta Urumeako hiribilduekiko alderaketa baterako, IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan.

(222) Banaketek horren inguruko informazioaren bat dakarte, baina ez gehiegi. 1493ko martxoan, adibidez, fielaren esku urrezko 2 florin geratu ziren, “*gasto de los dineros de Enirio*” zirenak. Bost urte beranduago, 1498ko abuztuko banaketan, aurreikusitako gastutik 5.000 marai kentzeko asmoa agertu zen, fielak Enirioko larreengatik jasotakoak. Antzeko dirua bildu zen 1489an, orduko martxoan egindako gastu-banaketan, Gartzia Albarez Isatsagakoarengandik 61 florin jasotzeke baitzizutzen, Enirioko bazkei zegozkienak. 1493 eta 1498 urteetan bildutako diruaren artean dauden ezberdintasunak errentamenduari zerkusua izan dezakete; hau da, batetik errentamendu osoaren datua genuke eta bertatik, Ordiziari zegokion zatiarena. 1505eko hitzarmenaren ondoren hiribilduari partzuergoaren %10,71 zegokiola aintzat hartzen badugu, nahiz eta data ezberdinetako datuak izan, emaitza oso antzekoak dira; izan ere, 530 marai (urrezko 2 florin), 5.000-ren %10,6 dira. Ikus TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan. 90-91 orr.; TRUCHUELO GARCÍA, S. ““En aquel lugar que dicen Ordicia...’...”, aip. lan., 106-107 orr.; eta AYERBE IRIBAR, M.^a R. “La Unión o Mancomunidad de Enirio y Aralar. Un caso modélico de montes comunales intervenidos por el Servicio Forestal de la Diputación de Gipuzkoa”, *BRSBAP*, LXI (2005), 5-136. Banaketetarako, ikus, hurrenez hurren, ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, 1295-1, 221 au. (CLXXXVIII au.), 201 au. (CLXVIII au.) eta 220 au. (CLXXXVII au.) folk.

los dichos sus repartimientos hordinarios e extraordinarios para sus propios gastos e espensas e de sus neçesidades como los tiempos ofresçen, de manera que siempre tienen más neçesidades que sobras”²²³.

Seguran aldiz, informazioak askoz aberatsagoak dira, bai partzuergoari dagokionez zein udalbatzarenak bakarrik ziren baso-baliabideei dagokienez²²⁴. Diogun moduan, hiribilduak hainbat partzuergotan parte hartzen zuen. Alde batetik Aiztondo eta Goiburuetako partzuergoa zegoen, Segurak Legazpi, Zegama, Idiazabal eta Zerainekin zuena. Bigarrenik Gipuzkoako Partzuergoa zegoen, Legazpi ez beste herri horiek biltzen zituena. Azkenik, Gipuzkoa eta Arabako partzuergoa zegoen, 1430ean sortutakoa; bertako partaideak Aiztondo eta Goiburun sartuta zeuden populazioak eta Arabako Agurain, Donemiliaga, Asparrena eta Zalduondo ziren²²⁵.

Herriekin partekatutako baso-eremuen erabilerak eta ustiaketak hiribilduaren finantza eta kontabilitatean isla argia izan zuen, hirugarren ardatza osatuz. Izan ere, hiribilduarenak propio ziren kontu-liburuez eta Hiri-Landa mundukoez gain, partaide edo partzuergoarekin zerikusia zuten negozioek beste liburu bat osatzen zuten, eta udalbatza-diruzainak hiruekin egiten zuen lan.

Segura hiru partzuergotan sartuta izaki, kontu-liburuek zeini buruz ari diren adieraztea komeni da. Dokumentuen arabera, kontabilitateak ez zuen Arabako partaideen partaidetzarik; hau da, hiribilduak edo alde gipuzkoarrak propio sortutako kontuak ziren. Bestalde, gastuak lau herrien artean banatzen ziren: Segura, Zegama, Zerain eta Idiazabalen artean, hain zuzen ere.

(223) ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa. Pleitos Fenecidos, 636-2, 3. pieza.

(224) Ez gara honetan guztian sartuko, baina partzuergoetz gain, hiribilduarenak diren kontuetan baliabide hauen inguruak ageri zaizkigu. XIV eta XV. mendeetako dokumentazioak lur eta eremuen eskuratze eta mugatzea islatzen du, tartean inguruko populazioekin edota leinu eta Ahaide Nagusi garrantzitsuekin izandako liskarrak. Aialako jaunari hainbat mendi erosi zitzaizkion eta horrez gain, Lazkaoko jaunarekin mendi, korta, bazkalarre eta eremuen mugarritzea egingo dute, baso eta abere ustiaketa arautuz. Ikus, adibidez, DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 103. dok.

(225) Udal artxiboan (zeinak partzuergoaren funtsa ere gordetzen duen), ez dirudi horrelako libururik gorde denik, ez behintzat, XVI. mendeko lehen erdirako. Topatu ditugunak Segurak eta hiribilduek elkarren artean eta 1548tik aurrera izandako auziari zor dizkiogu, froga moduan sartu baitziren, hiribilduaren eta Hiri-Landa esparruaren kontu-liburuekin batera. Ikus ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1739-1, 10. pieza.

Legazpi ez zen azaltzen, dakigunez, Gipuzkoako partzuergotik eta Arabak eta Gipuzkoak osatzen zutenetik at baitzegoen²²⁶.

Diru-sarrera gehienak, kontu-hartzea egin ondoren diruzainak zor zuen dirutik zetozen, baita mendi-komunitate horien partaideen artean egiten ziren banaketetatik ere. Bietatik, diruzainaren ingurukoek garrantzia handia eskuratutela ematen du: 1538-39 ekitaldirako adibidez, diru-sarrera bakarra izan ziren. Hori dela eta, partzuergo edo Hiribildu-Partaideen kontuek sekularako aldea dakarte sarreren eta gastuen artean; **5. Taula** horren lekuko dugu. Gastuen araberako kontularitza zen; hau da, apenas sarreren inguruko planifikaziorik bazen eta horrek, urte batetik besterako balantzak arrastaka eramatea zekarren.

Gastuak berriz, bideen mantentze eta zaintzarekin eta partzuergoaren esparruari lotutako auziekin lotuta zeuden; besteak beste, Biozkornako eta Goiburuetako bideen erabilerarekin zerikusia zuten auziak, Agurain eta Donemiliaga eta Araiako Batzarrekin egindako kudeaketak, edo Burundakoekin mugariak jartzeko burututako eginbideak²²⁷. Kontabilitate honetan, beraz, baso-esparruari eta partzuergoari lotutako gai ezberdinen inguruko gastuak banatzen ziren.

Diruzainak zor zuenaz gain, eta esan bezala, sosak biltzeko fiskalitate zuzena erabiltzen zen. Partzuergoak ematen zituen etekinak gastuei aurre

(226) Asunción Urzainkik, bestalde, Segurako eta Aguraingo udal-ondasunen zati bat bidearen mantentze eta zaintze lanetara bideratua zegoela dio. Ald. URZAINKI MIKELEIZ, A. *De montes, parzonerías y parajes naturales. Comunidades de montes en Gipuzkoa: las Parzonerías*, Donostia 2007², Deustuko Unibertsitatea, 34 or.

(227) 1538-39ko kontuetan Biozkornako bidearen erabilerari buruzko datuak azpimarregarriak, eta horrekin lotuta, garaian egin omen zen plano eta marrazkia. Modu honetan, ekitaldi hartako diruzainak Pedro de las Heras sustatzaileari 3.810 marai ordaindu zizkion. Horietako hainbat 30 eguneko lanaldiagatik zen, “*en ber y pintar el término de Buscorna e Puerto de Sant Adrián e ciertas villas e lugares d’esta Probiçnia por mandado de Su Magestad el señor liçençiado Esquibel mandaron pintar para el pleyto que tratamos con la villa de Legazpia (...) E más hubo de aber dos ducados por la maestría e lienço e colores e tintas de la dicha pintura...*” (ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1739-1, 10. pieza, XIX au.-at. folk.). Lope Diaz Otazukoa gasteiztarrari, aldiz, dobla gaztelar bat ordaindu zitzaion, itzultzaile-lanetan bi egunez aritzeagatik: “*en ser yntérprete a yntrepetrar [sic] los dichos testigos que por nuestra parte (...) se tomaron en el pleyto que tratamos con el bachiler de Legobia sobre el camino de Buzcorna*” (ibidem, XIX at.). Esan gabe doa datu honek, Araban euskarak XVI. mende erdialdean bizi zuen egoeran sakontzeko balio digula. Ald. IRIXOA CORTÉS, I.; eta PRIETO GIL DE SAN VICENTE, M. “Abelbidetik Zaborrera: Erdi Aro eta Aro Berriko euskararen ikerkuntzari buruzko hainbat ohar eta hitz zerrenda bat”, *BRSBAP*, LXVII (2015), 139 or., 19 oin-oharra (129-172).

egiteko erabili ordez, partaide bakoitzak zegokiona bildu eta beretzako gor-
detzen zuen, amankomunean zituzten gastuak taldikida bidez ordainduz.
Horretarako, herri gipuzkoar bakoitzak partzuergoan zituen zatien arabera
banaketa egiten zen.

5. Taula
Segurako Hiribildu eta Partaideen kontuak
(1539-1541) (maraitan)

	1538-39	1539-40	1540-41
Sarrerak	19.196	126.243	50.886
Gastuak	116.418	156.036,5	113.337
Guztira	- 97.222	-29.793,5	-62.451

Lerro nagusienetan, zatiketa honek probintziako **buruezartze-sute-
nari** jarraitzen zion²²⁸. Irizpide hori aintzat hartuta, gastua Segura, Idiazabal,
Zegama eta Zerainen artean zatitu egiten zen. Beste modu batera esanda, oina-
rri moduan Probintziako egituraketaren baitan lau herriek biltzen zituzten 110
botoak hartu ziren, horien arabera zatiak egin zirelarik. Dokumentazioak,
ordea, ez du beti emaitza hori ematen. 1539-40ko ekitaldirako 112 boto zen-
batu ziren, hurrengo urtekoan 102 izan zirelarik²²⁹. Modu berean, aipatu
dugun 1539 azaroko banaketa adibide gisa jarri dezakegu. Banaketa horrek
1538-39 kontuetan ageri ziren 97.000 maraitako gastuei aurre egin nahi zien;
kalkuluak eginda, dukat bat hiru suteko ordaintzea adostu zen. Dukaterako
ditugun baliokidetasun ezberdinak erabiliz gero (hau da, 375, 450 edo
472 marai su bakoitzeko), emaitzak 68,66 eta 86,5 sute artekoak lirateke. 110

(228) Ald. URZAINKI MIKELEIZ, A., aip. lan., 115-116 orr. Hasieratik egin zen ala ez,
ez dakigu, baina 110 zatien (hau da 110 boto-sutenen) banaketa gipuzkoarra Arabako parte-har-
tzaileri aplikatu zitzaizela aintzat hartuta, baliteke zatiketa hura partzuergoaren eraketa baino
lehenago egin izana; ziurrenik Gipuzkoako guneek beraien sailak eskuratu zituztenean; hau da,
1409 urte inguruan. Gogora dezagun azken urte horretan Zegamak, eskuratu zuen zatia muga-
rritu zuela (GOICOLEA JULIÁN, Fco. J. *Archivo Municipal de Salvierra-Agurain. Tomo II. (1401-1450)*, Donostia 1998, Eusko Ikaskuntza, 15. dok.). Edonola ere, badirudi Probintziak era-
biliko duen sistema sutenaren antzinatasuna beste behin agerian geratzen dela.

(229) Bi zenbakien arteko antzekotasuna ikusita, baliteke “102” irakurri beharrean, 112
ulertu behar izatea.

edo 112 suak gastu horietan erabiliko bagenitu, ordea, su bakoitzeko 346,5 y 352,8 marai genituzke²³⁰.

Suteen zalantza hauei buruzko erantzuna 1540ko abuztuaren 26 batzurrean dugu, nahiz eta hasiera batean aditzera ematen diren datuek gauza korapilatuzera datozen²³¹. Dokumentuaren hastapenetan honakoa adierazten da: “*la rata que cunple al dicho concejo por sesenta fuegos, qu’ es la dicha villa*”; alegia, udalbatzak ordaindu beharrekoa hiribilduari dagokion zatia (**tal-dia** edo **hainbana** delakoa), eta hau 60 sutan balioztatuta zegoela. Kopuru hau bat dator Ermandadeak ezarritako boto sutenekin eta Probintziaren gastu-banaketetan Segurari berari zegokion kopuruarekin. Bileran ondoren datoren zatiak, baina, honakoa dio: “*se alló que villa e parçoneros heran çient y veynte fuegos*”. Ziurrenik akats baten aurrean gaude, izan ere jarraian **buruezartze** guztia banan-banan zerrendatzen da, eta hemen datza gakoa. Bileraren erregistroak Zerain 10 sutan eta Zegama, berriz, 19tan buruezartzen ditu, probintziako botoak jarraituz²³². Baina horrez gain, erregistroaren arabera Partzuergoaren barnean beste bost etxe hartzen ziren, horien balioa 2 sukua zelarik (“*las cinco casas, que son dos fuegos*”). Ondorioz, Partzuergoko zatien banaketa eta ordainketa, Probintziako suteen zerrendan oinarrituta zegoen. Alabaina, bost etxe horien nondik norakoa argitzeko legoke: zein etxe ziren, non zeuden eta Partzuergoan sartzearen arrazoia zein zen.

Prozedura aldetik, gauza nahiko erraza zen. Adibide gisa 1539ko azaroaren 3ko batzarra jarri dezakegu. Bertan hiribilduko udalbatza eta beste hiru herrietako hamabi eta hainbat auzok parte hartu zuten Hiribildu-Partaideen banaketa egiteko asmoz. Kalkuluak egin ondoren, sute bakoitzari hiru dukat egokitu zitzaion eta ordainketa hau bi zatitan egingo zen: Eguberri egunez eta Abuztuko Andre Maria edo Jasokunde egunez (hilaren 15ean, beraz)²³³.

Esan bezala, Partzuergoaren ustiaketa ildotik lortutako diru-sarrerak edo etekinak udal-zorrora zihoazen; beste era batera esateko, udal-ondasunen

(230) Baliokidetasunen inguruko arazoetarako, ikus IRIJOA CORTÉS, I. “Diversidad monetaria y finanzas concejiles en Gipuzkoa a fines de la Edad Media e inicios de la Moderna” (prentsan).

(231) ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1739-1, 10. pieza, CLXX at.-CLXXI au. folk.

(232) Une hartan egiten zen banaketak, Idiazabali 565 tarja eta 6 marai ordaintzea zegoikiola adierazten zuen. 9 marai tarjako baliokidetasuna erabiliz eta su bakoitzari 27 tarja eta 8 marai zegoikiola aintzat hartuz, 20,28 su emango lizkiguke. Zerbaki hori behetik borobilduz gero 20 su emango lituzke, Idiazabali Probintziako su-zerrendan dagokiona, alegia.

(233) ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1739-1, 10. pieza, CLII au.-at. folk.

zati ziren. Bitxia bada ere, ez dirudi erakunde horri lotutako diru-poltsa amankomunik zegoenik; partaide bakoitzak zegokiona hartu eta bere finantzetara batzen zuen. Nahiz eta gastu-atal bakoitza mankomunitateari zegozkion kontu-liburuetan ipini, bildutako dirua ez zen, nahitaez, esparru horretara bideratzen. Hiribilduari zegozkion kontu-erregistroetan, adibidez, partzuergoari lotutako mendisailen informazio, gastu edo ordainketak idazten dira. Adibide bat Bazterrotzaga mendian ikus dezakegu. Gipuzkoako Partzuergoaren zati zen baina, era berean, muga egiten zuen eremua zen: alde batetik, 1487an Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko mugan zegoen; bestetik, 1516an Burundarekin sinatutako Adostasunaren Partzuergoa mugatzen zuen zedarria, han zegoen²³⁴. 1539-40 ekitaldian, bertatik hiribilduari zegozkion 15.060 maraiak Seguraren taldia edo hainbana zirela adierazten zen. Era berean, urte horretan bertan eremu horretatik hartutako egurraren zati bat Altzibar edo Arraiako burdinolari saldu zitzaion eta horrek, hiribilduari 2.700 marai eskuratzea ekarri zion. Azken datu horrek, gainera, aurretik beste ikertzaile batzuek egindako baieztapenak berresten ditu. Haien arabera, partzuergoak lortutako diru-sarreraren jatorrietako bat inguruko hiribilduei saldu-tako egurrean zetzan. Horretarako, ordea, komunitateko partaideek ados egon behar zuten eta erosleak, bakoitzari zegokiona eman beharko zion.

Partzuergoetan, oihanari lotutako baliabideak bi modutan ustiatzen ziren. Batetik, egurren eta zurak herri-aprobetxamendua zuten; halakoetan, materiala etxeak konpontzeko, etxeko surako edo nekazaritza tresnetarako erabiltzen zen. Bestetik, baliabide horien merkaturatzea zegoen, egur-ikatzerako salduz²³⁵. Azken jarduera horrek etekin nabarmenak ekarri zituen, bereziki partzuergoan zati gehiago zituzten komunitateei. Altzarian 1510eko abenduko bileran adostutakoaren arabera, inguruetako pagadietatik 92.000 zama ikatz-egur saltzeko erabakia hartu zen. Zama bakoitzari 3 dukateko balioa egokitu zitzaion; guztira, beraz, 276.000 marai ziren. Diru-kopuru handia zen eta hori dela eta, ordainketa egiteko, enkantea irabazi zutenei 18 urteko epea eman zitzaion. Zamak eskuratu zituztenak Zegamako bi auzo izan ziren, Joan Gartzia Altzibarkoa eta Joan Perez Igoarangoa, baina Segurako udalbatzak ere enkantean parte hartu eta bere posturak etekinak lortu zituen, izan ere, ateratako zamen erdia erdietsi zuen, 46.000 hain zuzen ere. Partzuergoak enkantean lortutako dirua, izaera judiziala zuten kontuetan erabiliko zen, honakoa ordaintzeko: *“las costas e gastos que por los juezes, procuradores*

(234) URZAINKI MIKELEIZ, A., aip. lan., 127 or.

(235) *Ibidem*, 242 or. eta hh.

*e escriuanos e personas apartadas e testigos que en los dichos casos e dife-
rençias que entre los dichos parçoneros avia abido*”²³⁶.

Ondorioz, partaideek bazka, larre, ur, egur eta zuraren aprobetxamen-
dua irekia eta partekatua mantendu bazuten ere, egur-ikatzera bideratutako
lehengaiak bakoitzak bere aldetik kontrolatzen zuen. Baina hala eta guztiz ere,
salmenta aho batez egiten zen, edo herrietako batek eskatuta, 1510ean ikus-
ten den bezala. Modu honetan, ustiapen amankomunean zegoen baso horrek,
benetan udal-ondasun izaera zuela ondorioztatu dezakegu, beti ere beste par-
taide edo kideen baimena izanez gero.

Bestalde, kudeaketa prozesu guztia ez zen udal-ondasunetan ematen
zenen oso ezberdina. Salmentak bi eratara egin zitezkeen: saltzailearekin
aldez aurretik adostuta edo jendaurreko enkantean jarritz. Ondoren, behin
baso-sailak errematatuak zeudela, partzuergoko partaideen batzar bat zen ido-
kitze edo erauzte baldintzak ezartzen zituena. Lortutako dirua bi zatitan bana-
tzen zen: batetik Segura eta bere herriak zeuden eta bestetik, Agurain eta beste
herri arabarrak. Ondoren hiribildu bakoitzak dirua banatzen zuen, bakoitzari
zegokion zatiaren arabera. XVI. mende erdialdera arte alde bakoitzak zego-
kiona nahi zuen moduan kudeatzeko askatasuna zuen. Seguraren kasuan —eta
ziurrenik udal-burdinolak zituzten beste herrietan—, baliteke udalbatza-burdi-
nolen errentariekin nolabaiteko hitzarmena egotea. Partzuergoaren basoetatik
zetorren egurraren zati bat burdinola une horretan zuenari emango zitzaion,
azken honek aldez aurretik egindako ordainketa baten ondotik; honela azal-
duko litzateke gorago aipatu dugun Altzibarko salmenta.

Egur kontuez gain, XV. mendean zehar eta XVI. gizaldiaren hasieran
ere, Altzaniako basoetako ezcurraren errentamenduari buruzko informazioa
ikus dezakegu. 1442an adibidez, Otxoa Iñigez Aurgaztekoak Segurako udal-
batzarengandik Altzaniako **mortak**, **morturak** edo **morturuak**²³⁷ errentan

(236) POZUELO RODRÍGUEZ, F. *Archivo Municipal de Salvatierra-Agurain. Tomo IV (1501-1521). Apéndice 1259-1469*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2010, 62 dok. Hainbat hamar-
kada beranduago, 1561erako, halako baliabideek 1.000 dukateko sarrera ekarri zuten. Ikus
URZAINKI MIKELEIZ, A., aip. lan., 252 or.

(237) Gaztelaniazko testuan, “mortuorio”. Jendez hustutako herrixkak baino, ziurrenik,
nekazarien orubeak genituzke, jabeak legezko oinorde edo jaraunlerik gabe hiltzerakoan, erre-
ge-erreginek, jaunek edo bestelako leinuek haien jabetza osotasunean edo zati batean eskura-
tzeko eskubideak zituztenak. “Morta” aldaera lerro batzuk beherago aipatzen dugun “Mortaxipi”
leku-izenetik hartu dugu. Hitzaren esanahiaren inguruan, OJANGUREN, P. M. “Mortueros”,
Euskonews & Media, 52 (1999/10/29-11/05) <http://www.euskonews.com/0052zbk/gaia5205es.html> (2018-02-08an kontsultatua). Hala ere, Altzaniaren kasuan gehiago ikertu behar delakoan
gaude eta horregatik, gure itzulpena behin-behinean hartu beharko litzateke.

hartu zituen, bere urdeei emateko. Hortan zegoela, Gebarako jaunak zerriak Urreizpaleta kortan harrapatu zituen, non eta hiribildua eta bere herriek zituzten herri-basoetan (“*los montes comuneros de la dicha villa e de sus vesindades*”)²³⁸. Era berean, 1540-41eko kontuek 1.740 maraiko diru-sarrera islatzen dute, Altzania eta Mortatxipiko ezcurraren errentamenduagatik. Hiribilduari eta herriei egiten zaien aipamena ikusita, ikatzerako zama-egurretan dakusagun funtzionamenduaren antzekoa izango zelakoan gaude. Hau da, ezcurraren errentamendua alde bakoitzak, arabar zein gipuzkoarrak, bere aldetik egiten zuen, eta lortutako dirua bakoitzari zegokionaren arabera banatzen zen. Hori izango litzateke XVI. mende erdialdean ageri zaigun diru-kopuru txiki horren azalpena, ordurako diru-banaketa guztia eginda egongo baitzen.

Alabaina, XV. mendearen lehenengo hamarkadetan egoera ezberdina zen. 1430ean urde-aziendaren bazkari buruzko akordioa sinatu zen. Horren arabera, parte-hartzaileez edo partzuergo-kideez gaindi, beste lekuetako auzoak sartzeko aukera adostu zen, inguruko herrietako biztanleei ezkurra errentan emateko aukera ireki zitzaielarik. Are gehiago, esparru horretan ez zegoen inolako partzuergo edo talderik osatuta²³⁹. Bitxia bada ere, salaketak aurkeztu zituen lehenengoa Arabako aldea izan zen, 1436an, gipuzkoarrak legez kanpoko zuhaitz-mozketak eta urde-sartzeak egin zituztela argudiatuz. Oraingoan salatzaileek, urdeak zeuden lekutik kanporatzeko eskaria egiten zuten, ziurrenik beste aldeari zegozkion lursailetan sartu zirelako²⁴⁰.

3.2.3. Herri-fielá

Aurreko paragrafoetan Segura eta Ordiziako antolaketa fiskalean herriek zuten papera aztertzeari leku egin diogu. Ondorioak, ordea, ez ziren esparru horretako ordainketa sistemaren inguruan bakarrik eman, alor instituzionalera ere zabaldu ziren. Modu honetan, herri bakoitzak zituen udal-karguez edo propio izendatutako ordezkariez gain, bazegoen haien partaidetza islatzen zuen beste ofizial bat, bai Seguran zein Ordizian. Gainera, idatziek ofizial horren ingurukoak aztertzea posible egiten dute, eta Segurako dokumentazioari esker, fielaren sorrera ongi baino hobeto dokumentatua dago.

(238) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 176. dok., 247 or.

(239) “*comunidad ninguna sino que cada uno goce (...) en lo suyo propio*” (URZAINKI MIKELEIZ, A., aip. lan., 231 or.)

(240) DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 171. dok.

XV. mende hasieran, Segurako hainbat herrik fiel bat izendatzeko aukera eskatzen hasi ziren, hiribilduaren eta jurisdikziopeko populazioen artean egi-ten ziren petxu eta taldikiden inguruko kontuak eramateko²⁴¹. 1404ko mar-txoan, Segurak eta Idiazabal, Zegama, Mutiloa, Ormaiztegi eta Gudugarretak adostasun-hitzarmen bat sinatu zuten. Agiriaren arabera, herrixketako auzo eta biztanleei urtero fiel bat izendatzeko eskumena aitortzen zitzaien, sosen kudeaketaren ardura izan dezan. Kargu horri 200 maraitik goragoko banake-tak nahi eta nahi ez jakinarazi behar zitzaizkion; kopuru txikiagokoen berri izateko eskumena ere bazuen, baina propio eskatzekotan bakarrik. Behin hau eginda, fielak taldikida egingo zen udalbatzarrean agertu behar zuen; hala egin ezean, hiribilduak banaketa aurrera eramango zuen eta herrixketako auzoak zegokiena ordaintzera behartuta egongo ziren²⁴². Ondorioz, hiribilduak auzo-tartze prozesuen ildotik goiz samar garatutako sistema baten aurrean gaude eta hainbat aldaketa eta moldaketarekin bada ere, 150 urte beranduago inda-rraen ikusiko dugu.

Herrixketako hamabiekin batera, herri-fielak Hiri-Landa batzarretan adosten ziren gastu amankomunen banaketetan parte hartzen zuen. Ondorioz,

(241) 1404ko maiatzean, Segurak Idiazabal, Zegama, Mutiloa, Ormaiztegi eta Gudugarretarekin egindako adostasun-hitzarmenean, eztabaida honela definitzen zen: “*especialmente disiendo vos, los dichos omes buenos, vesinos et moradores en las dichas collaçiones que devedes aver un fiel escogido por vos, quien tenga et guarde por vosotros las cuentas de los pechos et derramas et costas que nos, el dicho conçejo, derramaremos et fisiéremos por nos et por vos*” (ibidem, 101. dok., 33 or.). Eztabaidak 1402tik ematen ari ziren (ikusi ibidem, 92. dok.).

(242) “*ayades et podades aver un fiel sobre vos, qual vosotros escogiereades de cada anno, quien por vosotros pueda guardar et tener las cuentas de los pechos et derramas et costas que nos, el dicho conçejo de Segura, derramaremos et fisiéremos por nos et por vos, las dichas nuestras vezindades. Et que a menos de saviduría d’este dicho vuestro fiel, que nos, el dicho conçejo, non podamos faser varato nin malleva alguna nin dádiva nin costas de algunos maravedis de mayor quantía de dozientos maravedis en arriva. Enpero en esta manera: que después que fuere fecho savidor este dicho fiel en quantías mayores que venieren de dozientos maravedis en arryva, que sea tenido de venir el dicho fiel a llamamiento de nos, el dicho conçejo, para faser el tal varato o malleva o dádiva de maravedis. Et sy después que fecho savidor por nos, el dicho conçejo, fuere revel et non quisiere venir a llamamiento de nos, el dicho conçejo, para lo que sobre dicho es faser, que nos, el dicho conçejo, en absençia suya podamos faser los dichos varatos et mallevas et dádivas et costas de maravedis en cosas que sean en carga et provecho común de nos, el dicho conçejo, et de nos, las dichas vesindades. Et que los tales maravedis que seades tenudos de pagar vos, los dichos vesinos, en vno con nos, el dicho conçejo. Et que de los dosientos maravedis sobredichos que a menos de saviduría del vuestro fiel despediéremos o fisiéremos varato o malleva d’ellos, que todavia nos, el dicho conçejo, et los nuestros ofiçiales seamos tenudos de dar cuenta d’ello al fiel de vos, las dichas vesindades, cada que por él fueren requeridos*” (ibidem, 101. dok., 34 or.).

hasiera batean behintzat, hiribilduko gobernuaren jarduna kontrolatzen zuen kargua zen. Segurak 1404an hitzartutako adostasun-hitzarmenak ezarrita-koaren arabera, batzarretan derrigorrez hartu behar zuen parte eta Hiri-Landa esparruko banaketak edo antzeko gaiak jorratzeko egiten ziren bileren erregist-roan hala ikus daiteke; bere partaidetza agerikoa da²⁴³.

Hiribildu horretan, herri-fielak Hiri-Landa batzar eta banaketen ospatzea-ren berri eman behar zien herrixkei, hauek deialdira joan ala ez²⁴⁴. Horrez gain, gai amankomunetara bideratzen zen dirua kudeatzeko ardura zuen, eta diruzain berriari sosak eman baino lehen, aurreko urteko diruzainaren kon-tuak ikuskatzea eskatzen zuen. Ildo honetatik, Joan Martinez Antxieta fielak 1521eko azaroko bileran esandakoak oso adierazgarriak dira: “*que hasta que se berificasen las quantas primeras con Juan López de Olauerria, mayor-domo del año pasado, no acudan ningunos marauedis al dicho Juan López, agora sea por via de alcançe, agora de otra qualquier manera*”²⁴⁵. Batzarrei buruzko akten onarpenak bere oniritziarekin egin behar ziren eta, beharrez-koa ez zela dirudien arren, oniritzi horren lekuko bere sinadura dugu; berea edo, idazten edo sinatzen ez zekitenen kasuan, beraien orde z hori egiten zutenena²⁴⁶.

Segurak informazio gehiena ematen badigu ere, Ordizian halako kontuen nondik norakoak lehenago islatuta ditugu, 1382ko auzotze-hitzarmenean, hain zuzen ere. Bertan adostutakoaren arabera, bi aldeak hainbat gasturen ordainketan parte hartzera behartuak egongo ziren, dela

(243) Baliteke ez joategatik edo ordezkariak ez bidaltzeagatik nolabaiteko isuna edo zigorra ezarri izana.

(244) 1518 urteko otsailean, adibidez, “*ausente Legazpia, el qual fue llamado segund dio fee el fiel de las tierras*”; 1525eko maiatzean, berriz, Gabiriakoa “*fue llamado y no vino, según dize el fiel*” (ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 218 au. eta 229 at. fol.). Ald. ibidem, 239 at. folioa, non 1530 urteko maiatzaren 16ko batzarra, udalbatzak eta hamabiek ospatutakoa, honela egin zen: “*sobre hauer hecho llamamiento por el fiel de las tierras, e no vinieron más jurados*”. Gure aburuz, azken hitz horiek herri-fielaren erantzukizuna agerian uzten dute; hau da, behin udalbatzarengandik batzarra ospatzeko jakinarazpena jasota, herriei horien berri emateko ardura zuela. Ildo honetatik, Hiri-Landa batzarrak ospatzeko asmoak hiribilduko ofizial jakin batzuen aldetik etor zitezkeen, alkatea edo prokuradore sindikoa, kasu, edo guztien ekimenez. Ikus, adibidez, ibidem, 221 au. folioa (1519ko martxoaren 19-a: “*estando en conçejo a llamamiento de Pero Martinez de Arayztegui, sindaco procurador*”), 238 at. folio (1529ko azaroren 9a: “*a llamamiento del dicho fiel*”) edota 239 au. fol. (1530eko apirilaren 5a: “*por mandamiento del dicho señor alcalde*”).

(245) *Ibidem*, 223 at. fol.

(246) Nahiz eta gutxitan eman. Adibide baterako, ikus ibidem, 223 at. folioa.

erregearen zerbitzuei erantzuteko, dela hiribilduko udalbatzak eta sei herrixkek elkarrekin zituzten kontuei aurre egiteko: “*asy en el seruiçio e seruiçios del rey e en todas las otras cosas que al dicho conçejo de la dicha villa e a los de las dichas seys collaçiones*”. Hiribilduaren eta herrien beharrei erantzuteko nahitaezkoak ziren baina aurreikusi gabeko kontueta-rako, berriz, prozedura bat ezarri zen. Horiek 200 maraitik gorakoak izanez gero, hiribilduak herrixketako hamabiak deitzeko konpromisoa hartu zuen. Hortik beherako gastuak baziren, aldiz, ez zuten deialdia egiteko inolako betebeharririk izango²⁴⁷. Xedapen hauek Segurak 20 urte beranduago ezarri zituenen antzekoak dira baina horretan ez bezala, orduan ez zen propio inolako ofizialik sortu; aitzitik, Ordiziako hamabiak izango ziren batzar horietara joateko ardura izango zutenak. Denborak aurrera egin ahala, eta antzinako Villafrancan gastu-banaketek eta fiskalitate zuzenak izan zuten garrantziaren ondorioz, hiribilduak Segurako konponbidea bere egin zuen, herri-fielak sortuz. Erabaki hori noiz hartu zen ez dakigu, baina dokumentazioak aditzera ematen digunaren arabera, 1451 eta 1463 urte bitartean koka dezakegu. Lehenengo urte horretan egin zen banaketan herrietako hamabiak eta hainbat auzo dauden bitartean, 1463ko urtarrilekoan herri-fielaren partaidetza ikus daiteke²⁴⁸.

Bi hiribilduen parekotasunak ikusita, Segurak ere Ordiziak markatu-tako bideari jarraitu behar ziola pentsa daiteke, baina antzeko xedapenak hartu bazituzten ere, ezberdintasunak izan ziren. Hasteko, ofizialaren hautaketa eta izendapena egiteko prozesuan eta honetan hiribilduak zuen partaidetzan. Ordizian, kargua herrietako zein hiribilduko auzoek bete zutela ematen du: 1452an, adibidez, Joan Perez Agirrekoa Zaldibiako prokuradore bezala aritu zen eta bertako eta Ordiziako auzo moduan aipatua da. 1525-26 epe-rako berriz, hiribilduko pisuzainak, Joan Migelez Isatsagakoa “udalbatzaren eta unibertsitateen fiel eta nire laguntzaile” (“*fiel del concejo y vniversidades*,

(247) “*E en quanto de todas las otras cosas nesçesarias al conçejo de la dicha villa e a los de las dichas seys collaçiones e a cada vno d’ellos les acaesçiere e copyere a pagar, asy en el seruiçio e seruiçios del rey e en todos los otras cosas que al dicho conçejo de la dicha villa e a los de las dichas seys collaçiones e a cada vno d’ellos les acaesçiere, que se reparta segund deue e a cada vno segund su estado e segund que los del cuerpo de la dicha villa ha(n) vsado e acostunbrado, e que los paguemos todos en vno, segund fuere repartydo*” (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1294-3, 54 au.-at. folk. eta Eranskin Dokumentala, 6).

(248) Hala, urtarrilaren 25ean, udal-ofizialak eta hiribilduko gizon-onak, “*en vno con los jurados e omes buenos e fiel de sus vesindades*” bilduta azaltzen zaizkigu, nahiz eta azken horien izenik ez aipatu (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, CLV au. fol.).

mi aconpañado”) gisa aipatzen du (6. Taula). 1527ko abenduan egin zen banaketaren arabera, Isatsaga Ordiziako auzoen artean dago, baina badakigu ondasunak hiribilduan zein Beasaingo jurisdikzioan zituela, 1549an bildutako informazioaren arabera²⁴⁹. Auzotasunean islatzen den dualtasun horrek, herri-fiel kargua betetzen zutenek bi baldintza bete behar zituztela pentsatzera garamatza. Batetik, hiribilduan ondasunak izan behar zituztela; bestetik, bertan auzotzak egon behar zutela.

6. Taula Ordiziako herri-fielak (1466-1527)*

Urtea	Fiela	Auzotasuna	Urtea	Fiela	Auzotasuna
1466-67	Agirrekoa, Joan Perez	Zaldibia (?) ^a	1505-06	Etxeberriakoa, Frantzisko	Legorreta
c. 1487 ^b	Agirrekoa, Joan Perez	Zaldibia (?)	1506-07	Etxeberriakoa, Frantzisko	Legorreta
1488-89	Aringoa, Martin	Ataun ^c	1508-09	Etxeberriakoa, Frantzisko	Legorreta
1491-92	Urrutiakoa, Martin	Ordizia (?)	1510-11	Arteagakoa, Pedro	Beasain

(249) Luis Miguel Díez de Salazarren ustetan, Segura eta Ordiziako herri-fielak herrixketakoa izan behar zuten, baina hiribilduko harresi barruan etxea izatera behartua zegoen. Gure ustetan, baina, hainbatetan hori betetzeak ez du esan nahi hori funtsezko baldintza zenik. Ald. DÍEZ DE SALAZAR, L. M. “Régimen municipal...”, aip. lan., 101-102 orr.

(*) Iturriak: ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1 eta 1401-1; OUA. Libro de Repartimientos, 1. liburua. Ald. ARAGON RUANO, A. “Administración financiera local...”, aip. lan., 17. taula.

Oharrak:

- (a) Ordizia eta Zaldibiako auzo moduan agertzen den izen bereko pertsona bat, bigarrenaren prokuradore edo ordezkari bezala agertzen da 1452ko uztailean. AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta SAN MIGUEL OSABA, A., aip. lan., 30. dok.
- (b) Froga dokumental zuzenik ez badugu ere, XVI. mende hasierako lekukotzek data horren inguruan aipatzen dute. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1737-9, 490 at. eta 498 au. folk.
- (c) 1502ko martxoko banaketan honela aipatzen zaio (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, CLXXXI au. fol.).
- (d) 1520ko irailaren 29ko agiri batean agertzen da eta, beraz, 1519-20 udalbatzaren edo 1520-21ekoaren partaide izan daiteke.
- (e) Bertako auzo bezala, 1507ko martxoko gastu-banaketan. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Olvidados, 1295-1, 223 au. fol.

Urtea	Fiela	Auzotasuna	Urtea	Fiela	Auzotasuna
1492-93	Etxeberriakoa, Joan	-	1516-17	Urrutiakoa, Martin	-
1498-99	Agirrekoa, Migel	Arama	1520 ^d	Mugertzakoa, Martin	Zaldibia
1499-00	Urkiakoa, Joan Luzea	Altzaga	1521-22	Mendizabalgoa, Joan	Gaintza
1500-01	Garikanokoa, Migel	Legorreta ^e	1525-26	Elezpurukoa, Migel (?)	Altzaga
				Isatsagakoa, Joan Migelez	Ordizia
1501-02	Iartza, Joan de; "gizon"	Beasain	1526-27	Aringoa, Joan	Ataun
1504-05	Gorostizakoa, Joan	Gaintza	1527-28	Aranburu, Joan	-

Segurari dagokionez, hiribilduak eta bere jurisdikziopean zeuden populazio-guneez amankomunean zuten esparruetan jardun behar zuen kargua izaki, Segurako bertako auzoen partaidetzan pentsatzea zilegi da. Baina gauzak ez dirudite horren argiak (7. **Taula**). Egia da 1471ko otsailean Joan Aldasorokoa herri-fiel eta hiribilduko auzo moduan dakusagula, baina ezin dugu baztertu herrixka bateko auzo ere izatea²⁵⁰. Bi aldeen arteko eztabaidak ikusita, gure ustetan hiribilduaren partaidetza zuzen batek herrien artean mesfidantzak eta kexuak emango lituzke, herri-fiela udalbatzaren edo hiribilduaren interesen aldeko tresnatzat ikusiko zelaririk. Esan bezala, ordurako tirabira eta liskar dezente sortzen zituen esparrua zen²⁵¹. Gainera, XV. mende hasieran adostu ziren xedapenetan, arlo horretan ezarritakoak oso argiak dira²⁵². Ondorioz, Segurako herri-fielaren hautaketa herrixketako auzoen artean egingo zen.

(250) AYERBE IRIBAR, M.^a R. *Documentación medieval... Segura...*, aip. lan., 242 dok.

(251) Joan Estensorokoari dagokioenez, Idiazabalen dagoen izen bereko oinetxetik zeto-rella pentsa dezakegu, baina abizena dagoeneko XV. mendean Seguran ageri da.

(252) Ikus supra, 242 oin-oharra.

7. Taula
Segurako herri-fielak (1442-1532)*

Urtea	Fiela	Auzotasuna
1441-42	Esnaterriaga / Esnarritzagakoa, Gartzia Zuria	Mutiloa
1469-70	Estensorokoa, Joan	
1470-71	Aldasorokoa, Joan	Segura
1509-10	Etxeberriakoa, Martin Ruiz	Zegama
1517-18	Aldasorokoa, Joan	Zerain
1518-19	Etxeberriakoa, Martin Ruiz	Zegama
1521-22	Antxietakoa, Joan Martinez	
1523-24	Zandategikoa, Joan	Gabiria (?)
1524-25	Gorostortzukoa, Joan	Mutiloa
1525-26	Garikanokoa edo Estensorokoa, Migel	
1526-27	Gorostitzukoa, Estibaritz	
1527-28	Etxeberriakoa, Martin Ruiz	Zegama
1528-29	Iraegikoa, Joan	Ormaiztegi
1529-30	Goikoakoa, Martin	Astigarreta
1530-31	Antxietakoa, Joan Martinez	
1531-32	Intsaustikoa, Joan	Legazpi
1532-33	Olaberriakoa, Joan	Gabiria

Zoritzarrez ez dugu izendapen-sistemaren inguruko berri askorik. Datuek urtero izendatzen zela islatzen dute. Bestalde, baliteke hautaketa txandaka egitea, hau da, urtetik urtera kargua aukeratzeko ardura herri batetik bestera pasatzea. Txanda hauek zein irizpide jarraitu zuten ez dakigu, baina kargua

(*) Iturriak: DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 176. dok.; AYERBE IRIBAR, M.^a R. *Documentación medieval... Segura...*, aip. lan., 242. dok.; eta ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1. Eznaterriagaren auzotasunerako, ald. DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 178 dok. (1444 urtea). Mutiloako biztanle moduan, DÍEZ DE SALAZAR, L. M. *Colección diplomática... Tomo II...*, aip. lan., 181-182 dok. (1448 urtea).

sortu zen momentuan edo handik gutxira adostu zirelakoan gaude. Hipotesi moduan irailaren 29an ospatzen ziren udal-hauteskundeak jarri ditzakegu. Beste karguak izendatzen ziren moduan, orduan ere herri-fiela aukeratzeko aprobetxatuko zen, herrixketako ordezkarien batzar baten bidez edo udalbatzar ireki bat ospatuz. Batzar horren ingurukoak ere ezezagunak zaizkigu eta hamaika hipotesi planteatu daitezke. Batetik, hiribilduak ordezkariaren bat edo ofizialen bat bidaltzen zuela pentsatzea zilegi da, izendapena gainbegiratzeko asmoz. Bestetik, herrixken partaidetzak bakarrik zuen bilera ere izan zitezkeen, izendapena egin ondoren hiribilduari horren berri emanez, bere adostasuna eta berrespina jasotzeko asmoz, behe-rago ikusiko dugun Tolosako herri-alkateekin gertatu bezala. Azkenik, hirugarren prozedura batean pentsa dezakegu: izendapena, zegokion herriak bakarrik egitea.

Txanda-sistemaren ingurukoei dagokienez, Segurak Ordiziak baino datu gehiago ematen ditu²⁵³. Bigarren horretan Legorretako auzo Frantzisko Etxeberria karguan ia hiru aldiz jarraian aritu zen, 1505-06, 1506-07 eta 1508-09 urteetan, hain zuzen ere. Agian herriek edonor izendatzeko aukera zuten, hau da, hautatutakoa ez zela nahi eta nahi ez izendapena zegokion herriko auzoa izan behar. Batzuetan titularra eta ordezkoa herri bereko auzoak zirela ematen du. Pedro Murugoi-enakoa, adibidez, Joan Iartzakoaren ordezkari izan zen, bai azken hori gaixotu zenean, baita 1502an zendu zenean ere, eta daki-gula, biak Beasaingo auzoak ziren²⁵⁴.

(253) Seguran ditugun datuen arabera, hurrenkera honakoa litzateke: Zerain, Zegama, Ormaiztegi, Astigarreta-Gudugarreta, Legazpi, Gabiria, Mutiloa, Idiazabal eta Ezkio. Hierarkia honi jarraituz, 1521-22 eta 1530-31 agintaldietan fiel moduan agertzen zaigun Joan Martinez Antxietakoa Legazpiko auzo zela uste dugu. Alabaina, badirudi ordena hori ez dela beti betetzen: Joan Intsaustikoa, Legazpiko auzo izanik, herri-fiel moduan 1531-32an aritu zen, hau da, Antxietaren hurrengo moduan. Antzeko kasua dugu Mutiloarekin. Gure ustezko hurrenkera aintzat hartuz, 1523-24 herri-fieltasuna legokioke, Joan Zandategi-koarena, baina hurrengo urtean egin zuen, Joan Gorostortzukoaren bitartez. Zandategi Gabiriako auzo zela pentsa daiteke (abizena bertan dugu 1470ean; ikus AYERBE IRIBAR, M.^a R. *Documentación medieval... Segura...*, aip. lan., 234. dok.), eta hori bat dator gure hipotesiarekin. Edozein modutan, herri-fiela txandakako kargua izan zela argi dago, hurrenkera nahiko egonkorra izan zelarik.

Ordiziarako, datu urri eta partzialak medio, ezin dugu baieztapen sendorik egin, baina enere batean honako hurrenkera antzeman dezakegu: Arama, Altzaga, Legorreta, Beasain, Atauan, Zaldibia eta Gaintza. Edonola ere, berriro diogu datuak oso gutxi direla eta susmoak besterik ez direla.

(254) ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, CLXXIX au. eta CLXXX at. folk. 1506ko erroldak Joan "Borte" Iartzakoaren jaraunsleak eta Pedro Murugoi-enakoaren semea zerrendatzen ditu. Ikus GOICOLEA JULIÁN, Fco. J.; eta GARCÍA FERNÁNDEZ, E. (arg.), aip. lan., 51. dok.

Halaber, ez dago karguen arteko bateraezintasunik. Pertsona berdina bere herriko hamabi eta herri-fiel moduan aritu zitekeen. Hor ditugu, besteak beste, Joan Aldasorokoa, 1517-18an Segurako herri-fiel eta Zeraingo hamabi izandakoa; Joan Gorostartzukoa, 1525eko uztailleko batzarrean herri-fiel eta Mutiloako ordezkari moduan aritutakoa (“*por la vniuersydad de Mutilloa*”); edo Joan Intxaustikoa legazpiarra, 1532ko ekainean bailarako hamabi moduan ere dakusaguna²⁵⁵.

Nahiz eta txandakako izaera hau izan, interesgarria deritzogu bi hiribilduetan joera bera islatzen dela azpimarratzea. Beste esparru politikoetan gerta daitekeen moduan, herri-fielaren ordezkariak hauetan izen-abizenak erreplikatu egiten dira, kargua beraien esku geratuz. Lehen aipatutako Frantzisko Etxeberriakoa legorretarraren kasua adierazgarria da, baina ez bakarria. Seguran ere halako adibideak ditugu, Martin Ruiz Etxeberriakoa eta Joan Martinez Antxietakoa lekuko²⁵⁶. Ohikotasun honek badu oinarria, batez ere pertsona horiek batzarretan edo hamabi moduan behin baino gehiagotan aritzen zirela aintzat hartzen badugu. Modu honetan, eskarmentu handiko pertsona moduan hartzen ziren, karguan aritzeko gaitasuna ikusten zitzaielarik. Joan Aldasorokoa, adibidez, Zeraingo hamabi izan zen 1517-18, 1524-25 eta 1527-28 urteetan²⁵⁷. Joan Iraegikoa ere antzeko kasuan dugu, baina modu bitxiagoan: 1519ko martxoan eta 1523ko urrian Ormaiztegiko ordezkari (baina ez hamabi) izatea egokitu zitzaion, eta bertako hamabi-lagun 1525eko maiatza eta azaroan eta 1526ko martxoan²⁵⁸.

Herri-fiela ez zegoen errejimenduaren egituraren baitan; alegia, ez zuen udal-gobernuan ez hitzik eta ez botorik emateko eskumenik. Lerro nagusietan bere partaidetza Hiri-Landa esparrura mugatzen zen, banaketan ingurukoak jorrazteko ospatzen ziren batzarretara, nahiz eta hauek ohiko udalbatzar baten ondoren ospatu²⁵⁹. Dena den, Seguran udalbatzaren eskema instituzionalean guztiz txertatua zegoen eta beste ofizialek bezala, soldata bat jasotzen

(255) Hurrenez hurren, ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 218 au., 228 at. eta 242 at. folk.

(256) Hemen ere Joan Aldasorokoa jarri genezake, baina aipamen baten eta bestearen artean 50 urteko tartea dagoela kontuan hartzen badugu, hipotesi ahula deritzogu.

(257) *Ibidem*, 218 au., 227 at.-228 at., 229 at., 234 at. eta 236 au. folk.

(258) *Ibidem*, 229 at. 230 at. eta 231 au. folk.

(259) Ikus, adibidez, ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1739-1, 10. pieza, CXXXIII au. fol. Ikuspegi instituzionaletik begiratuta, ez dirudi fielaren ordezkariak lanak esparru fiskaletik haratago zihoazenez; hau da, ez zuen prokuradore lanik egiten. Aktek bere

...

zuen. Lansariak Hiri-Landa esparruko diru-poltsatik ateratzen ziren eta bere kasuan, XVI. mendeko lehen hamarkadetan 1.000 maraikoak zen. Kopuru hau beste ofizialek zituztenekin alderatzen badugu, erdibidean zegoela ikusiko dugu. Zorro beretik ateratzen ziren alkate, prokuradore sindiko, zaintzaileen eta udal-eskribauaren soldatak 1.500 maraikoak ziren; atezainenak aldiz, 300-600 marai artekoak ziren, beti ere zaindu beharreko atearen arabera²⁶⁰. Lansariarena da, hain zuzen ere, Segura eta Ordiziaren arteko bete ezberdintasun nagusienetakoa bat; azken horren gastu-banaketetan agertzen diren soldatei lotutako aipamenetan, ez da inoiz herri-fielaren inguruko aipamenik egiten²⁶¹.

Ildo honetatik, Villafranca zenaren petxu edo zerga-banatzailen nondik norakoak aipatu beharrean gaude. Taldikidetan, beraiei ordaindu beharreko soldatei buruzko berriak ditugu. Ezezaguna zaigun momentu batean, baina 1451 eta 1463 artean, esparru hori ordenantza bidez (“*segund la ordenança*”) arautu zen²⁶². Hasiara batean, petxuaren banaketa egiteko ardura 34 gizonek zuten. Herri-fielarekin batera, hiribilduko eta herrietako hainbat auzok parte hartzen zuten banatzaile gisa: Ordiziatik hamabi ziren; Ataundik, lau; hiru,

...

egitekoren bat erregistratzen dutenean, herri-hamabiekin batera aurkezten digute, jakinarazpen, eskaera edo errekerimendu bat egiten. Herrixketako ordezkari bezala errejimenduaren batzarretara salaketaren bat jartzera edo gairen bat jorratzeko asmoz joaten zirenak, komunitate horietako hamabi edota auzoak ziren (ald. ibidem, CXXXVI au.-at. fol.). Dena den, aipatzen dugun moduan, hiribilduari eta herriei zegozkien gaiak jorratzeko ospatutako bileretan parte hartzen zuten, esparru horren inguruko hitzarmen, kontratu edota xedapenak behar den moduan betetzen zirela ziurtatzeko; besteak beste, harresien konponketak egiteko baldintzei dagokienean. Ikus, adibidez, ARChV. Pleitos Civiles. Varela, Fenecidos, 1738-1, 219 au. fol. eta Ordiziako kasurako, ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, CLXXXI at. eta CLXXXII au. folk.

(260) ARChV. Pleitos Civiles. Varela. Fenecidos, 1739-1, XIII^o au. fol. Hain zuzen, alkatearen eta udalbatza-eskribauaren soldatak Hiri-Landa kutzaren bidez ordaintzen ziren, eta ez hiribilduak bakarrik bildutako diruarekin. Sindikoak ere Hiri-Landa esparruko ofizial moduan hartu ditzakegu. Urteroko mugarrien bisita dela eta, errejimenduko ofizialentzat bazkaria presatzeagatik 500 marai jasotzeaz gain, Hiri-Landa zorrotik beste 1.500 marai jasotzen zituzten, soldata moduan. Ikus, ibidem, XIII^o au.-at. folk.

(261) Gai honi buruz bi aipamen isolatu ditugu. Batetik, 1502ko abuztuan, bildutakoek hau agintzen zuten: “*allende d’ellos [banaketako maraiak], los jurados de las vezindades abrán de acudir del salario del fiel de las dichas vezindades, de cada pecho, tres blancas*” (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, CLXXX au. fol.). Urte batzuk beranduago, 1507ko martxoan, herrietako banatzaileen esanetan, herri-fielak eta hamabiek beraien soldatak bakoitzari zegoekin herritik jasotzen zuten.

(262) Hala diosku 1463ko urtarrileko banaketak. Ikus, ibidem, CLV at. fol.

Beasain, Gaintza, Legorreta eta Zaldibiatik joaten zirenak; bi Altzaga eta Itsasondotik eta azkenik, Aramak banatzaile bakarra zuen²⁶³.

Banatzaile kopurua ez zen beti berdina izan. 1495 urtean ohikoena 36 zirela adierazten zen (“*que son treynta e seys onbres los acostunbrados*”)²⁶⁴, baina dokumentazioak behin-behineko kopurua zela aditzera ematen du; “ohikoena”, baina ez araututakoa. Gastu-banaketetan, berdin gordetzen ditugun lehenengoetan zein XVI. mende hasierakoetan, banatzaileak 40 inguru zirela ikus daiteke, batzuetan gehiago ere egon zitezkeelarik: 1451ko uztailean 42 izan ziren; 1500eko martxoan, berriz, 46; eta bat gutxiago 1501eko abuztuan. Era berean, 1463ko urtarrileko eta 1467ko otsaileko taldikidek populazio bakoitzari dagozkion banatzaileen berri ematen badigute ere, bietan aurkitzen den pertsona kopurua desberdina da: lehenengoan 35 ageri dira eta bigarrenean, aldiz, 34.

Irregularitasun honen ondorioz, petxua banatzeko ardua izango zuten pertsonen ingurukoak arautu zirelakoan gaude. Eta kopurua beti berdina ez bazen ere, berrantolaketa horretan hiribilduak nolabaiteko abantailak lortu zituela ematen du. Banatzaileen kopurua 40ra igo zenean, jardun horretan arituko ziren Ordiziako auzoak hamabitik hamaseira pasa ziren, herrienak 24ra igo zirelarik. Halaber, parte hartu behar zutenen artean populazio-gune bakoitzeko ofizialak zeuden, baita herri-fiela ere. Berrantolaketa hau 1511 eta 1526ko martxoko gastu-banaketetan ikus dezakegu, nahiz eta lehenengoan 42 partaide gutxienez izan²⁶⁵.

Banatzaile kopuruaren aldetik desberdintasunak izan baziren ere, ez zen halakorik gertatu soldata edo lansariarekin. Bakoitzak jasotzen zuena beti berdina zen; garaiazen arabera, 12 edo 15 marai banaketa bakoitzeko. Denborak aurrera egin ahala sosak igo egin ziren. Hasiera batean bakoitzak 12 maraitako eskupekoa jasotzen zuen gastu-banaketa bakoitzeko; alegia, urtean

(263) Zerrenda osoa 1467ko otsaileko banaketan ikus daiteke (ibidem, CLVII at. fol.). 1463ko urtarrilean hiribilduko hamabi ordezkarien eta Ataungo lauen ondoren, “*de Veasayn e de los otros, en sequiente, segund la ordenança*”, aipatzen da.

(264) *Ibidem*, CLXXX at. fol.

(265) OUA. Libro de Repartimientos, 1. liburua. Orduan, banatzaileak honakoak zirela adierazten zen: “*son deziseys onbres de la villa y veynte y quatro de las vniversidades*”. Hala ere, une horretan hiribilduko 17 auzo zeuden (bost ofizialak eta hamabi “zintzo”) eta Beasaindik, aldiz, bere hamabia “ohiko zirenekin batera” (“*con los acostumbrados*”). 1526ko daturako, ikus ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1401-1. Berrogeiko kopuru horrek 1540ko hamarkadan dirau. Ikus, adibidez, ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 636-2, 1. pieza.

24 maraiko lansaria zuen. Urteen poderioz kopuru horrek gora egin zuten, eta 1476-1526 epean gutxienez, banaketa bakoitzeko 15 maraitakoa zen (urteko 30, beraz)²⁶⁶.

Ordizian, herri-fielak hiribilduko fiel edo pisuzainekiko ageriko menpekotasuna zuen. Hauek ziren gastu-banaketetan bildutako dirua jasotzen zutenak eta baita herriei zein beraien hamabiei jakinarazpenak egiten zizkietenak ere²⁶⁷. Hori dela eta, eta herri-fielaren soldata bileran parte hartzen zuten beste banatzaileen berdina zela aintzat hartuta, urtero jasotzen zituen 30 marai horien atzetik zer kontzeptu egon daitekeen galde diezaiokegu geure buruari; eta horrekin batera, banatzaileek, herrietako hamabiek eta herri-fielak egiten zituzten lanen arteko ezberdintasuna zein zen.

Dokumentazioak aditzera ematen duenaren arabera, “banatzaile” kontzeptuaren atzetik, gastu-banaketaren ingurukoak jorratzen ziren bileretan parte hartzen zuten pertsonak zeuden. Hitz horrek, beraz, batzarrean ageri ziren hiribildu eta herrietako auzoak, herrietako ofizialak eta herri-fiela hartuko lituzke. Guztiek diru kopuru bera jasotzen zutela aintzat hartuta, banaketetara joateagatik eta beraietan parte hartzeagatik ematen zitzaaien eskupeko bat zela pentsatzera eraman gaitzake.

Ordainketa hori Hiri-Landa banaketetan bildutakoaren bidez egiten zen beti, baina batzuetan herrixkek beraiek bestelako sosak ordaindu zizkieten. Ez hori bakarrik, hainbatetan horiek ordainketa amankomun horren aurka agertu ziren, beraien esku bakarrik zegoela argudiatuz. Horrela gertatu zen 1507ko martxoko gastu-banaketan. Orduan, udalbatzaren fielak herri-fielari eta herrietako hamabi eta gizon-inei honako gastua aurkeztu zien: “*salario acostunbrado de cada quinze maravedís, en dineros contantes, segund que a los alcalde e ofiçiales e omes deputados para ello de la dicha villa les auía*

(266) 1492ko martxoan honakoa aipatzen zen: “*los repartidores que fueron en repartir este repartimiento, que heran de la villa e de las vezindades, con los ofiçiales, treynta e ocho omes, a quinze maravedís a cada vno*” (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos 1295-1, CLXXVI au. fol.).

(267) 1526ko apirilaren 9an, Gartzia Isatsagakoa fielak zera zioen: “*fize saber a todas las bezindades para que viniesen para mañana (...) dezeno día de Pascoa, a oyr la respuesta del ofresçimiento que hiçieron a vista de letrados*”. Ia hilabete beranduago, maiatzaren 3an, Isatsagaren beraren hitzak honakoak ziren: “*notifiqué a todos los jurados de las vezindades para que hubiesen de ir a Gaintza mañana viernes con sus acompañados acostunbrados, que los de Boçue Mayor llamaban, y también para ver la diligencia que Garçia Alvarez había traído de Pamplona*”. Dakusagun moduan, azken jakinarazpen hau partzuergoaren esparruari lotuta zegoen eta hauetan, herri-fielak ez zuen kargu horrekin lotutako partaidetzarik izango, beste zentzuren batean baizik (ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos 1401-1).

dado”. Horren aurrean, herri-fielaren eta hamabien erantzuna ezin argiagoa izan zen. Beraien auzoei ordaintzen zietenak beraiek zirela argudiatu zuten eta ondorioz, udalbatza-fielak aurkeztutako gastua aintzat hartzen ez zutela: “*fiel e jurados dixieron que a ellos sus veçinos les pagaban e que non querían reçeibir*”²⁶⁸. Bost urte lehenago, 1502an, berriz, herri-hamabiei mandatu bat luzatu zitzairen; zehazki, petxu bakoitzeko 3 zuriko biltzea, herri-fielaren soldata ordaintzeko asmoz²⁶⁹. Azken ekimen horrek duela gutxi izandako Felipe eta Joana printze-printzesen egonaldiarekin zerikusia zuen. Egoera berezia izaki, ohiz kanpoko prestaketak eta gastuak izango ziren eta hori dela eta, baliteke herri-fielak ezohikoak ziren eskumen edo egitekoak erdieste. Ohiz kanpoko kontu hauen ondorioz, bere gastuek gora egingo lukete eta horiei aurre egiteko banaketa berriak egin beharko ziren. Dena den, eta egiari zor, 1507an herriek agertutako argudio horien arrazoiak ezezagunak zaizkigu. Geroagoko datuek ez dute horren inguruan inolako azalpenik ematen eta, gainera, 1511 eta 1526ko gastu-banaketek banatzaileekin zerikusia duten gastuak erregistratzen jarraitzen dute.

Halaber, badakigu Ordizian populazioetako hamabiak zirela beraien herrietan zergadun edo petxarien erroldak jakinarazteko ardura zutenak, dirua biltzen zutenak eta batzuetan ere, sosak aurreratzen zituztenak. Ez dira gutxi udalbatzak beraiei diru-kopururen bat itzultzen dizkieten aldiak. Batzuetan, zergadunek ordaindu ez zietenagatik; bestetan, hainbat auzo zegokiena baino kopuru handiagoan balioztatu zituztelako²⁷⁰.

Segurarekiko alderatuta, Ordizian herri-fielak duen rol xume horrek, garrantzia txikiagoa zuen eskumenetan oinarria izan dezake. Dokumentazioak aditzera ematen digunaren arabera, Ordiziako herri-fielak izango zuen

(268) ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, CXCI au.-at. folk.

(269) Ikus supra, 261 oin-oharra.

(270) 1492ko martxoan, Beasaingo hamabiari 42 marai ordaintzea adostu zen, Joango Arginakoa “*le fue syn pagar los dichos pechos*”, eta Gaintzako hamabiari, aldiz, 38,5 marai, “*por el pecho de Martín de Orcastegui (...) que se fue syn pagar e non pudo aver sus bienes*”. Urte batzuk geroago, 1495eko abuztuan, Gaintzako hamabiari 18 marai eman zitzaizkion, “*por hierro que hobo en su pecho*”, eta beste horrenbeste egin zen Beasaingo hamabi Joan Aranburukoarekin, arrazoi beragatik. Halaber, 1500 urteko martxoan kontzeptu berdinekin lotutako hainbat ordainketa egin ziren. Besteak beste, Pedro Murukoari 40 marai eman zitzaizkion, Beasaingo petxuan izan zen akatsa zela eta; Joango Aluekoari eman zitzaizkion 19 maraiak, berriz, Mitxel Otamendikoaren petxuan egindako okerrarengatik izan zen. Ikus, hurrenez hurren, ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 1295-1, CLXXVI au., CLXXXV at. eta CLXXXVIII at. folk. Azken horretan Joango Kaminokoari 40 marai eman zitzaizkion “*por hierro de dos mugeres que le hizieron pagar el fiel*”.

eskumen bakarra jakinarazpenak egitean zetzan; hau da, herriei eta beraien hamabiei gastu-banaketen inguruko gaiak hizpide izango zituzten batzarren berri ematearena. Batzuetan, diru-bilketa kontuetan bitarteko maila edo instantzia moduan arituko zen, herrixketako hamabiek bildutakoa jasoz eta ondoren, dirua hiribilduko pisuzainei emanez²⁷¹.

3.2.4. Fiskalitate zuzena Tolosan: Hiri-Landa egiturarik gabeko hiribildua?

Orain arte aipatutakoaren ildotik eta Segura eta Ordiziaren artean dauden antzekotasunak ikusita, lantzen ditugun hiru hiribilduetako baten inguruan oso aipamen gutxi egin ditugu. Aurreko lerroetan Tolosa guztiz at gertatu da. Jurisdikzio-jaurgo eredugarri bat izaki, halako egituraketaren bat izan behar zuen; edo zentzuzkoena hori litzateke, behintzat.

Tolosako auzotartzeak jorratzerakoan esparru fiskalari lotutako xedape-nak agerian utzi ditugu. Hasiera-hasieratik azaltzen zaizkigun kontuak dira, dagoeneko Asteasu eta Alkizaren 1348ko auzotzean ikus ditzakegularik. Hemen, adibidez, banaketak egiteko bi maila fiskal ezartzen ziren, aberatsena eta txiroena, Tolosan ordurako egiten zen moduan²⁷². Hitzarmenetan islatzen diren gauzen artean interesgarrienetako bat, herrixkei jakinarazi behar zitzaizkien taldikiden kopuruan ikus dezakegu; zehazki, kopuruak gora egin zuela jakitea. 1348an 100 marai baziren, Alegia eta Zizurkilen 1391ko kontratuan, txanpon zaharreko 500 marai jarri ziren muga bezala. Horrek, garaian txanponek izan zuten debaluzioa edo balio-gutxitzea islatzeaz gain, sistema fiskal zuzenen geroz eta garrantzia handiagoa agerian uzten du. Ez da harritzekoa, beraz, banaketen ingurukoak, modu batera edo bestera, 1475era bitarteko hitzarmen guztietan jaso zirela jakitea²⁷³.

(271) Dena den, dokumentazioan azken horrek ez du oso ziurra ematen. Hori baino, udal-batzak, herrietako hamabiei banaketaren dirua hiribilduko edozein fieli emateko agindua luzatuko zien. 1502ko abuztuan, adibidez, “*mandaron los sobredichos acudir a los dichos jurados al dicho Juan Ochoa de Hurdaneta, fiel [udalbatzarena]*”, bildutako maraiekin (ibidem, CLXXX au. fol.).

(272) Agian, XIV. mende erdialdeko erroldan azaltzen zirenak aintzat hartuz, Tolosarentzako kapare edo aitonseme kontzeptuek ere isla fiskala izango lukete; horiek “abera-tsak” lirateke eta errege-zor edo errege-zergak ordaindu beharko lituzketenak, berriz, “txiroak”. Asteasuri dagokionez, XVI. mende hasieran hainbat mailaz osaturiko sistema fiskala erabiltzen zuen, hainbat sailez osatua, Ordiziaren antzera. Ikus IRIJOA CORTÉS, I. “Asteasuko 1529ko errepartimendu bat”, *BR SBAP*, LXIII (2007), 305-307.

(273) Albizturren, adibidez, “...*para la costa o costas que fueren fechas o se fezieren en los mesteres e negocios del dicho conçeio e vezinos d’Aluisturr, sean tenidos los dichos vezinos d’Aluisturr de venir a repartir e a pagar la costa segund que a cada vno copier*” (ROLDÁN GUAL, J. M.^a, aip. lan., 29. dok.).

Alabaina, idatzi guztietan ez ziren baldintza guztiak sinatu eta hainbatetan aipatu dugunez, denborarekin sortu ziren beharrek, handitzen joan ziren gastuek eta bizitza administratiboaren konplexutasunak errealitate berrietara egokitzeko ekimenak abian jarri zituzten. Horren lekuko dira Andoainekin 1475ean eta Zizurkilekin 1476an sinatutako agiriak. Erroldak egin ordez, orduz geroztik biek ala biek urtean diru-kopuru jakin bat ordaindu beharko zioten Tolosari. Lehenengoak, 2.000 marai; bigarrenak aldiz, 1.000. Zizurkilekin adostutakoak, gainera, XIV. mendean ezarritako sistemaren goitik beherako aldaketa zekarten. Bietan sistema hori ezartzeko arrazoiak erroldak urtero egitearen zailtasunetan oinarritzen ziren, baina horrez gain, Donostiako jurisdikzioan emandako denborarekin ere lotu beharko genituzkeela uste dugu; izan ere, Urumeako hiribilduak diru-kopuru jakin baten ordainketan oinarritutako sistema XV. mende erdialdetik aurrera jarri zuen, tartean Andoainekin berarekin²⁷⁴.

Segura eta Ordiziarekin alderatuta, Tolosan antzematen den kontuetako bat eztabaida edo liskarren inguruko informazio eskasa da; apenas badugu halakorik. Arrazoiatariko bat, esparrua nahiko ongi arautua edo mugatua zegoela izan daiteke. Baina horrez gain, gure aburuz beste faktore bat egon zen: XV. mende erdialdetik zergak biltzeko beste sistema batzuk abian jarri zirela edo horiek garrantzia handiagoa hartu zutela, hain zuzen ere. Ez da zorizkoa garai horretan Tolosa merkatal-bideetako geldione edo igarobide lehentasia izatea lortu izana. Jarduera hori ardatz hartuta, zeharkako zerga-sistemak bere gasturik nagusienei aurre egiteko oinarritzakoak bihurtu zirelakoan gaude. Ordura arte, eta XIV. mendeko xedapenetan oinarrituz, banaketak metodo ohikoagoa izango ziren. Hauen gehiegizko erabilerak, 1435-50 bitartean sekulako kalapita sortu zuen Tolosa eta bere herrixken artean, ondorio nabarmenak izango zituelarik. Ordutik, hiribilduak beste ekimen fiskal batzuk abian jarriko zituela uste dugu, eta badirudi emaitza positiboak izan zituela, 1435eko arazo hori isolatua agertzen baitzaigu; bai, behintzat, Segurak eta Ordiziak XV eta XVI. mendeetan izan zituztenekin alderatuta. Hala ere, Tolosa eta bere herrien arteko eztabaida horren inguruan hainbat ohar egitea interesgarri deritzogu.

1435eko maiatzean, Aduna, Alkiza eta Zizurkilek beraien jurisdikzio-buruaren aurkako auzia hasi zuten, gastu-banaketak zirela eta²⁷⁵. Ondoren,

(274) Ikus supra, 2.1.2. atala eta IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., III. liburukia 733-734 orr.

(275) LEMA PUEYO, J. A.; eta TAPIA RUBIO, I., 10 dok., 21 or. Agian hiru herri hauek auzia hasi zutela aipatzearen oinarrian, gerora, 1450eko epaiaren ondotik, Tolosatik banandu izana legoke.

baina, salatzaileen kopurua handitu egin zen, arazoak agerikoak zirenaren seinale. Zehazki, hasierako hiruei beste hamaika herri batu zitzaizkien: Tolosa iparrean eta hiribilduaren mugakide ziren Hernialde, Anoeta, Irura eta Amasa, batetik, eta Leaburu, Belauntza, Gaztelu, Lizartza, Oresa, Berastegi eta Elduain, bestetik, barrutiko ekialdean kokatuta eta gehienak Nafarroarekiko muga. Baina hiribilduaren aurka protagonista ugari altxatu baziren ere, ia beste horrenbestek ez zuten ageriko imintziorik egin, zehazki Alegia, Albiztur, Ibarra, Berrobi, Altzo, Amezketeta, Abaltzisketa, Baliarrain eta Orendainek. Guztiak Tolosako hegoaldean kokatuta, Ordiziaranzko bidean.

Eztabaidaren inguruan eman zen azken epaiak hainbat alor arautu bazituen ere, gai nagusia Tolosak egindako banaketen ordainketan zetzan. Herriek salaketa jartzeko hainbat arrazoi ematen zituzten. Batetik, erregearen aldeko zerbitzuan aritzearen gastuei aurre egiteko hiribilduak burututako banaketez kexu ziren. Bestetik, monarkari baimenik eskatu gabe 3.000 maraitik gorako taldikidak egiteko asmoa salatzen zuten, halakoek Madrilgo 1433ko legean adostutakoa hausten baitzuten. Horrez gain, gastu-banaketak egiterakoan herrietako hamabi eta gizon-onei deitu ez zitzaIELA adierazten zuten, hitzartutakoaren arabera banaketa eta taldikidak beraiek batzarrean zeudela egin behar baitziren²⁷⁶.

Prozesuak iraun bitartean, Tolosak bi errege-mandatu lortu zituen 1442an. Lehenengoak bere alkateen epaitze eskumena berresten zuen; beraiek izango ziren hiribilduko eta herrietako auzoak lehen auzialdian epaitzeko eskumena izango zuten bakarrak. Bigarrenaren bidez, Getaria eta Donostiako auzoak, Nafarroarako bidea egiten zutenean, Tolosatik igarotzera behartzen zituen.

Bigarren ildo hori da, hain zuzen ere, 1435ean hasitakoaren inguruan hainbat hausnarketa egitera garamatzana. Izan ere, auzian Tolosaren aurka agertu ziren herrien artean Nafarroarekiko muga edota hiribildu iparraldean zeudenak egotea eta banaketengatik kexuak adieraztea, ez zen zorizkoa. Hamarkada batzuen buruan Berastegi eta Elduainekin izango diren auziak aintzat hartuta, XV. mendeko erdialderako merkatariek eta garraiolariak Tolosatik ez igarotzeko hautua egiten ari zirela islatuko luke. Bertatik ez pasatzeak ondorio fiskal larriak eragingo zizkion hiribilduari, zeharkako fiskalitatearen bidez hiribilduak ezarritako zergek beherakada nabarmena izango baitzuten. Gure ustetan, hiribilduak bideen inguruan bere nahi eta interesak lortzeko burutzen ari zen borrokan, eta hori lortu artean, zuzeneko zergen

(276) *Ibidem*, 10. dok., 27 or.

erabilera areagotu zuen²⁷⁷. Eta erabilera honek nabarmen gora egitearen ondorioz, Nafarroako mugan eta Donostiarako bidean zeuden herrien artean kezka sortuko zuen; ez hori bakarrik, hiribildua auzitara eramateko hautua egin zuten.

1478 inguruan, aldiz, Tolosako jurisdikzioan sartuta zeuden herri guztiek, Belauntza, Leaburu eta Lizartza izan ezik, hiribilduak egin nahi zituen banaketen aurrean kexuak agertzen zituzten. 1450. urtean emandako epaian eta egindako adostasun-hitzarmenean, bigarrenek hiribilduari eskumen bat aitortzen zioten: 3.000 marai arteko gastu-banaketak egitearena, hain zuzen ere. 1470eko hamarkada amaieran berriz, Tolosaren asmo berriak salatzen zituzten. Agidanez, haren eta beste herri guztien artean 3.000 maraitik gorako taldikidak burutu nahi zituen, errege-baimenik eskatu gabe²⁷⁸.

Une hartan Tolosaren egoera ez zen samurra. Adierazten zenaren arabera, hiribildua horrela zegoen: “*muy mal reparada, así en sus muros e çercas como en otras cosas (...) e para el gasto e conplimiento de los dichos reparos era neçesario muy mayor cantidad de los dichos tres mill maravedis*”. Gogora dezagun 1475ean populazio-guneak suak hartu zuela²⁷⁹. Behar berriei modu egokian aurre egiteko eta kalteak balioztatzeko, herriek eta hiribilduak perituak izendatu zituzten. Hauek egindako ikuskatzearen arabera, berreraikuntza eta konponketa lanek 210.000 maraitako kostua izango zuten²⁸⁰. Alde bakoitzaren lekuko eta arrazoiak entzun ondoren, Errege Kontseiluak Tolosa eta herrien artean 100.000 maraitako taldikida egiteko baimena eman zuen:

(277) Ald. 1443ko berrespena (ibidem, 7. dok.), non mandatuaren betetzea Getaria eta Donostiako auzo eta biztanleei egiteaz gain, “*otras qualquier o qualesquier partes que ouieren de yr o venir del dicho regno de Navarra a las dichas villas*” direlakoei ere zuzentzen zaien.

(278) AGS. RGS 1479-VIII, 54 fol.: “*...pueda cada anno para sus neçesidades repartir en las dichas sus aldeas fasta tres mill maravedis, e que si acaesçiere que aya tales neçesidades que fuese neçesario mayor cantidad, que aquella se pudiese repartir con liçençia mia, lo qual avia seydo vsado e guardado de tiempo ynmemorial acá*”. Ald. ARIZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 121 eta 150 orr. eta azken honen 41. oin-oharra.

(279) Sute honi buruzko aipamena Joan Perez Villafrancakoak errege-erreginei 1495ean luzatutako eskaerari zor diogu. Urte hartan, Endrike IV.ak 1465-67 inguruan haren alde egindako errege-eskribau izendapen-titulua kopia bat eskatzen zuen. Bere esanetan, dokumentua 20 urte lehenago izandako sutean erre zen. Ald. AGS. RGS, 1495-IX, 9. folioa, eta GOROSÁBEL, P. de *Bosquejo*..., aip. lan., 201 or., zeinak 1282 eta 1501eko suteak besterik ez dituen aipatzen.

(280) Beatriz Arizagak, 1499ko Bermeoko diru-sarreretan oinarrituz, eta hiribildu bizkaitarraren eta Tolosaren garrantzia antzekoak zirela aintzat hartuz, gastu horiek Tolosak urtero biltzen zuen diruaren halako bi izango zirela uste zuen. Ikus ARÍZAGA BOLUMBURU, B., aip. lan., 120-121 orr.

“para los gastos de los reparos e fortaleçimiento de los muros e otras lauores de la dicha villa”²⁸¹. Lanak egin ondoren dirua izanez gero, soberakina hiribildua hobeto babesteko eta gotortzeko erabiliko zen: “gastasen e destribuyesen en algunas obras nuevas que más nesçesarias e conplideras les paresçiese para faser fortaleçimiento e defensa de la dicha villa”. Hori guztia burutzeko, hiribilduko zein herrixketako biztanleen artean errolda bat burutu zen²⁸².

Azken datu horien ondotik, XIV. mende amaieran barruti zabal bat osatzen joan ziren hiribilduek, joera bat izan zutela ematen du. Prozesu honek “Hiri-Landa” esparruan oinarritutako sistema fiskal zuzen baten eraketa ekarriko luke, gastuak eta banaketak bi talde nagusitan banatuz. Batetik, hiribilduek eta herriek amankomunean zituzten gastuei aurre egiteko, besteak beste Probintziarekin eta harresien konponketarekin lotutakoekin. Bestetik, populazio-gune bakoitzak zituen beharrak, bakoitzak bere aldetik kudeatuko zituenak. Azken horretan sartuko ziren hiribilduak berezkozat jotzen zituen beharrak, herrien laguntzarik gabe kudeatuko zituenak.

Baina Segura eta Ordiziarekin ez bezala, Tolosarako ez dugu Hiri-Landa fiskalitate zuzen horren inguruko datu zehatzik²⁸³. Deigarriena, zalantzarik gabe, horren inguruan arazorik gertatu ez izana da. Gastu-banaketak, jakina, prozesura ezaguna ziren eta 1532 ordenantzetan beraiei buruz biltzen diren aipuek, beraien erabilera islatzen dute; ezin bestela izan, gutxienez XIV. mendetik finkatutako sistema izaki. Hala ere, Tolosa eta bere herrien artean gastu-banaketak eta taldikidak Seguran eta Ordizian baino gutxiago erabili zirelakoan gaude. Hori litzateke horrenbesteko arazorik sortu ez izanaren arrazoia. Horrez gain, hainbat informaziok erabilera txikiagoaren alde ere egiten dute. 1542an Tolosako herrietako hainbat auzok sistema zuzenen erabilera

(281) AGS. RGS. 1479-VIII, 54. folioa, 3 at. fol.

(282) Taldikida egin zen ala ez, ordea, ez dakigu. Bi aldeak ados agertu ziren eta ondorengo mugimendu bakarra Tolosak eman zuen, kostuak ordaintzera behartzen zuen xedapena apelatzeko asmoz. Ondoren, hiribilduak Batzar Nagusietan 1479ko abuztuko errege-betearazlea bete zedin eskatu zuenean, herriek kontra egin zioten, Ermandade edo Anaidiak horren inguruan eskumenik ez zuela adieraziz. Ikus, AGS. RGS, 1480-V, 191 folioa.

(283) 1492an Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkilek kexuak azaldu zituzten, Andoain eta Tolosarekin batera Azelaingo zubiaren konponketa-lanetan ordaindu behar zutenaren inguruan. Dena den, gaia Batzar Nagusiek eta korrejidoreordeak emandako aginduekin zerikusia du, kexu ziren herrien iritzia aintzat hartu gabe eman baitzituzten. Ald. AGS. RGS. 1492-VIII, 29 folioa.

probintzia-suetara mugatzen zela adierazten zuten²⁸⁴. Baieztapen horrek Pedro Ezkamendikoa Tolosako barrutiko alkabala-biltzaileak Berastegirekin 1492an izandako auzian esandakoen oso bestelakoak dira. Prozesu horretan, herriak alkabala banaketa bidez biltzen zuela zioen, bestelako udalbatza-zergekin egiten zen moduan, herri bakoitzak bere fielak izendatzen zituelarik²⁸⁵. Hau da, 50 urteko epean, gastu-banaketak hainbat esparrutan erabiltzetik bakar batera mugatu ziren²⁸⁶. Horrek azalduko luke Hiri-Landa kutsuko konularitarik ez izatea²⁸⁷.

(284) Urte horretan Tolosako herri batzuetako auzoek Ordiziarekin auzia izan zuten, lehengoek bigarrenaren jurisdikzioan zituzten ondasunek egin beharreko ordainketen inguruan. Bertan, Abaltzisketako auzo zen Pedro Aldabaldekoaren hitzak honakoak ziren: “*tan solamente las dichas vniuersidades de Abalzizqueta e Ycasteguieta con la dicha villa de Tolossa suele(n) acudir con la foguera de la dicha Prouinçia, e así la dicha villa por sí e sus vezindades suele acudir con la dicha foguera con lo que cabe al cuerpo de la villa e a ellos e a las otras sus vezindades al cogedor de la Prouinçia, e otra comunión ni otro repartimiento las dichas vniuersidades (...) no suelen hazer con la dicha villa de Tolosa*”. Ald. ARChV. Pleitos Civiles. Zarandona y Balboa, Fenecidos, 636-2, bereziki 3. pieza.

(285) “*que por todo tiempo ynmemorial avia seydo vsado e acostunbrado continuadamente de fazer derrama e repartimiento de alcabalas de la dicha villa de Tolosa e su alcavalazgo, señalando su rata parte a cada vna de las dichas vniversydades çierto preçio e valor e modo de las otras coletas e pechos e cargas conçeçibles, e aquello tal las dichas vniversydades solian repartyr entre sus vezinos e moradores e para coger lo tal repartido solian poner e costiyr fyelles...*” (ARChV. Reales Ejecutorias, 74-22, 3 at. fol.).

(286) Eta gogora dezagun, halaber, alkabalaren ingurukoak ezin direla hiribildu eta herrien arteko arazo soil moduan ikusi. Izan ere, alkabala-barrutien egituraketa ez zetorren guztiz bat hiribilduen jurisdikzio-barrutiek. Tolosari dagokionez, bera buru zen barrutiaz gain, Albizturkoa zegoen (Añoeta, Irura, Hernialde eta Zizurkil) edota Amasak, Alkizak, Asteasuk eta Villabonak osatzen zutena. Ald. IRIJOA CORTÉS, I. “Ordenanzas de la alcabala...”, aip. lan., eta IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, II. liburukia, 751 or. eta hh.

(287) Sistema zuzen hauen geroz eta garrantzia txikiagoa, haien inguruan dugun datu gabeziarekin bat datorrela ematen du. Tolosak hiribildu barnean egin zituenei buruzko berriak ere urriak dira, nahiz eta 1532ko ordenantzetan xedapenen bat agertu. Sagardoaren inguruan 1527tik aurrera eman zen auzian, zera aipatzen den: “*sería total destrucción de las dichas heredades e sus dueños que sostenían la honra de la dicha villa e nuestro seruiçio en todo lo que se ofreçia, e todas las contribuçiones que los hijosdalgo de la dicha Provinçia haçian a falta de propios, asy para en nuestro seruiçio y defençión de la tierra e bien de sus pueblos, se haçian y hechavan por respeto de sus bienes e non de personas...*” (ARChV. Reales Ejecutorias, 632-50, 4 at. fol.). Horren arabera, auzoen ondasunak oinarri hartuta, milareak edo maila ezberdinetan banandutako fiskalitate zuzenari lotutako sistema genuke. Zoritxarrez, gure garairako ez dugu daturik eta ez dakigu nola egituratzen ziren eta zein kontzeptu zerabilzkiten. Ald. PIQUERO ZARAUZ, S.; eta DÍAZ DE DURANA, J. R. “De la fiscalidad municipal...”, aip. lan. Transkribatutako paragrafoan ageri diren “Probintziako aitonsemek egiten zituzten ordainketak”, probintzia-gastuei aipamena egingo liekete, 1542ko datuek ongi islatzen duten moduan.

Alabaina, herriekiko zuen lotura horretan Tolosak izan zuen garapen instituzionalik. Ordizian eta Seguran esparru fiskal-finantzarioan gorpuztu bazen, hirugarren hiribildu horretan beste alor batean eman zen; hierarkia jurisdikzionalan askoz esanguratsuagoa den justiziari lotutako alorrean, hain zuzen ere.

3.3. *Justizia jarduna herrietan: herri-alkateak Tolosako jurisdikzioan*

Segura, Ordizia eta Tolosa, hirurak, hiribilduek auzotartze-hitzarmenen bidez inguruko herriak haien jurisdikziora erakartzearen ereduak dira. Alabaina gain, bakoitzak bere barrutipean zituen herriekiko harremanak bere erara moldatu zituen. Ordizian eta Seguran oraintxe jorratu dugun herri-fielen kasua adibide bat da. Tolosan, ordea, ez dugu halako ofizialik; bai ordea, bestelakorik.

Justiziaren administrazioa zen, zalantzarik gabe, auzotze-hitzarmenetan hiribilduek mantendu eta areagotu zuten eskumen nagusienetako bat, nagusia ez bazen. Hori izan zen, gainera, XIV eta XV. mendeetan zehar hiribilduetara auzotzen joan ziren populazio-guneez beraien buruarekiko zuten menpekotasuna hobekien islatzen zuen ezaugarria. Ikusi dugu moduan, hiribildura sartzeko idatziek jasotako baldintzetan justizia kontuak ezartzen ziren, erran nahi baita, jurisdikzio osoan lehen auzialdiko justizia emateko eskumena hiribilduko alkateen esku bakarrik zegoela. Auzotutako herrixkek ez zuten hori aurrera eramateko inolako eskubiderik. Eta hau izan da, Gipuzkoako hiribilduak (edo batzuk, bederen) korporazio-jaurgo moduan hartzeko funtsezko ezaugarria.

Egoera orokor horren baitan, ordea, hainbat salbuespen izan ziren. Hor ditugu Tolosaren pean geratu ziren Alegia eta Villabona. Hauen adibidea nahiko berezia da, justizia-gaitasun hori mantentzearen arrazoia biek zuten hiribildu tituluaren oinarritzen baitzen. Aitortu behar dugu beraiez gain ere, Gipuzkoan beste adibide batzuk izan zirela, nahiko zalantzarriak badira ere. Batetik, Erdi Aroko Donostian Andoain dugu. Agidanez, 1379ko auzotzea berretsi zenean, berezko alkatea izendatzeko eskumena erdietsi zuen, zertarako eta 60 marai arteko auzi zibilak epaitzeko²⁸⁸. Egile batzuk Hernaniren

(288) Ikus CAMINO Y ORELLA, J. A., aip. lan., 78-79 orr.; TRUCHUELO GARCÍA, S. *Gipuzkoa y el poder real en la alta Edad Moderna*, Donostia 2004, GFA, 495-498 eta 501-502 orr.; TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 29 eta 98-99 orr.; SORIA SESÉ, L., aip. lan., 59 or. eta hh.; ORELLA UNZUÉ, J. L. “Régimen municipal... siglos XIII y XIV”, aip. lan.

kasuaz ere jardun dira, Donostiatik banandu baino lehenago halako gaitasuna lortu zuela adieraziz; gure ustetan, ordea, ez zen horrelakorik gertatu²⁸⁹.

(289) Gaztelako Pedro I.ak emandako epai bat izan da horren oinarria. Bertan, Hernaniko alkateek emandako epaien ondotik, Donostiako auzapezei apelazio-epaitegi moduan zuten eskumena berresten zitzairen; agidanez, hori konfirmatzeko arrazoia, Hernani Donostiako auzo zena-
ren ideian zetzan, beste komunitate batzuk ziren bezala.

Pedro I.aren epai horren nondik norakoa, Lorentzo Altzatekoa notarioak 1838an egindako kontaketa esker dakigu. Agidanez, XIV. mendeko dokumentuan, hiribildu donostiarraren hitzetan, Hernanik berarekiko zuen menpekotasuna, “la Artiga, Urnieta, Alza, Pasages, Ibaeta, Zubieta, Igueldo” eta Adunak zuten halakoa zen. Donostiak hori berresteko ekimenak hasi zituen eta burututako mugimenduen ondorioz, “*Don Pedro el Justiciero confirmó los privilegios de refundación, declarando que Hernani era aldea de San Sebastián, en términos que para poder los de Hernani construir ferrerías, les imponía la condición de que dicha villa no se apartase de la vecindad de San Sebastián*”.

Guretzako aldiz, hori guztia gaizki egindako irakurketa baten ondorioa da, bai interpreta-
zio okerrak egitetik zein dokumentu desberdinetan azaltzen diren datuen nahasketatik sortutakoa.

Transkribatu dugun zatian agertzen diren datuak kontraesankorrak dira. Batetik, erre-
gearen agintaldia 1350 eta 1369 artean eman zela aintzat hartuta, garai hartan Orio eta Usurbil
Donostiako zati ziren eta bietako inor ez da Altzatek emandako populazioen zerrendan agertzen.
Luis Murugarrenen ustetan, egoera horrek Gaztelako testuinguru belikoan izango zuen oinarria:
biak Endrike II.aren alde egitearekin batera, errege horrekin ezkutuko negozioak bideratzen
ari ziren, behin Trastamara etxeko kidea tronura iritsi orduko, haiei hiribildu titulu emateko
helburuarekin.

Bestetik, Pedro I.aren dokumentuan aipatzen diren populazio-guneen kontua dago.
Aurreko lerroetan 1379ko otsaileko idatzi bat aipatu dugu, non Altza, Artigak, Andoain, Igeldo,
Ibaeta eta Zubietak Donostiarekiko zuten auzotartzea berresten zen. Dakusagunez, zerrenda
horretan ez dira Aduna, Pasai San Pedro eta Urnieta ageri; alegia, Altzatek Pedro I.aren doku-
mentuan aipatzen zituen hiru guneetako batzuk. Eta hiru herri horien uestezko aipamenean datza
Altzatek burututako anakronismoa. Izan ere, 1379rako Aduna eta Urnieta Donostiaratu gabeak
ziren eta Pasai San Pedro ez zen populazio-gune gisa existitzen. Horren lekuko argia dugu
1397ko Ermandadeko ordenantzek Donostiari ematen zioten jarduera-barrutia: hiriguneaz gain,
Altza, Ibaeta eta Igeldo aipatzen dira, ez besterik. Azken zerrenda horretan Pasaiaren aipamen
eza oso adierazgarria da, bereziki badiako jurisdikzioaren inguruko eztabaida larriak ematen
ari ziren garaia zenean. Hau da, Altzatek aditzera ematen zuen Pedro I.aren dokumentu horrek
Aduna, Pasaia, Urnieta eta Zubieta aipatzea ez da bat ere logikoa. Garai hartarako, edo ez zeuden
Donostiako jurisdikziora sartuak, edo ez zeuden populazio-gune moduan eratuak.

Modu berean, 1379ko otsaileko dokumentuan ez da Hernani aipatzen. Baten batek,
Murugarrenek argudiatutako erreinu mailako mugimendu politikoeekin lotu dezake aipu ez hori:
Endrike II.a Hernaniren hiribildutasuna eta banaketa sustatu zituela aintzat hartuz, bere anaiorde
eta Gaztelako tronuan aitzindari izan zen Pedro I.ak egindako mugimenduen kontrakoa burutuko
zuen. Baina hori ikusi baino, askoz logikoagoa da Hernani herri (alegia, hiribildu) independentea

...

Horiez gain, Tolosak beste prozesu bat uzten du agerian. Kontularitza mailan hiribilduaren eta herrien arteko harremanek tresna zehatzik garatu

...

zela pentsatzea, 1332an dakusagun moduan. Ildo honetatik, beste behin ere azpimarratu beharra dago haren eta Donostiaren arteko 1379ko abuztuko hitzarmena ez dela (Tolosan edo Seguran gertatzen denaren kontra) auzotze-kontratu bat, adostasun-agiri bat baizik; Urumeako zilegi-basoak administratu eta kudeatzeko sortutako idatzia.

Altzatek egiten duen deskribapenarekin jarraituz, burdinolen eraikuntzaren inguruan ematen duen berria dugu. Hau, Hernanik eta Donostiak 1379ko abuztuan sinatutako hitzarmenetik hartuta dago, argi eta garbi. Ez hori bakarrik, kontratu horretan bertan ezarritako lehenengo xedapena zen eta adostutakoaren arabera, bi hiribilduetako auzo ez zen inork ezingo zuen halako higiezinik eraiki.

Bestalde, Donostiako artxiboko antzinako inbentarioetan begirada jartzen badugu, gauzak gehiago argitzen direla uste dugu. 1581ean egindakoak, adibidez, Pedro I.ak epaitutako auzia, Hernaniko alkateen aurrean jorratutako prozesuekin lotzen zuen, modu honetan laburbilduz: “*Privilegio del rey don Pedro en que da a Hernani por aldea de San Sebastián y que las apelaciones de sus alcaldes vengan a San Sebastián*”. Erregea edo laburpen hau Altzatek jasotako datuekin alderatzen badugu, ezberdintasunak agerikoak dira. Lehenengo eta behin, Hernani bakarrik aipatzen da, bestelako populazio-guneei inolako aipamenik egin gabe. Bigarrenik, karguen izendapenaren inguruko eskumen jurisdikzionalik ez da inondik inora agertzen. Funtsean Pedro I.ak egiten zuena, Hernaniko alkateak Donostiako auzapezekiko zuten menpekotasuna berrestea zen, non eta Hernaniko alkateen aurrean hasitako prozesuen apelazioa Donostiakoetara joan zedin. Beste era batera esanda, Donostiako epaileek Hernanikoaren apelazio-azuzitegi gisa jardungo lirakeke. Horrek ez du esan nahi Hernani Donostiaratu zenik; gauza jakina da Donostiako alkateen apelazio eskubidea bere forua zuten hiribilduetara hedatu zela. Baina ez hori bakarrik, apelazioari lotutako xedapena Urumeari lotutako 1379ko hitzarmenean arautu baitzen. Bestalde, 1581eko inbentario horrek, 1379ko otsaileko dokumentuaren laburpen zuzena jasotzen zuen, lerro nagusienetan bada ere. Hainbat herrixken inguruko kontuak zirela aipatzen zuen, herri-alkateei inolako aipamenik egin gabe, herrien zerrenda honakoa zelarik: Zubieta, Igeldo, Ibaeta eta Andoain.

Gure ustetan, Altzatek Caminoren informazio partzial, alderdikoi eta filodonostiarrei men egin zien. Gogoratu behar dugu 1838rako, udal artxiboa hainbat denbora zeramala zeharo kiskalita eta, ondorioz, Altzatek ezin izan zituen pribilegio horiek kontsultatu.

Caminoren hitzak besterik ez ditugu hartu behar, horren berri izateko. Berak aitortzen zue-nez, Pedro I.aren dokumentua irakurtzea ezinezkoa egin zitzaion eta edukierari buruzko informazioa 1581eko inbentariotik atera zuen; non eta, erregearen epaiaren inguruan “hitz batzuk irakurtzen diren” (“*léense algunas palabras d’él*”). Zehazki, Caminok honela deskribatzen zuen: “*Subsiste además en el Archivo de la Ciudad un privilegio original del Rey D. Pedro con su sello de plomo, pero muy desgastado, declarando á la villa de Hernani por lugar perteneciente á la jurisdiccion de San Sebastian, y mandando que las apelaciones de los Alcaldes de aquella, se dirigiesen á los de esta. Así lo expresan el epígrafe ó rótulos de dicho privilegio, y todos los inventarios antiguos*”. Horrez gain, Donostiak herri-alkateak izendatzeko lortutako errege-baimena aipatzen zuen, 1379ko martxoaren 2an emandakoa.

...

ez zuten bitartean, alor judizial eta jurisdikzionaletan ez zen hala gertatu. XVI. mende hasierarako, bere jurisdikziopean zeuden herriek berezko alkatea izateko eskumena lortu zuten. Oso prozesu interesgarria da, baina historiografian nahiko oharkabean igarotakoa²⁹⁰.

Egoeraren aldaketa XV. mende erdialdean ematen hasi zela pentsa dezakegu, Gaztelako Koroaren baitan ere halako prozesuak ematearekin

...

Laburbilduz, Hernaniren menpekotasun jurisdikzional moduan ikusia izan zena, egiakiz Donostiarekin 1379an sinatutako hitzarmenean bildutako xedapen baten ildotik egindako interpretazio bat da; zehazki, hiribildu horrek Donostiako forua hartzen zuen puntutik. Eta arazoa “herri” hitzaren erabileratik zetorren, horrek, egile ezberdinak menpekotasun jurisdikzionaletan pentsatzera eramane baititu.

Beste arazo bat 1379ko dokumentu horren aitasuna da; zergatik Pedro I.ari eman zaion. Agiria aipatu duen egileetako inork ezin izan zuen irakurri eta, ondorioz, errege horren ordege beste baten izena irakurri beharko genuke. Halakorik behin baino gehiagotan ikusi izan da. Ziurrenik Endrike II.a izan zen benetako protagonista. Gainera, Caminori esker, badakigu errege horrek Urumeako zilegi-mendien 1379ko abuztuko hitzarmena, Valladoliden, 1380ko urtarrilaren 28an berretsi zuela, nahiz eta gaur egun konfirmazio dokumentu hori gordetzen ez dela ematen duen (ald. MARTÍNEZ DÍEZ, G.; GONZÁLEZ DÍEZ, E.; eta MARTÍNEZ LLORENTE, F. J. *Colección... (1370-1397)*, aip. lan.; eta HERRERO LICEAGA, V. J.; eta FERNÁNDEZ MARTÍNEZ, M. *Fuentes medievales del archivo municipal de Hernani (1379-1527)*, Donostia 2011, Eusko Ikaskuntza).

Altzateren laburpenerako, ikus BANÚS Y AGUIRRE, J. L. “El límite meridional de San Sebastián: la villa de Hernani y los montes francos del Urumea”, *BRSBAP*, XXVII (1971), 49-50 orr. (47-60). Honi jarraituz, MURUGARREN, L. *Usurbil. Aguinaga, Urdayaga y Zubieta*, Donostia 1974, AKM, 18-19 orr. 1581eko inbentarioaren inguruan, BANÚS Y AGUIRRE, J. L. *El archivo quemado...*, aip. lan., 28 eta 32 orr. Ald. CAMINO Y ORELLA, J. A., aip. lan., 76, 79 eta 81 orr., non Hernanirekin egindako 1379ko hitzarmenaren transkribaketa ikuspegi filodostiar batetik babesten duen.

(290) Ald. SORIA SESÉ, L., aip. lan., 69 or. eta hh. bereziki 71; AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., 72, 75 eta 124 orr.; GOROSÁBEL, P. de, *Bosquejo...*, aip. lan., 14, 27-28 eta 32-33 orr. Bitxierna, agian, Susana Truchuelok berak gaiari egin dion leku txikia da, nahiz eta datu gehien biltzen dituen izan. Ald. bere “Resistencia de las corporaciones...”, aip. lan., 224 or., 14 oin-oharra; *Tolosa en la Edad Moderna...*, aip. lan., 104-106 orr. eta *La representación...*, aip. lan., 98-101 orr. Azke honetan bai, justiziaren inguruan sortu ziren arazoei leku berezia egiten die. Horrez gain, Tolosaldeko herriei buruz azken urte hauetan egin diren monografiak ere, tokian tokiko karguaren inguruko datuak eman dituzte, gaiari aztertzeke funtsezko euskarrira osatzen dutelarik. Ikus, bereziki, MORA AFÁN, J. C., aip. lan., 60-63 orr.; in MORA AFÁN, J. C. “Bizitza komunitatean. Kontzejua”, in HH. EE. *Iurako Historia*, Tolosa 2003, Lizardi Kultur Elkarte, 2003, 42-43; ZAPIRAIN KARRIKA, D. *Altzotik Altzora. Ibilaldi historikoa Altzon Zehar*, Tolosa 2003, Lizardi Kultur Elkarte, 27-28.

batera²⁹¹. Ordurako Tolosaren eskualdeko herri-alkateen nolabaiteko jarduna antzeman daiteke, aitzindariak zertxobait atzeratu daitezkeelarik. Tolosaren eta bere herririk batzuen arteko arazoei amaiera emateko 1450 urtean emandako epaiaren arabera, hainbat ziren herri-alkateak izendatzeko eskumena zuten herriak. Testuak dioten horretan oinarrituz, egoera hori hamarkada batzuk lehenagotik ematen ari zen eta, agidanez, alkate horiek 60 maraira arteko prozesuak epaitzeko ahalmena zuten. Kantzilertzako aditzaileek hiribilduaren aldeko epaia eman zuten eta bere alde egiteko arrazoiaren artean, honakoa zegoen:

“aver estado e estar en quasi posesión de la jurisdicción çebill e criminal de las dichas collaciones e vniversidades e personas singulares d’ellas e de poner en ellas alcaldes que pudiesen juzgar e juzgasen fasta sesenta maravedís e que los alcaldes de la dicha villa estaban en quasi posesión de conoscer de las apellaciones de que los dichos alcaldes de las dichas collaciones se interponían e interpusieron”²⁹².

Hitz horien arabera, herri-alkateen dinamika guztiz finkatutako errealtatea zen. Izan ere, egoera hori auzia hasi baino 40 urte lehenago indarrean zegoela adierazten zuten, 1395 urte aldera, beraz. Horrek esan nahiko luke hiribilduaren aurka auzia hasi zuten herriek, hau da, Aduna, Amasa, Anoeta, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Irura, Leaburu, Lizartza eta Zizurkilek berezko alkatea izateko eskumena zutela²⁹³.

(291) Extremadura bezalako lekuetan, herrixken garapenak ordura arte horiek hiribilduekin zituzten harremanak eraldatu zituen. Prozesu horren ondorioz herriek erdietsitako eskumena artean, justizia esparruari lotutakoak zeuden. Ikus, CLEMENTE RAMOS, J. “Ciudad y territorio en la Extremadura medieval (siglo XIII-c.1550)”, in ARÍZAGA BOLUMBURU, B.; eta SOLÓRZANO TELECHEA, J. A. (arg.) *La ciudad medieval y su influencia territorial. Nájera. Encuentros internacionales del Medioevo 2006*, Logroño 2007, Instituto de Estudios Riojanos, 103-104 orr. (81-109). Regina Polok, bere aldetik, Errege-erregin Katolikoaren garaitik eta Gaztelako Koroan zehar, jurisdikzionalki menpekotasun egoeran zeuden herrixken erreklamazio-prozesu bat hedatu zela uste zuen. Egindako eskaeren artean, hainbat diru-kopurura arteko auziak epaituko zituzten berezko auzapezak izatea zegoen, jurisdikzio-buruetara joateak zekarzkien gastuak saiheste aldera. Ikus POLO MARTÍN, R., aip. lan., 369 or. eta hh. Hala ere, egile honek ez dio gai honi asko erreparatzen, leku gehienetan tokiko justiziaren eskumenak korrejidoen menpe geratu zirelako.

(292) LEMA PUEYO, J. A. eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 26 or. Ald. AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., 114 oin-oharra; eta SORIA SESÉ, L., aip. lan., 71 or.

(293) Artikulu honen hasierako oin-ohar batean aipatu dugun Illas eta Avilésen arteko auzotartze-hitzarmenean, Illas lurreko auzoei urtero alkatea izendatzeko eskumena aitortu zitzairen. Haien hautaketa lau gizon-onen esku geldituko zen: bi Trexokoak eta beste biak, Leijangoak. Gorako-helegitea Avilésera joango zen. SANZ FUENTES, M.^a J.; ÁLVAREZ CASTRILLÓN, J. A.; eta CALLEJA PUERTA, M., aip. lan., 144. dok., 372 or.

Herri-alkateek zuten diru-muga zehatzaren aipamenak, aipu orokor eta zehaztugabeetan pentsatzea baino, herri-alkateen inguruan bizi zen errealitatearekin harremanetan jarri gaitzake, eta halaber, populazio-guneek bazituztela justizia-jarduna garatzeko bide batzuk, hiribilduarekin hitzartutakoak eta hor nonbait instituzionalizatuak, nahiz eta Tolosak, jardun horretan aritzen zirenak benetako alkate moduan ez hartu²⁹⁴. Ez dugu ahaztu behar aurreko mendeetan ahozkotasunak indar handia zuela eta halaber, alkateez gain, bazeudela arazoak konpontzeko beste tresna batzuk: epaileak, arbitroak edo herria eta bertakoentzat erreferente ziren gizon-on, agure edo eskarmentu handiko pertsonak.

Hala ere, 1450eko epaiak hiribilduaren alkatearen eta prozedura judizialean aritzen ziren bestelako ofizialen lansarien inguruan xedapenak sartu zituen eta horrek, esparru horretan ordura arte zeuden arazoak eta hauek konpondu edo argitzeko beharra islatzen du. Honen ildotik, 1442an lortutako eta 1443an berretsitako mesede bat aipatu beharra dago, oso adierazgarria baita. Bertan, Gaztelako Joan II.a erregeak Tolosaren alde egiten zuen, bere auzo eta biztanleen lehen auzialdia hiribilduko alkateek bakarrik izan zezaten. Dokumentua ez zegoen hiribilduko udalbatzari bakarrik zuzendua, hiribildu barruko zein herritako biztanle eta auzoei ere bai:

“por fazer bien e merçed al conçejo de la villa de Tolosa, que es en Guipúscoa, e vezinos e moradores de dentro del cuerpo de la dicha villa e a los vezinos e vezindades de fuera, que la dicha tiene e touieren [sic] de aquí adelante (...) seades acusados e demandados e conuenidos, judgados e librados en todos vuestros pleitos e demandas, así çeuiles commo criminales, de qualquier natura que sean, ant’el alcalde o alcaldes ordinarios de la dicha villa de Tolosa, que agora son o fueren de aquí adelante en la dicha villa e non ante otro juez o alcalde mayor nin menor de la dicha pouinçia de Guipúscoa que agora es o fuere de aquí adelante”²⁹⁵.

1443ko ekainaren 7an erregeak dokumentuari berrespesa eman zion, Tolosa hiribilduko udalbatzak, hiribildu barneko auzo eta biztanlek eta hiribildu kanpoko auzuneez (= herriek) eta bertako auzoek eskatuta²⁹⁶. Are gehiago, azken agiri honetan agindua askoz argiagoa zen, eta Tolosatik kanpoko justiziei, bertako edo herrietako auzo eta biztanleen gaineko

(294) 1450 urtean epaitu zen prozesuan zehar, hiribilduak herrietan alkateak zeudela ukatu egiten zuen, honen antzeko aitortpenak eginez: herriek “*non avian avido nin tenido nin tenian otros alcaldes saluo a los de la dicha villa*”.

(295) LEMA PUEYO, J. A. eta TAPIA RUBIO, I., aip. lan., 2. dok.

(296) *Ibidem*, 5. dok.

auzietan aritzeari eta horiei epatze edo deialdiak egitea debekatu egiten zien. Dokumentu honetan erregea justiziei orokorrean zuzentzen bazaie ere, argi dago bai 1442ko dokumentuak zein bere ondorengo berrespenak, zenbait herrik alkatea izateko zuten ageriko nahi bat islatzen dutela.

Dena den, eta aipamenak aipamen, ez du ematen ordurako herri-alkateen izendapena Tolosako jurisdikzio guztian zabaldutako edo ohikoa zen kontua zenik; eta hainbat hamarkadaz modu honetan iraun zuen. Halako baieztapena egitea ausartegia izan daiteke. Batetik, dokumentuen eskasia, eta horietan karguei buruz ematen den aipamen eza, baieztapen sendo bat egiteko lagungarriak ez direlako. Bestetik, norbaitek 1475ean Zizurkilekin adostutako auzotzean herriak berezko alkate izatearen inguruko xedapena hartu dezake oinarri moduan eta egiari zor, lorratz ona da. Alabaina, adierazgarriagoa deritzogu mende horretako auzotze-kontratuetan herri-alkateen inguruko aipamen zuzenik ez egitea. Une hartan Zizurkilek eta Andoainek islatzen duten egituraketa instituzionala ez doa hamabietatik haratago, eta bigarrenaren isilunea adierazgarriagoa da; ez dezagun ahaztu, teoriarik populazio horrek alkateak izendatzeko eskumena 1379tik zuela²⁹⁷.

Aurreko datuek herri-alkateen jardun hau Tolosako jurisdikzioan zeuden hainbat puntutan bakarrik ematen zela adieraz diezagukete. XVI. mende erdialdean ageri zaigun ikuspegia, berriz, ezberdina da; arras ezberdina. 1540an, Tolosako prokuradore sindikoa eta Amezketako herria aurrez aurre jarri zituen auzi bati hasiera eman zitzaion. Arrazoa, azken populazio horretako herri-alkateak hiribildukoari egindako jurisdikzio-usurpazioa. Bertan agertzen den informazio gehiena, 1539ko azken hilabeteetan eta 1540ko lehenengoetan alkate amezketarraren legez kanpoko jardunari buruzkoa da. Alta, Tolosak berak aurkeztutako lekukoek garai hartarako bizi zen errealitatea begien aurrean ipintzen digute, eta ez dago zalantzarik: ordurako, eta duela hainbat hamarkadatik, hiribilduaren jurisdikzio-barrutia osatzen zuten populazio ezberdinetan, herri-alkateen jarduna eguneroko kontua zen.

Egoera hau Zumabatzarrea eskualdean bereziki ematen zela dirudi. Izen horren atzetik egituraketa administratibo bat dugu, eliza-korriedoarena, XIV. mende erdialderako guztiz finkatua zegoena. Zumabatzarrean hainbat eliza biltzen ziren: alde batetik, Tolosa eta bere inguruetan zeudenak,

(297) Halaber, 1435etik aurrera Donostiaratu zen Alkizari buruzko datuak ere oso esanguratsuak dira, ez baitugu bere herri-alkateen inguruko berririk; Peio Joxe Aranbururen ikerketa sakonak herri-epaile horren gabezia agerian uzten du. Ikus ARANBURU UGARTEMENDIA, P. J. *Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa (1348-1950)*, s. 1. 2001, s. n., 108 eta hh., bereziki 108-113 orr.

hiribilduaren fundazioarekin horrek xurgatu zituenak; bestetik, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Eldua, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Leaburu, Lizartza eta Orexako tenpluak. Horietako hainbatek, teoriaran eta 1435-50eko auziaren arabera, XIV. mende amaieran herri-alkatea zutela ematen du²⁹⁸.

Herri horiek Amezketaren aurkako 1540ko prozesuan aipatzen direnekin alderatzen baditugu, Tolosako jurisdikzio-barrutian zeuden populazio gehienek, XV. mende amaieran edo XVI. mende hasieran herri-alkateak zituztela ikusiko dugu. Lizartzako auzo Pedro Beengoetxeakoak, adibidez, herri-alkateen jarduna Laurehunaren amaieran jartzen zuen²⁹⁹. Tolosako auzoen lekukotzak, hiribilduaren ikuspegiaren adierazle eta babesle diren heinean, askoz adierazgarriagoak dira. Hiribilduko zenbaki-eskribau zen Martin Otazukoak adibidez, honakoa aitortzen zuen: San Migel egunez, Tolosako udalbatza berriaren hauteskunde eguna zela profitatuz, beste herriek beste horrenbeste egiten zuten beraien alkatearekin, eta ondoren Tolosako auzapezaren gaitasuna joaten ziren, zina hartu ziezaien³⁰⁰. Halako aipamen orokorretatik haratago, beste lekuko batzuek datu zehatzagoak ematen zituzten. Lizartzako auzo Joan Leitzagoienakoak, adibidez, bere herriko alkatearen eta Tolosakoaren arteko ika-mikei buruzko aipua egiten zituen, jurisdikzio-kentze kontuengatik. Esandakoan arabera, arazoak Martin Joan Abaliakoa Tolosako alkate zela sortu ziren, 1505-06 urteetan³⁰¹.

XVI. mende erdialdeko auziak, esan bezala, Zumabatarreatik haratago zeuden guneei buruzko datuak ere azaleratzen ditu, horien artean Albizturri buruzkoak. Berrobiko auzo Joan Urrutiakoaren hitzetan, hango alkate zen Martin Iriartekoak, zegokion jurisdikzioa gaingitu zuen 1532 urtean. Hau ikusita, Tolosako alkateak atxilotu eta zigortu egin zuen, eta “*le costo buena cantidad de dineros el dicho negoçio*”. Albizturko bertako auzo zen 63 urteko Joan Olatzakoak, bere aldetik, datu zehatzagoak ematen dizkigu, tokiko justiziaren jardunean barneratzeko euskarria dugularik; izan ere, azkeneko 40 urteetan (1500 urtetik, gutxi gorabehera) bera jardun horretan aritu zen, Albizturko herri-alkate gisa. Agintaldietako bat Pedro Otsoa Luzuriagakoaren Tolosako alkatetzarekin bat etorri zen. Olatzak jardun hau 1530-31 aldera datatzen zuen, baina litekeena da pixka bat atzeratu behar

(298) Zehazki, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Leaburu eta Lizartzak.

(299) Lekukotzarako, ikus ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3, 226 au.-228 at. folk.

(300) *Ibidem*, 33 au.-at. eta 231 au.-at. folk.

(301) *Ibidem*, 39 au.-at. eta 217 at.-218 au. folk.

izatea, Luzuriaga alkate bezala ikusten dugun azkeneko aldia 1527-28 epean izan baitzen. Olatza beste hainbat adibideren emale dugu. Honela, auzia gertatu baino 20 bat urte lehenago, Albizturko herri-alkate zen Martin Iriartekoak jurisdikzio-gehiegikeriengatik arazoak izan zituen Tolosan kargukide zuen Joan Martinez Zaldibiakoarekin. Luzuriagarekin bezala, Olatzaren kronologia zuzendu beharrean gaudela uste dugu: Zaldibia 1514-15ean izan zen alkate, baina baliteke ere 1522-23 aldian jardun horretan aritzea eta, gure ustetan, hau izango litzateke gertakaria jazo zen garaia³⁰².

Auzi honetako lekukoez gaindi, XVI. mende hasieratik aurrera sortutako dokumentazioa oinarri sendoa dugu prozesu horren inguruko datuak topatzeko, bereziki auziez edo dokumentazio judizialaz haratagoko agirietan. Horiek aintzat hartuta, Amezketeta eta Tolosaren arteko prozesuak islatzen duena egia den ala ez ondorioztatu dezakegu. Gure bilaketa ez da oso zehazta izan eta, beraz, azterketa sakonago batek ziurrenik datu goiztiarragoak emango lituzke. Baina hala izanik ere, eskuratutako emaitzak adierazgarriak direlakoan gaude. Idatzi horietan murgilduta, Amezketeta eta Abaltzisketaren herri-alkateei buruzko datuak 1519an ageri zaizkigu; Altzoren justizia-buruari dagokionez, lehenengo datuak 1532an ditugu; Berastegin, berriz, urtebete beranduago dugu herri-azapezari lotutako datua. Aurrekoek 1540ko prozesuarekin bat datoz, bai kronologikoki zein islatzen den ideiarene aldetik; norbaitek datu berantiarra izan daitezkeela pentsa dezake. Hori dela eta, bi adibide gehiago eman nahi genituzke, oso aipagarriak direnak. Lizartzeta eta Orendaini dagozkionak dira, epaile-errealitate hori XVI. mendeko hastapenentara atzeratzen dute. Bietan, herri-alkateak 1508rako dokumentatuak ditugu, baina ordurako finkatuta dagoen errealitatea islatzen dute eta, beraz, populazio horiek berezko epaileak izatearen prozesua hainbat denbora atzeratu beharreko kontua litzateke³⁰³.

(302) Tolosako udalbatzetan 1308-1535 urte bitartean aritu ziren karguetarako, ikus IRIJOA CORTÉS, I. *Estudio de la vida urbana...*, aip. lan., III. liburukia, 1164-1168 orr.

(303) Abaltzisketa eta Amezketarako, ikus AYERBE IRIBAR, M.^a R. *Documentación medieval... Segura...*, aip. lan., 311 eta 312 dok.; Altzoko kasurako, AROCENA, F. “El encabecamiento de alcabalas de Tolosa: ¿estuvo vigente en Guipúzcoa la contribución de la “tellada”?”, *BRSBAP*, VIII (1952), 409-423 orr., bereziki 412-413 eta 417-418; Berastegirako, ald. 1533ko maiatzaren 2an Maria Joanes Espillakoak senipartearen inguruan egindako dohaintza eta uko egite eskritura, non lekukoen artean Joan Berakoetxeakoa herri-alkatea dugun (AGG-GA PT 865, 15 au.-16 at. folk.); Lizartzarako, ikus GAO-AGG COMCI58 auzian txertatzen den 1508ko ekainaren 18ko ahalordea, non “*nos, la vnibersidad, alcalde jurado e omes fijosdalgo e vezinos e moradores de la vnibersidad de Liçarça, juridición de la villa de Tolosa (...)* seyendo en el

...

Aitzindari moduan ikusi diren Zizurkil eta Andoaini dagokienez, datuek ez dute hurrenkera handirik. Lehen aipatu dugun moduan, 1475 auzotze-hitzarmenek beraien egituraketa instituzionala XIV. mende amaierakoa izaten jarraitzen zuela islatzen dute. 1509rako, herriko udalbatzak berak alkabalaren inguruan egindako ordenantzetan, aipamen orokor bat agertzen da “*conçejo e vniversidad, jurado e omes fijosdalgo de la tierra de Çiçurquill*”, eta ordurako alkatea egongo balitz, zerrendan kargu hori islatuko zela uste dugu, Lizartzarekin gertatu bezala³⁰⁴. Alabaina, urte gutxiren buruan gauzak bestelakoak izanen dira: 1527an, udalbatza alkate batek, hamabi batek eta bi errejidore-diputatuk osatua dugu³⁰⁵. Andoaini dagokionez, ez zuen halakorik lortu Zizurkil baino hilabete batzuk lehenago sinatutako auzotartzean, baina herri-alkatearen errealtatea 1528rako erdietsia zuen³⁰⁶.

1475eko hitzarmenez gaindi, XV. mendeko azken hatsetako idatziek beste lorratz batzuk eskaintzen dizkigute. Berastegi eta Elduainek eta Leitzarango olagizonek Tolosaren aurka jorratu zuen auzian, 1490eko hamarkadan, hiribilduak kontrako aldean menpekotasun jurisdikzionala azpimarratzen zuen. Hori egiteko arrazoia bere zentraltasun politiko, ekonomiko eta fiskala babestean zetzan; azken finean, Tolosak bere portu hamarrendun izaera bermatu nahi zuen eta horri lotuta, merkataritza bideetan nahitaezko igarobide izan.

Helburu nagusia esparru ekonomiko-fiskal horren inguruko babes edo defentsa egitea bazen ere, Tolosaren argudioak alkateen urteroko izendapenaren inguruan hasten ziren. Hiribilduaren hitzetan, hautaketa hau hiribilduko eskumenen artean zegoen, aspalditik gainera. Tolosak alkateak eta bere aginduak beteko zituzten ofizialak izendatzen zituen. Udalbatza-epaile horren barrutia “*la dicha villa e su juredición e terretorio e vezindades*” zen

...

diho ajuntamiento e congregación Pedro d'Echaburu, alcalde de la dicha tierra, e Perusqui de Çuloaga, jurado d'ella...” aipatzen den. Era berean, 1509ko ekainaren 17an, “*Miguel Ansoyz, alcalde de la dicha vniversidad e Johan de Laharçaçal, jurado d'ella*” agertzen dira. Orendainerako, ald. ARChV. Reales Ejecutorias, 249-12, 1 au. folioa, non alkate bezala Joan Martinez Abalibidekoa agertzen zaigun: “*e el dicho plito hera entre Juan Martines de Abalivide, alcalde en la tierra e vniversidad de Orendayn, (...) e los vesinos e moradores de la tierra e vniversidad de Atavn e Gaynça e Legorreta e Alçaga e Arama e Veasayn...*”.

(304) Ald. IRIJOA CORTES, I. “Ordenanzas de la alcabala...”, aip. lan., eranskin dokumentala. Dena den, azkeneko bi data horiek bat datoz herri-alkateen inguruko kontuekin.

(305) MORA AFÁN, J. C. *Zizurkilgo historia...*, aip. lan., 110 or. 1529ko adibide bate-rako, ikus GAO-AGG PT 1492, 152 au. folioa.

(306) Andoaini buruz, AYERBE IRIBAR, M.^a R.; eta DÍEZ DE SALAZAR, L. M., aip. lan., 28. eranskin dokumentala.

eta horrez gain, “*solía tener e tenía mero e misto ynperio, juredición alta e vaxa*”. Azken eskumen hau hiribildura eta bere herri, lurralde eta jurisdikziora hedatzen zen, eta azken horren baitan kolazio edo parrokiak ere sartzen ziren, auzotze-hitzarmenetan adostutakoaren arabera. Azpimarratu behar dugu auzia beste bide batzuetatik joan zela eta halako azalpenak ez zirela ezbaian jarri, ez baitzuten jorratzen zen gaian eraginik. Horrek, 1495 aldera herri-alkateen kontuak berritasun handirik ez zekarrela islatuko luke³⁰⁷. Dena den, halako azalpenetan aritzeak ere nolabaiteko oinarriren bat izango zuela uste dugu, hiribilduaren justizia jardunaren inguruan nolabaiteko zurrumurruek eta eztabaidak zeuden seinale. Ondorioz, 1490 aldera, horiek areagotzen ari zirela pentsa daiteke; Gaztelako Koroan gertatutakoarekin bat eginez³⁰⁸.

Auzia hasi eta bi urte beranduago sortutako testu batek, bestelako egoera islatzen du. Gai ezberdina bazen ere, oraintxe aipatu dugun auziaren ildotik agertzen zen eta oraingoan, 1497an, Berastegi eta Elduaingo prokuradoreak oso hitz esanguratsuak plazaratu zituen:

“los dichos sus partes, en los tiempos antiguos antepasados tenían juridición sobre sy e sus alcaldes para conosçer de todas las cabsas çeuiles e criminales e para las sentençiar, e creyendo que serían más ayudados e faboresçidos e sus cosas por estar en la frontera de los reynos de Nabarra e Françia, diz que de su propia voluntad se sometieron a la juridición de la villa de Tolosa...”³⁰⁹.

Une hartan Berastegik eta Elduainek, beste gauzen artean herrixketan eskribau publikoak egon zitezela eta beraien jarduna bertako eskribau moduan egitea eskatzen zuten. Agidanez, ordura arte Tolosako alkate eta udalbatza ezberdinek horren aurkako jarrera argia izan zuten, hiribilduko eskribauen mesedetan. Herrixka horiek kudeaketa hobe batean oinarritzen zuten kontua, bertako eskribauek gauzak azkarrago eta hobeto egingo zituztelakoan; besteak beste, hitzarmen, testamentu eta, bereziki interesgarria dena, herrixketako alkateen aurretiko auto judizialak:

“non consenten nin dan logar que en las dichas vniversydades de Berástegui e Alduayn aya escriuanos algunos que den fee ni testimonio de cosa alguna de las que en ellas ayan de pasar ni pasen por ante ellos contrabtos ni testamentos ni otras escrituras algunas ni los abtos judiçiales que se hasen ante los alcaldes de las dichas vniversidades en las cabsas sumarias de que de derecho pueden conosçer e que todo quieren que se faga e

(307) ARChV. Reales Ejecutorias, 97-12, bereziki 1 at.-3 au. folk.

(308) Ikus supra, 291 oin-oharra.

(309) AGS. RGS. 1497-X, 198 fol.

pase por ante lo escriuanos de la dicha villa de Tolosa por ser sus parientes e por les dar prouecho e por haser mal e dapnno a las dichas vniversyades, e porque los lieuen drechos demasyados”³¹⁰.

Transkribatu dugun 1497ko testuaren data, bat dator Amezketa eta Tolosaren arteko auzian aurkeztutako lekukotzek ematen dituzten kronologia zaharrenekin. Ondorioz, Francisco de Vargas korrejidoreak burututako ikerkuntzak fruituak eman zituela pentsa dezakegu.

1495erako herri-alkateak instituzionalizatu edo gorpuztutako errealitate bat ziren ala ez, ez dakigu, baina Elduain eta Berastegiren hitzek argi uzten dute beraien buruan berezko justizia izatearen asmoa zebilela. Aro ilunetan, auzotzeak eman baino lehenago, hura zen indarrean zegoen egoera eta auziak eta ika-mikak komunitate horiek izendatutako epaileen baitan konpontzen ziren. Bi herrien hitzek XV. mendearen amaieran tokiko justizia izatearen beharra areagotu zela islatzen dute, argudio bezala aspaldi-aspaldiko egoeratan oinarrituz; eta zer aspaldikoagoa, herri independente ziren garaia baino. Modu honetan, eta Leitzarango bideen inguruko auzian Tolosaren justizia eskumenak zalantzan jartzen ez baziren ere, handik gutxira, bi aldeen arteko harremanak gehiago pitzatu zirenean, gaia arrakala horietatik sartu eta eskaera zehatzetan irudikatu zen. Eta horri leku egiteko arrazoia, une hartan hiribilduko justiziaren jarduna hala moduzkoa edo okerra zela argudiatuko zuketean, herri bakoitzak berezko alkateak izatea formula eraginkorragoa zelakoan. Eta esan bezala, horri oinarria jartzeko, Tolosarat aurretik beraien komunitateetan epaileak izan zituztela adieraziko lukete.

Sortutako mugimenduek uzta bildu zuten eta XVI. mende hasierarako, Tolosaren jurisdikziopean zeuden herri gehienek, guztiak ez esatearren, beraien berezko alkatea izendatzeko eskumena erdietsi zuten³¹¹. Modu honetan, kargua aukeratzea auzotutako populazio-guneari zegokion, berari bakarrik. Alta, lorpena ez zen guztiz askea. Herri-alkateak bere jarduna aurrera eramateko jurisdikzio-buruko auzapezaren oniritzia jaso behar zuen, eta horrek berak zina hartuko zion. Dokumentazioak aditzera ematen duenaren arabera, alkate izendapena San Migel egunez burutzen zen, Tolosako udalbatza-hauteskundeetan egun berean. Ez dakigu zer prozesu jarraitzen zen, baina tamaina txikiko populazio-guneak izanik, baliteke udalbatzar ireki edo

(310) ARChV. Reales Ejecutorias, 97-12, 1 at. folioa.

(311) Ondorioz, Albiztur, Anoeta, Amasa, Baliarrain, Ikaztegieta, Irura eta Hernialde geldituko litzazkiguke. Lehenengo dagokienez, datuak oso berandukoak dira. Irurarako, adibidez, 1590ekoak. Ald. HH. EE. *Irurako Historia*, aip. lan., 42-44 eta 157-159 orr. Ald. supra, 303 oin-oharra.

erdi-ireki baten bidez egitea. 1541. urterako, Amezketako hautagaia, hiribilduko alkatearen aurrean “gai, aitonseme, ondaredun eta **aberats**” hitzekin aurkezten zen: “*áville e fijosdalgo, raygado e avonado*”. Alkate jarduna beteko zuen pertsonak, beraz, hainbat baldintza bete behar zuen³¹². Hala ere, prozesu horretan guztian azken hitza hiribilduak zuen. Azken finean, herri-alkateen jarduna hiribilduko alkateak egindako jurisdikzio-eskuordetze moduan ikusten zen; borondatezko eskuordetze bat bezala edota ahalordedun soil gisa, hiribilduko sindikoak deskribatzen zuen moduan:

“que el dicho parte contraria ni los otros alcaldes del dicho pueblo de Amézqueta no puede(n) conosçer en mayor demanda de hasta los dichos çient maravedís y con esta condiçión y límitaçión se les da poder para conosçer de los dichos çient maravedís por los alcaldes d’esta villa, porque ellos de suyo ninguna juridiçión en ninguna suma tyenen, sino la que el dicho alcalde, al tyempo de la confyrmaçión, en cada vn año les da, con que no conoscan nin se entremetan en conosçer más de los dichos çient maravedís, y ello así se a vsado de tyempo ynmemorial a esta parte”³¹³.

Behin hautaketa eginda, herri-alkateak Tolosakoarenera joaten ziren. Herrietako hamabiek lagunduta hiribilduko auzapezaren aurrean aurkezten ziren, hamabiak baitziren herri-epaile horien aurkezpena egin behar zutenak; haiek ziren izendapenaren berri ematen zutenak. Ondoren, herri-alkate berriei zina hartzen zitzaien. Prozesu guztia Tolosako alkatearen erabaki eta baime-naren menpe zegoen; berak emango zion oniritzia herriaren erabakiari, hautatutako pertsonari zina hartuz. Ez zen prozedura instituzional soil bat, gaiak seriotasuna zuen eta atzera botatzeko aukera ere egon zitekeen³¹⁴. Berrobiko auzo Domingo Ormaetxeokoa honela zioen 1540an, egoera 35 urte lehenagotik ematen zela adieraziz:

“de treynta e çinco años poco más o menos tyempo a esta parte (...) save e ha visto que la dicha vniversidad de Amézqueta es abida e tenida e conosçida notoriamente por de la jurisdicçión e juzgado de la dicha villa de Tolosa, como lo es la dicha vniversidad de Berrobi, Verástegui y Elduayen y los otros lugares (...) y es muy público e notorio en ella y en los dichos lugares de su juridiçión, que el alcalde del dicho lugar de Amézqueta ni otros ningunas alcaldes de los dichos lugares de la juridiçión de la dicha villa no han tenido ni tienen jurisdicçión alguna en las çavsas criminales y en lo çebill hasta la çuanta de çien maravedís e no más, e hasta la dicha

(312) ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3, fol. 2 au.

(313) *Ibidem*, fol. 21 at.

(314) Are gehiago, 1541 urte amaieran, Iñigo Martinez Zaldibiakoak Martin Otsoa Argaieraskoa errefusatu zuela ematen du, arrazoi moduan honakoa jarria: “*no quería hazer la solemnidad debida*” (*ibidem*).

cantydad por facultad que el alcalde hordenario de la villa de Tolossa les ha conçedido e conçede en cada vn año a los alcaldes que son creados en los dichos lugares, al tyempo que luego que son creados y elegidos hazen presentación de sus personas ante el dicho alcalde hordinario de Tolosa e juran de goardar los contrabtos e cartas partydas e previllejos que la dicha villa tyene con las dichas vniversidades de su jurisdicción e de no conosçer en más de los dichos çient maravedís en lo çebill, y en lo criminal en ninguna çavsa ni manera...³¹⁵.

Irakurtzen dugun moduan, benetako menpekotasun jurisdikzionala zen, ia ikuspegi jauntxotiartzat hartzeko modukoa.

1542an Amezketako alkate Martin Otsoa Argaiaraskoarekin ospatutako ekitaldiaren arabera, zin egiterakoan herriko epaileak bost puntutan oinarritutako konpromisoa hartzen zuen. Batetik, hiribilduaren eta herrixkaren artean adostutako gutun-zatitu, artikulua eta kapituluak gordeko zituela hitz ematen zuen. Bigarrenik, 100 maraitarainoko auzi zibiletan arituko zela hitz ematen zuen, baina horietan bakarrik. Hirugarren puntu moduan, Amezketako lursailetan abereek eragindako kalteekin zerikusia zuten kontuak epaitzeko ardura bere gain hartzen zuen, beti ere 100 marai arterainokoak. Laugarrenik, unibertsitateko mugarren ikuskatzea egingo zuela eta baten bat erorita, botata edo legez kontra aldatuta ikusten bazuen, ongi jarriko zituela hitz ematen zuen. Azkenik, oinarritzko elikagaiak ikuskatu eta salneurriak jartzeari men egiten zion: “*que puedan faser los afueros de los mantenimientos acostunbrados aforar en la dicha vniversidad e se venden en ella*”³¹⁶.

(315) Ald. ibidem, 41 at. fol. Beste adibide batzuetarako, Altzo edo Lizartzari dagozkionak, ikus ibidem, 35 au. eta 214 au.-at. folk.

(316) Mugarrirei egin beharreko bisita auzotze-hitzarmenetan adostutako xedapenekin ulertu behar dugu, hau da, populazio-gune bakoitzak bere ondare eta hiri-ondasunak mantentzeko eskumenekin. Bosgarren puntua adierazgarriagoa da, salneurri edo prezioak ezartzearen eskumena hiribilduko udalbatzak baitzuen, eta ziurrenik, herri-alkateak bere lana azken horrek hartutako erabakien ildotik burutuko zuen. Edonola ere, ezin dugu, ziurtasun osoz, zin hartzeetan beti baldintza horiek guztiak ezartzen zirenik esan. Orain bildu ditugunak 1541 urteko urriaren 22ko eta bereziki 1542ko maiatzaren 16ko zin egiteetan agertzen dira, eta Tolosako zein Amezketako udalbatzek onartzen dituzte (ARChV. Pleitos Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3, 1 au.-3 au. eta 165 au.-168 au. folk.). Egia da, ordea, adostasuna auziarekin amaitzeko asmoz burutzen dela eta horrek, agian, neurriren baten ezohikotasunaz edo berritasunaz hitz egin dezake; hau da, prozesua amaitzeko esperantzaz hartutakoa. Izan ere, lekukotza batzuek baldintza horietako batzuen izaera bereziaz ohartarazten gaituzte, hala nola, Joanes Mandingindegikoarena. Amezketar honen arabera, herri-alkatea “*ni le ha visto que ha entendido sobre mojonas ni cosas perdidas ni hurtadas y sobre mojonas [sic] ni sobre pesos ni medidas ni ruydos*” (ibidem, 192 at. fol.). Beste auzo batzuek aldiz, alkateak, ohitura eta usadioak zaindu eta babesteaz gain, umezurtz eta alargunei beraien eskubideak eta justizia bermatuko ziela hitz ematen zuen (“*a los huérfanos e viudas les goardaría su derecho e justicia*”; ibidem, 196 at. folioa).

Herri-alkateak bere eskumen judizialak onarpenaren unetik aurrera baka-rrik abiarazi zitzaizkeen, ez lehenago. Bere jardunaren adierazle, soinean aginte-makil edo zigorra zeraman eta horrez gain, ordezkoa izendatzen zuen bera kanpoan edo gaixo egonez gero³¹⁷.

Egile batzuen ustetan, jurisdikzio-buruek egindako eskumen judizialen emate edo lagapen horiek, “apurrak” besterik ez ziren izan³¹⁸. Egia da herri-alkateek ez zutela gai kriminalak jorrazteko eskumenik, soilik zibilen ardura hartu zezaketen; baina hau ez zen ezohikoa, Gaztelako Koroan zehar ematen zen³¹⁹. Egia da, halaber, herri-alkateen gaitasun judizialak hiribilduko epailearen menpe zeudela; Tolosako alkatea aginte-makil edo zigor jasorekin jurisdikzio osora joan zitekeen, edozein gaizkile edo delitugile harrapatu edo atxilotzeko asmoz³²⁰. Teorikoki herri-alkateen jarduna izapide soil batzuetara edo ahozko autoetara mugatzen zen, eskribauen presentziarik gabe³²¹. Apelatzen zen epaia zuzenean Tolosako alkatearengana iristen zen; azken honek eskuetan zuela, herri-auzapezak, berak emandako epaiaren eta jarritako zigorraren berri eman behar zion. Modu berean, prozesua hasten zuen herri-alkateak, ikerkuntza egin ondoren auzia zegokion gehieneko dirukopurua baino gehiagotan balioztatuta zegoela ikusten bazuen, hiribilduko alkateari horren berri eman behar zion, azken honek auziaren gaineko ardura hartu zezan³²². Hala ere, 100 maraitako maila horrek 1450ean ezarritako

(317) *Ibidem*, 190 au., 192 au.-at. edo 253 au.-at. folk.

(318) Horrela dio SORIA SESÉ, L., aip. lan., 71 or.

(319) Ald. POLO MARTÍN, R., aip. lan., 369 or.

(320) “*que la dicha villa de Tolosa e los alcaldes hordinarios d’ella han estado y están en paçífica posesión vel casi de cognosçer sobre la dicha vniuersidad e vezinos de Amézqueta en todas las cavsas çebilles e criminales de qualquier qualidad e cantidad que sean, trayendo los dichos alcaldes de la dicha villa de Tolosa vara de justiçia en la dicha vniuersydad de Amézqueta e su término e jurisdicción e prendiendo y executando por delictos e devdas que devieren y a los que delinquieren en delictos, avnque sean alcaldes e vezinos del dicho lugar y estraños*” (ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3, 190 au.-at. folk. Ikus baita ere, *ibidem* 194 at.-195 at. edo 214 at.-215 at. folk.)

(321) Dena den, eskribauen inguruko kontua sakonago aztertu beharko litzatekeela uste dugu, bereziki Elduainek eta Berastegik 1497an adierazitakoan ondotik. Gure ustetan, gerora zenbaki-eskribautza lortu zuten anitzek, espezializazio-geografiko bat bizi izan zuten, Ordizia, Tolosa eta Segurako hainbat herrietako eskribau lehenetsi bihurtu zirelarik.

(322) “*suelen conosçer y condenar en la cantidad de çient maravedís a las partes que ante él vienen, verbalmente, syn escriuano, e si alguna de las partes (...) apela de la sentençia, suelen venir ante el alcalde hordinario de la dicha villa las partes, y el alcalde de la dicha tierra a hazer relación de la dicha sentençia y condenaçión verualmente*” (ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3, 190 at. fol. eta baita 193 au. eta 194 au. folioetan ere).

xedapenekiko berrikuntza zekarren. Baldintzak, beraz, Tolosako eskualdean bizi zen garapen edo egoerari egokitu zitzaizkion, nahiz eta jardun judizialik garrantzitsuenak hiribilduko alkateen esku egon³²³.

Egiari zor, herri-alkateen sorreraren edo horien garapen eta ezartzearen inguruko arrazoi zehatzak arrotzak zaizkigu oraindik. Gutxi dokumentatutako prozesua dugu eta, gainera, Tolosara mugatzen da. Ez dirudi Gipuzkoako beste hiribildu edo herrietara hedatu zenik, egun ditugun datuekin bederen. Alde batetik Alegia eta, hein txikiago batean, Villabonaren eragina ikus genezake horretan guztian. Biak hiribilduak ziren eta berezko alkatea izendatzeko eskumena mantendu zuten, horrek nolabaiteko nahia edo eragina izango zuen beste herriengan. Ildo honetatik, Villabonaren auzotzearen datak eta herri-alkateak ezarri zirenekoak kronologikoki oso gertu daude eta agian, prozesu baten eta bestearen artean harremanen bat bilatu beharko genuke.

Beste aldetik, denborak aurrera egin ahala sortu ziren behar berrien aurrean, garapen instituzionalari leku egingo zitzaion. Tolosaren garrantzia ekonomiko handiagoa eta honek ekar zezakeen handitze demografikoak edota alkatearen beraren dinamikak ondorioak ekarriko lituzke. Modu honetan, errazagoak eta ugariagoak (ugarienak) ziren hamaika prozesuren gaineko ardura kentzeko ekimenak garatuko liriateke, alkatearen zenbait pauso administratibo eta ekonomikoak murrizte aldera; pentsa dezagun, adibidez, hainbatetan herrixketara joatearen beharra. Modu honetan, populazio-guneekin hitzarmenak sortuko ziren, hainbat eskumen jurisdikzional herrixken esku utziz³²⁴. Azken finean, Tolosaren barrutia Ordizia eta Segurakoa baino askoz zabalagoa zen. Bere barnean 23 herri bildu zituen eta beste bi hiribilduetan ez ziren hamarrera ere iristen. Egoera honek lan-karga, joan-etorri eta gastu handiak ekarriko zituen. Ondorioz, herri-alkateak sortzeko arrazoietako bat ekonomia administratiboa litzateke, hainbat justizia eskumen bertako populazioetan uzteko aukera begi onez ikusiz.

(323) Ikus baita ere, TRUCHUELO GARCÍA, S. *La representación...*, aip. lan., 99 or., 235 oin-oharra.

(324) Edo J. A. Bonachía zenak zioen moduan, hiribilduko alkatearen aurrean jorratutako auzien igoera zela eta, “*establecer un sistema que evitara estancamientos y permitiera a su vez un desarrollo fluido y eficaz de los procesos*” (BONACHÍA HERNANDO, J. A. *El señorío de Burgos...*, aip. lan., 218 or.). 1541 urte amaieran, Amezketako alkate Martin Otsoa Aragaigaraskoak, Tolosatik Amezketako plazara malkarez betetako bi legoa luze (“*fragosas de montaña*”) zeudela aipatzen zuen (ARCHV. Pleitos Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3, 2 au. fol.). Gipuzkoarako, ikus SORIA SESÉ, L., aip. lan., 61-62 orr.

Ondorioak

Herrixken hiribilduratzea Gipuzkoako lurraldean zehar hedatutako fenomenoa izan zen. Gaztelako Koroan eman zirenekin alderatuta, ordea, ezohikoa. Gipuzkoako hiribilduen lurralde edo jurisdikzio-barrutiak ez ziren errege-dohaintzetan edo salerosketetan oinarritu. Egia da batzuetan salbuespenak izan zirela, Areso eta Leitza, kasu. Bien Tolosaratzea gerra gertakarien ondorioz gertatu zen baina bertan urte gutxi batzuk besterik ez zuten egin. Auzotze prozesua eta bere ondorioak ulertzeko, beraz, jurisdikziora sartzen ziren herrien naturari erreparatu behar diogu. Gehienak ez zeuden hiri-gutunak hiribilduari ematen zitzaion lurraldearen baitan eta bakoitzak bere dinamika eta bide propioa mantendu zuen XIV. mende amaiera arte.

Prozesu orokor horrek, baina, lekuan lekuko moldaketak izan zituen. Auzotze-hitzarmenek lerro nagusi edo baldintza orokor batzuk biltzen zituzten, ia eskritura gehienetan errepikatzen zirenak. Baina horiez gain, badaude guztietan agertzen ez ziren baldintzak, edo hobe esanda, hitzarmen bakoitzaren baitan propio bildutakoak. Ez gaude, beraz, horren hitzarmen homogeneoen aurrean.

Horietako adibide bat Ordizian eman zen. Batetik, orain arte zeharo ezezaguna zen 1382 eskritura dugu. Bertan islatzen den egoera ez du hiribildua leku onean uzten; aitzitik, inguruko lurraldearekiko kontrol eta nagusitasun zorrotza baino, antzinako Villafrancaren ahultasun puntua nabaria da. Urte horretan Ordiziaratu ziren herri zein auzoek oso baldintza onuragarriak lortu zituzten. Ahultasunaren adierazgarri, herrietako gizon-onek hiribilduko udalbatzaren hauteskundeetan parte hartzeko eskubidea dugu. Egoera hainbat urteren buruan aldatu zen, hein batean bederen. 1399 urtean sinatutako agirian testuinguru desberdin bat islatzen da. Inguruan ematen ari zen ezegonkortasunak nabarmen egin zuen gora eta horrek, 1382an baino jende eta herri gehiagoren auzotzea ekarri zuen. Egoera honetan, Ordiziak bere interesen alde egin zuen eta herriei baldintza berriak ezarri zizkien; besteak beste, aurreko kontratuan biltzen ez ziren ordainketak egitea. Alabaina, ez dirudi hauteskundeak egiteko erak aldaketarik izan zuenik eta herriek prozesu horretan leku izaten jarraitu zutela ematen du.

XIV. mendean hasitako prozesu hauen guztien ondoren, eta XV. mendeko bigarren erdialdean zehar, egoerak beste hainbat moldaketa izan zituen. Ez ziren oso sakonak izan, baina prozesu bitxi eta interesgarriak jazo ziren. Horietan nabarmenena, orain arte ilunpetan egon den Villabonaren Tolosaratzea dugu. Agidanez, auzotze hori irregulartasunez beterik egon zen

eta bertan, Villabonako hainbat auzok Tolosan barneratzeko zituzten interesak agerian geratu ziren. Horrek, auzotze mugimendu horien atzetik zeuden benetako arrazioen inguruan galderak egitera garamatza. Izan ere, eskrituretan ageri den komunitate horren borondatezkitasun hori ez zen uste bezain handia. Gertakari hauen guztien baitan populazio horietako biztanlerik garrantzitsuenek hiribilduan sartzeko ikusten zituzten onurak edo etekinak zeuden, baina baita hiribilduko auzoek herrixketan zituzten interesak edo jabetzak ere. Eta hauek guztiak justifikatu edo arrazoitzeko, beste biztanleen aurrean nahi eta nahi ez beste era batera aurkeztu behar ziren: hitzarmena guztien onerako edo komunitatearen mesedetan zela, alegia.

Bestalde, orain arte auzuneei oso paper xumea eman zaie udalbatzaren antolakuntzan. Dokumentazioak, berriz, hainbat esparrutara iristeko aukera izan zutela uzten du agerian, bai ikuspegi politikotik zein fiskaletik. Horrek, nolabait, hiribilduen izaera ia jauntxotiarrean ñabardurak sartzen ditu.

Esparru politikoari dagokionez, Ordizian zein Seguran, herrien kezka fiskalak esparru instituzionalean isla izan zuten, udal-kargu bat sortu zelarik, herri-fiel bezala ezagutu zena. Hiri-Landa munduko fiskalitateari lotutako kontuak jorratzen ziren batzarretan parte hartzeko eskubidea lortu zuen, goiz samar gainera. Seguran bere sorrera ondo baino hobeto dokumentatua dugu, noiz eta XV. mende hasieran. Herriek bakarrik izendatutako kargua zen, nahiz eta Ordizian hiribilduak ere nolabaiteko eskubidea izan. Horrez gain, Ordizian, eta 1382ko hitzarmenean adostutakoa jarraituz, herriek udalbatzaren hauteskunde prozesuetan parte hartzeko ahalmena izan zuten. Herrietako hamabi eta diputatuek, 16 hautesleetako 10 izendatzen zituen udalbatzar irekiko partaideak ziren, nahiz eta hautesle horiek nahitaez hiribildu barneko auzoak izan behar.

Tolosak, bere aldetik, Gipuzkoako korporazio-jaurgoetan ezohiko den konponbide bat abian jarri zuen. Bere baitan herriekiko arazoak ez ziren asko izan, baina horrek ez du esan nahi larritasunik agertu ez zirenik. Nagusiena, ezbairik gabe, 1435-50 epean sortutakoa izan zen. Auzi horren ondorioz, Tolosak hainbat herriren gaineko jurisdikzioa galdu egin zuen eta, gure aburuz, horrek bi aldeen arteko harremanak birplanteatzera eramane zuen. Horrek Segura eta Ordiziarekiko izan zuen desberdintasun nagusia ekarri zuen, herrixken eskumen jurisdikzionalen oinarrituta. 1500 urterako, bere jurisdikziopean zeuden herriek berezko alkatea izendatzeko eskubidea lortu zuten. Horrek ez du esan nahi ofizial hau hiribilduaren eraginetik guztiz at zegoenik; aitzitik, bere hautaketak hiribilduko alkatearen oniritzia jaso behar zuen eta herri-azapezak haren aurrean kargua zin egin behar zuen. Beraien

eskuduntzak oso mugatuak izan ziren, baina era berean sinbolismoz betetakoak, eta horri esker hiribilduaren ikuspegia “ama onaren” antzekoa izatera iritsi zitekeen. Gertakari hau emateko arrazoiak ez daude oso argi, baina gure ustetan Tolosak bere baitan hiribildu titulua zuten bi populazio-gune izatea kontu garrantzitsua izan zen. Horiek bere babespean hartuta, eskualdeko buruko udalbatzarrari, bere jurisdikzioan zeuden herri guztiak nolabait maila berean jartzeko ekimena otu zitzaion. Horrez gain, Tolosaren barruti jurisdikzional zabala pisuzko faktore izan zelakoan gaude. Ez zen bat ere samurra hogeï populazio-gune pasatxoren eskaera judizialak alkate bakarraren esku uztea. Ekonomia administratiboa, beraz, herri-alkateak sortzeko prozesurako akuilu izan zelakoan gaude.

Fiskalitateari dagokionez, hainbat herrixkek esparru politiko-jurisdikzionalan lekua izan zuten. Egituraketa honek kontularitza anitz baten sorrera ekarri zuen, Gipuzkoako korporazio-jaurgoetan argi eta garbi dakusaguna. Segura eta Ordizia horren lekuko bikaina dira. Kontabilitate eta finantza esparruak hiru ardatz izan zituen. Lehengo eta behin, hiribilduari berari zegokiona. Bigarrenik, hiribilduari eta herriei zegokiena; bertan gastu amankomunen inguruko kontuak sartzen ziren eta “Hiri-Landa” izenarekin ezaguna zen. Azkenik, partzuergoei buruzko kontuak ditugu. Egituraketa honi esker gastuen finantzaketa sistemetara hurbildu gara. Funtsean horiek aurrera eramateko ordainketa-sistema zuzena erabili zen, gastu-banaketetan oinarritutakoa. Sistema honen baitan, tokian tokiko moldaketak izan ziren. Seguran, deigarriena, hainbat herri ordaindu beharrekoaren laurdenetik salbuetsita geratzea izan zen; honen jatorrian XIV. mende amaieran sinatu ziren auzotze-hitzar-menak genituzke.

Bi hiribildu horien aurrean, Tolosak bestelako joera bat islatzen du. Bere kasuan, ez dugu Hiri-Landa munduari aipamenik egiten dion daturik topatu. Era berean, hiribildu eta herrien artean burutzen ziren gastu-banaketek oihartzun eskasa izan zuten. Inguruko hiribilduekin alderatuta, horrekin zerikusia duten eztabaidak oso urriak izan ziren, benetan urriak. XV. mende erdialdean gertatu ziren larrienak eta konponbide egoki baterako bidea ireki zutela dirudi; egokia, horren ondoren liskarrak hutsaren hurrengo izan zirelako. Tolosak bestelako irtenbide bati leku egin zion: zerga-ordainketa sistema zuzen batekin jarraitu zuen, baina banaketen orde, herri bakoitzari urtero diru-kopuru jakin bat ordaintzeko betebeharra ezarri zion. Hasieran, banaketak abian jartzeko urtero erroldak egiten ziren, baina XV. mendearen azken laurdenerako horiek egitea korapilatsua bezain arazoz beterikoa zen. Modu honetan, ordutik aurrera, herri bakoitzak urtero diru-kopuru jakin bat ordaintzeko sistema ezarri zen.

Eraskin dokumentala

1

1374, martxoak, 11. Andre Maria elizako ganbera (Tolosa)

Auzotze-hitzarmena, Abaltzisketa, Orendain, Amezketza, Baliarrain, Ikaztegietza, Altoz, Hernialde, Anoeta, Elduain, Berrobi, Belauntza, Lizartza, Ibarra, Leaburu, Gaztelu, Orexa eta Berastegiko herrixkek Tolosakorekin egindakoa.

ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3, 140 at.-143 au. folk. Endrike II.ak Valladoliden, 1374ko irailaren 4an egindako berrespen-gutunean txertatua. Azken idatzi hau, Joan Lak 1379ko abuztuaren 16an egindakoan sartua. Guztia, Valladoliden, 1542ko martxoaren 11n errege-epaitegiko eskribau Francisco Hernándezek egindako kopia eskuetsian.

ARChV. Pleitos Civiles. Fernando Alonso, Fenecidos, 1111-3, 269 au.-271 at. Tolosan 1541eko azaroaren 14an aurkeztua (kontratua bera, ez berrespenak). Zatikatua eta osatu gabea.

Ald.

GOROSABEL, P. de *Bosquejo de las antigüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa*, Tolosa 1853, Imprenta de la Viuda de Mendizábal, 26-27 orr.

En el nonbre de Dios e de Santa María, amén. Sepan quantos esta carta vieren cómo nos, el conçejo de la villa de Tolosa de Guipúzcoa e Lope Martines de Echeçarreta, alcalde, e Lope Martines de Olaçabal e Garçia Martines de Elduaraen, jurados, seyendo juntados a conçejo, a boz de pregonero, en la cámara de la yglesia de Santa María de la dicha villa, según que lo han de vso e de costumbre, de la vna parte, e seyendo en el dicho lugar Rodrigo de Arama, jurado de Abalçisqueta, e Martín de Ygasteguieta, jurado de Orendayn, e Juan Garçia de Çubilaga, jurado de Amézqueta, e Juan Bufón, jurado de Baliarrayn, e Sancho de Yturalde, jurado de Ycasteguieta, e los vezinos e moradores, omes buenos, publadores [sic] de los lugares de Albaçisqueta, Amezqueta, Baliarrain, Alço e Orendayn e Ycasteguieta e Martín Miguel de Mayos, jurado de Ernialde, e Sancho de Goyçqueta, jurado d'Anueta, e Ocho(a), jurado // ^{au.} de Elduaen, e Martín de Mintegui, jurado de Berrobi, Juan Pérez Biperi (?), jurado de Belavña, e Miguel de Babaça, jurado de Liçarça, e Miguel Lopez de Çuhume, jurado de Ybarra e de Leabru [sic], Martín de Castrillo [sic], jurado del dicho lugar de Castyello e de Orexa, e Martín Garçia de Arextin e Martín Ybanes de Sagastyberria, por sy y en nonbre de los vezinos del dicho lugar de Berástegui e los vezinos e moradores e omes de paz (~~e de guerra~~), pobladores de los lugares de Anoeta e Ernialde, de Ybarra, Leabro [sic], Liçarça, Castillo, Orexa, Berástegui, Eldiaen [sic], Eldua, Berrobi, en boz e por nonbre de cada vno de los dichos lugares, de la otra parte³²⁵.

(325) 1541eko azaroaren 14ko kopia eskuetsiak ez du “e Martín Miguel de Mayos”-tik “Eldiaen [sic], Eldua, Berrobi”-ra arteko zatia hartzen.

Amas estas dichas partes, syn fuerça e syn premia alguna, por su amigable plaçer, atoridad, por seruiçio de nuestro señor el rey, que Dios mantenga por muchos tyempos e buenos, e por pro e guarda e anparo de cada vno de los dichos lugares, fezieron abenimiento, postura entre sí, que los moradores de cada vno de los dichos lugares que no son henemistados e de treguas con henemigos, de ser vezinos de la dicha villa de Tolosa, por sy e por los que d'ellos desçendieren, para syenpre jamás, e de ser juzgados ellos e todos sus bienes muebles e rayzes, ganados e por ganar, d'ellos e de cada vno d'ellos, por el alcalde de la dicha villa de Tolosa que agora es o será de aquí adelante. El qual dicho conçejo de Tolosa que pueda poner su alcalde o alcaldes e jurados en la dicha villa de Tolosa, syn embargo ni contradición alguna de los dichos vezinos.

E otrosy, los dichos veçinos de cada vno de los dichos lugares, cada vno en su parrochia e lugar, que pueda poner su jurado.

Otrosy, el conçejo de la dicha villa de Tolosa que ayan en su poder sus términos, pastos, herbados e montes e aguas e soles [sic] e rentas y esquilmos e otras heredades qualesquier, para faser d'ellos y en ellos toda su propia boluntad syn embargo alguno de los dichos vezinos.

E otrosy, los dichos veçinos de cada vno de los dichos lugares, que ayan francos e libres e quitos sus términos, pastos e aguas e estados e montes e seles e otros derechos quales- // ^{at} quier que han e deben aver en qualquier manera, sin embargo e mala boz del dicho conçejo de Tolosa.

E otrosy, qu'el fiel de los dichos lugares y el dicho conçejo, que resçiban préstamo para los negoçios que les acaesçieren fasta en quinientos maravedís de vieja moneda por cada begada; e dende arriba, sy menester fuere, que lo fagan con sabiduría de los dichos veçinos.

Otrosy, para la costa e costas que fezieren el dicho conçejo e vesinos, que sean tenudos los dichos veçinos de cada vno de los dichos lugares de benir a repartyr e a pagar la costa según que a cada vno cupiere pagar (p̄) en su parte.

E otrosy, que los veçinos e moradores de los dichos lugares e de cada vno d'ellos, que sean tenudos de benir a los llamamyentos y enplazamientos que por el alcalde de la dicha villa les fueren fechos.

Otrosy, que paguen todos de consuno la soldada del andador de la dicha villa.

E otrosy, por franqueza que a los vezinos hazen, qu'el dicho conçejo les quite de la moneda que dan al prestamero e que sean francos e libres d'ella como los vezinos e moradores del cuerpo de la villa.

Otrosy, que todos los dapnos que sean fechos fasta el día de oy qu'esta carta es fecha de la vna parte a la otra, que sean perdonados e quitos saluo las cosas que encoiertamente por furto fueron fechas.

E cada vna de las dichas partes, por sy y en su lugar, renunciaron, ansy espeçialmente como generamente, todos quantos paramientos, posturas, abenimientos que

fast'al día de oy qu'esta carta es fecha hizieron o fermaron entre sí en qualquier manera por cartas o ynstrumentos o por palabra, con pena o sin pena e en otra manera qualquier, y espeçialmente las cartas e testymonios d'entre las dichas partes [que] hizo Juan Peres d'Otalora, escriuano público de Salbatyerra de Yravgui, que no demanden la vna parte a la otra en ningún tyempo, en ninguna manera, ante ningún juez, escriuano ni seglar ni en otro lugar de alguno. E sy lo fizieren, que no sean // ^{au.} ende oydos, escuchados ni cabidos ni resçibidos en juyzio ni fuera de juyzio ni en otro lugar alguno, saluo que lo contenido en esta carta sea firme e vala para syenpre jamás.

